CLARET

BIDE ZUZENA

4,50

82

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

M-68875
F-72806

A-V
30588

Zabala-Arana'tař Joseba
*Miren-Bijotz-Seme*
*Kalaretařa*

DONOKIRAKO

# BIDE ZUZENA

ETA

ESKIJEŘA

# KISTAŘ-OTOIDIJA

Claret Andoni Mª Aba Deunki,
Gongotzain, Miren-Bijotz-Semien Irasliak
erderaz idatzi ebana eredutzat ařturik egiña.

1935

*Jaubia dau*

VERDES-ATXIRIKA'TAŔ E'REN IRAŔKOLEAN
Correo txaideko 9'gn. - BILBAO

**Zabala-Arana eta Goiriena'tař Eskařne**

**E. A. B.'ko**

**ene ařeba mařiari**

*Zeuri opaldu biař, ařeba mače, sařiřan eskatu daustazun euzkerazko otoidijau.*

*Erderarik eztakixu, ta jakin biařik be eztozu ixan, Jaunari eskařak.*

*Idaztijau, ganera, gure Claret Aba Deunkijaren* CAMI DRET *edo* CAMINO RECTO *otoi-idazti ospatsuba osorik euzkeraztubaz egin dan lelengua dozu.*

CLARET *ixen onek, gero, gogorazoko dautzu gure ała-amatxu laztanak ziranetzazko gomuta gozorik!*

*A gongotzain deuna Lekeitio'n ezagun ebala-ta amaika bideř itz-egin bai'euskun ała guriak* ANE *(Arana) jayotetxe mała-gařijan.*

*Urtiak jun eta urtiak etoři, ała zintzu-aren esanak zirala bide, aren semietarik*

*iru Miren-Bijotzaren eta Claret Abearen seme ixatera eldu gintzazan.*

*Ořa, ba, neba gastiena nozun onek pozařen dopaltzut euzkerazko otoidijau; eta zeure bidez Bizkai'ko emakumiai, be.*

*Berton edozenbat otoi edeř-ta didorokezuz bijotz-eztigaři.*

*Geyen-geyenak Claret Aba Deunkijak idatzijak dozuz, erderazko 164'gařen irařkaldijan Miren-Bijotz-Semiak geřuriko apuřtxubak eta beste batenbat alde, «Aste beterako gogařte-gayak» batez be.*

*Euzkera gatxa erabiři dodala esango edo-dau iñok, baña, idatzi be, mordořo-zalientzat eztot idatzi.*

*Zuretzat bai-dakit uleřteřeza dana; eta bařdin ixango da euzkerazko idaztijak irakuřteko zaletasunik daben enparabentzat.*

*Idaztijau, zure goguan jauntzaletasuna geřuteko bide ixango al da!*

*Ordez-orde, zeure ototxetan gogoratu eikezu, ařen, neba kuluna dozun*

JOSEBA.



CL'ARET ANDONI MIRENA
ABA DEUNKIJA

Miren-Bijotz-Seme *Kalaretaŕ*en
Lekaidi-Iraslia

# CLARET ANDONI MIRENA

## ABA DEUNKIJA

Catalunya'ko Sallent (Barcelona) eŕijan jayo zan 1807'g. urteko lotazila-23'gn. Bere gurasuak, eundegi-jabiak ixanaŕen, aberatsak etziran, kistaŕ on eta langile zinduak, bai, baña. Andoni semia, be, eurek lakoxia zan.

Jaungoikua'k, baŕiz, Andoni gastia eungintzarako barik beste egintza andijaguetarako autetsi eban. 28 urtekua zala, 1835'gn., jaupaltzea aŕtu, ta lenengo urtietan bere eŕiko jauparija ixan zan. Andoni jauparijaren goguak leku zabalaguak biaŕ-ta, ziñestebakuen aŕteko belguntzetara juteko erabakija aŕtu eban. Oŕetarako, Roma'ra juan eta *Propaganda Fide*'ra auŕkeztu zan, baña, lasteŕ igaŕi eban Jaunaren naya ori etzana. Atzera egin eban, ba, Catalunya'ra 1840'g. urtian.

Uŕengo 8 urtietan, Viladrau eŕijan asita, eŕirik-eŕi belguntzetan ibili zan Catalunya osuan. Aldi onetan idatzi euzan idastijen aŕtian geyen zabaldu zana «Cami Dret» otoi-idaztija ixan zan. Lasteŕ argitaldu eban gazteleraz, be, «Camino recto» ixenaz (1). 1848'gn. Canarias ugaŕtietara jun zan belguntzetan.

1849'gaŕenian, atzera etoŕita, Miren-Bijotz-Semien Lekaidija irasi eban Vich'en.

1850'gn. Doipurubak Santiago de Cuba'ko gongotzain egin eban; eta 6 urtez ango biztanlien

(1) 1903'gaŕen urtian Tolosa'ko Lopez'enian euzkeraz, be, argitaldu zan; osorik ez baña. «ZERURAKO BIDE ZUZENA ETA SEGURUA... D. Manuel Antonio Antia, Urnieta'ko eŕetoreak euskerara itzulia». Euzkera mordoloz dago.

onerako egiztu ebana ařigařija ixan zan. Gaiztuak erail gura ixan eben; eta Holguín eřijan zauritu egin, be, bai.

1857'gn. Madrid'era etoři biařa jazo yakon, II Elixabete España'ko bakaldumiak bere autořentzule ixendau ebalako. Uřengo 11 urtietan bere idazti ta itxaldijakaz Madrid'en eta España'ko beste leku askotan Jaunaren aintzarako egin ebana ataтuteko, be, beredin ingoski biařko leukedaz.

Euzkadi'ra, be, etoři zan biřitan. 1866'g. urtian Zarautz'en, Donosti'n eta Gazteiz'en ixan zan. Donosti'ko Miren-Deun txadonan egin euzan txonitzak ospatsubak ixan ziran. Orduban Claret gongotzañak Donosti'n irasiriko Miren-Alabaen eta Koldobikařen bazkunak bai-dirabe oindiño. Bigařenez 1868'gn. etoři zan, España'ko matxiñadea baño lentxubago, Lekeitio'ra, ta ilabete egin eban berton. Leketařak, aren bixikerea ikusita, deuntzat etsi eben. eta joranez erduten ziran aren txonitxetara. Irala-17'gařenian Donosti'ra aldatu zan; eta 30'gn., España'ko matxiñadea zala-ta, France'ra.

Uřengo urtian Roma'ra jun zan; eta Vaticano'ko Batzař nagusijan itxaldi sutsuba egin eban Doipuruba'ren uskořeztasun-aldez. Ordurako makal eguan -eta, 1870'gn. France'ra etoři zan. Fontfroide'n il zan deunen erijotzaz, 1870-uřila-24'gn. Ilotza, bařiz, 1897'gařenian Vich'era ekaři zan, eta Miren-Bijotz -Semien txadonan dago.

Claret aba deunkijaren bixitza, ařigařija da. Josu -Kisto'ren onoimenak ziaro alakotu, Jaunagatik neke aundijak eta irañik baltzenak oldez jasan, eta geidiaren onerako itxez ta idatziz egiñalak egin: ořa, Claret abearen bixitza. Deunki iragařteko lenengo lanak 1887'gn. asi ziran; 1926'gn. bere onoimenak gurentzat emon ziran; XI Pi doipurubak, bařiz, alatz bi ontzat ařtuta, 1934-otsala-25'kn., *deunki* edo *zorundun* iragaři dausku. ¡Donokitik lagun bekigu!

# BETIKO EGUTEGIJA

## Igande-izkijakaz asteko egunak zelan igaŕi

Igande-izkijak saspi dira: A, G, K, Y, J, X, E. Asteko eguna idoroteko, jai-aldakoŕ-egutegija begit̄u: eskeŕaldekuan lenen urtiak eta gero igande -izkijak dira. Aipidez: Soŕkunde Oŕbangia 1935'g. urtian asteko zein egunetan ixango dan jakit̄eko. Lenen, eskeŕaldian urtia begit̄u ta gero igande -izkija (X); orain, lotazil̄ako egutegira jo, bai?, ta onduan X izkija daben egunak igandiak dozuz, edo 1, 8, 15, 22, 29. Oŕezkero, Soŕkunde-eguna igandia da; Josu-Jayotz-eguna, baŕiz, egubaztena.

1937'g. urtian igande-izkija K da-ta, onduan izki ori daben egunak igandiak ixan biaŕ. Oŕezkero 1937'gaŕeneko Soŕkunde-eguna egubaztena dozu: Josu-Jayotz-eguna, baŕiz, larunbatea.

Seibiko urtietan izki bi dira: 1936 J Y, 1940 E X, ta a. Lenengo izkija otsal̄ako 24'raŕte erabil̄ten da; bigaŕena, otsal̄ako 24'tik urte-azkenera. Seibiko urtiotan, otsal̄a-24'gaŕenan Modesta deuna ta otsal̄a-25'gaŕenan Mati deuna ospatuten dira.

Gurutzetxubak ✠ jai-eguna dikuŕe.

# JAI-ALDAKOŔ-EGUTEGIJA

| Urtia | l.-i. | Saspa-maŕkarua | Auts-eguna | Beŕbiz-kundia |
|---|---|---|---|---|
| 1933 | A | Otsala-12 | Epala-1 | Joŕala-16 |
| 1934 | E | Urtaŕila-28 | Otsala-14 | Joŕala-1 |
| 1935 | X | Otsala-17 | Epala-6 | Joŕala-21 |
| 1936 | J Y | Otsala-9 | Otsala-26 | Joŕala-12 |
| 1937 | K | Urtaŕila-21 | Otsala-10 | Epala-28 |
| 1938 | G | Otsala-13 | Epala-2 | Joŕala-17 |
| 1939 | A | Otsala-5 | Otsala-22 | Joŕala-9 |
| 1940 | E X | Urtaŕila-21 | Otsala-7 | Epala-24 |
| 1941 | J | Otsala-9 | Otsala-26 | Joŕala-13 |
| 1942 | Y | Otsala-1 | Otsala-18 | Joŕala-5 |
| 1943 | K | Otsala-21 | Epala-10 | Joŕala-25 |
| 1944 | G A | Otsala-6 | Otsala-23 | Joŕala-9 |
| 1945 | E | Urtaŕila-28 | Otsala-14 | Joŕala-1 |
| 1946 | X | Otsala-17 | Epala-6 | Joŕala-21 |
| 1947 | J | Otsala-2 | Otsala-19 | Joŕala-6 |
| 1948 | Y K | Urtaŕila-25 | Otsala-11 | Epala-28 |
| 1949 | G | Otsala-13 | Epala-2 | Joŕala-17 |
| 1950 | A | Otsala-5 | Otsala-22 | Joŕala-9 |
| 1951 | E | Urtaŕila-21 | Otsala-7 | Epala-25 |
| 1952 | X J | Otsala-10 | Otsala-27 | Joŕala-13 |
| 1953 | Y | Otsala-1 | Otsala-18 | Joŕala-5 |
| 1954 | X | Otsala-14 | Epala-3 | Joŕala-18 |
| 1955 | G | Otsala-6 | Otsala-23 | Joŕala-10 |
| 1956 | A E | Urtaŕila-29 | Otsala-15 | Joŕala-1 |

# JAI-ALDAKOŔ-EGUTEGIJA

| Urtia | Igo-kundia | Etoŕ-kundia | Joskor-putza | Elgarua |
|---|---|---|---|---|
| 1933 | Oŕil̄a-25 | Bagil̄a-4 | Bagil̄a-15 | Lotazil̄a-3 |
| 1934 | Oril̄a-10 | Oŕil̄a-20 | Oŕil̄a-31 | Lotazil̄a-2 |
| 1935 | Oŕil̄a-30 | Bagil̄a-9 | Bagil̄a-20 | Lotazil̄a-1 |
| 1936 | Oŕil̄a-21 | Oŕil̄a-31 | Bagil̄a-11 | Azil̄a-29 |
| 1937 | Oŕil̄a-6 | Oŕil̄a-16 | Oŕil̄a-27 | Azil̄a-28 |
| 1938 | Oŕil̄a-26 | Bagil̄a-5 | Bagil̄a-16 | Azil̄a-27 |
| 1939 | Oŕil̄a-18 | Oŕil̄a-28 | Bagil̄a-8 | Lotazil̄a-3 |
| 1940 | Oŕil̄a-2 | Oŕil̄a-12 | Oŕil̄a-23 | Lotazil̄a-1 |
| 1941 | Oŕil̄a-22 | Bagil̄a-1 | Bagil̄a-12 | Azil̄a-30 |
| 1942 | Oŕil̄a-14 | Oŕil̄a-24 | Bagil̄a-4 | Azil̄a-29 |
| 1943 | Bagil̄a-3 | Bagil̄a-13 | Bagil̄a-24 | Azil̄a-28 |
| 1944 | Oŕil̄a-18 | Oŕil̄a-28 | Bagil̄a-8 | Lotazil̄a-3 |
| 1945 | Oŕil̄a-10 | Oŕil̄a-20 | Oŕil̄a-31 | Lotazil̄a-2 |
| 1946 | Oŕil̄a-30 | Bagil̄a-9 | Bagil̄a-20 | Lotazil̄a-1 |
| 1947 | Oŕil̄a-15 | Oŕil̄a-25 | Bagil̄a-5 | Azil̄a-30 |
| 1948 | Oŕil̄a-6 | Oŕil̄a-16 | Oŕil̄a-27 | Azil̄a-28 |
| 1949 | Oŕil̄a-26 | Bagil̄a-5 | Bagil̄a-16 | Azil̄a 27 |
| 1950 | Oŕil̄a-18 | Oŕil̄a-28 | Bagil̄a-8 | Lotazil̄a-3 |
| 1951 | Oŕil̄a-3 | Oŕil̄a-13 | Oŕil̄a-24 | Lotazil̄a-2 |
| 1952 | Oŕil̄a-22 | Bagil̄a-1 | Bagil̄a-12 | Azil̄a-30 |
| 1953 | Oŕil̄a-14 | Oŕil̄a-24 | Bagil̄a-4 | Azil̄a-29 |
| 1954 | Oŕil̄a-27 | Bagil̄a-6 | Bagil̄a-17 | Azil̄a-28 |
| 1955 | Oŕil̄a-19 | Oŕil̄a-29 | Bagil̄a-9 | Azil̄a-27 |
| 1956 | Oŕil̄a-10 | Oŕil̄a-20 | Oŕil̄a-31 | Lotazil̄a-2 |

## Jai aldakoṙak

**Josu ixen deuna:** urteko lenengo igandian.

**Sendi Deuna:** Erakuskunde-osteko I igandian.

**Miren Ama Neskutzaren Nekiak:** Nekauste-igande-osteko barikuban.

**Joseba Deunaren Ospakundia:** Igaratz-osteko III egubaztenan.

**Irukoitz Deuna:** Etoṙkunde-osteko igandian.

**Josu'ren Bijotz Deuna:** Joskorputz-osteko II barikuban.

**Miren'en Bijotz Garbija:** Dagonil̃ako azken-igande-auṙeko larunbatean.

**Josu-Kisto'ren Bakalduntza:** uṙil̃ako azken igandian.

## URTARIĹA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | A | ✠ **Josu-Biĺebaikundia.** (Bilbai, Bilbañe, umiai imint́eko). |
| 2 | G | Antioki'ko Ixidora deuna, autoŕlia. |
| 3 | K | Anter d., doipuru ziñopea. |
| 4 | Y | Tiŕa d., gotzaña. |
| 5 | J | Telespor d., doipuru ziñopea. |
| 6 | X | ✠ **Jauna-Erakuskundia** |
| 7 | E | Luken d., ziñopea. |
| 8 | A | Seberin d., ziñopea. |
| 9 | G | Julen d., ziñopea. |
| 10 | K | Nikanor d., ziñopea. |
| 11 | Y | Ikiñi d., doipuru ziñopea. |
| 12 | J | Arkadí d., zinopea. |
| 13 | X | Lontzi d., gotzaña. |
| 14 | E | Ílari d., gotzaña. |
| 15 | A | Paul d., ĺenengo lekautija. |
| 16 | G | Markel d., doipuru ziñopea. |
| 17 | K | Andoni d., lekaipuŕuba. |
| 18 | Y | Kepa deunaren Irakastolea, Roma'kua (Irakas, Irakasne). |
| 19 | J | Kanuta d., bakalduna. |
| 20 | X | Paben eta Sebasten dk., ziñopeak. |
| 21 | E | Iñese d., neskutz ziñopea. |
| 22 | A | *Bingen d., bizkataŕa odolez,* ta Anastasi zk. |
| 23 | G | Peñafort Eŕaimunda d., autoŕlia. |
| 24 | K | Gentzadun Ama Neskutza. Timota d., g. z. |
| 25 | Y | Paul deunaren Donekundia. (Dona, Done). |
| 26 | J | Poluikarpa d., gotzain ziñopea. |
| 27 | X | Jon Kixostoma d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 28 | E | Julen d., gotzaña. |
| 29 | A | Sales'taŕ Pantzeska d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 30 | G | Martiñe d., neskutz ziñopea. |
| 31 | K | Nolasko Kepa d., autoŕle iraslia. |

## OTSALA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Y | Iñaki d., gotzaña ta ziñopea. |
| 2 | J | **Ama Neskutza Garbikundia.** *Adabalda d., z., lapurdit̄aŕa odolez?* |
| 3 | X | Balasi d., gotzaña ta ziñopea. |
| 4 | E | Corsino't̄aŕ Ander d., gotzaña. |
| 5 | A | *Igokundia'ren Martin d., z., gipuzkuaŕa.* Agate d., n, z. |
| 6 | G | Tit̄a d., gotzaña; *Mauroncta d., lekaipuruba, lapurditaŕa.* |
| 7 | K | Eŕomolda d., lekaipuruba ta iraslia. |
| 8 | Y | Mata't̄aŕ Jon d., iraslia; *Amanda d., zuberotaŕa.* |
| 9 | J | Kuiril d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 10 | X | Eskolastike d., neskutza. |
| 11 | E | **Lourdes'ko Ama Neskutza.** (Lurta, Lurte). |
| 12 | A | Eulale d., n z.; Saspi Irasliak. |
| 13 | G | Benin d , ziñopea; Ricci't̄aŕ Katariñe d., n. |
| 14 | K | Balendin d., ziñopea. |
| 15 | Y | Paustin eta Jobit̄a dk., anai ziñopeak. |
| 16 | J | Julene d., neskutz ziñopea. |
| 17 | X | Kapadozia't̄aŕ Julen d., ziñopea. |
| 18 | E | Simeon d., gotzain ziñopea. |
| 19 | A | Gabin d., ziñopea. |
| 20 | G | Lon d., gotzaña. |
| 21 | K | Seberen d., gotzain ziñopea; Irene d., n. |
| 22 | Y | Kepa deunaren Irakastolea, Antiokia'kua. (Irakas, Irakasne). |
| 23 | J | Kepa Damen d., janzkoŕdun gotzaña ta Ir. |
| 24 | X | **Mati belduba;** Modesta d., gotzaña. |
| 25 | E | Bit̄or ta lagun ziñopeak. |
| 26 | A | Nestor d., gotzaña ta ziñopea. |
| 27 | G | *Ama Neketsubaren* Gabirel d., autoŕlia. |
| 28 | K | Eŕoman d., lekaipuruba. |

# EPALA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Y | Eŕosenda d., gotzaña. |
| 2 | J | Luki d., gotzaña ta ziñopea. |
| 3 | X | *Emeteri ta Keledoni dk., ziñopeak, Kalaguŕi'n.* |
| 4 | E | Kasimir d., autoŕlia. |
| 5 | A | Poka d., ziñopea. |
| 6 | G | Perpete ta Pelikit̄e dk., ziñopeak. |
| 7 | K | Akino't̄aŕ Toma d., autoŕlia ta irakaslarija. |
| 8 | Y | *Beremuuda d., Iratxe'ko lekuipuru napaŕtaŕa.* Jaungua'ren Jon d., au. |
| 9 | J | Pantzeske Ormataŕa d., alarguna. |
| 10 | X | Laramaŕ ziñopeak, Kuirun eta. |
| 11 | E | Eulogi d., ziñopea; *Aure d., otzeŕitaŕa (eŕiojataŕa).* |
| 12 | A | Gergori Gurena, doipuruba ta irakaslarija. |
| 13 | G | Eŕodeika d., z.; Sabin d. z. |
| 14 | K | Matilde d., bakaldumia. |
| 15 | Y | Longin d., ziñopea; Eŕaimunda d,, lekaipuruba. |
| 16 | J | Ilari d., z.; *Eusebe d., n., lapurditaŕa.* |
| 17 | X | Patirki d., gotzaña ta au. |
| 18 | E | Kuiril d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 19 | A | ✠ **Joseba deuna, Miren Neskutza'ren Senaŕa.** |
| 20 | G | Arkipa d., au.; Niketa d., g. |
| 21 | K | Bedita d., lekaipuruba ta iraslia. |
| 22 | Y | Paul d., g.; Katariñe d. n. |
| 23 | J | Oriol Joseba d., au.; Bit̄oren d., z, |
| 24 | X | Gabirel gongotzona. |
| 25 | E | **Ama Neskutza'ren Deikundia.** (Dei, Deñe). |
| 26 | A | Baurli d., g.; Peli d., g. |
| 27 | G | Jon Damaskotaŕa, autoŕlia ta irakaslarija. |
| 28 | K | Kapistrano't̄aŕ Jon d., autoŕlia. |
| 29 | Y | Eustasi d., lekaipuruba. |
| 30 | J | Pastor d. g.; Jon d., lekaipuruba. |
| 31 | X | Balbiñe d. n.; Amos iragaŕlia. |

## JOŔALA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | E | Benantzi d., g. z.; Todore d. z. |
| 2 | A | Paula'ŕaŕ Pantzeska d., au. ta iraslia. |
| 3 | G | I Sixta d., doipuru z.; Eŕikarta d., g. |
| 4 | K | Ixidor d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 5 | Y | Ferrer Bingen d , au. |
| 6 | J | Timota ta Dugen dk., ziñopeak. |
| 7 | X | Epipani d., gotzain ziñopea. |
| 8 | E | Dunixi d., gotzaña. |
| 9 | A | Miren Kelope d.; Uga d., g. |
| 10 | G | Ezekel d., iragaŕlia. |
| 11 | K | I Lon d., doipuruba ta irakaslarija. |
| 12 | Y | Zenon d., g.; Bixe d., n. z. |
| 13 | J | Kermeilda d., ziñopea. |
| 14 | X | Justin d., ziñopea. |
| 15 | E | Basilixe ta Anastase dk., ziñopeak. |
| 16 | A | Toribi d., g.; *Zubiru'taŕ Bernarde d., n., odolez euzkotaŕa?* |
| 17 | G | *Josu'ren Miren Ane deunkija, n. lekaimia, napaŕtaŕa odolez;* Aniketa, d., doi. z. |
| 18 | K | Apoloni d., ziñopea. |
| 19 | Y | IX Lon d., doipuru; Bingen d., z. |
| 20 | J | Iñese d., neskutz domekaŕa. |
| 21 | X | Antselma d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 22 | E | Soter ta Kaya dk , doipuru zk. |
| 23 | A | Gorka d., ziñopea. |
| 24 | G | Sigmaringa'ṫaŕ Pidel d., ziñopea. |
| 25 | K | **Marka d , goizpaŕgilia.** |
| 26 | Y | Kelda ta Markelin dk , doipuru ziñopeak. |
| 27 | J | Kanisi Kepa d., josulauna ta Irakasl. |
| 28 | X | *Armenṫia'ṫaŕ Purdentzi d. g.;* Gurutzaren Paul d. au. |
| 29 | E | Verona'ṫaŕ Kepa, d., ziñopea. |
| 30 | A | Sena'ṫaŕ Katariñe d., nezkutza. |

# OŔIL̄A

| | | |
|---|---|---|
| 1 | G | **Pil̄ipa ta Jagoba Txikaŕa, beldubak.** |
| 2 | K | Atanasi d., gotzaña ta irakasl. |
| 3 | Y | **Gurutz Deuna-Auŕkikundia.** (Auŕki, Auŕkiñe). |
| 4 | J | Monike d , alarguna. |
| 5 | X | *Mauronda, d., l̄ekaipuru lapuŕdil̄aŕa.* V Pi d., d. |
| 6 | E | Jon, belduba, **Ante Portam Latinam.** |
| 7 | A | Estanisla d., gotzain ziñopea. |
| 8 | G | **Mikel Gongotzon deunaren Ageŕkundia** (Ageŕ, Ageŕne). |
| 9 | K | Gergori Nazentzaŕa, gotzaña ta irakasl. |
| 10 | Y | Andonin g.. gongotzaña. |
| 11 | J | Pantzeska d., au., josulauna, Mamerta d., g. |
| 12 | X | *Aŕibide'ko Domeka d., au., otzeŕil̄aŕa; Eŕil̄urde d., lekenburu zuberotaŕa;* Nera d.. z. |
| 13 | E | Bellarmino Eŕoberta d., g. ir. |
| 14 | A | *Garaikoetxea'tar Mikel deunkija, Betaŕandaŕen . iraslia;* Bonipati d., z. |
| 15 | G | La Salle'taŕ Jon Ugutz d. au. iras.; Ixidor d., lugiña. |
| 16 | K | Ubalda d., gotzaña. |
| 17 | Y | Bailon Paskal, autoŕlia, pantzeskaŕa. |
| 18 | J | Benantzi d., ziñopea. |
| 19 | X | Kepa Kol̄estin d.. doipuruba. |
| 20 | E | Sena'tar Bernardin d., autoŕlia. |
| 21 | A | Sekundin d., ziñopea. |
| 22 | G | Casia'taŕ Eŕil̄e d., alarguna ta lekaimia. |
| 23 | K | Desideri d., gotzaña; Eupebi d., g. |
| 24 | Y | Bingen d., z.; Eŕobusten d., z. |
| 25 | J | VII Gergori d., doipuruba. |
| 26 | X | Neri Pil̄ipa d., autoŕlia ta iraslia. |
| 27 | E | Beda Aguŕgaŕija, d., au. ta irakaslarija. |
| 28 | A | Augustin d., Kantorbery'ko gotzaña, au. |
| 29 | G | Pazzis'taŕ Miren Matale, d., n. |
| 30 | K | I Peli d., doipuru ziñopea. |
| 31 | Y | **Miren Neskutza, Eskaŕ Gustidun Bil̄aŕtekua.** (Bil̄aŕta, Bil̄aŕte). |

## BAGILA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | J | Iñaki d., lekaipuruba. |
| 2 | X | Markelin, Kepa ta Erasma, dk., zk. |
| 3 | E | Ixaka d., z.; Kotilde d., bakaldumia. |
| 4 | A | Caracciolo Pantzezka d., au. ta iraslia. |
| 5 | G | Bonipagi d., gotzain ziñopea. |
| 6 | K | Norberta d , gotzaña ta iraslia. |
| 7 | Y | Paul d., gotzain ziñopea. |
| 8 | J | Masimin d., gotzaña. |
| 9 | X | Pirma ta Peliken dk., ziñopeak. |
| 10 | E | Margariťe d., nezkutz bakaldumia. |
| 11 | A | **Bernaba d., belduba.** |
| 12 | G | Sahagun'daŕ Jon, autoŕlia; *Biťor d., lugiña, arabaŕa.* |
| 13 | K | Padua'ko Andoni d., autoŕlia. |
| 14 | Y | Basiľi Gurena d., gotzaña ta irakasl. |
| 15 | J | Biťa, Modesta ta Keskentze, dk., ziñopeak. |
| 16 | X | Regis'taŕ Jon Pantzeska d., autoŕlia. |
| 17 | E | Montan d., gudarija. |
| 18 | A | Eperna, d., autoŕlia ta irakaslarija. |
| 19 | G | Falconieri'taŕ Julene d., neskutza. |
| 20 | K | Silberi d., doipuru ziñopea. |
| 21 | Y | Gonzaga Koldobika d., au.; *Orose d., neskutz lapurdiťaŕa.* |
| 22 | J | Paulin d., gotzaña ta autoŕlia. |
| 23 | X | Jon eta Peli dk., ziñopeak. |
| 24 | E | **Jon Ugutzari deuna.** |
| 25 | A | Gilelma d , lekaipuruba; *Orose d. n., bayonaŕa; Peli d., otzeŕitaŕa.* |
| 26 | G | Jon eta Paul dk., anai zinopeak. |
| 27 | K | Zoil eta lagun deunak, ziñopeak. |
| 28 | Y | Iren d., g. a. |
| 29 | J | ✠ **Kepa ta Paul Beldu deunak.** |
| 30 | X | Paul deunaren Gomutakundia. *Koltsinde d., n. lekaimuruba, lapurdiťaŕa; Marken d., z., Iruña'ko gotzaña.* |

# GARILA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | E | **Josu-Kisto'ren Odol deuna.** *Simon d., lugiña napaŕtaŕa.* |
| 2 | A | **Ama Neskutza-Ikeŕkundia.** (Ikeŕ, Ikeŕne). |
| 3 | G | II Lon d., doipuruba. |
| 4 | K | *Beŕiotxoa'taŕ Balendin deunkija,* g. z |
| 5 | Y | Andoni Mirena Zakari d., autoŕlia. |
| 6 | J | Ixai d., iragaŕlia. |
| 7 | X | *Pirmin d., g. z., napaŕtaŕa.* Kuiril eta Metodi dk., gotzañak. |
| 8 | E | Elixabete d., Portugal'eko bakaldumia. |
| 9 | A | Julianis'taŕ Beronike d., lekaimuruba. |
| 10 | G | Sekunde ta Eŕupiñe dk., neskutzak. |
| 11 | K | I Pi d., doipuru ziñopea. |
| 12 | Y | Golberta Jon d., lekaipuruba. |
| 13 | J | *Masimilen d., z., Kalaguŕi'ko Igotzaña, napaŕtaŕa.* |
| 14 | X | Bonabendur d., janzkoŕdun gotzain eta irakasl. |
| 15 | E | *Zudaire'taŕ Estepan eta Mayorga'taŕ Jon, deunki ziñopeak. Arana'taŕ Pantzezka deunkija, z., gipuzkuaŕa.* |
| 16 | A | **Karmel'go Ama Neskutza.** |
| 17 | G | Ales d., autoŕlia. |
| 18 | K | Lelis'taŕ Kamil d., autoŕlia ta iraslia. |
| 19 | Y | *Kadireta'taŕ Kepa deunkija, z. domekaŕa, napaŕtaŕa.* Paul'daŕ Bingen iraslia |
| 20 | J | Jeronima Emilen d., autoŕlia ta iraslia. |
| 21 | X | Partsede d., n.; Danel iragaŕlia. |
| 22 | E | Miren Matalaŕa d., garbaiduna. |
| 23 | A | Apoliñari d., gotzain ziñopea. |
| 24 | G | Kistiñe d., neskutz ziñopea. |
| 25 | K | ✠ **Jagoba Nagosija, belduba.** |
| 26 | Y | Ane deuna, Miren Neskutzaren Ama. |
| 27 | J | Pandalon d., ziñopea, sendagilia. |
| 28 | X | Nazari ta Keltza dk., ziñopeak. |
| 29 | E | Marte d., neskutza. |
| 30 | A | Aton eta Senen dk., ziñopeak. |
| 31 | G | *Loyola'taŕ Iñaki deuna, autoŕlia ta iraslia.* |

# DAGONILA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | K | Kepa d. *ad Vincula*. |
| 2 | Y | **Gotzontza-Ama Neskutza**. Ligorio'taŕ Albontsa d. g., iraslia ta irakasl. |
| 3 | J | Estepan lenengo ziñopearen Auŕkikundia. |
| 4 | X | Guzman'daŕ Domeka d., au. ta iraslia. |
| 5 | E | **Eduŕetako Ama Neskutza** (Eduŕ, Eduŕne). |
| 6 | A | **Josu-Irudibijakundia**. II Sista d., doipuruba; *Estepan d., z. lekaipuruba, otzeŕil̄aŕa*. |
| 7 | G | Gayetan d., au ta iraslia. |
| 8 | K | Kuireka ta lagun ziñopeak. |
| 9 | Y | Eŕoman d., ziñopea. |
| 10 | J | Laurentzi d., ziñopea. |
| 11 | X | Tiburtzi d., ziñopea, |
| 12 | E | Kalare d., neskutza ta iraslia. |
| 13 | A | Ipolit̄a ta Kasen dk., ziñopeak. |
| 14 | G | Eusebi d., autoŕlia. |
| 15 | K | ✠ **Ama Neskutza-Jasokundia** (Jaso, Jasone). |
| 16 | Y | **Jokin deuna, Ama Neskutzaren At̄ea**. |
| 17 | J | Jakinda d., autoŕlia. |
| 18 | X | Agapit̄a d., ziñopea. |
| 19 | E | Koldobika d., gotzaña. |
| 20 | A | Bernarta d., lekaipuruba, iraslia ta irakasl. |
| 21 | G | Jone Pantzeske d., alargun ta iraslia. |
| 22 | K | Timota d., ziñopea. |
| 23 | Y | Pil̄ipa d., autoŕlia. |
| 24 | J | **Bartolma d., belduba**. *Ikuŕtona'ren Mikele, d., iras., (amea napaŕtaŕa)*. |
| 25 | X | Koldobika d., bakaldun autoŕlia. |
| 26 | E | Keperin d., doipuru ziñopea; *Bit̄or d., z., otzeŕil̄aŕa*. |
| 27 | A | Calasanz'taŕ Joseba d., au. ta iraslia. |
| 28 | G | Augustin d., gotzaña, iraslia ta irakasl. |
| 29 | K | Jon Ugutzari deunaren Buruingundia. |
| 30 | Y | Lima'taŕ Eŕose d. neskutza. |
| 31 | J | Eŕamun Nonata d., autoŕlia. |

## IRALA

1 X Egidi d., lekaipuruba; *Bingen d., g. z., lapurdiťaŕa.*
2 E Estepan d., bakaldun autoŕlia; *Dardan'daŕ Pantzeska deunkija, z., izturiztaŕa.*
3 A Serape d. n. z.; Basilixe d., n. z.
4 G Mois iragaŕlia. Eŕose d. n.
5 K Laurentzi Justiñen d., gotzaña.
6 Y Zakari iragaŕlia. Eukeni d. z.
7 J Eŕegiñe d. n. z., Nemori d. z.
8 X **Ama Neskutza'ren Jayotza;** *Arantzazu'ko Ama (Arantza, Arantzane).*
9 E Gorgoni d., ziñopea.
10 A Tolentino'taŕ Nikola d., autoŕlia.
11 G Porta ta Jakinda dk., ziñopeak.
12 K **Miren ixen edeŕa.** *Zumaŕaga'taŕ Toma, deunkija, z., gazteiztaŕa.*
13 Y Pilipa d., ziñopea,
14 J Gurutz Deuna-Gorakundia. (Gora, Gorane).
15 X **Ama Neskutza'ren Neke aintzatsubak.** (Neka, Nekane).
16 E Korneli d., doipuru ziñopea.
17 A Asis'taŕ Pantzeska deunaren Zaurijak Irazkundia. (Iraza, Iraze).
18 G Cupertino'taŕ Joseba d., au.
19 K Genar d., gotzain ziñopea; *Orozko'taŕ Albontsa deunkija, z., bizkaťaŕa.*
20 Y Eustaki ta emaste-seme ziñopeak.
21 J Matai d., belduba ta goizpaŕgilia.
22 X Villanueva'ko Toma d., gotzaña.
23 E Lin d., doipuru ziñopea,
24 A Eskaŕdun Ama Neskutza. (Eskar, Eskaŕne).
25 G Kelopa d., z.; *Pormeri d., z., otzeŕiťaŕa.*
26 K Kipiren eta Justiñe dk., zinopeak.
27 Y Kosma ta Damen dk., ziñopeak.
28 J Bentzesla d., ziñopea.
29 X **Mikel Gongotzon deunaren Eskingundia.**
30 E Jeronima d., autoŕlia ta irakaslarija.

## URILA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | A | Eŕemigi d., gotzaña. |
| 2 | G | Gotzon Jaboliak, |
| 3 | K | Josu Umiaren Terese d., neskutza. |
| 4 | Y | Asis'taŕ Pantzeska d., au. ta iraslia. |
| 5 | J | Palgida d., ziñopea, ta lagunak |
| 6 | X | Burna d., au. ta iraslia. |
| 7 | E | **Aguŕtzadun Ama Neskutza.** (Aguŕ, Aguŕne). |
| 8 | A | Birkide d., alarguna. |
| 9 | G | Dunixi d., gotzaña, ta lagun ziñopeak. |
| 10 | K | *Birila d., Leire'ko lekaipuruba.* Borja'taŕ Pantzeska d., au. |
| 11 | Y | **Begoña'ko Ama Neskutza,** Bizkai-Zaindarija. |
| 12 | J | **Pilar'ko Ama Neskutza.** |
| 13 | X | Edorta d., bakaldun autoŕlia. |
| 14 | E | Kalista d., doipuru ziñopea. |
| 15 | A | Josu'ren Terese d., neskutza ta iraslia. |
| 16 | G | Gal d., lekaipuruba; Gerarta d , au |
| 17 | K | Edubige d., alarguna |
| 18 | Y | **Luka deuna, goizpaŕgilia.** |
| 19 | J | Alcantara'taŕ Kepa d., au ta iraslia; *Garat d., g., zuberotaŕa.* |
| 20 | X | Jon Kanti d , autoŕlia. |
| 21 | E | Ilarun d., lekaipuruba |
| 22 | A | Miren Salome d., alarguna. |
| 23 | G | Kepa Paskal d , gotzain ziñopea. **Klaret Andoni Mirena deunkija, gongotzain iraslia.** |
| 24 | K | Eŕapel gongotzona. |
| 25 | Y | Kirtsanda ta Dare dk. ziñopeak |
| 26 | J | Ebaista d , doipuruba ta ziñopea. |
| 27 | X | Bingen, Sabiñe ta Kistete dk., zk. |
| 28 | E | **Simon eta Juda, beldubak.** |
| 29 | A | Narkis d., gotzaña. |
| 30 | G | *Babil d., z., Iruña'ko gotzaña.* Rodriguez Albontsa d., au |
| 31 | K | Kindin d., ziñopea. |

## AZILA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Y | ✠ **Deun Ororen Jaya.** (Deunoro, Deunore). |
| 2 | J | Gokaxuen Gomutaldija. Eustoke d. n. z. |
| 3 | X | Balendin eta Ilari dk., ziñopeak. |
| 4 | E | Karla Boŕometaŕa d., gotzain janzkoŕduna. |
| 5 | A | Zakari ta Elixabete dk., Jon U.'ren gurasuak. |
| 6 | G | Seber d., gotzaña ta ziñopea. |
| 7 | K | Andoni ta lagun ziñopeak. |
| 8 | Y | Seber, Seberen, Karpopor ta Biŕorin anai zk. |
| 9 | J | **Erosliaren Jauretxe gurena-iskingundia.** (Iskin, Iskiñe). |
| 10 | X | Ander Abelin d., autoŕlia. |
| 11 | E | Martin d., gotzaña. |
| 12 | A | Martin d., doipuru ziñopea; *Emilen d., otzeŕilaŕa.* |
| 13 | G | Koska'taŕ Estanisla d., au.; Didaka d., au. |
| 14 | K | Josapata d., gotzain ziñopea |
| 15 | Y | Alberta Gurena d., gotzaña ta irakasl. |
| 16 | J | Gerturde, d., neskutza. |
| 17 | X | Gergori Alazgile d., gotzaña. |
| 18 | E | Eŕoman d., z.; Masima d., gotzaña; **Kepa ta Paul beldu deunen Jauretxe-iskingundia.** |
| 19 | A | Elixabete d., alarguna. |
| 20 | G | Valois'taŕ Peli d., au., iraslia. |
| 21 | K | **Ama Neskutza Auŕkezkundia** (Auŕkez, Auŕke). |
| 22 | Y | Koikile d., neskutz ziñopea. |
| 23 | J | Kelmen d., doipuru ziñopea. |
| 24 | X | Gurutza'ren Jon d., autoŕlia. |
| 25 | E | Katariñe d., neskutz ziñopea; *Gartzi d., lekaipuru otzeŕilaŕa.* |
| 26 | A | Silbester d., lekaipuruba; Kepa Alesandin d., g. z. |
| 27 | G | Pakunda ta Pirmiŕiba dk., ziñopeak. |
| 28 | K | Aŕupa d., ziñopea. |
| 29 | Y | Saturnin d., g. z., Iruña'ren Zaindarija. |
| 30 | J | **Ander,** belduba. |

## LOTAZIĹA

| | | |
|---|---|---|
| 1 | X | Eloi d., gotzaña; Natale d., alarguna |
| 2 | E | Bibene d., neskutz ziñopea. |
| 3 | A | *Jabieŕ'taŕ Pantzeska d., au., napaŕtaŕa.* |
| 4 | G | Kepa Kirtsologa d.; Barbare d., n. z. |
| 5 | K | Saba d., lekaipuruba. |
| 6 | Y | Bari'taŕ Nikola d., gotzaña |
| 7 | J | Anbortsi d., gotzaña ta irakaslarija. |
| 8 | X | ✠ **Ama Neskutza'ren Soŕkunde oŕbangia.** Bizkaya ta Gipuzkoa'ren Zaindarija. |
| 9 | E | Lokade d., neskutz ziñopea. |
| 10 | A | Loreto'ko Ama Neskutza. (Loreta, Lorete). |
| 11 | G | Damas d., doipuruba. |
| 12 | K | Guadalupe'ko Ama Neskutza. (Godalupa, Godalupe) |
| 13 | Y | Luke d., neskutz ziñopea. |
| 14 | J | Nikasi d., gotzaña ta ziñopea. |
| 15 | X | Iren d. eta lagun ziñopeak. |
| 16 | E | Eusebi d., gotzaĩn ziñopea. |
| 17 | A | Elazar d., gotzaña, Josu'k ilpiztuba |
| 18 | G | Eŕupa ta Zosima dk., ziñopeak. |
| 19 | K | Nemesi d., ziñopea. |
| 20 | Y | *Silos'ko Domeka d., lekaipuruba, otzeŕiĺaŕa.* |
| 21 | J | **Toma d., belduba.** |
| 22 | X | Demetir d., ziñopea. |
| 23 | E | Biťore d., neskutz ziñopea. |
| 24 | A | *Delbin d. g., Iruña'n jayua;* Gergori d., z. |
| 25 | G | ✠ **Josu-Kisto'ren Jayotza.** *Aldasende d., lekemuru napaŕtaŕa.* |
| 26 | K | Estepan d., lenengo ziñopea |
| 27 | Y | **Jon d., belduba ta goizpaŕgiĺia.** |
| 28 | J | Seĩn ziñopeak. (Sein, Señe). |
| 29 | X | Toma d., gotzaĩn ziñopea. |
| 30 | E | Sabin d., gotzaĩn ziñopea. |
| 31 | A | Silbester d., doipuru ziñopea. |

## EGUTEGIKO DEUNAK DIRALA-TA

Egutegiko deun oneik, ludijon zeu letz bixi ixanda, orain donokijan dagoz zoruntsu, ta betiko egon be; Goiko Jaunarekiko biīaŕtekuak dozuz, ta zeure aldez otoi egiīen dautsae, Oni'k eta Jeremi'k euren eŕi-aldez letz; zeuk, be, betiko zoruna jadestia opa -dabe. Oŕezkero. deunok ibiīi ziran bidera jo biaŕ dozu, ta euren onoimenak antzaŕtu; ixan be, eredu bikañak dozuz-ta. Oŕetarako, deunen bixizpaŕak irakuŕi eikezuz; irakuŕkixunok Urtzi'ren ardura ta eŕuki andijak argi ta garbi erakutsiko dautzubez, eredutzat mueta gustiīariko deunak emon dauskuzala egiztuko dautzube-ta. Jaunagaz uste-ixan eta deunak eskuratu ebena eskuratuten alegindu, be, gogozago egingo zara gero. «Donetasun-bidían enaīeke gelditu, —esango dautsazu zeure burubari—, ainbeste ta ainbeste gixa-emek lez beti auŕera egin baño. Neu lakoxe makal eta gaxuak ziran; neu lez gixaŕte gaizto onetan bixi ziran; neu lez etsai asko goīu biaŕa ixan eben; eta euretariko batzu obendijak, be, ixan ziran, gero garbaīu ta ondo autoŕtubaz goi-eskaŕa jadetsi eben, baña. Eurek egin ebena egiñezkero, eurek lez gaizkatuko naz, ta betiko zoruna eskuratuko dot. ¿Oneik egin yuena ik ez-ete-dok egingo? esan leutsan bere burubari

Augustin deunak; eta donetasun betia lořtu eban. Neu, be. deunak lez bixiko naz, eurek egin ebena egingo dot; eta donetasuna jadetsi, ta donokira elduko naz. Neure gogua betiko gaizkatu biařa dot, donokiko zoruna eskuratu biařa dot. Deunak antzařtu dagidazan, ba. Deunen irudi edo idantzezkijak auřian euki ta euren bixizpařak irakuřiko dodaz; euren jayak gogotsu ospatuko dodaz, dantza loi ta beste jolas gaiztuetara jo barik; eta, batez be, deunen onoimenak neuretuten alegindūko naz. Onetara jardunezkero, deunen laguntzea ta beti-betiko zoruna jadetsiko dodazala uste dot. Olantxe».

# DONOKIRAKO
# BIDE ZUZENA TA ESKIJEŔA

## Saŕbidia

**Bidia, egija ta bixitza naz,** diñosku Josu-Kisto'k Goizpaŕan. Josu-bidez ibilŕeko, baŕiz, Urtzi Jaunaren Lagi deuna ziaro bete. Ikuŕtonak ondo aŕtu, ta Josu beraren jaŕaibidiak eredutzat ixaten leyatu biaŕa da.

Oŕezkero, kistaŕ gustijak, Urtzi Jaunaren agindubak eŕezago betiaz goiko bixitza jaritxi dagikientzat, ona emen zer egin biaŕ leukien:

### Egunian-egunian

**Goxian:** Kistaŕaren goiz-otoyak esan, al ba-daike gogaŕtia egin, jaupea entzun, eta jaunaŕtu. Gogaŕtia, gogozko otoitza, bestelan eziñik, lan-aŕtian egin daike.

**Eberdijan:** Naikunde okeŕ nausijatzaz buruba azteŕtu ta garbai-ixan; eta irakuŕkixun deuna egin. Irakuŕi ezin daunak ordez-ordian Josu-gorputz deunaren zaurijak gogaŕtu begikez; **odolez ida-**

**tziřako idazti onek** dei zolijok egiřen dauskuz: «Maře-ta-maře egixube Jaungoiko-Gixonau mařasunaren mařasunaz gixonakařen bixija emon ebanau, lapuřik aundijena ta gaizkiřerik biguřijena bai'litzan, gurutz-erijo lotsagařiz il zanau».

**Ařatsaldian:** Josu oteunduba ikeřtu; Aguřtzea esan; ogetaldu-orduko kistařaren gau-otoyak egin; egunian egin diran oben-bagiak azteřtu ta gařbai-ixan; eta uřengo goxerako gogařte-gayak ařtu.

## Astian-astian

Obenak autořtu, al ba-daike autoř-entzule beraxeri beti; egunian-egunian ezin ba-daike, astero beintzat jaunařtu; igande ta jai-egunetan txadon-eikixunetara juan: jaupa, txonitz, eta abař. Onan deunkiro beteko dauz berariz Jaungo-otseintzarako ixendauta dagozan jayegunok. Egunotan, ganera, gexuak ikeřtu, etxakiñai irakatsi, ta beste eřuki-egiñenetan alegindūko da, ta egiñen gaiztuetatik, dantza lotu, lixunkeri, ta abař, iges-egin.

Kistař-Ikasbidia ikasten ala beřikasten, be, alegindu beike, ta gero, ikasi dana egiztatu ta bete, donokiratu al-ixateko Ikasbidia ikasi ta bete biařa da-ta.

## Iřean-iřean

Gogo-bakařtaldi-eguna egin, eta uřengo iřean goguari dagokijazanetan arduratsubagua ixateko erabagi.

## Urtian-urtian

Gogo-iñarkunak egin, eta eurotan urtebeteko obenak autoŕtu.

## Edonoiz

Jaun-goikuaren eta Doibatzaren agintzak jabon eta norbere egikixunak ziaro bete; oben-zorijetatik igesi.

Bere buruba gaizkatu gura daun kistaŕak idaztijon auŕkiťuko dau biaŕkixunak betetako ta Urtzi -Lagi-arauz bixi ixateko biaŕezkua yakana; eta berton diñodana betezkero, biztaldi aunetan Jauna aintzaldu, ta gero donokijan betiko zorundun ixatia jadetsiko dau. Oŕetarako egin dot idaztijau.

*(Claret Aba).*

# OTOYAK

*Itxaŕit̄a bertatik esan:*

¡J̇osu, Miren, J̇oseba! *(7 urte ta 7 beŕogeikaroko nekazkea bakotxian).* Jesus, Maria, Jose.

J̇osu, Miren, J̇oseba: bijotza ta gogua domotzubedaz.

J̇osu, Miren, J̇oseba: erijotz-agiñian lagun-zakikedaze.

J̇osu, Miren, J̇oseba: nire gogua betiko atsedenian aŕkezube.

*J̇agi ta jantzi-ondoren ur deuna aŕtu ta aunelan gurutz-egin:* Por la señal

Gurutze deunaren ✠ ikuŕaŕen, geure ✠ arerijuetzaz zaindu gaikezuz, ✠ geure J̇aun eta J̇aungoiko oŕek. At̄earen eta Semiaren ✠ eta Goteunaren ixenaz. Olantxe.

*Eta uŕengo:*

¡Aguŕ, neure J̇aun eta J̇aungoiko! Zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro; zeu bijotz

-bijotzez mafe, ta auzpez jauresten zaudaz. Irazan, erosi, kistaŕtu ta orañaŕte, batez be gau ontan, iradaun nozulako, eskaŕ-dagitzut.

Nire uste, itz, egiñen eta neke gustijak zeure aintzarako eskañi ta opesten dautzudaz, eurokaz egun aunetako nekazka gustijak irabazi, ta gaŕdostegiko gokaxuai, batez be Miren deunaren gogokuenai ta nerau lotubago natxakijenai, lagunduteko asmuaz. Zeu iraindubaz gaŕbai-naz-ta, neure obenak azkesteko deskatzut; Josu-Kisto ta Miren deuna bide dirala, zeu baŕiro etzagikedazala iraindu, aŕen. El Padre nuestro

**Geure Aŧa** Goikua, zeure ixena donetsi bedi; zeure ala bel; zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijon be. Emoiguzu gauŕ be geuretzako ogi eunerokua; azketsi guri geure zoŕak, geuk be geure zoŕdunena dazketsegun letz; eta ziltzaldijan ezkagixuz itxi, gatxetik jabon baño. Olantxe.

Ave Maria **Aguŕ, Miren** eskaŕez betia; Jauna zurekin; donetsija zeu emakumien aŕtian; eta donetsija zeure sabelak soŕtuba, Josu. Miren deuna, Jaungua'ren Ama; geu obendijuen aldez otoi-egixu orain eta geure erijotzaldijan. Olantxe.

Gloria **Aintza** Aŧari, ta Semiari, ta Goteunari. Len letz, orain eta beti, ta amaibako egunetan. Olantxe.

**Ziñesten dot** Jaungoikua, Aŕa aloroduna, ortzi-ludijen irazalia; baŕa Josu-Kisto aren Seme bakaŕa ta geure Jauna; Goteunaren bidez soŕtu zana; Miren Neskutzagandik jayo; Pontius Pilatus'pian nekautsi; gurutzaldu, il eta ioŕtzi; lezietara jatsi; irugaŕen egunian ildakuen aŕtetik beŕbixi; donokira igon; Jaungoiko-Aŕa alorodunaren eskumaldian jezaŕten dana; andik bixi-iľak epaŕetan etoŕiko dana. Ziñesten dodaz Goteuna, Doibatz deun orokaŕa, donien aŕtu-emonak, oben-azkezmena, aragi-beŕbizkundia, betiko biztaldija. Olantxe.

## MIREN NESKUTZARI

¡Aguŕ, Miren, Jaungoikua'ren Ama Neskutzoi! Neure buruba semetzat dukaintzut, eta zeure garbiŕasunari opaz gogo-gorputzak, almen-zentzumenak deskeintzudaz; obenik egundo ez egiŕeko eskaŕa jadetsi egistazu, aŕen. Olantxe.

Aguŕ, Miren, eskaŕez betia,.. *(Irutan)*.

## GOTZON JABOLIARI

Nire Gotzon jabolia
Jaungoiko onak jaŕi nau-ta
zeure ardurapian,
neu argiztu eta aldeztu,
neu zuzendu eta jauŕi,
aŕen, zeure zainpian.

## JAUNAREN GOTZONAK

*I*. Jaunaren gotzonak Miren'i goi-izpaŕa iragaŕi dautsa.

*E*. Eta Miren'ek Goteunaren bidez soŕtu dau.

*Aguŕ, Miren...*

*I*. Ona, Jaunaren neskame au.

*E*. Zeure itz-arauz jazo bekit.

*Aguŕ, Miren...*

*I*. Eta Autija gixatu egin da.

*E*. Eta geure aŕtian bixi.

*Aguŕ, Miren...*

*I*. Geure aldez otoi-egixu, Jaungoikua'ren Ama deun oŕek.

*E*. Josu-Kisto'k abinďuba jadetsi daikeguntzat.

OTOYA

Baŕendu egitsezu, aŕen, gure goguai, zeure eskaŕa, Jaun oŕek, gotzonaren agoz Kisto zeure Semiaren gixakundia ezaun do-

*V*. Angelus Domini nuntiavit Mariae.

*R*. Et concepit de Spiritu Sancto

*Ave Maria...*

*V*. Ecce ancilla Domini.

*R*. Fiat mihi secundum verbum tuum.

*Ave Maria...*

*V*. Et Verbum caro factum est.

*R*. Et habitavit in nobis.

*Ave Maria...*

*V*. Ora pro nobis, sancta Dei genitrix.

*R*. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Gratiam tuam quaesumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovi-

gunok aren nekauste ta gurutz-bidez beŕbizkunde-aintzara eldu gaikezantzat. Josu Kisto beraŕen.

*E.* Olantxe.

mus, per passionem eius et crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum.

*R.* Amen.

## GOI-BAKALDUME

*Beŕbizkaldijan* **Jaunaren-gotzonak**-*ordez* **Goi-Bakaldume** *esaten da.*

Goi-Bakaldume, alai!, aleluya!
Eruan euzuna, aleluya!
Esan eban lez, beŕbixi da, aleluya!
Jaungoikua'ri geure aldez otoi-egitsozu, aleluya!

*I.* Poztu ta alaŕu zaiz, Miren Neskutzoi, aleluya!

*E.* Jauna baiki beŕbixi dalako, aleluya!

Regina caeli, laetare, alleluja;
Quia quem meruisti portare, alleluja,
Resurrexit, sicut dixit, alleluja:
Ora pro nobis Deum, alleluja.

*V.* Gaude eta laetare, Virgo Maria, alleluja.

*R.* Quia surrexit Dominus vere, alleluja.

OTOYA

Josu-Kisto zeure Seme ta gure Jaunaren beŕbizkundiaz gixadija poztu dozun Jaungoiko oŕek, inguzu, aŕen, Miren bere Ama Neskutzaren biŕartez biz-

OREMUS

Deus, qui per resurrectionem Filii tui, Domini nostri Jesu Christi, mundum laetificare dignatus es: praesta, quaesumus; ut per ejus Genitricem Virginem

taldi betikoŕeko pozoŕa daŕkegula. Josu-Kisto gure Jaun beraxe bide dala.

*E.* Olantxe.

Mariam perpetuae capiamus gaudia vitae. Per eumdem Christum Dominum nostrum.

*R.* Amen.

## JATORDURAKO OTOYA

Onetsi gagixuz, Jaun oŕek, baŕa zeure esku zabaletik aŕtuko doguzan jakijok be, Josu-Kisto gure Jaunaŕen. Olantxe. *Geure Aŕa... Aguŕ Miren... Aintza...*

## JATOSTERAKO OTOYA

Jaunoi: jakijokaŕik eta zeure esku eŕukijoŕak emonda aŕtu doguzan on gustijakaŕik eskaŕ-dagitzugu. Olantxe. *Geure Aŕa... Aguŕ Miren... Aintza...*

## ILUNTZIAN

*Gokaxo-aldez,* **Geure Aŕa..,** *ta* **Aguŕ, Miren...** *esanda gero:*

*I.* Betirauneko atsedena emoskiezu, Jauna.

*E.* Eta betiko argijak argiztu beikez.

*I.* Gentzaz atseden bediŕez.

*E.* Olantxe.

*V.* Requiem aeternam dona eis, Domine.

*R.* Et lux perpetua luceat eis.

*V.* Requiescant in pace.

*R.* Amen.

## GAU-OTOYAK

*Ogera-orduko belaunbikotu ta onelan diñokezu.*
**Gurutze deunaren...**

¡Aguŕ, neure Jaun eta Jaungoiko! Zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro; zeu bijotz-bijotzez mat̄e, ta auzpez jauresten zaudaz. Irazan, erosi, kistaŕtu ta orañaŕte, batez be egun ontan, iradaun nozulako, eskaŕ-dagitzut.

Egin dodazan obenak ezaututeko argija ta gaŕbai-ixateko eskaŕa ind̄azuz.

*Ustez, itxez ta egit̄ez egunan egind̄ako obenak ezaututeko zeure baŕunbia azteŕtu, it̄aunoi erantzunik:*

Ustez ¿zetan uts-egin dot?
Itxez ¿zetan uts-egin dot?
Egit̄ez ¿zetan uts-egin dot?
¿Eginbiaŕik betetzeka utzi ete-dot?
¿Ala, okeŕ egin?

*Azkenez gaŕbai-otoya esan:*

**Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun,** Jaungoiko te gixon egi, neure Irazale, Aba, ta Erosle ori: zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro: zeu edozein gauza baño mat̄iago zaudaz; bijotz-bijotzez gaŕbai-naz zeu iraindubaz, zaran on-utza zaralako, bat̄a gaiztokiko neke betikoŕakaz nekaldu naikezulako be; gauŕgeroz obenik ez egit̄eko, zeu iraindute-zorijetatik

igesteko, autoŕtuteko ta ezaŕiko leikedan oben-nekia egizteko erabaki sendo-sendua dagit.

Nire bixitza, egiñen eta neke-oñaze gustijak neure obenen ordez deskeintzudaz; eta zaran on eta eŕukijoŕ oŕek, zeure odol edeŕ, neke-oñaze ta erijotz-irabazijak bide dirala, obenak azketsi, ta zuzendu-bidia ta erijotz -aŕterańo jopu egit̄ia emongo daustazuzala ditxarot.

Gau ontan oben-barik jabon naikezu, Jaun oŕek, eta edozeinbere gatxetik gaizkatu.

¡Josu'ren bijotz gozuoi: geruago ta mat̄iago zagidazan!

*Geure At̄a Goikua... Aguŕ, Miren... Ziñesten dot...*

¡**Aguŕ, Miren,** Jaungoikua'ren Ama Neskutzoi! Neure buruba semetzat dukaintzut, eta zeure garbit̄asunari opaz gogo-gorputzak, almen-zentzumenak deskeintzudaz; obenik egundo ez egit̄eko eskaŕa jadetsi eiskedazu, aŕen. Olantxe.

*Aguŕ, Miren, eskaŕez betia...* (Irutan).

**Nire Gotzon jabolia:**

Jaungoiko onak jaŕi nau-ta
zeure ardurapian,
neu argiztu eta aldeztu,
neu zuzendu eta jauŕi,
aŕen, zeure zainpian.

*Gero:*

¡Josu, Miren, Joseba!

Josu, Miren, Joseba: bijotza ta gogua damotzubedaz.

Josu, Miren, Joseba: erijotz-agiñian lagun-zakikedaze.

Josu, Miren, Joseba: nire gogua betiko atsedenian afkezube.

Aguŕ, Irukoitz deunoi: ¡zeure eskaŕdun ilgo al naz!

*Ur deunagaz gurutz-egiñik:*

¡Algustidun Jaungoiko Ata-Seme-Goteuna'ren oneskuna neuretu ta neugaz beti iraungo al da! Olantxe.



# GOGAŔTIA

*EDO*

## GOGOZKO OTOITZA

Otoyaren gaŕantzija aundi-aundija da; eta otoi-egiťia nai-ta-ezkua dogu. Ikuŕtonetaz-beste, otoya da Urtzi J̇aunaren eskaŕa jaritxi ta jaboteko biderik eskijeŕena.

Otoi-egiťia, J̇aungoikua'ri, J̇osu-Kisto'ri, Miren Ama Neskutza'ri, Gotzonai ta Deunai itz-egiťia da, ta geure bagetasun-opariñak euroi ageŕtu ta biaŕ dogun laguntzea eskatutia.

Otoi-dagiñak J̇aungoikua'ren algustiťasuna ta beste gaindi gustijak nabariťu egiťen dauz ta norberaren txiro-landeŕtasuna autoŕtu.

Otoi-bidez, aŕtutako emoyakaťik J̇aunari eskaŕ-egin, eta geyago aŕtuteko geŕtu egiťen doguz geure burubak.

Otoyaz Urtzi J̇aunaren asaŕia ibiťu, ta bere eŕuki andija geuganatuten dogularik, oben-azkespena loŕtu daruagu.

Beti otoi-egiťeko ta otoitza ez lagetako aginđu euskun J̇osu-Kisto'k berak. Ixan be,

gure arerijuak asko ta bildurgarijak dira, ta eten-barik diñardube geuri zirika. Orezkero, edonoiz ta edonun biar goi-laguntzea; eta au otoi-barik ezin eskuratu.

Otoi-egin daigun, ba, ta arduraz ta sari egin be. Orelan, soñarekiko ta goguarekiko, biztaldirako ta geruagorako, geuretzako ta lagunentzako biar dogun gustija eskuratuko dogu baiki, Josu'k berak abindu eban-eta.

Abozko otoitzaz ganera gogozkuari be ekin biar leuskiogu, ta egunoro ekin be.

*Uartu.* Egunian-egunian ordu-laurenez beintzat gogartzen daunak, ilabetero autortu ta jaunartu ta Doipuru-alde otoi-egiñik, nekazka osua irabazi dagike.

## GOGARTZEKO EREA

*Gogartia asi baño lenago Goteuna'ren laguntzea eskatu, onetara:*

¡Erdu, Goteun ori! zeure ziñestunen bijotzak bete egixuz, ta zeure matasun-garaz goritu.

Veni, Sancte Spiritus: reple tuorum corda fidelium, et tui amoris in eis ignem accende.

*I.* Bidaldu zeure Gogua, ta irazango dira.

*V.* Emitte Spiritum tuum, et creabuntur.

*E.* Eta ludi-azala barizty egingo dozu.

*R.* Et renovabis faciem terrae.

OTOYA

Ziñestunen bijotzak Goteuna'ren irakaspe-

OREMUS

Deus qui corda fidelium Sancti Spiritus

naz ikastundu euzuzan Jaungo ori: Goteun oŕen jakintza aŕteza jadetsi, ta bere pozoŕaz gotasau gadiŕezala iguzu, aŕen, Josu Kisto gure Jauna bide dala. Olantxe.

illustratione docuisti; da nobis in eodem Spiritu recta sapere, et de ejus semper consolatione gaudere. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

## GOGAŔTERAKO GEŔKUNA

Ene Jaun eta Jaungoiko: ezpai-barik ziñesten dot ementxe zagozana..

Zeure auŕian auzpezturik guŕ-dagitzut bijotz-bijotzez...

Oben gustijak azketsi dagistazuzala apal-apal deskatzut..

Gogaŕte au zeuri, ene Jaun eta Aŕa laztan oŕi, deskeintzut; eta ondo egiŕen lagunduko nozula ditxarot...

Miren Neskutz ene Ama, Gotzon eta Deunok: gogaŕte au gondu dagikedantzat lagun-zakidaze...

*Uaŕtu.* Onezkero gogaŕte-gaya astiro-astiro irakuŕi egixu, ta zeure goguari egokiŕu, Goiko Jaunak dirautzula-ta; ondoren, zeure baŕuba azteŕtu egixu, zer kendu, zer zuzendu ta zer ondu egin biaŕ dozun jakiŕeko; gero, gogokunde edo erabaki egokijak egin; eta azkenik, Jaungoikua'ri, Josu'ri, Miren Amari ta Deunai autuka ta eskian jardun, gogo-auŕerakuntzarako biaŕ dozuna leyatsu eskatuten dautsezula. Irakuŕgai-atal bakotxaz onetara jardun zaŕekez.

## GOGAŔTIAZ OSTIAN

Eskaŕ-dagitzut, ene Jaungoiko, gogaŕte aunetan emon daustazuzan goyargi, naikun eta asmo on gustijakatik...

Aŕtu dodazan gogokunde ta erabakijak zeuri deskeintzudaz, ta eurok betetako laguntzea indazu, aŕen...

Berau łoŕtuteko bitaŕteko zakidaz zeu, Miren Ama mate; bata zebek, be, Gotzon eta Deun laguntzaliok...

## EGI GOMUTAGAŔIJAK

### Ilako egunetarako bana

1.ª Ikusi nakus Jaungoikuak; entzun egiten nau; epatu egingo nau.

2.ª Jaungoikua neure Egilia da, neure Eroslia, Ongilia, Ata; ¿iraindu egingo dot, ba?

3.ª Gogua, arimia, neure-neuria dot, bakaŕa dot, betirakua dot: ¿betiko galtzen utziko ete dot, ba?

4.ª Gogua gaizkatu daunak dana irabazi dau; gogua galdu daunak dana galdu dau, ta betiko galdu be.

5.ª Gixonak, ludi osua beretuta be, gogua galduzkero, ¿onauŕkirik ete?

6.ª Urtzi Jaunagandik bananduta bixi danarentzako ezta gentzarik, ez zorunik, ez pozoŕik.

7.ª Usterik ezian eldu oi-da erijotza.

8.ª Beinguan oben-egin daikegu, beinguan il gatekez, ta beingo-beinguan gaiztokiratu.

9.ª Bixitza lakoxia oi-da erijotza.
10.ª Jaungoikua'rentzako ta donokirako soŕtu gara.
11.ª Goiko Jauna mat̄e-ixatia ez, beste gustija uskeri utsa da.
12.ª Gurikeri-oldaŕtxubaz ostian, ¿zer? Betiko oñaze latza.
13.ª Gaiztokiko su bixit̄an, betiko labe gorit̄an, ¿zelan bixi ete-nat̄eke?
14.ª Gaiztokikuak nik dod̄an abagunia ba'lebe, ¿zer egingo ete leukie? Nik, baŕiz, ¿zer egit̄en dot?
15.ª Egiztu-bako asmo onez beterik dago gaiztokija.
16.ª Donoki-bidia medaŕa da, ta gitxi dabiltz bertaz; gaiztokirakua, ordez, zabala da, ta asko dabiltzana. Gitxijakin gaizkatu al-ixateko, gitxijakin bixi biaŕ.
17.ª Emengo miñaŕtze labuŕaz ostian betiko gozaŕtzia.
18.ª Oben ariñakaz ardura eztanak laŕijak, be, lasteŕ jaukiko dauz.
19.ª Erijotzaldijan, egin onak baño ezkabez lagunduko, egind̄ako gaiztakerijak baño ez atsekabetuko.
20.ª Egoki ixan zan Josu-Kisto nekautsi ixatia, ta oŕetara bere aintzara saŕtutia.
21.ª Kisto barurik, ni asebeterik; Kisto bil̄utsik, ni ondo jantzirik; Kisto neketan, ni atsegiñetan.
22.ª Erijotzaldijan egin gurako dozuna oraintxe egixu, orduban gura-aŕen ezingo dozu-ta.
23.ª Ernai ta otot̄an jardun, ziltzaldijan ez jausteko: Josu-Kisto'k berak dirautzu.
24.ª Eten-barik otoi-egin biaŕa da.
25.ª Ind̄aŕ-egit̄eka donokiratzerik eztago.
26.ª Galbidiak dirala-ta ¡gixaŕtiaren zoltxaŕa! Aundijagua da, baña, galbidia emoten daunaren zolgogoŕa: Josu-Kisto'k berak dirausku.
27.ª Ludi onetan gozaŕtutako pozkerijakaz gaiz-

tokija ibazi ebenai ¿pozkerijok atsegin ete-yakez orain?

28.ª Gogua gaizkatziaŕen al-đaun gustija egit̄en eztauna, edo ziñestebakua đa edo erua.

29.ª Donokira gura ba gara, betirauna buruban, Jaungoikua bijotzan, eta gixaŕtia oin-azpijan biaŕ-đoguz ixan.

30.ª Donokira saŕtu gura ba-gara, đonoki-atia Miren Neskutza đala gogoratu biaŕ đogu beti.

31.ª Gotzon Jabolia geukin dago beti: bere auŕian lotsa-gadixan, bere laguntzaz uste-ixan, eta eskaŕtu daigun bere mat̄asuna.

Joseba đeunarekiko oneraspen samuŕaz ez aztu.

# ASTEBETERAKO GOGAŔTE-GAYAK

## Gixonaren elburuba

### I

Urtzi Jauna da danaren Egilia. Goiko Jaun onek egin dau gixona be. ¿Zetarako? Ludi ontan Urtzi Egilia ezagun, maŕe ta nausetsirik, gero donokijan bera ikusi ta gozaŕtubaz beti zoruntsu diraukentzat. Oŕa, gixonaren elburuba. ¡Elburu bikaña!

Elburu au jaristeko emon daustaz aungoikuak gogua ta gogo-almenak: adimena, gomutamena, naimena; gorputza ta gorputz-asmenak: ikusmena, entzumena, izmena.. ¿Oŕetarako erabiŕi ete-dodaz? Nire elburuba jaritxi biaŕa dot; donokira juan biaŕa dot. Oŕetarako, baña, biztaldi aunetan Urtzi Jauna maŕe-ixan biaŕ, bere Lagi deuna ziero bete biaŕ... Orain Jauna maŕe-ezik, orain Jaunaren Lagija bete-ezik, eztago donokiratzerik, eztago betiko zoruntsu ixaterik. Azken-elbururako bidia, donokirako bidia, bide bakaŕa da. Eta bakaŕa danezkero, estuba ta latza ixanaŕen, nai-ta-ez bertaz ibiŕi biaŕ-naz, azken-elburuba eskuratu gura ba-dot beintzat.

¿Ez-ete-dot, baña, saŕi-askotan bide au laga ta beste bide zabal-leunetara jo? ¿Neure azken-elburubaz gomuta-barik bixi-ixan ete-naz? ¿Neure Egiŕiaz aztuta al-diñardut?

### II

Beste gauza gustijak gixonarentzako egin euzan Goiko Jaunak, gixonak bere elburuba jadetsi legikiantzat. Ortziko ixaŕak, itxaso sakonak, zelai loretsubak, Urtzi Jauna dan edeŕa ta aundija adirazoten dauste. Goiko Jaunak neuk jateko soŕtzen dauzan igali gozuak eta neuk erabiŕteko egin dauzan aberiak, bera dan on maŕagaŕija erakusten dauste.

Ixaki gustijak Jaungoikua nausetsi ta bere otseintzan jarduteko lagunduten nabe. ¡Ziero lagundu be! Eguzkijak argija, subak berua, luŕak jakija, emoten daustez ¡Ixakijok bai ondo betetan dabela Goiko Jaunak ezaŕi eutsen lagija!

Nik, baŕiz, Egiļia niretzat ixan dan on utza ezagun dagikedan onek, bere Lagi deuna ezetsi egin dot; beste ixakijak, be, neure elburuba jadesteko -barik Jaungoikua iraindutekoerabiļi dodaz. ¡Nire erua! Osasuntsu ala gaxorik, aberats ala txiro bixi ixatia ta ludiko beste edozeinbere gauza neure elburuba loŕtuteko egoki litzakikedazan giñuan baño eztodaz opa ixan biaŕ.

Gixonak, ludi osua beretuta be, gogua galduzkero, ¿onauŕkirik ete? Neure azken-elburuba jadetsi ezpa'leiket, dana galduko leuket, eta betiko galdu be.

## Obena

### I

¡Obena dan ikaragaŕija! Ixaki txatxaŕak bere Egiļiari, bere Ongiļiari egindako irain goŕija: orixe da obena. Irainduba Goiko Jaun altsuba da, danaren Jabe bakaŕa, dana beingo-beinguan ondatu ta ezereztu legikena; iraintzaļia, baŕiz, ixaki zirtzil-zirtziļa, Jaunaren laguntza-barik ezer egiŕeko gauza eztana, Goiko Jaunak etenbage iradaungo ezpa'leu ixatia bertatik galduko leukena.

Gixon ezeinbatek lokari me-miaz lotuta eutsi -ezik amil-bera jausteko zorijan ba'nengoke, ¿gixon ori irainduten azaŕiko ete nintzake? ¿Nolan azaŕi naz, ba, obenaz Urtzi Jauna irainduten? ¿Ez-ete-dot beragandik ixate osua? ¿Berak eutsi-ezik bixiko ete-nintzake? ¡Nire eskaŕ baltza! ¡Nire gaiztakeri laŕija!

Neure buruba baño maŕiago ixan biaŕ-eudan

Jaun onari aurka oben-egin dot... Jaunagandik artu dodazan begijakaz, mingañaz, gorputzaz, gomutamenaz, irudimenaz, adimenaz, t. a., oben-egin dot... Lotsa-naz, ikara-naz, garbai-naz Goiko Jauna iraindubaz...

II

Obena dan bildurgarija ta kaltegarija! Obendijari ondorerik negargarijenak erakarten dautsaz. Donokijan oben-egin eben goteungiak bertatik betiko sutzaretara amildu euzan Goiko Jaunak. Oben-egin baño lenago gotuts eder gelgarijak ziran; obena jauki ebenezkero, goteunge itxusi iguingari bigurtu ziran. ¡Aldakuntzearen negargarija!

Gure lenengo gurasuak atsegin-baratzan zoruntsu bixi ziran: Urtzi Jaunagaz adizkide ziran; ludijon ez neke-lorik, ez erijotzarik ez eben nabatuko; eta biztaldijaz ostian goiko atsegiñetara juango ziran. Baña, Jaunak agiduba autsi egin eben, oben egin eben; eta bertatik Jaunaren eskara galdu ta euren burubak neke ta erijopian jari ebezan. Jaungoikua'ren gotzonak atsegin-baratzetik egotzi egin euzan, eta Urtzi Jauna eruki ixan ezpa'litxakijen, betiko gaiztokiratuko litxakezan.

Ontaz etzan amatu, baña, gure lenengo gurasuen obenak erakaritako kalte-lora. Euren ondorengo gustijak, be, neke ta erijopian ezari ebezan, eta ludija erbeste negargari bigurtu. ¡Ai, ene! ¡Obenaren kaltegarija ta negargarija!

¿Bariro, be, jaukiko ete-dot? ¿Oben-ondore larijak ez-ete nabe zintzotuko? Azketsi, Jaun orek, azketsi egistazuz ene obenak! Garbai nozu, Jauna; eztot bariro obenik egingo...

## Eroslia

### I

¡Jaungoikua'k gixonari ixan dautsan eŕuki aundija! Goteungiak, oben bakaŕa jauki ebeneko, su-lexietara jauŕti euzan betiko; gixonari, baŕiz, obena azketsi, ta beñola donoki-atiak zabalduko eutsazan Eroslia abindu.

¡Obenaz ostian lelengo gixonaren zorija bai-zala baltza benetan! Urtzi Jaunaren arerijo ta txeŕenaren menpeko lotu zan; donoki-atiak itxirik eta gaiztokikuak zabalik ekusazan; biztaldija alaige ta ilun agiri yakan ¿Eta gero? Gero erijotza ta erijotzaz ostian betiko zigoŕa su-lexietan .. Baña, Goiko Jaun eŕukijoŕa gixonaz eŕuki ixan zan; bere Seme laztana abindu eutsan Erosle'tzat; eta onen irabazijak bide ixango zirala, obena azketsi ta baŕiro bere adizkidetasunera aŕtu eban.

Goiko ixaki bikañai, gotutsai, emon ezeutsena luŕezko soindun ixaki erkiñari, gixonari, euŕez emon eutsan. ¡Jaunaren eŕukija dan andija! ¡Eŕuki zakidaz neuri be, Jaun ori, eŕukijoŕ-eŕukijoŕa zara-ta! bijozpera utza zara-ta, atzindu egixu nire gaiztakerija. Ixaki gustijok: abestu Jaunari, ona dalako, bere eŕukija betikua dalako.

### II

¡Urtzi Jaunak gixonari ixan dautsan maŕasun bixija! Gixona gaizkatzeko, gixona erosteko, bide eŕezagorik euki bai-eukan-aŕen, bere Seme bakaŕa bidaltzia erabagi eban, eta axe bidaldu be. Urtzi-Seme onek gixona erosi al-ixateko neke-biaŕik ezeban; eta neke-bidez erosi gurata, be, alik neke txikaŕena naikua eban. Berak, baŕiz, gixona erosteko neke-oñazerik aundijenak jasan gura ixan euzan.

Aufxtxo bigufftuta jayo zan, eta bertatik miñaftuten asi. Afezkero gixonakafen lepaldu euzan lan eta neke-oñaziak ¿nok zenbatu? Eta azkenik nekauste gofijaz ostian gurutzari josiťa il zan, bixija gixonaren aldez emoten ebala. ¡Gixonaren aldez!... Obenaz Goiko Jauna iraindu eban gixonaren aldez!... ¡Urtzi-Semia bera ziťalkiro gurutzaldu eban gixonaren aldez!...

¡Jaungoikua'k ixan dauskun maťasunaren aundija! Jaungoiko-Semiak erakutsi euskun maťasafe gorija! ¡Ez-ete-dot nik onik-eta-gero beti maťe ixango? ¡Bafiro, be, obenaz irain-egingo ete-dautsot? ¡Ez beñipein, ene Erosle laztan ori! Lotsa nozu...; garbai nozu...; maťe zaudaz...

## Erijotza

### I

Erijotza nai-ta-ezkua da. Gure lelengo gurasuen obenak eratofiriko ondore negafgafija dogu; Adan'en jatofiko gustijok erijopian gagoz; eztogu bertatik iges-egiťerik. ¿Nun dira arako bakaldun nagusijak, gudalburu indaftsubak, jakiťun ospetsubak? ¿Nun dira neure berein lagun? Erijo-ayotzak ikutu ta eratzi euzan. Onezkero auts bigufftu dira... Neugaz, be, bafdin jazoko da; neu, be, nai-ta-ez ilgo naz.

Erijotza beingua da. Gixon bakotxa bein ilťeko aginduba da, diñosku Paul deunak. Eztago, ba, erijotz okefa zuzentzerik. Ona, Goteuna'k dirauskuna: Zugatza jausi dadin aldetara lotuko da betiko, edo ipafaldetara edo egualdetara. Erijotzaldijan ipafaldera, gaiztuen aldera, jausi ba-nadi, eztauket iñoiz beste alderantz egiťerik.

¿Noiz ilgo naz? ¿Zaftzaruan ala gastaruan? ¿Urte gitxi-bafu ala egun gitxi-bafu? Eztakit .. Otoz -otuan, gauf berton il naťeke.

¿Nun ilgo naz? ¿Oian? ¿bidian? ¿lantegijan? Eztakit...

¿Nolan ilgo naz? ¿Gexo luziaz ostian, ala beingoz? ¿Berezko soin-ondezak jota, ala lekoreko zorigatxak atzituta? Eztakit; geyenai erijotza uste-baga eldu oi-yakela, besterik eztakit. Arako jauparija, gexo ezeinbati azken-iguŕtzija egiten uala (joyala), iltzer jausi zan, eta azken-iguŕtzija berari egin biaŕ-ixan eutsaen. Enadin, ba, erijotzaz aztu; ¡ilteko beti gerturik nagoken!

II

Bixitza lakoxia oi da erijotza. Ořezkero, obendijaren erijotz ikaragaŕija! Biztaldiko obenetzazko gomuteak, une atan agiri yakonak eta etoŕkixunak, bijotza estu ta laŕi lotuko dautsoe. Egindako obenak, naiz ta lekurik ixilenan jauki ixan, argi-argi gogorazoten dauz. ¡Alpeŕik igazitako ainbeste urte! ¡Oldozkun mingaŕija!

¿Une atan agiri yakonaz gozatuko ete-da? Goyan Urtzi Jauna asaŕe dakus; albuan, betiko itxi biaŕko dauzan ondasunak, senidiak, lagunak; bian su-leze sakona. ¡Aren gogo-aŕtegatasuna! Gorputzan, baŕiz, geruago ta oñaze andijaguak nabatuten dauz. Eta etoŕkixuna gogoratuten ba-dau, ¡axe bai-dala bilduŕgaŕija!

Bestelakua oi-da onaren erijotza. Biztaldiko onegiñak poztu egiten dabe; jaukitako obenak eztabe aŕtegatuten, apalkiro autoŕtu euzan-eta; eŕbeste aunetatik urten eta lasteŕ donokira juatiak bijotza lasatu egiten dautso.

¿Zelakua gura-dot ixatia nire erijotza? Ointxe aukeratu biaŕ...

## Epaikundia

I

Erijo-ostian gogua, gorputzetik urten dadiñekoxe, epaipetu biaŕko da. ¿Nor ixango da epaikarija? Josu-Kisto, Jaungoiko-Semia, obenik txikaŕena zigoŕtzeka utzi eztagiken epaikari artez-arteza, oben oro dazauzan epaikari jakiḹun-jakiḹuna, bere erabakijak ziaro beterazoko dauzan epaikari algustiduna.

¡Epaikarijau amaika obenez iraindu dot nik!

Gogua epaikari-auŕian bakaŕ-bakaŕik egongo da, biztaldiko egiñen onak baño laguntzat eztauzala. Beste iñok ezingo dau lagundu garai atan...

Txeŕena, gotzon jabolia ta norberaren baŕunbia ixango dira salatzaḹiak. ¡Salatzaḹe ziatzak, baiki! ¿Zer erantzun al-ixango dautset nik?

Obendunaren biztaldi osoko oben gusti-gustijak azteŕtuko dira, aundi ta txiki; baḹa lagun uŕkuai eragindakuak, be. Ganera, egipen onak zelan egin diran, asmo onez ala txaŕez, t. a., ziero ikuskatuko da. Onak deritxegun amaikatxu egipen, orduko goi-argiz ikuskatuta, txaŕak ixan zirala, edo gustiz onak ez beintzat, ez-ete-da agiriko?

Azkenez, Epaikari zoŕotzak bixitzako aŕtu-emon gustija garbiḹuteko agindduko dautsa obendunari: goi-eskaŕ ta emoyak zelan aŕtu ta erabiḹi euzan, goyargi ta ikasbide onai jaŕaḹu ete yaken, eta abaŕ. ¿Epaikunde bildduŕgaŕi aunetarako gerturik ete nago?

II

Il-ondorentxe bakotxaren epaikundia letz, azkenaldijan epaikunde orokaŕa, gixon gustijak batuko garana, ixango da. Oŕetarako, gogo bakotxa bere gorputzaz loturik, iḹak oro beŕbiztuko dira, danenak baŕdin ez baña: deungien soñak ikaragaŕi ta iguingaŕi, ta onenak diztitsu ta aintzagaŕi agiriko dira.

Josu-Kisto donokiŕik odeyetaz jatsi ta epai-aulkijan nausikiro jezaŕi daŕenian, onak eskumaldian eta deungiak eskeŕaldian dauzala, azken-epaikunde ikusgaŕija asiko da. Gixon gustijen egipenak, onak eta txaŕak, argi baño argijago ikusiko doguz; obenik ixiŕenak, gaiztakeririk ezaugienak, eberdiko eguzkija baño argirijago ixango doguz. Deungiak lotsaŕen luŕperatu ixatia gurako dabe, alpeŕik baña..

Geroenian, Josu-Kisto'k deungiai onan itz-egingo dautse: Alde nigandik, dongetsijoik, betiko sutara... Onak, baŕiz, maŕero deŕuko dauz: Etoŕi, ene Aŕak onetsijoik, lelengotik gertu eutzubedan jaureŕira ..

¿Egun atan eskumaldian ala eskeŕaldian egongo naz ni? ¿Josu-Kisto ta deunakin donokira ala deungiakin betiko sutara juango naz?...

## Gaiztokija

### I

Oben laŕidun il danaren gogua bertantxe epaipetu ta betiko sutara jauŕtiko dau Goiko Jaunak. Senidiak negaŕez daragoyoe; gorpuba oraindik gustiz otziŕu-barik edo-dago; gogua, baŕiz, gaiztokijan...

¿Zer da, gero. gaiztokija? Asmau ezin-alako leku ikaragaŕija; su bixiz goriŕuta egon-aŕen, argizpirik saŕtuko eztan lexa sakon iŕuna. Lexa sakon atan deungiak estu-estu loturik egongo dira, karabijan sapai-aŕijak baño estu ta lotubago. ¡Alako zirkiñik egin eziña!

Gaiztokiko oñaziak, baŕiz, gustiŕarikuak eta ezin jasan-alakuak ixango dira. Su ikaragaŕi arek gogua bixiro nekalduko dau; eta azken-epaikundiaz ostian, ganera, soin beŕbiztuba iñoz il-barik kiskalduten jaŕaŕuko dau.

Deungiaren gorputza etenbako oñaze goŕit̄an murgild̄uta egongo da. Begijak il̄undi atan agertuko yakezan ikuskixun baltzakaz, balaŕijak entzungo dabezan ai-ene ta ayots negaŕgaŕijakaz, ta beste asmen eta soin-atal gustijak bakotxa berari dagokijan neke-oñaze minkoŕez nekalduko dira.

Baña, soin-miñok baño aundi-aundijagua da deungiak gaiztokijan daben kaltezko miña, edo Urtzi Jaunagandik aldendurik iraun-biaŕa, ta iñoz ez-iñoz donokiratu-eziña. ¡Donokiko zorunaren aundija igaŕi bai, ta iñoz eskuratu ezingo dabela jakin! ¡Kalte goŕija!...

II

Gaiztokiko neke-oñaziak betikuak, amai-bakuak, ixango dira; gitxit̄u be eztira iñoz egingo. ¡Oldozkun ikarakoŕa! Ausnaŕtu Kain'en oñazien iraun-biaŕa. Ortziko ixaŕ gustijak, itxaso sakonetako ur-tantatxubak, itxasertzetako ondaŕ-aletxubak, zugatzetako ostuak batu ta zenbatu ba'leikeguz, ta Kain gaztokira zanetik eta gero oŕenbeste urte ta eunki igazi dirala asmau; ¿ordurako, Kain'en oñaze goŕijak amat̄uko ete litxakez? ¡Ez-ta! ¡lelengotan baxen gogoŕ liraukie! ¡Betirauna asi-baga letxe legoke!

Kain anei urtetik anei urtera ludira etoŕiko ba, litz, eta etoŕkunde oŕet̄an negaŕ-malko bana ixuriko ba'leu, ¿noizko bustiko ete-leuke luŕaso osua? ¿noizko ixuriko ete-leuke itxasuetan urik dagon beste negaŕ? ¿Ori egin leikeneko bere oñaziak amat̄uko ete-litxakez? ¡Ez-ta! ¡apuŕtxo arind̄u bez! Lelengotan baxen gogoŕ liraukie...

¡Gaiztokiratuben zolgogoŕa! Beti oñazetan, beti poz-baga, beti..., beti..., beti... ¡Obenaren ondore negaŕgaŕija! ¡Betiraun ikaragaŕija! ¿Ez-ete-dodaz bild̄uŕ ixango?

## Donokija

I

¡Donokija, deunen tokija, betiko abeŕi zoragaŕija, atsetegi mat̄agaŕija! ¡Urtzi Jauna, Josu-Kisto, Miren Neskutza, gotzonak eta eskaŕdun il daikezan gixon oro biztanle diran uri edeŕa! ¿Nok atzaldu, baña; donokija zelakua dan? Paul beldu deunak beñola ikusi eban, eta ezin esan-alakua dala baño eztiñosku. Zelakua dan baño zelakua eztan esatia eŕazago da.

Donokija ezta obenez ta neke-miñez beteriko ludi au lakua. Emengo goŕotuak, erailketeak, matxiñadeak, lixunkerijak. lapuŕeteak!... ¡Emengo atsebagiak, nekiak, bild̄uŕak, gose-egaŕijak, neke-miñak!...

Donokira, ordez, ezta oben edo gaiztakeri txikijenik be iñoz saŕtuko. Ango biztanliak on-onak dira, oben-bakuak dira; eztabe, beraz, oben-ondorerik be nabat̄uko. An ezta erijotzik ezautuko, ez ezeren bild̄uŕik, ez atsebagerik, ez kezkarik, ez nekerik, ez min-izpirik. Deunak ludi aunetan jasaniko neke-oñaziak, be, an pozkaŕi biguŕtuko dira. Bai, ba; ¡emengo nekiakaz ango betiko atsedena ta nekerik-eza irabazi eben-eta! Emengo nekiak andijaguak, eta ango atsedena betiagua. Donokija irabaztiaŕen, oraingo nekiok olđez ta gogoz aŕtu ta jasan dagidazan. Oneik egun gitxi-baŕu amat̄uko dira; donokija, baŕiz, betikua da...

II

¡Goiko Jaunak donokijan autetsijentzako gertu daun zoruna! Gorputzak, beŕpiztu dat̄enian, goguagandik lau emoi bikain aŕtuko dauz: argit̄asuna, arind̄asuna, metasuna ta osotasuna. Aŕezkero eguz-

kija baño argijago lotuko da; leku batetik bestera oldozkuna baño ariñago ibil̄i al-ixango da; edozein gauza ta gorpuzki-ziaŕ argija leyaŕez letxe igaroko da; eta ez erijotzarik ez neke--miñik iñoz jasan -bage, beti oso ta il̄ezkoŕ iraungo da. ¡Orain gorputza ild̄uratubago, ta donokijan zoruntsubago!

Goguaren zoruna, baŕiz, aundijagua ixango da. Gomutamena ludi aunetan Jaunaŕen jasan ebanaz pozez beterik egongo da; adimena, Urtzi Jauna aŕpegiz-aŕpegi ikusirik, pozoŕez lil̄uratuta; guramena, Jaungoiko on-utza mat̄atu ta betiko eukirik, zorunetan murgild̄uta letz. Goiko Jaunagan, gura ta opa leiken on gustija jaritxiko dau goguak. ¡Goguaren zoruna! ¡Ta betiko zoruna! ¡Iñoz-ez-iñoz galdu ez gitxit̄u egingo etxakona!

¿Loŕtuko ete-dot nik donokiko zorun ori? ¿Ez -ete-dot ludi aunetan pozaŕen jasango? ¿Ez-ete-dot neure soña ild̄uratuko?



# AUTOŔKINTZEA

Autoŕkintzea Josu-Kisto'k, ugutzaz-geroko obenak azkesteko, soŕtu eban ikuŕtona da. Soŕtubaz beraz, ugutzaz-geroko oben laŕi edo ilkoŕ gustijak autoŕtu biaŕa agind̄u euskun.

Augaŕik, ezta naiko obenak maŕe-gaŕbayaz azkestia: maŕe-gaŕbayak autoŕtu-gurea dauka berekin; eta al-ixan daikenian autoŕtu egin biaŕ dauz obendijak maŕe-gaŕbaiz azketsitako oben laŕijak, be. Al-dalarik autoŕtu-ezik, oben laŕija egiŕen da baŕiro, Josu-Kisto'ren agindu gogoŕa betatu eztalako. Egi-egija, beraz, arako esakun a: edo ugutzaz-geroko oben laŕijak autoŕtu, edo betiko su-lezeratu.

Autoŕkintzea, obenak azkesteko ta obenetarako iŕitsaz-auŕka gogua sendotuteko soŕtu eban Josu-Kisto'k. Oŕetarako, baña, biaŕ-dan eraz autoŕtu biaŕa da: bete-betian, zietz, gaŕbaiz ta erabakiz.

Biaŕ-dan bete-betian eta zietz autoŕtuteko, nok bere buruba lenago ta arduraz azteŕtu biaŕ-dau.

Autoŕkintzeaz ostian, autoŕ-entzuliak ezaŕiŕako oben-nekia bete biaŕa da.

## BURU-AZTEŔKETARAKO OTOYA

¡Ene Jaun eta Jaungo algustidun ori! Gauza gustijak zeuk ezaŕi eutsezuzan lagijak ziero betetan dabez; gixonak, baŕiz, zure lagi deuna, zeu maŕe ta guŕtuteko aginduba, askotan autsi egiŕen dabe. Neuk, be, oben-egiñik, zeure lagijoi saŕi autsi dot; naikua irain egin ixan dautzut. ¡Niria ixan dan azaŕija! Azketsi egistazu, Jaun oŕek,

gaŕbai-naz-ta. Obenak ondo autoŕtu dagikedazantzat, neure buruba azteŕtuten lagun-egistazu: argiztu nire adimena ta gomutamena, inďaŕtu neure bijotza obenetazko goŕoto bixija aŕtu dagidantzat.

Miren Ama: onbideratu gura-diran obendijen zaindoki eskijeŕa zara-ta, zeure Seme laztanaren laguntzea jaristeko biŕaŕteko zakidaz; bai ta zebek, be, ene Gotzon jabole ta beste deun zainďarijok, obenak ondo gogoratu ta autoŕtu dagikedazantzat.

*Orain alik ziatzen zeure baŕunbia aztertu biaŕ dozu: oŕetarako, egin dozuzan obenak agintzarik agintza gogoratu egixuz ta zeure biaŕkixun gustijak ondo bete ete-dozuzan ikusi.*

## AMAŔ AGINĎUBETAZKO AZTEŔKETA-GAYAK

**Lenengo aginďuba:** «Jaungoikua edozer baño maŕiago ixan».

Agintza onek gebenduba:

Guzuŕ-jaunguak guŕtutia.

Siñeskerija: edozein gauza nai egiñenek goi-inďaŕa daula ziñestia.

Donaustia: Urtzi Jaunari eskeñi yakona biaŕ-dan otsaz ez erabilŕia, ikuŕtonak txaŕto aŕtutia-ta.

Ziñesgogoŕkerija.

Ziñeste-austia.

Urtzi auna goŕoto-ixatia.

Uskuŕtz-auŕkako idazkunak irakuŕtia, ta abaŕ.

**Bigaŕen aginđuba:** «Jaungoikua'ren ixena alpeŕik agotan ez aŕtu».

Agintza onek gebenduba:

Birau-egiŧia.

Jaungoiko-ixena begirune-lotsa-barik erabilŧia.

Guzuŕaz, biaŕ-barik, ala zuzendasun-auŕka zin-egiŧia

Jaunari eginđako eskeintzeak ez betetia.

Zinbez abinđutakua ez egiŧia, ta abaŕ.

**Irugaŕen aginđuba:** «Jai-egunak donetu».

Agintza onek gebenduba:

Jai-egunetan jauparik ez entzun ala txaŕto entzutia.

Gebendutako lanik egiŧia.

Okela-saldeak jan-edan eta baru ez egin okel-uzte ta baru-egunetan.

**Laugaŕen aginđuba:** «Gurasuai lotsa-ixan». *Nok bere biaŕkixunak azteŕtu.*

1. Seme alabaen biaŕkixunak:

Gurasuak maŧe-ixan.
Gurasuai lotsa-ixan.
Gurasuen aginđu-esanak betatu.
Gexo ta biaŕaldijetan gurasuai sorosi.
Gurasuen utsak agarbiŧu ala ixilpetu.
Gurasuen aldez otoi-egin.
Gurasuak ilđa, euren ilburukua betatu.
Etxeko gauzetaz arđura-ixan.

2. Gurasuen biaŕkixunak:

Seme-alabeak soñez ondo azi.

Seme-alabeai otoyak-eta irakatsi, ta adikuntza-aldira eldu diraneko, len-bai-len jaunaŕtzeko gertu.

Irakasle-bidez-edo euren adimenak landu.

Biaŕ ixanezkero geyegikeri-baga nekaldu.

Ikasbide txaŕik ez emon.

Okeŕ-biđietatik alde-eragin.

Garerdirako ogibidia gertuten alegindu.
Etxeko ondasunak alpeŕik ez galdu.
Etxeko beste menpekuak, be, arduraz erabili, lan-sari egokija emon, okeŕ-bidietatik alde-eragin, eta abaŕ.

3. Senaŕaren biaŕkixunak:

Emastia, Josu-Kisto'k Doibatza letz, maŕe-ixan.
Emastia etxian eta etxetik atez aintzat aŕtu, betiko bixi-laguna dau-ta
Emastia galtzorijetatik jabon.
Edozetan lagundu.
Ez itxez ez egiŕez txaŕto ez erabili, seme-alaba-auŕian batez be.
Emastiaren uskerijak oldez jasan.

4. Emastiaren biaŕkixunak:

Senaŕa burutzat aŕtu ta berari lotsa-ixan.
Senaŕaren agindu-esanak betatu, seme-alaba-auŕian batez be.
Senaŕa maŕero lagundu ta bere ardura ixan.
Senaŕari beronen asaŕe-aldijetan ez jardetsi, ixilik egon baño, geruago-aŕte beintzat.
Etxeko notin eta gauzetzaz ardura-ixan, danak alkaŕegaz gentzatsu bixi daŕekezantzat.
Jakijak ondo gerturik eta, senaŕari etxia maŕe-erazoten alegindu.

5. Aberatsen biaŕkixunak:

Ondasunakaŕik-eta Jaunari eskaŕ-egin.
Aberaskijai lotubegi ez egon.
Txiruai ukaŕ-egin, bai ta txadonari, be.
Menpekuentzat bijotz-gogoŕa ez ixan.

6. Txiro ta menpekuen biaŕkixunak:

Josu-Kisto gure Jauna be txirua ta langilia ixan zala gogoratu.
Aberatsekiko bekaitz ez ixan.

Nagusijai lotsa-ixan.
Euren agindu-esanak betatu.
Lanari zintzo ta Jaungoikuaŕen ekin.
Nagusijai, nai-ta, kalterik ez erakaŕi.

7. Gastien biaŕkixunak:

Zaŕai lotsa-ixan.
Ez berandubegi etxeratu.
Lagun gaiztuakin ez batu.
Anai-aŕeba gastiaguakaz ardura-ixan.
Alpeŕkerijari amoŕik ez egin.

**Boskaŕen aginduba:** «Iñor ez erail».

Agintza onek gebenduba:
Iñor erail, zauritu, edo jo egiŕia.
Iñor goŕoto-ixatia.
Iñori irain-egiŕia.
Nok bere buruba erailtia.
Jan-edan laŕegijaz, moskoŕaz-ta, osasun-auŕka jardutia.
Beste iñori oben-bidia emotia.
Erijotzarik edo beste kalterik opa-ixatia.

**Seigaŕen aginduba:** «Gorputz-obenik ez jauki».

Agintza onek gebenduba:
Nok bere burubagaz ala beste iñogaz gorputz-obenik egiŕia.
Izketa loyetan jardutia.
Irakuŕgai lixunak euki edo irakuŕtia.
Antzoki gaiztuetara-ta juatia
Dantza nastubetan jardutia.
Gogo lixunai amoŕ-emotia.

**Saspigaŕen aginduba:** «Ez ostu».

Agintza onek gebenduba:
Ostutia.
Iñori bere ondasunetan kalte-egiŕia.
Ostuba atzera ez egin, ala kaltiak ez ordaindutia.

Salerosketan sasi-gayak, nastubak-eta, saldu; saneuŕi laŕegi eskatu ta aŕtu; edo ta, saneuŕi betia baño gitxijago ordaindutia.

**Zortzigaŕen aginduba:** «Guzuŕ-ziñaltzarik ez egin eta guzuŕik ez esan».

Agintza onek gebenduba:

Guzuŕ esatia, besteren kaltez batez be.

Guzuŕ-ziñaz lekuko-egiťia.

Besteren oben ixiľak ageŕtu ala zabaldutia.

Besteri guzuŕetan obena ezaŕtia.

Maxiatu ala zijo-barik iñor gaizto-estia.

Ixen ona zuzenbagez kendu, ta biguŕtuten ez alegindutia.

**Bederatzigaŕen eta amaŕgaŕen agindubak:** Agintza oneik seigaŕenan eta saspigaŕenan saŕtuta dagoz.

## AZTEŔKETAZ GEROKO OTOYA

¡Ene Jaun eta Jaungoiko on ori! Zeuri -auŕka ustezko oben laŕi bat egin ebelako, gotuts edeŕak ziranak goteunge ikaragaŕi biguŕtu ziran eta betiko su-lezetara amildu. Ni, baña, aek baño gaiztuagua ixan nozu: ¡amaika oben egin dodaz zeuri auŕka ustez, itxez ta egiťez! Donokirako eskubidiak galdu ta sulezerakuak eskuratu egin dodaz. ¡Neuria bai ixan dala itxukeri baltza! Oben -egiñaz gixonik aberatsenaren jarauntzi osua galdu ba'leut, aundija-bai-aundija litzake nire gaŕbaya! Orain, baŕiz, oben-egiñaz Urtzi Jaunaren eskaŕa ta donokirako esku-

bidia galdu dodazalarik, ez-ete-naz gaŕbai-ixango? Ganera, su-lezeko oñaze ikaragaŕiják irabazi dodaz...

¡Ai, ene! ¡Azketsi egistazu, Jauna! Egindako obenaz garbai-nozu, bai goi-eskaŕa galdu ta betiko oñaziak irabazi dodazalako, bai ta batez be zeu, aīarik maīagaŕijen ori, iraindu ta judaŕak lez baŕiro gurutzan josi zaudazalako. Zure seme zintzua ixaten jakin eztodanezkero, arako seme zaŕastelarena dagit: zeure oñetan auzpezturik, otseintzat naŕkezula deskatzut. Enagixu egotzi, aŕen. Neure oben gustijak zintzoro autoŕ-eutzuliari autoŕtuko dautsodaz-ta, beronen bidez esaskedazuz beñola zeroŕek Miren Matalaŕ obendijari esandako itz pozkoŕ oneik: Ire obenak azketsi yanaz, gentzaz uake. Bakaŕ au bijotz-bijotzez deskatzut, Josu gurutzalduba, Miren Ama nekatsuba, ta beste deun oro bide dirala. Olantxe.

## AUTOŔTZEN DAUTSET

*Autoŕtegirantz uŕeratuta belaunbiko esan:*

Autoŕtzen dautset alorodun Jaungoikua'ri, Miren beti Neskutz zoruntsubari, Mikel gongotzon zoruntsubari, Jon Ugutzari zoruntsubari, Kepa ta Paul beldu deunai, deun gustijai, baīa zeuri aba oŕi, be, obenik asko egin dodana, ustez, itxez ta egiīez, neure

eŕuz, neure eŕuz, neure eŕu-eŕuz; augatik, eskatzen dautset Miren beti Neskutz zoruntsubari, Mikel gongotzon zoruntsubari, Jon Ugutzari zoruntsubari, Kepa ta Paul beldu deunai, deun gustijai, bata zeuri aba oŕi, be, Jaungoiko gure Jaunari neure aldez otoi -dagitsazubela.

*Jauparijagana elduta,* Aguŕ, Miren garbija *esanik aguŕtu, ta onan jaŕatu:*

Jauna: azkenengo autoŕpena egin nebala onenbeste egun —ilabete— dira.

Oben nekia bete neban —edo, eneban bete—.

Ezkonduta —edo, ezkondu-barik— nago.

Neure buruba aŕduraz azteŕtu dot; egindako obenakatik gaŕbai-naz —damu-naz—, ta baŕiro ez egiteko erabaki sendua dot.

Lenengo aginduba: Jaungoikua edozer baño matiago ixan. Eztot Jaungoikua biaŕ dan letz mate -ixan ..

Bigaŕen aginduba: Jaungoikuaren ixena alpeŕik agotan ez aŕtu. Biraurik eztot egin, itz gogoŕen batzuk esan bai, baña: —edo birau-egin dot...— *Zenbat bidaŕ jakiñezkero, esan; ostantzian, egunan, astian, ala ilabetian gitxi gora-bera zenbat bidaŕ...*

*Onantxe agintzaŕik agintza zeure obenak argi-ta -garbi esan, gomutamenak auŕkezten dautzuzan letxe.*

*Saŕi autoŕtzen daunak agintzarik agintza autoŕtu biaŕik eztarua ixan; azkenengo autoŕpenaz-geroko utsak esatia naikua dau.*

*Oben baŕirik eztaunak lenago autoŕturiko andijenak bautoŕkez azkespen-gaitzat.*

*Oben-autoŕpena onan-edo amatu:*

Azkenez, neure bixitzako oben laŕi ta arin gusti-

jak autoŕtuten dodaz; danakaťik Jaungoikua'ri azkespena deskatsot; eta baŕiro bein be ez egiťeko asmo sendua dot. Azketsi egistazuz, aŕen, Jaunaren ixenaz, ta oben-nekia ezaŕi.

Baťa geure Jauna aŕtuteko axuba, be, eskatzen dautzut.

*Jauparijak diñoskezuna adi-adi entzunda, azkitz -bitaŕtian* Aguŕ Josu-Kisto *esan.*

## AGUŔ JOSU-KISTO

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun, Jaungoiko ta gixon egi, neure Irazale, Aba ta Erosle ori; zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro; zeu edozein gauza baño maťiago zaudaz; bijotz-bijotzez gaŕbai-naz zeu iraindubaz, zaran on-utza zaralako, baťa gaiztokiko neke betikoŕakaz nekaldu naikezulako be; gauŕdanik obenik ez egiťeko, zeu irainduteko zorijetatik igesteko, autoŕtuteko ta ezaŕiko leikedan oben-nekia egizteko erabaki sendo -sendua dagit.

*Astirik ixanezkero, uŕengo au be esan daikezu:*

Nire bixitza, egiñen eta neke-oñaze gustijak neure obenen ordez deskeintzudaz; eta zaran on eta eŕukijoŕ oŕek, zeure odol edeŕ, neke-oñaze ta erijotz-irabazijak bide dirala, obenak azketsi ta zuzendu-bidia ta erijotz -aŕterаño jopu-egiťia emongo daustazuzala ditxarot.

*Jauparijari mun eta aguŕ-eginda, zeure lekuratu zadiz.*

## AUTOŔPENAZ OSTIAN ESATEKO OTOYA

Eskaŕik asko zeuri, ene Josu maŕe oŕi, neure obenak ondo autoŕtuten lagundu ta zeure eskaŕ deunaz azketsi egin daustazuzalako. ¡Zeu bai-zarala on-utza niretzat! Irazan, iradaun eta erosi egin nozu; egin dautzudazan irain gustijak azketsi daustazuz; neure obenakaz irabazi dodazan gaiztokiko oñaze goŕijetatik jabon nozu, ta donokiko atsedena abindu daustazu.

Orañokuan zeu iraindubaz gaŕbai-naz; bijotz-bijotzez maŕe-zaudaz; auŕerantzian obenik ez egiŕeko zeure eskaŕ ugarija ixuriko al-daustazu!

¡Miren deun, ene Ama laztan ori! Aŕen, zeure Seme maŕia eztagikedala gauŕdanik iraindu.

Ene gotzon jabola ta beste zaindarijoik: ¡neure gogua oben orotik jaboten lagundu nagixube, aŕen! Olantxe.

*Azkenez, oben-nekia bete.*




# JAUNAŔTZEA

Ondo jaunaŕtzeko iru gauzaok biaŕ-dira: 1.ª, oben aztunik ez ixatia; 2.ª, gogo zuzena; 3.ª, barurik egotia.

Oben aztuna egin daunak jaunaŕtu-orduko autoŕtu egin biaŕ dau. Oben ariñak, baŕiz, eztira jaunaŕ-

tuteko eragozpide, euretzaz gaŕbai-ixatia egokija da, baña.

Gogo zuzena, Josu-Kisto norbereganatuteko asmoz jaunaŕtutia da: gogo ori bixijago ta aratzagua, ta eskaŕ ugarijagua jadetsiko da.

Jaunaŕtuteko, gaberdiťik ezertxu be jan-edan -barik iraun biaŕa da: auxe da jaunaŕtzarako baruba.

Iru gauzaok ixanezkero, edonok egunoro jaunaŕtu dagike. Jaunaŕtu baño lenago geŕtu ta jaunaŕtuta gero eskaŕ egiťia nai-ta-ezkuak eztira, onuragaŕijak bai, baña.

## GOGALDIJA

Jaunaŕtu baño lenago, aŕtuko dozuna nor dan eta aŕtzaľia, zeu, nor zaran gogaldu egikezu.

### I

Josu-Kisto Jaungoikua ta gixon egija da. Jaungoikua danez, Aťa betikoŕaren Seme bakaŕa da, bera baxen algustiduna, oro-jakiťuna, on utza. Gotzonen egiľia da-ta, gotzonok Josu-Kisto'ren agindubak ziero betetan dabez; gauza ororen irazalia da-ta, gauza oro bere menpian dago.

Gixona danez, Miren Neskutz deunaren Semia da, gixonik edeŕena ta maťagaŕijena, beste gixon gustijen ereduba, gixonakaŕen bere bixija emon ebana.

Josu-Kisto Jaungoikua ta gixona ixanik, ogi-ardau-antzez ostendu zan, eŕezago geuganatuteko, geure goguen janari gozuá ixa-

teko, geu emoi ta goi-eskaŕ bikañez betetako. Oŕa oŕ, aŕtuko dozuna nor dan...

II

Zeu, ordez, ¿nor zara? Gogo-soindun ixaki makala: gogoz etxakiña, obendun soŕtuba ta obenkoya; Jaunaren eŕuki aundija bide ixan dalako, betiko sutzaŕera jausi etzara; soñez luŕa, loya, autsa zara; neke-oñaze ta erijo-pian zagoz.

¡Zeu zaran txatxaŕa! Eta zaran ezereza gora-bera, Jaungoiko-Semia zeugana etoŕi gura-da: zeure gogo-jakija ixateko joraintsu dago...

Oŕezkero, zeure buruba alik onduen geŕtu biaŕa dozu: gogua goi-eskaŕez ta onoimenakaz apaindurik, ziñesmen bixiz, itxal aundiz, apaldasun zintzoz, bijotz-gaŕbai negaŕtsuz, maŧasun beroz, uste osoz; soña, jaunaŕtzarako baruz lenen, eta gero, eraŧasun-garbiŧasunakaz, ta batez be asmenak bilđurik, beste iñora begiratzeka, beste iñortxuri itz-egiŧeka.

## JAUNAŔTU BAÑO LENAGO ESATEKO OTOYA

¡Josu-Kisto neure Jaun, ortzi-lúđijen Jabe ori! Aŧarik maŧagaŕijena, sendatzalerik eŕukoŕena, irakaslerik jakiŧunena ta gogo-artza-

ñik arduratsubena zara. Ni, bafiz, obendi efukafija baño enozu; zeu-aufe egoteko be gai enozu. ¿Nolan erdu nadike, ba, zeure oturuntza deun ofetara? Baña, nire oben ugarijak begiratzeka, neuganatu ta neu-bafuratu gura-zara. ¡Ai, ene Jaun ori! Lotsaz beterik Kepa deunak iñotzuna esan biaf-dautzut: ¡Alde nigandik, ez etofi nigana, Jaun ori, obendi gaiztua baño enaz-ta!

Jon Ugutzari deuna zeure oski-ugelak azkatuteko iñortxu ezpa-zan, ¿ni zeure mai deunerako gauza ixango ete-naz? ¿Ikara-barik uferatu ete-nafeke zeugana, gotzonak, be, zeu-agefijan lotsearen lotsaz ikara ei-dira ta?

Miren Neskutz deunak, zeure Ama'tzat autetsija ixan eta goi-emoi ta eskafez ganezka beterik egon-afen, zeu bere sabel garbi-garbijan sortuteko gauza etzala ba-iñotzun, nik, oben lafiz bete onek, neu-bafuratu ete-zagikedaz? ¡Ai, ene Jaun ori! ¿Gaizkile aundi onengana etofiko ete-zara? ¿Etxe naskagafi onetara saftuko-ete?

Ezeian be enintzake zeuganatuten azafiko, zeuk lenago Zakai'ri letz dei-egin ezpa' leustazu, ta amaika bidaf egin be: Jatsi, Zakai, gauf eurian etxaldu gura nok-eta.

¿Zer-dala-ta, Jauna, neuganatu gura-zara? ¿Neure irabazijak dirala-ta? ¿Edo ta, neure onoimenak dirala-ta? ¿Baña, nazan obendi

aundijonek onoimen-irabazirik ařatu? ¡Ai, ene! Bai-dakit, Jauna, bai-dakit zek zakařtzan nigana: nazan txiro-ezerezak. ¡Zeure mařasuna bai-dala mařasun andija!

Beñola, sendatzale-biařik osasundunak ez ebela, gexuak baño, esan euzun: ořa, zegatik etoři gura-zaran: nire opariña, nazan txiro lařija ondo dakutzu-ta, sorosi egin gura-dozu. Olantxe da ixan be, Jauna: obenez beterik, utsez ganezka nago; enozu zeuganatuteko gauza. Zeugaz-barik ezin bixi, baña; zeugandik uřunduzkero, betiko galduko naz. Zeugana, Jaun aberats ořengana, natoř ba, nazan txiro-landeř au sorosi nagikezun; zeugana, sendatzale on ořegana, natoř, neure ondeza ayenatu ta gustiz sendatu nagikezuntzat. Zeuk eřukiro begiratubaz beste-baga sendatu ta zuzenduko dira nire almen-asmenak.

*Emen zeure gogo-gorputzetako ondezak ustetsu Josu-Kisto'ri ageřtu egijozuz; eta gero onelan jařatu:*

Ama Neskutz bijozpera! Kana'ko eztei-jataldijan, ezkonbařijen lařija zala-ta, Josu zeure Seme laztanagandik ura ardau biguřtutia jaritxi eutsezun. Neure aldez be otoi-egijozu, ařen; zeure Seme ori ondo ařtuteko biařa dodan goi-eskařa jadetsi egistazu. Zeuri bein be eztautzu ezetzik esaten-eta, zeure babespian ařtuta auřkeztu nagijozu;

eta, nazan txiro-landeŕaz aztuta, pozaŕen neuganatuko da. ¡Bai-dot, Ama, zeure laguntza-biaŕa!...

Gotzon deunok: ona emen, ikuŕton-mai deunera, donokijan zeben betiko ogija dana jaten natoŕela. Onoimenakaz apaindu nagixube. Eta zubek, donokijan zagozen beste enparau deunok, lagun-zakidaze, Ikuŕton deuneko Joskorputza jaten zebek letxe ziñesmen bixiz, uste osoz ta maŧasun beroz eldu naikentzat. Onelan jaunaŕtu-ondoren baiki desaket: Bixi naz bai; ez ni, Josu-Kisto neugan baño.

*Uaŕtu.* Joskorputz-ikuŕtona ondo aŕtuten daun edonori goi-eskaŕa berez geŧuten yakon-aŕen, geŕtubago jaunaŕtuten daunak eskaŕ ugarijago loŕtuten dau-ta, alik onduen apaindu biaŕ dozu zeure bijotza, Josu'k jaumaŧasun-gaŕaz gorijagotu dagiskezuntzat.

*Jauparijak oteundegija zabaltzekuan* **Autoŕtzen dautset** *esan; gero, baŕiz:*

¡Guŕ-dagitzut gotzonen ogi bixija zaran Oteun oŕi!

Guŕ-dagitzut, ene Erosle eŕukoŕ oŕi; zeuri ziñesten dautzut, zeutzaz nitxaro ta zeu bijotz-bijotzez maŧe-zaudaz.

*Gero iru bidaŕ:*

Jaun ori: ni enaz zeu aŕtzeko gauza; itz

batetxu esan, baña, ta osatuko dozu nire gogua.

*Onezkero, ezpanak geldi, baña bijotzak maitasun-itzak darijozala, mai deunera urreratu ta Oteuna arrtu.*

JAUNARRTU-OSTIAN

*Uarrtu*. Jaunarrtu-ostian, besterik eziñian ixan-ezik, ez egixu berialaxe txadonetik alde-egin, Josu-Kisto'ri biarr dozuna eskatuteko abagunerik onena ordukoxia da-ta. Aundikiren bat geurera ba'ledi, berari itz-egiteka aldenduko ete-gintzakez etxetik? Joskorputza arrtuta zeure lekuratu zadiz, ba, ta ordu-laurenian, edo al dozun bestian, eskarr ta otoiketan ekijozu.

## JAUNARRTU-OSTEKO OTOYA

Eskarrik asko, ene Josu, neuganatu zaralako, nazan obendi gaxo au ezetsi-barik neugaz batu gura-ixan zaralako. ¿Zer dala-ta jaritxi leikedan nik olako zori onik? Ointxe, bai, arako Simeon deunak lez desakedala: Onezkero, pozarren il nateke, Gaizkatzailia ikusi dot-eta, ¡Jaungoiko-Semia neuganatu dot-eta! Ludi aunetan jaritxi dateken zorunik aundijena eskuratu dot; emoi ta eskarr gustijen iturrija neuretu dot.

Beroni dagokijon eskarrona ¿zelan erakutsi? Orretarako gauza enaz-ta, lagundu nagixube donokiko gotzon gustijok, neure ordez Goiko Jauna goretsi ta eskarr-egijozube; ludi aunetako done gustijok, zebek be

Jaunari eskaŕ-egiten lagun zakidaze. Eta zeuk batez be, Miren Neskutz ořek, eskaŕ-egijozu zeure Seme laztan oni, neuganatu dalako; eta neuri, be, berorixe egiten irakastazu.

Ixaki gustijak zeuri, Josu laztan oŕi, eskaŕ-dagitzubela opa-dot; baña, orixe be naiko eztalako, neure buruba beintzat eskaŕonez deskeintzut; neure almen-asmenak, neure gogua ta soin osua dopaltzudaz.

Gauŕgeroz Paul deunak letz desaket: Bixi naz bai; ez ni, Josu-Kisto neugan baño. ¡Ene Jaungo ori! Gauŕdanik beti zeure-zeuria ixan gura-naz; zeuretzat aŕtu ta onoimenakaz apaindu nagixu, alik onduen maite zaikedazantzat.

Orañaŕte eztot Josu laztana beti maite-ixan. ¡Au zoritxaŕa! Obenaz saŕi iraindu dot. ¡Au lotsagaŕija! Baña, eztot baŕiro iñoz be obenik egingo; ¡ez-ta! Zeuri, ene Gaizkatzale oŕi, dautzudan maitasuna erakustiaŕen, zanetako odol gustija ixurtzeko gerturik nozu. Eskaŕ aundi ori eskuratuteko gai ezpa-naz, beste erabaki sendo auxe betetan leyatuko naz beintzat: gixon orok zeu maite-zagikezan, iñok obenaz iraindu etzagikezan, eten-barik alegindukо naz.

Eta gixonak biaŕ dabezan gauza gustijak zeuri eskatuteko gura-dozu-ta, ona emen, nik deskatzudazanok:

1.ª Obendijak onbideratu dagikezuzala. ¿Eztakutzu, Jauna, amil-bera betiko su-leziētara duazala?

2.ª Onak onbidez azkenerarte diraukiela. Bide ori azkenerako lagako ba'lebe, ¿zelan saririk irabazí?

3.ª Gardostegiko gogo gaxuak andik aterata betiko aintzara daruakezuzala. Areik bai benetan mate-zabez, ta zeu ikusteko gar dira.

4.ª Nire guraso, lagun eta ongiliai biar -daben gustija emon dagijezula.

5.ª Doibatz Ama luralde gustijetan nagusi ixan dedila, ta batez be neure aberijon. ¡Asabaen ziñismen senduak geruago ta bixijago birauke!

6.ª Otoi-zor nazakijen gustijak onetsi egixuz; eta danoi ludi aunetan zeure eskar deuna ta gero betiko zoruna emoskeguzuz, donokijan Ata ta Goteunagaz nagusi zaran ori jauretsi ta aintzaldu zagikeguzantzat. Olantxe.

## O, JOSU ON ETA GOZUORI

*Jaunartza-ostian nekazka osua irabazteko, Josu gurutzaldubaren irudijaz-aurian urengo otoyau esan:*

Ona ni, Josu on eta eztitsu ori, zeure aurian belaunikatuta. Gogo bixi-bixiz eske

ta aŕen - dagitzut. Bijotz - baŕu ziñesmen, itxaromen eta goimaŧasun-sen bixijak, neure obenekiko garbai zinđua ta geyago ez egiŧeko erabaki sendo-sendua iraŕi egistazuz. Nik, baŕiz, gogomin eta maŧasun aundiz zeure bost zaurijak ausnaŕtu ta gogorazoten dodaz; eta «Esku-oñak zulatu egin daustez ta azuŕ gustijak zenbatu» beñola zeuk, Josu on oŕek, Dabi iragaŕliaren bidez esan euzuna begiz-joten dot.

*Geure Aŧa..*, *Aguŕ Miren...*, *Aintza...* esan, nekazka osua irabazteko.

## JOSU-KISTO'RI AŔENTZA

Kisto'ren goguori, neu donetu.
Kisto'ren gorputzoi, neu gaizkatu.
Kisto'ren odoloi, neu asebete.
Kisto'ren sayets-uroi, neu garbiŧu.
Kisto'ren nekaustioi, neu sendatu.
O, Josu onori, neuri entzun.
Zeure zaurijotan, neu eskutau.
Zeugandik alde-egiŧen, ez laga.
Arerijo gaiztotik neu aldeztu.
Erijotzaldijan dei-egin neuri:
Ta zeugana elduteko aginđu,
Zu zeure deunakin nik goresteko
Amaibako egunetan. Olantxe.

## JOSU-KISTO'REN BOST ZAURIJAI

1. Aguŕ, Josu-Kisto: zeure eskeŕ-oñeko zauri deunari guŕ ta mun dagitsat; bertaz ixuri euzun odolaŕen, aldendu naikezu obenbide okeŕetatik.

*Geure Aŕa... Aguŕ, Miren... Aintza...*

2. Aguŕ, Josu-Kisto: zeure eskuma-oñeko zauri deunari guŕ ta mun dagitsat; bertaz ixuri euzun odolaŕen, zeure agintza-bidez zuzendu egiskedazuz beti nire oñak.

*Geure Aŕa... Aguŕ, Miren... Aintza...*

3. Aguŕ, Josu-Kisto: zeure eskeŕeko zauri deunari guŕ ta mun dagitsat; bertaz ixuri euzun odolaŕen, eutsi niri, eta ez utzi egundo zeugandik aldenduten.

*Geure Aŕa... Aguŕ, Miren... Aintza...*

4. Aguŕ, Josu-Kisto: zeure eskumako zauri deunari guŕ ta mun dagitsat; bertaz ixuri euzun odolaŕen, esku-zabalaz onetsi nagixu ta zeure zainbian euki.

*Geure Aŕa... Aguŕ, Miren... Aintza...*

5. Aguŕ, Josu-Kisto: zeure bulaŕeko zauri deunari guŕ ta mun dagitsat; bertaz ixuri euzun odolaŕen, zeure Bijotz-baŕu jabon naikezu beti, ta zeure Bijotzeko sukaŕaz nire bijotzau, be, eŕe ta kiskaldu.

*Geure Aŕa... Aguŕ, Miren... Aintza ..*

## ZIÑESTE, ITXAROTE TA JAUMAŦE-EGIKUNAK

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun! Ziñesten dot Jaungoikua ta Gixona zarana; ziñesten dot, gixa-emiak erostiaŕen gurutzan zeure odol gustija ixuririk il zintzazana; ziñesten dot beŕbixi ta donokira igon zintzazana, ta bertatik bixijak eta il̄ak epaŧetan jatsiko zarana. Ziñesten dot zeuk, egi utz oŕek, irageŕi ta Doibatz gure Amak dirakaskun gustija. Eta orain ziñesten dođanau beti ziñesteko asmo-asmua dot, eta ziñesmen onen aldez pozaŕen ixuriko leuket neure zanetako odol gustija.

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun! Zeutzaz nitxaro, neure Eroslia ta Gaizkatzal̄ia zaralako; zeutzaz nitxaro, biaŕ dodan eskaŕa zeuk ibazi đaustazulako. Eskaŕ au emongo đaustazula ditxarot, eta erijotz-ostian donokira aŕtuko nozula, donokiko atiak zeuk zabaldu euskuzuzan-eta. Zeure eskaŕa euŕez ixuri egiskedazu bixi nazanaŕtian, berari naŕaikijala betiko atsegiña irabazi dagikedantzat. Uste ta itxarokintzeau beti neure bijotzan iradaukezu, aŕen.

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun! Maŧe-zaudaz bijotz-bijotzez; maŧe-zaudaz, on utza zaralako; maŧe-zaudaz, irazan nozulako; maŧe

-zaudaz, iradauten nozulako; mate-zaudaz, zeure odola gurutzan ixurijaz erosi nozulako; mate-zaudaz, donokijan betiko zoruntsuba egin gura nozulako; mate-zaudaz, neure janarija ta edarija egin zaralako; mate -zaudaz, gauŕ aŕtu ta jan egin zaudazalako; bigaŕ ta egunoro zeu aŕtzeko ta batez be erijotzaldijan nire gogua zeure gorputzaz alikatuteko eskaŕa deskatzut. Olantxe.

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun! Orañaŕte oben egiñaz iraindu egin zaudaz; garbai nozu, ta onik-eta oben txikaŕenik be ez egiteko asmo sendua dot; asmo au ziero betetako zeure eskaŕaz lagundu nagixu. Olantxe.

## JOSU'TZAZKO OLDOZKAYAK

*Geyagorako astirik ixatekotan, uŕengo oldozkayok ausnaŕtu:*

**Josu Auŕa.** Miren Neskutzak Josu Auŕa besuetan imiñiko ba'leutzu, ¿zer esango leuskiozu? ¿Nolan guŕtu ta laztandu?... Oŕa, ba, aunaŕtu daunak besuetan-barik soin-baŕu dau Josu Auŕa... Laztandu, guŕtu ta mate -egixu.

**Josu gogo-argija.** Ludijau eguzki-bage ¿zer litxake? Ilun-otza, negaŕgaŕija... Josu -bage gixonaren gogua, be, ilun-otza ta negaŕgaŕija ixango litxake... Zeure adimena

argiztu ta bijotza jaumatasun-gaŕez ixijo dagitzuzala eskatu.

**Josu neure Ata, ta a.** Aŕtu dodana atarik matatijena dot, ezkonik laztangaŕijena, anairik onena, adizkiderik zintzuena, irakaslerik jakintsubena, artzañik arduratsubena... Oŕezkero, ustetsu itz-egingo dautsot; neure oben eta giriña gaiztuak ageŕtu, ta eurok zusteŕkatuteko laguntzea eskatu...

**Josu gogo-sendatzalia.** Josu, ene sendatzale ori: ¡gexorik dot gogua, aul dodaz almenak eta asmenak! Sendatu nire begijok, biaŕ eztanik ikusi eztagijen: sendatu nire mingaña..., entzumena..., eskubak..., oñak..., sendatu neure adimena, oroimena ta naimena...; sendatu ene gogo osua...

**Josu zeure bijotzan.** Jaunaŕtza-ostian Josu-Kisto zeure bijotzan dozu, bertoko nagusi dozu. Auŕkeztu egijozuz, ba, zeure gogua ta almenak, gorputza ta asmenak; danok guŕtu ta jauretsi dagijen; Josu'k, ordian, onetsi dagikezantzat; aundikiren bat zeure etxeratu ba'ledi, seme-alabeak-eta auŕkeztuko leuskiozuzan letxe.

## INDUTAŔAREN IKASBIDE EDEŔA

*Aŕtu dozun Jauna ez baŕiro iraindu.*

Ona emen, Indubetatik belgundari ezeinbatek idatzi ebana:

«Eŕitxu ontan lenengo gixona ugutzau eudanian, gixon gaste arek jaunaŕtu be gogoz egin eban. Orduban beste eŕiratu biaŕa ixan eudan, eta urte-bete geruago itxuli nintzan. Kistaŕ gastia, ikusi nendubaneko, pozaŕen etoŕi yatan, jaunaŕtu gura ebala-ta. Bai pozik, ene seme, erantzun eutsadan; baña, lenago geŕtu biaŕa dozu, urte ontan egin dozuzan obenak autoŕtu biaŕa dozu.

¿Zer diñozu, Jauna? —erantzun eustan—. ¿Bein jaunaŕtu daun kistaŕak baŕiro oben-egin ete-legike? ¿Josu laztana bere bijotzetik egotzi ta goteungia baŕiro ezaŕi ete legike? ¿Olako gaiztakeri baltzik iñok egiten dau, ala?

Nire kistaŕ baŕija benetan aŕituta eguan; jaunaŕtzeko autoŕtu biaŕik ezeban ixan. Aŕezkero, al -eban egun gustijetan jaunaŕtuten eban, eta gogoz atan be».

Zeuk, be, kistaŕ oŕek, al ba-dozu, egunoro jaunaŕtu egikezu; eta gorputzez ezin dozunian, gogoz beintzat saŕi jaunaŕtu dagikezu, bai ta egunian askotan be. Gurutzaren Agate zorundunak egunez eun bidaŕ ta gabez beste ainbestetan egiten ei -eban.

## GOGOZ JAUNAŔTZEKO ERA EŔAZA

Ene Josu laztan ori: Ikuŕton deunan egiz zagozala ziñesten dot; zeutzaz nitxaro; bijotz-bijotzez maite-zaudaz; eta zeure Gorputz deuna jateko gogo bixija dot. Baña, orain ezin dot-eta, neure gogo au beintzat ontzat aŕtu, ta zeure eskaŕa geŕubaz ordaindu egistazu. Olantxe.

## UGUTZALDIJAN EGIÑIKO ABINTZAK BAŔIZTETAKO EREA

Ene Jaun eta Jaungoiko: Eskaŕik asko, zeure antzez irazan eta Ugutz deunaren bidez beŕsoŕtu ta goi-eskaŕ ta onoimenakaz apaindurik, Doibatz deunaren seme egin nenduzulako. Egun zoragaŕi atan aŕabitxijaren aboz Satan'i ta beronen egiñen, aŕandi ta andikerijai ezetz esan eta uko-egin eutsedan. Ganera, Doibatz orokaŕa, donien aŕtu-emonak, eta beste ziñeskai oro ziñetsi, ta Goiko Jaunaren agindubak ziero beteko eudazala abindu eudan. Adikuntza-urtietara eldu nintzanezkero, baŕiz. ugutz-abintzok askotara autsi dodaz. Jaungoikua laga, ta goteungiari jaŕain nayako; onen ospe, dedu, ondasun eta aŕandijak aintzat aŕtu, ta Jaunak abindutako goi-emoi ta benetako ondasunak ezetsi egin dodaz. Jaungoikua maŕe biaŕ, ta obenaz iraindu egin dot! Urtzi Jaunaren eta Doibatzaren agindubak amaika aldiz autsi dodaz ta neure biaŕkixunak bete ez! Zeu iraindubaz gaŕbai-nozu, Jauna; goŕoto dot ene gaiztakerija; zeure Semiaren irabazijak dirala-ta, azketsi egistazu, aŕen.

«Gaur ugutzaldiko abintzak baŕiztau egin gura dodaz, ta onik eta gero zintzoro bete. Baŕiro be, ezetz diñotsat Satan'i, ta bere

ospe, ařandi ta egiñen gaiztuai uko-dagitset. Gaurgeroz, goteungiaren zirikadeai eztautset amořik egingo; ařokerija, zekenkerija, aragikerija, aseřekerija, salokerija, bekaizkerija, nagikerija ta beste giriña gaiztuak bezau, ta gixařteko dedu ta atsegiñekiko zalekerija neure bijotzetik zusteřkatuten leyatuko naz».

Ludiko dana uskeri utsa da-ta, goi-ondasunak baño eztodaz aintzat etsiko. Doibatz Amak dirakaskun gustija ziñesten dot, eta ziñeskintza ori aldeztutiařen neure bixija emoteko gertu nago. Zeutzaz nitxaro, Jauna: nire itxarokuntza osua zeugan ezařten dot, ez beste iñogan. Zeu, Jaungo ori, bijotz-bijotzez mařeko zaudaz; nire gogo-gorputzak, almen-asmenak eta daukadan gustija osorik deskeintzut: ařtu egixu, ařen.

Geřu egixuz nire ziñesmena, itxaromena ta mařasuna; bařa, ugutzaz ixuri eustazuzan beste onoimenak, be. Indartu nire erabakija, zeure odol edeřařen, eta zeure Ama laztanaren, gotzonen eta deunen ibazijak bide dirala. Olantxe.

# JAZOKUNAK

*Ondo autoŕtu ta jaunaŕtu ezagatik ondore laŕijak.*

### 1.ª Txaŕto autoŕtu eroyanaren erijotz baltza.

Liguori'taŕ Albontsa Mirena deunak diñonez, bein buñuŕdun (kaputxiño) aba ezeinbati arako gixona gexorik eguala-ta, autoŕ-entzuten juateko eskatu eutsaen. Gixon a lagunak on-ontzat esten eben. Autoŕ-entzulia eldu zaneko, gexuak onan itz -egin eutsan:

— Ene aba: etxekuai autoŕtu dodala esaskiezu, aŕen: baña, nik eztot autoŕtu gura; ezin dot autoŕtzarik egin.

—Zer ba? itandu eutsan abeak.

—Ara: betiko galduta nago: iñoz be eztodaz neure oben gustijak ondo autoŕtu-ta, orain ezin autoŕtu; Jaungoikua'k eskaŕ ori ukatu egin daust.

Itxok esanda, gexua oŕuka ta ai-eneka asi zan. «Ai, ene mingain deungia! ai, ene zoritxaŕa! al-ixan eudanian obenak autoŕtu gura ixan ezeudazalako!» Mingaña aginka zati-zati eginda, ayots eta oyu ikaragaŕijak ataraten ebazala il zan. Il zaneko, baŕiz, ilotza ikatza baxen baltz biguŕtu zan, eta zarata ixukoŕak eta ats iguingaŕija nabatu ziran.

### 2.ª Pelagi zorigaiztokua.

Pelagi zorigaiztokuari jazo yakana Bedita deunaren edestijak dakaŕ. Pelagi umetan on-ona ixan zan; eta gurasuak ilezkero, lekauti edo eremutaŕen bixikerea aŕtu eban. Bakaŕtegijan gogoz iñarduten zan otoiketan eta bere buruba ilduratuten. Bein, baña, oldozkun lixunari goguan leku-egiñik oben laŕija jauki eban. Aŕezkero, gogua pozke ta itun

ixaten eban: ordurarteko ixen ona galdu egingo leukiala-ta, obena autoŕtuteko bild̄uŕ zan.

Bidazti aŕotza irudijan norbat̄ek onu au emon eutsan: Pelagi, autoŕtu egik eta galdu dokan gentzea baŕiro, be, eskuratuko dok. Au esanda bidaztija ostendu egin zan. Pelagi, baña, autoŕtuten etzan iñoz azaŕten.

Oben-azkespena jad̄esteko, bere buruba gogoŕ nekaldu ta ild̄uratutia erabagi eban. Oŕetarako, lekaidetxe ospetsu ezeinbatera saŕtuteko eskatu eban. Bere ixen ona zala-ta, poz-pozik aŕtu eben. Antxe lekaiderik onenetarikua letxe bixi ixanda, erijotz-orduban azken-ikuŕtonak aŕturik, il zan; eta txadoneko lekaide-ildegijan ioŕtzi eben, orok deuntzat esten ebela.

Uŕengo gabaz txadon-zañak Pelagi'ren gorpuba il̄aŕi-ganian auŕkit̄u eban; eta, iñori ezer esateka, baŕiro ioŕtzi eban. Baña, uŕengo gau bijetan, be, baŕdin jazo yakan-eta, lekaipurubari iragaŕi eutsan.

Lekaipurubak, lekaidiakin il̄obiratuta, Pelagi'ri onan itz-egin eutsan: Pelagi, biztaldijan esangin-esangiña zintzazanezkero, ild̄a gero, be, Goiko Jaunaren ixenez erantzustazu: Jaunak zure gorpuba leku bedegaŕan il̄obiratutia nai dau ala?

Il̄otzak, julu ikarakoŕa egiñik, onan erantzun eban: Ai, ene zoritxaŕa! Oben bat autoŕtzeka izten ixan eudalako, gaiztokijan nago betiko; ikusi nire gorpuba! Eta bertatik Pelagi'ren gorpuba burdin gori-gorija letxe su-ta-gaŕ ageri zan. Ara be abuan eban Oteuna kentzeko eskatu eutsan Pelagi'k lekaipurubari, ta gero bere gorpuba sastegira egozteko. Alantxe egin eben.

Jazokun ikaragaŕi onek argi-ta-garbi derakusku lenago at̄atu dan arako egi biribil̄a: edo ugutzaz geroko obenak autoŕtu, edo betiko su-lezeratu.

### 3.ª Bakaldunaren alabea.

Rodríguez Pantzeska abeak diñonez, England'eko Auguberta bakaldunak alaba lirain-edeŕa eban, eta bakaldun-gai askok emastetzat aŕtu gura eben. Ateak nogaz ezkondu nai zan iŕandu eutsanian, iñogaz be ezin zala ezkondu erantzun eban alabeak, Josu-Kisto'ri garbiŕasun-eskañitza egin eutsala-ta. Bakaldunak eskatuta, Doipurubak alabearen eskañitza lagazkatu, ta ezkontzeko lakemena emon eban; alpeŕik, baña: alabeak azetara be ez eban atzera egin gura ixan-eta. Ordez-ordian alabeak ateagandik beste au loŕtu eban: etxetxu baten bakaŕ-bakaŕik bixi-ixatia. Bixi, be, antxe bixi ixan zan urte batzutan, baru, otoi, ildura ta beste egikixun onetan jarduten zala. Uŕian eguan gexotegira be juan oi zan gexuak laguntzen; eta saŕi autoŕtu ta jaunaŕtu eroyan. Olantxe bixi ixanda, gaste zala il zan.

Bere auŕtzaña ixandako emakume ezeinbatek, gabaz otoŕan iñardubala, ots andija entzun eban; eta txeŕen batzuk emakume-irudiz su bixiŕan lotuta euken gogo galduba ageŕtu yakon. Ageŕtubak onan itz egin eban:

—Auguberta bakaldunaren alabea naz; eta betiko sutan nago.

-Zer diñozu? —jardetsi eban auŕtzañak— alako bixikera on-onaz ostian gaiztokiratu?

—Bai; neure eŕuz gaiztokiratu nau Jaunak. Ara: umetan otsein ezeinbatek idaztiren bat irakuŕi egistala gura ixaten eudan; bein, irakuŕkixuna amaŕutian, eskuba aŕtu ta mun-egin eustan. Aŕezkero, otsein a zala-ta, goteungiak zirikatu egiŕen nendu-ban; eta azkenian otseñagaz obena jauki eudan. Autoŕtzen juan nintzan; baña, obena esaten asi nintzaneko, autoŕ-entzuliak akaŕ-egin eustan: «Zer? bakaldunaren alabeak olakorik egin?» esa-

nik; eta nik, lotsatuta, amesa baño etzala ixan jardetsi eutsadan. Neure obena Jaunak azketsi egistantzat, amaika ilđura ta ukaŕ egin eudazan; baña, dana alpeŕik, autoŕtuten enintzan azaŕten-eta. Il-agiñian, obendi andija nintzala esan eutsadan autoŕ-entzuliari; onek, baŕiz, alako oldozkunai jaramonik, be, ez egiteko esanaz ixilerazo nenduban, eta obena autoŕtzeka il nintzan. Oŕegatik nago betiko su bixi aunetan.

Ori esan ebaneko, zarata ikaragaŕijaz ayenatu zan; eta leku atan utzi eban ats iguingaŕija egun askotan nabatu zan.

### 4.ª Autoŕkintza txaŕagatik zigoŕ itxelak.

Uŕengo jazokun au Caroccio Andoni abeak dakaŕ. Oben lixun bat autoŕtzen azaŕten etzan emakumiaz jazo zan. Emakume ori bixi zan eŕiz atzeŕitar lekaide aba bi igaro ziran; eta emakumiak aba aetariko bat detu eban autoŕtzeko asmoz. Autoŕkintzaz ostian autoŕ-entzulia lagunagaz batu zan eta bidez uazan (joyazan). Lagunak, baña, autoŕkintza-aŕtian ikuskixun gelgaŕija ixan ebala iragaŕi eutsan: emakumiaren abotik suge asko urten ei-ziran, eta azkenez sugetzaŕ laŕijak buruba aterata gero atzera baŕura egin ei-eban, eta orduban beste sugiak be baŕura itxuli ei-ziran. Ori entzun ebanian, autoŕ-entzulia baŕiro eŕiratu zan eta emakumiarenian dei-egin eban. Zoritxaŕez, emakumia lentxubago ilotzik jausi ei-zan. Lekaide bijak iru egunez emakumiaren alde baru ta otoika jardun ziran; eta irugaŕen egunaz ostían ikuskixun ixuikarakoŕa ageŕtu yaken: zorigaiztoko emakumia irantsuge-gain agiri zan: suge bi lepoz biribilđuta eukozan eta bulaŕak jaten eutsoezan; buruban beste sugia eban, begijetan apo bana, belaŕijetan gezi gorijak; abua gaŕetan eban, eta txakuŕ amuŕatu bik eskubak jaten eutsoezan.

Orain iru egun dirala zeuk autoŕ-entzundako

emakumia nozu, esan eban intzirika ikuskixunak; zure lagunak ikusiťako sugiak, autořtu eutzudazan obenak ziran; buruba erakutsiťa atzera sařtu zan sugia, bařiz, beste autořkintza gustijetan lotsařen izten eudan oben lixuna; zeuri esateko asmua eudan, baña, enintzan azaři; eta Goiko Jaunak ustebako erijotzaz jo ta betiko nekaldu nau. Sugiak buruban eragiťen daustazan oñaziak neure ařokerijagaťik eta ulia lařegi atonduten eudalako ařtzen dodaz; begijetako apuak begirapen lixunakaťik daukadaz; belařijetako gezi zořotzak, nai lagun-auřkako itzak nai esakun eta abesti lixunak gogoz entzujen eudazalako; aboko su bixija, itz gaizto ta musu-egiťe loyakaťik; samako sugiak papařa agiri ixaten eudalako nekalduten nabe; neure egipen eta ikutze gaiztuakaťik txakuřak eskubak jaten daustez; baña, oñazerik aundijena azpiko sugetzařak eragiťen daust, neure lixunkerijagaťik eragin be. Onezkero eztago niretzat eřukibiderik, betiko sutan murgilduta egotia baño. Amaika ta amaika emakume galtzen dira betiko. lau oben-mueta onekaťik: lixunkerijakaťik, edeřgaľu ta apaingai lařegijakaťik, sorginkerijakaťik, eta obenak lotsařen ez autořtziagaťik. Ori esan ebaneko, luřak iruntsi eban.

Bixi garanon onerako biařtu eban Jaungoikuak emakume aren gogua esan ebana esaten. Jazokun au entzunaz amaika ta amaika obendi onbideratu dira; belgundari batzuk belguntza edo misiño gustijetan jaulki (edestu) darue, txonitxak baño be onura geyago erakařten daula-ta. Zeuretzako alpeřik ixango ete da? Zure zoltxařa, oben lařijak ezpa-dautořtzuz! Zure zoltxařa, oben-lařidun jaunařtu ba-dagixu!

### 5.ª Jaunařtza txařakaťik zigořtabak.

Txařto jaunařtutia dan oben ikaragařija! Augustin deunak diñonez, Erode'rena baño aundijagua;

Kixostoma deunak diñonez, Juda saltzaliarena baño aundijagua; beste deunak diñuenez, Josu-Kisto gurutzaldu ebenena baño aundijagua; Paul deunak, bariz, txarto jaunartzen dauna Jaunaren gorputz -odoletaz erudun dala dirausku; Kisto erail bai' leukian zigortauko da. Eta baiki, Goiko Jaunak oben au ludijon be sari askotan zigortau dau, ta ikaragariro zigortau be.

Bernarta deunaren aldijan arako lekaidia oben laridun jaunartuten azari ei-zan; baña, Bernarta'k Oteuna miñan ezari eutsaneko, lekaide obendijak Juda'k letz ler-egin eban.

Beste jazokun au Arbiol abeak edestu eban. Obenbidetik alde-egin gura ez eban emakume ezeinbatek, autor-entzuliak ezetz esanaren, jaunartu gura ixan eban; baña, Oteuna artu ebaneko, itota jausi zan lagun askoren artian.

Txarto jaunartu eben batzuk Jaunak agiriz zigortau dauzan letz, beste asko ta asko agiri-ezik zigortetan dauz, euren adimenak itxutu, bijotzak gogortu, ta bere eskar-emoyak ukatu-egiten dautsezalarik, eta azkenian betiko sulezeratu. Zuk, kistar orek, maiz ta al ba-dozu egunian-egunian jaunartu; baña, oben laririk ba-dagixu, lenago autortu egixu, ta autortu-ondoren jaunartu.

Gotzain deun ezeinbatek, gure Jauna emoten iñardubala, jaunartzen etozan batzuk arpegi baltz -baltzak ebezala, beste batzuben begijak txingar bana irudijela, ta beste batzu arpegi ederdun eta zuriz jantzita etozala ikusi ei-eban. Ikuskixunak adirazoten ebana jakin gura ta, Jaungoikuak gotzonaren bidez iragari eutsan: arpegi baltza ebenak aragikoi ta lixunak ziran; begijak txingartuta ebezanak, bariz, suminkor, diruzale ta zikotzak; eta arpegi ederdun, zuriz jatzitakuak, oben barik eta asmo onez jaunartuten etozanak. Zuriz jan tzita etozanetariko bi, bariz, txarto bixi ziralako ospia ebenak ziran-eta, ospe axuna zala uste ixan

eban gotzañak. Gotzonak, ordez, lagun bi aek txarto bixi ixan zirana egi-egija zala esan eutsan; baña, ordurako obenbidetik alde-egin eta obenak zintzoro autortu ebezala.

## Ondo jaunartzetiko ondoriak

1.a Goi-eskara getu.
2.a Oben-bidetik alde egiteko gogua argiztu.
3.a Ziñesmena ta itxaromena biztu.
4.a Jaumatasuna ixijuagotu.
5.a Suminkeri ta beste giriñak ibitu.
6.a Josu-Kisto'gaz batu.
7.a Gogua gozotasunez bete ta ekandun-egipenak ereztu.
8.a Txerena asagotu ta indargetu.
9.a Barunbia baretu ta ibitu.
10.a Erijotzaldirako ustantza osua emon.
11.a Gogua indartu ta azkartu.
12.a Azkenerarte onbidez irauteko lagundu.



# JAUPEA

Mezatan Josu-Kisto gure Jauna opaldu edo eskeindu egiten dalako, mezeari euzkera garbiz *Jaupea,* Jaun-opea, ereisten dautsagu.

Lenengo Jaupea, Josu-Kisto'k Jaungoiko Afari gurutzan egin eutsan buru-opea ixan zan. Gure lenengo gurasuak goiko Jaun eta Jabia, bere aginduba autsijaz, iraindu egin eben. Irain origatik Urtzi Jauna gixonari eseŕe yakon; eta Jaunaren aseŕekuntzea gixaumerik iñorbatek ezin leikian ibitu, egindako iraña ordaindu ezin leikialako. Josu -Kisto, baŕiz, Afearen besteko Jaungoiko -Semia ta batez gixona zan-eta, zoŕa ordaindu ta Jaungoiko Afaren aseŕekuntzea ibitu al leikian. Orixe egin eban, ba, gurutzeko bere buru-opeaz, gixonakaŕen gurutzalduta ilaz. Il-orduko, baña, geure gogo -janaritzat eta gurutzeko opearen gomutakitzat, bere gorputz-odolak utzi euskuzan ogi-ardau-antzez. Josu'ren gorputz-odolak egunian-egunian goiko Afari opaldurik Afaren aseŕia ibitu dagikegu. Oŕa, jaupea zertarako dan.

Kistaŕ mafe oŕek, oben-egin dozunezkero, zeuk be Urtzi Jauna iraindu ta aseŕetu egin dozu; eta ibitu ezpa-dagixu, betiko nekalak eskuratuko dozuz. Nekalok zeure lepotik aldenduteko, jaupeak atara egixuz; eta jauparik atara ezin ba'leikezu, gogoz ta zaletazunez entzun egixuz beintzat, eta alik geyen entzun be. Jaupeak ateratia ta entzutia egipenik onenak eta onuragaŕijenak dira. Kixostoma deunak diñonez, jaupatan kistaŕ-

ak eztau bakaŕik otoi-egiten; berakin batera deunak, gotzonak eta Josu-Kisto'k otoi -egiten dabe. Jai-egunekuaz ganera egunian -egunian entzun ba-daikezu, zoruntsuba ixango zara. Koldobika France'ko bakaldun deunak egunero jaupa bi entzuten euzan; eta Ixidor deunak, be, luŕ-lanetan asi-orduko egunian-egunian entzuten eban.

Jaupatarakuan Golgota mendira zuazala egixu, opa berbera da-ta. Golgota'n Josu -Kisto'k bere buruba odola ixurijaz opaldu eban; jaupaldijan, be, egiz opaltzen dau, odol-ixurtze-barik baña.

**Jaupa-entzuteko erea.** Jaupatan ez egon albokuai begira ta izketan, ixil-ixilik eta zaletsu ta baŕukoi baño, Goiko Jauna auŕian dozula-ta. Ondo entzuteko erarik onena, jauparijarekin gogoz batuta entzutia da. Oŕetarako, idaztijon imiñi dautzudanak lagunduko dautzu.

**Jauparako-gayak dikuŕena.** *Jauparijak*, jauparako jantzirik dagola, Josu-Kisto Nekaldijan dikuŕ.

*Lepoyala:* jauparijak buruban ikututa gero lepuan lotuten daun oyal zurija da; Josu'ren arantzazko burestuna ta gudarijak ixekaz begijetan lotu eutsoen zapija dikuŕtz.

*Jantzurija:* janzki zuri onek Erode'renian imiñi eutsoena dikuŕ.

*Īoltzea:* geŕija estutzeko lokari onek baratzeko lokarijak dikuŕtz.

*Iduña:* Idunian lotuten daun janzki onek, Josu-Kisto bidez eruateko lotu eutsoen iduneko lokarija dikuŕ.

*Besaña:* eskeŕeko besuan lotuten dan janzki onek, zigoŕaldirako Josu zutaŕijan lotu ebena dikuŕ.

*Ganekua:* ganeko jaupa-janzkijak, Pilatus'enian ezaŕiīako janzki goŕija dikuŕ.

*Jaupontzijak,* Josu'ren gorputz iīa egon zan iīobija dikuŕ.

*Opaŕi-oyalak,* ilđa gero lotu eutsoen ixarea dikuŕ.

**Jaupa-atalak.** *Introitus*, edo *saŕkuna*, deretxon lenengo atalak antxiñako Asaba deunen gogo-opa bixija gogorazoten dausku, edo Eroslia len-bai-len etoŕteko opa ebena.

*Kirie,* edo *eŕuki-deyak,* asaba aen dei-otsak dira.

*Gloria in excelsis*, edo *Aintza Urtzi'ri:* Josu jayo zaneko gotzonen eta artzañen poza dikuŕ.

*Lenengo otoyak:* Josu-Kisto'k geure aldez otoi-egiten ebana dadirazoe.

*Epistola,* edo *Idazkija:* Iragaŕle deunak, eta batez be Jon Ugutzarijak, edatsi ebena dikuŕ.

*Graduale, Malagunia,* edo bere ordezkuak, Josu-Kisto lekaruan egon zana dadirazo.

*Alleluya:* ziltzaldi-ostian gotzonak Josu'ri otseintzean egin eutsoena dikuŕ.

*Evangelium,* edo *Goizpaŕkija,* deretxon atal aunetan Josu'ren irakatsijak daukaguz. Goizpaŕkija irakuŕteko idaztija aldatutiak, Josu-Kisto eŕirik eŕi goizpaŕa, goi-egijak, zabaltzen ibili zana dikuŕ; zutunik egotiak, baŕiz, Jaunaren agindubak betetako gerturik egon biaŕa.

*Credo, Ziñesten dot:* ziñetsi ta egi-egitzat aŕtu biaŕ doguna. Belaunbikotutiak, Jaungo-Semiak gixondu zanian ixandako apaltasuna adirazoten dau.

*Offertorium,* edo *Opakundiak,* Josu'k gebaŕen ilteko bere buruba Aŕeari pozaŕen opaldu eutsala.

*Esku-ikuzpena:* Pilatus epaikarijak egin ebana.

*Orate, fratres:* Josu'k Getsemani'n bere ikasliai ernai egon eta otoi-egiteko agindu eutsela.

*Praefatio,* edo *Jaupalena,* ta *Sanctus:* Josu-Kisto Jerusalen'era aundikiro sartu ta aintzakotzat artu ebenazko gomutabidiak dira.

*Jaupa-Arau-aldijan ixiltsu otoi-egitiak,* Josu'k geu-aldez ixiltsu otoi-egiten ebana dadirazo.

*Oteuna ta jaupontzija jasotiak,* Josu-Kisto gurutzera jaso ebena.

*Pater noster* otoyak Josu-Kisto'k gurutzetik Aŕeari otoi-egitsana dikuŕ; eta *uŕengo ixiluniak,* Josu ilobiratuta egon zana.

*Pax Domini:* Josu-Kisto ilpiztuta gero ageŕtu zana.

*Agnus Dei:* Josu goira igon eta geu-aldez Aŕeari aŕenka dagona.

*Azken otoyak:* Josu-Kisto'k donokijan egiten dauzanak adirazoten dauskubez.

*Ite missa est:* Jaupea amatu dala entzutian, jaupa-egin daun jauparija Josu'ren ordezkua ixan dala gogoratu biaŕ dogu.

*Onespenak,* Josu-Kisto'k azken-epaikundian onak onetsi egingo dauzala dikuŕ.



## JAUPA-ENTZUTEKO EREA

### Eskeintzea

Ene Jaun eta Jaungoiko: jaupeau entzun eta Josu-Kisto zeure Semiaren Gorputz -Odolak eskeintziaz uŕengo asmuok egiztu gura dodaz: Zu neure Jaun eta Jabe bakaŕa zarala autoŕtu; niri ta beste gustijai egin dauskuzuzan ontaŕtiakatik eskaŕ-egin; neure oben eta irañak ordaindu; garbitokiko gokaxuai lagundu, laguntza-biaŕik andijena dabenai ta nerau lotubago nagokijenai batez be; eta azkenik, zeure eŕuki aundija dala bide, obendijak onbidera ekaŕi, ta onak onbidetik alde-eztagijela, danak zeure adizkidetasunian bixi ta il daŕekezan. Olantxe.



JAUPA-ASKUNA

Jaupea asterakuan, zeuk be gurutz-ikuŕa egin eta *Autoŕtzen dautset (62'gn.)* esan, eta gero:

## Otoya

Josu-Kisto neure Jaungoiko: Getsemani'ko baratzan, geroko neke-oñaze ikaragaŕijak gogoratuta, estu ta laŕi lotu zintzazan, eta gotzon batek adoretu biaŕa ixan euzun; neuk, be, emen'go neke ta loŕak eruapenez jasan dagidazala indazu, orain zeu lez neketan bixi ixanda gero, zeure Nekaldija bide, betiko atsedena ta poz betia eskuratu dagikedazantzat. Olantxe.

## Nekazkeak

*Aŕearen eta Semiaren eta Goteunaren ixenaz* esanik gurutz-egiñezkero, bostamaŕ eguneko nekazkea irabazten da.

*Autoŕtzen dautset* gogotsu esanezkero, baŕiz, oben ariñak azketsiko yatzuz.



## SAŔKUNA

**Otoya**

Ene Josu bijoztun: ¡Juda gaiztuak musu-bidez saldu ta aren lagunak atxilotu ta Anas' enera eruan zindubezan! Lagundu nagixu, aŕen, txeŕenak eta beste gixon gaiztuak eraginda oben-egin, edota lagun uŕkuaren auŕka salkeri ta kalterik jauki eztagikedan, beti zeure gurea betetan alegindu baño. Olantxe.

**Otoñua**

Bijotz maŕekor ori! Zeugan dot uste oso-osua; nire makaltasuna dala-ta bilduŕ-bilduŕ nazanaŕen, zeure onberatasuna dala bide, biaŕ dodan gustija itxaroten dot. *(300 eguneko nekazkea).*



## KIRIE'tan

### Otoya

Ene Gaizkatzale eŕukijoŕ ori: iru bideŕ uko-egin eutzun Kepa gaxuari, eŕukiz begiŕurik, egizko gaŕbaya ta negaŕ-malko samiñak loŕtu eutsozuzan; neugana, be, zuzendu egixuz begi eŕukitsubok, egindako obenak negaŕ samiñez atzindu ta, zeure eŕukiŕiko eskaŕ ugarija dala bide, baŕiro bein be ukorik egin eztagitzudan, ez ustez, ez itzez, ezta egiŕez be. Olantxe.

### Otoñua

Josu, Miren, Joseba. *(Esaten dan bakotxan saspi urte te saspi beŕogeiko nekazkeak; eta egunero esanezkero, iŕian-iŕian nekazka osua).*



## GLORIA IN EXCELSIS

### Otoya

Neure Egil̄e mat̄agaŕi ori: Belen'go estalpetxuban jayo ta nigat̄ik neke-miñak jasaten asi zintzazanian, gotzonak aintzaldu ta goraldu egin zind̄ubezan eta luŕeko biztanliai gentzea opa-ixan eutsien. Zeure mat̄asunaz ind̄aŕtu nagixu, siaskatik gurutzerañokuan zeuk jasandako gustijagat̄ik bijotzez mat̄e ta aboz goraldu zagidazan; bat̄a zeure gentzea, be, ind̄azu, beti zeugaz ta lagun urkuakaz batuta bixi nat̄entzat. Olantxe.

### Otoñua

Josu'ren Bijotz deun: zeugaz itxaroten naz. *(Bakotxan 300 eguneko nekazkea ta il̄ian-il̄ian osua).*



## DOMINUS VOBISCUM

### Otoya

Betiko Aŕeagandiko argi diztikoŕa! Zeuk argiztuta soŕkaldeko iru Bakaldunak etoŕi, ta guŕtu egin zindubezan, eta nigaŕik ildūratu ta zeure odol edeŕa len-bai-len ixuriŕiaŕen, biŕebaiketea jasan euzun. Nire gogua, be, argiztu egixu, neure bijotzetik luŕeko maŕekeri oro iñausiŕa, Urtzi goyen ori guŕtu, ta zeuri ildūra-abaña, otoi-kedatza ta maŕasun -uŕia eskeñi dagitzudazan. Olantxe.

### Otoñua

Josu'ren bijotz gozuoi: geruago ta maŕiago zagidazan! *(Bakotxan 300 eguneko nekazkea ta iŕian-iŕian osua).*



IDAZTI-MAĪAGUNETAN

**Otoya**

Irakasle jakintsu ori: Zuk beldubai goi-egijak irakatsi eutsezuzan, eta euren bidez geuri, be; Pilatus epaikarijari, bafiz, zeu guzufez salatu ta efuduntzat emon zeuntsaezan judaŕ gaiztuak! Goi-argiz irakatsi egistazu, beti gixon gaiztuen guzuŕ-irakaskintzatik alde-egin eta zeure jauparijak irakasten daustena zíñetsi ta betatu dagikedantzat. Olantxe.

**Otoñua**

Ene Jaungoiko, ene ondasun bakaŕ ori! Zu gustiz zara neuretzako; neu, be, gustiz zeuretzako ixango al naz! *(Bakotxan 300 eguneko nekazkea eta iĪian-iĪian osua).*



## GOIZPAŔKIJA

**Otoya**

Gixonai donoki-bidia irakatsi eutsezun Jakintza mugabakua zaran Josu: Pilatus'gandik Erode'renera ta emendik atzera Pilatus'gana eruan zindubezan, eta Pilatus ta Erode lengo alkaŕ-arerijuak adizkidetu egin ziran. Nire gogo-arerijuen malmuzkerijak goŕuta, zeure gura-arauz donoki-bidez zuzen ibiŕi naŕentzat zeure laguntza emostazu. Olantxe.

**Otoñua**

¡Aintzea, maŕasuna ta eskaŕona Josu'ren Bijotz deunari! *(100 eguneko nekazkea bakotxan).*



## CREDO'tan

### Otoya

Neure Erosle mařekoř ori: zeure ziñeskintzea irakastiařen, amaika neke-oñaze ta lořaldi jasan euzuzan; eta ziñopeai, aginřari ankeřak gora-bera, ziñeskayak ez ukatzeko zeure laguntza betia emon eutsezun. Zeuk irakatsiřa Doibatzak ziñesteko agindūten dauskun gustija ezpai-baga ziñesteko ziñesmen bixi-bixija indazu; ziñestedun bixi ta ziñestedun il gura naz. Olantxe.

### Otoñua

Jauna, ziñesmena jabon egiskuzu. *(100 eguneko nekazkea bakotxan).*



## JAUPONTZIJA ESTALINDU TA OPAKUNDIA EGITIAN

### Otoya

Eŕubako ene Josu laztan: gixon ankeŕak bilostu ta astindu egin zindubezan, eta buruban arantzazko burestuna josi. Iŕits eta naikerijetaz bilostu nagixu, nire bijotzeko maŧasun osua zeuretzako ixanik, neke-lan eta zoritxaŕ gustijak zeure aintza ta omenerako oldez jasan dagikedazantzat. Olantxe.

### Otoñua

Josu, ene Jaungoiko: gauza gustijak baño maŧiago zaudaz. *(50 eguneko nekazkea bakotxan).*



ESKU-IKUZPENA

**Otoya**

Ene Josu maŕe, Urtzi'ren Seme ori: Pilatus epaikarijak eŕubakua zintzazala autoŕtu -aŕen, judaŕ deungaen aseŕe-didaŕ gaŕatzak entzun biaŕ ixan euzuzan. Zeure eskaŕ deuna emostazu, nire gogo-etsayen aŕtian eŕu-barik bixi-naŕen, eta gogaketa txaŕak eta gixon gaiztuen asmo okeŕak gora-bera, neure gogua aŕtegatu eztaŕentzat. Olantxe.

**Otoñua**

Josu'ren Bijotz deunoi: ziñesten dot maŕe nozuna. *(300 eguneko nekazkea bakotxan)*.



## JAUPALEN ETA SANCTUS'etan

### Otoya

Ixaŕel'go Bakaldun ori: Jerusalen'era saŕtzerakuan, txalo ta goraka, aundikiro aŕtu zinduzan eŕijak berak eskatuta, Pilatus epaikarijak zeu gurutzan untzetako epai okeŕa emon eban. Oŕezkero, luŕeko atsegin gustijak goŕoto-ixango dodaz ta zeugatiko ezespenak mańe; nire aintza bakaŕa zeure gurutza lepaldu ta neure aragija ilduraz jostian ipiñi gura dot. Olantxe.

### Otoñua

Deuna, Deuna, Deuna, goi-gudoztien Urtzi Jauna: ludija zeure aintzaz beterik dago. Aintza Ańari, Aintza Semiari, Aintza Goteunari! *(100 eguneko nekazkea bakotxan, eta osua ilean).*



## JAUPA-ARAU-ALDIJAN

### Otoya

Geure goguen Artzain zintzo ori: zeure nekaldijan gugatik amaika laido ta irain jasanda gero, geure goguen aldez bixija, be, emon euzunezkero, irain eta jazarpenak zeugatik pozaren eruateko eskara emostazu, erijotz-ostian zeugan atseden-ixan eta betiraun osuan goraldu zagikedazantzat. Olantxe.

### Otoñua

Miren garbija lagun, gur-egiñez, eskaronez ta otoizka poztu daigun Oteuneko Josu'ren Bijotz deun matagarija. *(200 eguneko nekazkea bakotxan).*



# JAUPERDIJAN

## Otoya

Ene Josu samuŕ ori: Azken-aparijan Iŧunaldi zaŕeko irudijak amaŧu, ta Ikuŕton deunaren bidez Beldubai zeure buruba, gorputz, gogo, jaungotasun eta gusti, emon eutsezun. Nire obenak, be, amaŧu egixuz, ta goŧiko Ogi deun gozo-eztitsu ori gozaŕtu dagidala egixu, olan zu neugan eta ni zeugan bixi gaŧezantzat. Olantxe.

## Otoñua

Ikuŕton deuneko Josu'ren Bijotz deuna ta Odol jorija goraldu ta onetsi bediz. *(300 eguneko nekazkea)*.



## OTEUNA JASOTIAN

### Otoya

¡Neure Jauna eta neure Jaungoikua! Gixonak erosteko gurutzan eskeñi zan zeure Gorputz deun ori auzpez guŕtetan dot; betiko zorijona eskuratuteko bide ixango al yat.

### Otoñua

*¡Neure Jauna eta neure Jaungoikua!*

(X Pi *Doipurubak asgorapen oni saspi urte ta saspi beŕogeiko nekazkeak egokitu eutsozan, jauperdijan Oteuna jasotian, edo ta gure Jauna agirijan dagola, maitasunez begiratuki esaten dan bakotxerako; baita itxubak be irabazi legikiez. Egunero esan ba-da, baŕiz, ilabetegaŕenian nekazka osua irabazi dateke).*



## JAUPONTZIJA JASOTIAN

### Otoya

¡Neure Jaun eta neure Jaungoiko! Gurutzan ixurita Aŕa betikořari eskeñi yakon zeure Odol jorija auzpez guŕtetan dot; oben orotik garbiŕuteko bide ixan bekit.

### Otoñua

Goiko Aŕa deun ori: Josu-Kisto'ren Odol edeŕa dala bide, onen Bijotz guŕgařijaren opa-arauz, bere Ixen deuna goraldu egixu. *(300 eguneko nekazkea bakotxan, eta osua iłabetegařenan).*

Jaungoikozko Ikuŕton deuna beti ta beti onetsi ta goretsi bedi. *(300 eguneko azkespena bakotxan eta osua iłabetegařenan).*



## JAUPERDI-OSTIAN

### Otoya

Josu-Kisto neure Jaun ori: esku-oñetaz gurutzan josita zengozala, goiko zeure Ateari gixon gustijen aldez otoi-egin eutsazun, eta batez be, gurutzau egin zindubezanen aldez; zeuk esan euzunez, nire areyuak mate ixan eta goroto nabenai ta gaitz egiten daustenai on-egiteko nai-ta-ezkuak yatazan otzandasuna ta eruapena emostazuz. Olantxe.

### Otoñua

Dana zeugatik, Josu'ren Bijotz deunoi. (*300 eguneko nekazkea*).



OMNIS HONOR ET GLORIA'tan

**Otoya**

Josu-Kisto neure Gaizkatzale: Gurutzan zengozala, zeure Ama laztana Jon ikasliaren ardurapian itxi euzun, eta ikaslia, bariz, Ama samuraren babespian. Neu, be, zeure Amaren babespian eta Jon deunaren ardurapian ipiñi nagixu, Jaun orek, gaitz eta galbide gustijetatik azke ta matasunez zeuri lotuta bixi natentzat. Olantxe.

**Otoñua**

Miren-Bijotz samur: gaizkatu nagixu. *(Bakotxan 300 eguneko nekazkea ta osua ilean).*



## SED LIBERA NOS A MALO'tan

### Otoya

Ene Josu samuŕ ori: Erijotz-ostian zure gogua Eŕkaba deunen goguak jaregiten jatxi zan. Niria, be, obenetatik azkatu egixu ta, gaiztokira jasten itxi-baga, donokira eruan egixu, Eŕkabakin batera betiraun osuan zeu aintzaldu ta goretsi zagikedazantzat. Olantxe.

### Otoñua

Gurekiko maitasunez kiskaltzen zagozan Oteuneko Josu'ren Bijotz ori: gure bijotzak zeurekiko maitasunez kiskali egixuz. *(200 eguneko nekazkea bakotxan).*



OTEUNA ERDIBIT̄UTIAN

**Otoya**

Jakit̄un utza zaran Josu-Kisto: Beŕbiztuta gero Emaus'era-bidian ikasle biri goi-egijak atzaldu eutsezuzan, eta areik, ogi-zatiketan ezagutu zind̄ubezanian, pozik eta aŕituta lotu ziran. Neure gogua gaizkatuteko biaŕ d̄odan gustija atzaldu ta irakatsi egistazu, aŕen, zeure beŕbizkund̄ia niretzako onuragaŕi ixan dat̄entzat. Olantxe.

**Otoñua**

Josu'ren Bijotz gozuoi: gutzaz ta bid̄ekatuta dabiltzan gure anayetzaz eŕuki zat̄ez. *(100 eguneko nekazkea).*



PAX DOMINI'tan

**Otoya**

Geure Josu aintzatsu: erijotza garaṫuta ilpiztu zintzazanian, ikasliai ageŕtu zintzakijezan eta gentzea ta alkaŕtasuna opa-ixan eutsezuzan. Neure gogua, be, eskaŕezko bixitzarako beŕbiztu dedila indazu, oŕezkero beti zeu maṫe-ixanda goiko abeŕira zeugana igon eta amaibako gentzaldijan zoruntsu bixi naṫentzat. Olantxe.

**Otoñua**

Josu'ren jaungoikozko Bijotz oŕek, obendijak onbideratu, iluŕenak gaizkatu, ta garbiṫotiko goguak azkatu egixuz. *(300 euneko nekazkea).*



## AGNUS DEI'tan

### Otoya

Josu-Kisto neure Jaun: zeure neke-oñaziak eta erijotzan erakutsi euzun eruapen aundija ikusiťa, berein judaŕ gaŕbai-ixan ziran, eta euren obenakaťik bulaŕa jo ta negar-egiťen eben. Zeure nekaldi-erijotzak dirala bide, nire bijotzan gaŕbai bixi-bixija ta gauŕ-geroz obenik ez egiťeko asmo sendua soŕtu egixuz, aŕen. Olantxe.

### Otoñua

*I.* ... gure Doipurubaren aldez otoi-daigun.

*E.* Jaunak jabon eta inđaŕtu beike, luŕan zoruntsu egin eta bere areyuen eskubetatik jarein. *Geure Aťa... Aguŕ Miren...*

*(300 eguneko nekazkea bakotxan eta osua iľean).*



## JAUNAŔTZA TA JAUNAŔTZOSTIAN

### Otoya

Ene Josu edeŕ ori: nirekiko maŕasunaŕen aŕizko iĺobi baŕijan ezaŕi, irugaŕen egunan ilpiztu ta uŕengo beŕogei egunetan zeure Beldu maŕiai saŕi ageŕtu zintzakijezan, eta zeure beŕbizkundiaren lekuko egin eta eurai ta euren ondorenguai obenak azkesteko almena emon eutsezun. Lagundu nagixu, aŕen, ene Jaun eta Jaungoiko oŕek, jauparijari obenak ondo autoŕtubaz nire gogua eskaŕezko bixitzara beŕbiztu, nire bijotza araztu ta baŕiztu, ta nerau azken-egunan zeure autetsijen aŕtian zuriz jantziŕa ageŕtu nadiŕentzat. Olantxe.

### Otoñua

Oteuneko Josu'ren Bijotz ori: eŕuki zakiguz. *(300 eguneko nekazkea)*.



## DOMINUS VOBISCUM'etan

### Otoya

Josu-Kisto neure Jaun: Beŕbiztuta beŕogeigaŕen egunan zeure ikasliak batu, ta euren auŕian aundikiro donokira igo zintzazan. Nire gogua luŕeko gauza gustijakaz gogatu ta zeure mat̄asunez beteta, goiko gauzetara zaletu ta zeutzaz, zorun betia darijon it̄uŕija ta atseden-jauretxia zaran oŕetzaz, egaŕi ixan dat̄ela ind̄azu. Olantxe.

### Otoñua

Zeure ala belkigu, Josu'ren Bijotz deun ori. *(300 eguneko nekazkea)*.



## AZKEN - ONESPENETAN

### Otoya

Ene Josu bijozpera: zeure ikasliak eska ta ototan iñardubela, Goteuna bídaldubaz poztu ta jaumatasun-gañaz sutau euzuzan. Nire bijotza osoro garbitu egixu, aren, Goteuna'rentzat egoleku atsegingarija ixanik, bere eskar ta emoi deunakaz poztu ta edertu dagikentzat. Olantxe.

### Otoñua

¡Erdu, Goteun ori!, zeure ziñestunen bijotzak bete egixuz, ta zeure maitasun-gañaz goritu. *(300 eguneko nekazkea)*.



## AZKEN-GOIZPAŔKIJAN

### Otoya

Gixonak gaizkatutia bixiro opa-dozun Josu maŕe: Jaupa ontan antzeztu diran ziñeskai ta Urtzi-egintza guŕgaŕijak Belduben bidez luŕalde gustijetara zabaldu euzuzan. Ziñeskai-egintzaok dirala bide, donokira eruan nagixu, Jaun oŕek, antxe aŕpegiz -aŕpegi ikusi ta amaibako egunetan goraldu zagikedazan. Olantxe.

### Otoñua

Josu-Bijotz otzan eta apal oŕek ene bijotza zeuriaren antzekotu egixu *(300 eguneko nekazkea)*.

*Azken-goizpaŕkija amaīuzkero, belaunikatu zadiz ta onan esan:*

Entzun dodan jaupa ontan emon daustazuzan ontaŕtiakaītik eskaŕ dagitzut, goiko Urtzi Jaun oŕi: jauki dodazan utsak azketsi, ta zeure nekauste ta erijotzazko gomutea bijotz-baŕu iraŕi egistazu; eta zeuri ainbeste neke-oñaze erakaŕi eutzubezan obenetzazko garbai bixi-bixija indazu. Olantxe.

Geure Aīa goikua..., Aguŕ Miren..., Ziñesten dot... *eta* Josu-Kisto neure Jauna... *esan; eta gero:*

Jauna, ementxe izten dautzut bijotza; onetsi nagixu, zeure oneskunaz gauŕko egikixunak ziero bete daikedazantzat.

*Eta gurutz-ikuŕa egiīen dozularik, onan esan:*

Aīa-Seme-Goteun Jaungoiko algustidunaren oneskuna jatsi bekit eta beti neugan iraun beike. Olantxe.

Miren garbija,
ixan zaīez zu
neure igesleku
ta zaindokija.

# UAŔAK

Jauparijak *Gloria* naiz *Credo*'rik esaten eztaunian, eurei dagikijezan otoyak itxi daikezuz.

Jaupea, nayago ixanezkero, gogaŕtetan jardunaz, be, ondo entzun daikezu. Oŕetarako, Josu'ren Nekaldiko jazokunen bat goguan erabil̄i, edo ta, nekezko ziñeskayak gogaŕtuten dozuzalarik, Aguŕtza deuna esan. Adibidez:

Getsemani baratzeko Josu'ren laŕi-aldija gogoraturik asi, ta onan gogaŕtu daikezu:

*¿Nor da neke-laŕit̄an dagona?* Neugat̄ik gixondu zan Jaungoiko-Semia, Betiko At̄earen Semia, ortzi-ludijen Jaun eta Jaubia, nire Jaungoikua, neure At̄ea, neure Egil̄ia, neure Eroslia...

*¿Zer jazo yako?* Gixonat̄ik aŕtu biaŕko dauzan neke-oñaze ikaragaŕijak gogorazotiak ekaŕi dautson laŕijaren laŕija dala bide, soña odolezko ixerdiz busti-busti egin yako. ¿Neke-oñaze areik zelakuak ixango ete dira, eurekiko gomuta utzak odol-ixerdija egit̄erano laŕitu al ixateko?

Ene At̄a, iñotsan Josu'k bere At̄eari: baldin al ba-da, edontzi au nigana-bage juan bedi; ez baña, neure guraz lez, eure oldez arauz baño.

Orduban, bere nekaldi ta erijotzeko oñaze gusti-gustijak gogora etoŕi yakozan: bere gorputz deuna zauriz josiko eben bost anei zigoŕkadeak, buru deuna zulatuko eutsoen saspamaŕ ta bi arantzeak,

belaŕondoko, txu, ixeka, ezespen, laido, biaztun -ozpin, gurutze ta untziak, eta batez be, gure eskaŕbaltza.

*¿Oñaziok zegat̄ik jasaten dauz?* Neugat̄ik, obendi gaizto augat̄ik, ainbeste bideŕ iraindu dodan augat̄ik; neugat̄ik, oben aztuna egin dodanian baŕiro gurutzan josi dodan augat̄ik.

*¿Zegat̄ik jasan, baŕiz, olako oñaziak?* Donokira eruan gura naulako, ni gaiztokiratzerik, su-leze zakonetara jausterik, gura eztaulako, betiko kiskaltzen eta amoŕubaren amaŕuz ustegetuta ikusi gura enaulako.

Onezkero, ¿ez ete dot mat̄e-ixango oŕen mat̄asun bixija erakutsi daustan Josu-Kisto? Neure Jaun eta Jaungua'ri olako neke-miñak erakaŕi dautsoezan obenak ¿ez-ete-dodaz goŕoto-ixango? Oben-neketzat Jaungoikua'k bidalduko daustazan nekiak ¿ez -ete-dodaz eruapenez jasango neure obenakat̄ik ainbeste bideŕ gaiztokiko zigoŕak irabazi dodazan onek? Bai, ene Jaun eta Jaungoiko! Nayago dot erijotza obena baño; etzaudaz baŕiro irainduko; jazoko yatazan neke-miñak neure oben-ordaintzat aŕtuko dodaz ta zuk neugat̄ik jasandakuakaz batera eskeñiko dautzudaz, zeuriokaz batuta neure oben-ordaintzat aŕtu dagikezuzan. ¡Ene Goiko Jaun! ¡ene At̄a! ¡Iñoz obenik egin ai ezpa'leut! ¡Beti jauretsi ta mat̄atu ai ba'zind̄udaz!

Miren Neskutz, Jaungo-Ama: obendijen zaindokija ta goimat̄asunaren Ama zaranezkero, lagundu nagixu, neure obenak goŕoto-dagidazan, ez zigoŕ

-bildurez bakarik, batez be Urtzi Jauna iraindu dodalako baño; eta zeure Semiagandik Jaungoikua'ren eskara ta adizkidetasuna orain, eta geroko donoki-aintzea jaritxi egiskedazuz. Olantxe.

Jaupaldi osua onetara gogartuten igaro ba dozu, jaupea ondo-ondo entzun dozu, ta onuratsuba ixango yatzu. Ez laritu, bariz, gogartia ondo-ondo egiten jakin-ezaren, edo ta zeure bijotza gustiz legor ta ilun ba-dozu. Josu-Kisto gure Jauna, be, Getsemani'ko otoyaldijan, eta gero gurutzian iru ordutan, olantxe egon zan, bere goguak atsegin eta poz-izpirik nabatuten nabatuten ez ebala. Zeuk be eruapenaz iraun ototan, eta jaupaldijan adi-adi egoteko alegiñak egin; eta nai-barik adigatuten ba-zara, ez artegatu, oretan erurik eztago-ta. Gogo onez ta alegiñez jardutia, besterik eztausku eskatuten Goiko Jaun onak.



# IRUKOITZ DEUNA

Deuna, deuna, deuna, goi-gudoztien Urtzi Jauna: ortzi-ludijak zeure aintzaz beterik dagoz

Aintza Afari, aintza Semiari, aintza Goteunari.

# IRUKOITZ DEUNARI

## DEUNTZA

Gixonak asmaurikua-barik Urtzi Jaunak berak irakatsija dogu *Deuntza* deretxon eraskun edo otoitz au. Lenen Ixai iragaŕliak ikasi eban, donokijan Sudunak - Serapiñak - Goiko Jauna goresten entzun euzanian, «Deuna, deuna, deuna, goi-gudoztien Jabe Jauna, bere aintzaz beterik dago luŕbira osua», alkaŕi oyuka abesten ebelarik. Donokiko gotzonai entzunik ikasi eban 447'g. urtian ume batek, edestijak dirauskunetz Paul deunak letxe donokija ikeŕtu eban arako ume zoruntsubak. Ona emen, zer jazo zan.

Soŕtaldeko kaiser edo agintari gurena Todosi gastia zala, luŕalde geyenetan, eten-barik-samaŕ, luŕikara negaŕgaŕijak jazo ziran. Luŕikaraen ondore itxelak ¿nok atzaldu? Etxe ta eŕi osuak luŕperatu; ituŕi batzu agoŕtu ta beste baŕijak soŕtu; zugatz andi ta txiki eŕotik atera ta eratzi; zelayetan mendijak ageŕtu ta mendijak ziran lekubetan aŕu ta sakonak; itxasuak aŕain aundijak luŕera egotzi; itxaseŕtzak ur-barik eta itxasotik uŕun lotu, ta ugaŕtiak urez estali... Urijetako biztanliak, ixuikaraturik, zelayetara iges-egiten eben. Orixe egin biaŕ ixan eben Konstantiñopoli'kuak, be, uri-buru atan jazoten ziran sakail eta kalte ikaragaŕijak atik. Geyenak, Todosi ta Pulkere bere aŕebea, Porkol Eŕkabea ta beste jauparijak buru ebezala, *Landa* eretxan zelayan bildu ziran, eta otoi ta negaŕ Jaunari eŕuki-eske eragoyoen.

Goiz baten zortziretatik bederatziretara iñozko luŕikararik gogoŕena jazo zan. Danentzako azken-orduba eldu zala irudijan. Ontan, ara, umetxu bat mara-mara luŕetik goirantz igon, eta odei-ziaŕ os-

tendu zan. Geruago, bafiz. gotik bera atzera etofan. Luferatu zaneko, Porkol Efkabea ta Todosi egozan tokira eruan eben; eta umiak auxe edestu eutsen: donokiko gotzonen afterano jaso ixanik, «Urtzi deuna, Urtzi indaftsuba, Urtzi ilezkofa, efuki-zakiguz», abesten entzun euzala, ta entzundakua Landa'kuai iragafteko agindubа aftu ebala. Au esanda bertan umia ilotzik lotu zan.

Porkol deunak aginduta, danak batera gotzonen abesti ori oyuztetan asi ziranezkero, etzan ariago lufikararik jazo. Eta geruago, Kalkedon'go Batzaf nagusijak afijabaf ta lofaldijetan Irukoitz deunari alantxe otoi-egiteko agindu eban. **Deuntza** deretxon eraskun au, ostera be, Doibatz Amak safi onetsi ixan dau ta nekazka edo barkapen ugariz aberastu. Kistaf zintzuak, bafiz, Goiko Jaunaren asefia ibitu ta bere efukija jaristeko biderik onenetarikotzat esten dabe.

## ESKEINTZEA

Zeure aufian auzpezturik, afen-dagitzugu, Goiko Jaun ofi, Doibatz Amaren aldez, egizko ziñeskintzea zabaldu ta ziñautsak zustefkatu datezan, efidijai gentzea ta ziñeske-obendijai onbideratzeko eskafa damoskiezun, bidazti ta il-aginian dagozanak zaindu, gafdostegiko gokaxuak zeureganatu, ta Doibatzaren beste asmuak egiztu dagikezuzantzat. Olantxe.

*I.* Donetsi beike Irukoitz deun bakafa orain eta beti; eta amaibako egunetan.

*E.* Olantxe.

*I.* Zabaldu nire ezpanak, Jaun ořek.
*E.* Eta nire abuak goretsi egingo zauz.
*I.* Jabe Jaun: lagundu nagixu.
*E.* Erdu arin, niri uřgazten.
*I.* Aintza Ateari. Aintza Semiari. Aintza Goteunari.
*E.* Amaibako egunetan. Olantxe.

Aleluya! *(Beřogeikaruan* Aleluya-*ordez* Goraltza zeuri, betiko aintzadun Bakaldun Jaun oři *esango da).*

GARBAI-EKINTZA

Ata-Seme-Goteun, Urtzi Bakař Irukoitz matagaři ori: zeuri ziñesten dautzut, zeutzaz nitxaro, zeu bijotz-bijotzez, gogoz ta gorputzez, almen eta asmenakaz mate-zaudaz, Ata ta Jabe Jauna zaudazalako, ta on-utza ta matagaři-matagařija ixan be. Garbai-nozu, Irukoitz deun; garbai-nozu, Irukoitz eřukijoř; garbai-nozu, Irukoitz oneskaři; garbai -nozu, oben-egiñaz zeu, Urtzi on-utz ori, iraindu zaudazalako. Gauřdanik, baña, nayago dot il, oben-egin baño: etzaudaz, ez, bařiro irainduko. Zeure eřukija neuřibakua da-ta, azketsi egistazuz oben gustijak, eta goi-eskařa indazu. zeu, Irukoitz matagaři ori, beti ta oroz-gain mate-zagikedazantzat. Olantxe.

## EREŚEŔKIJA

Eguzkija berazkuan
goi-argija betoŕkigu;
Irukoitz deun oŕek, gugan
maťasun-argija biztu.
Goiz ta aŕatsaldetan zeuri
otoi-egiťen dautzugu;
goyetan beti ta beti
zagikeguzan aintzaldu.
Aťa-Seme-Goteunari
aintzea ta onespena;
orañaŕte letxe beti
ta amaibako egunetan. Olantxe.

## AṪEARI

¡Betiko Aťa deun ori! Zeugaz-barik eztago zorunik, atsekabia ta zoritxaŕa baño. Alpeŕik esango dau lixunkoyak bere zoruna aragi-atsegiñetan dagola; alpeŕik andinayak, beria gixa-aintza ta goralbenetan daukala! Nik, baŕiz, zeure iragaŕle ta beldubak iñuena esango dot beti: nire zorun osua, nire ogasun egija, nire aintza bakaŕa zeu, Urtzi deun ori, zarala.

**Geure Aťa, Aguŕ Miren,** *eta gero bederatzi bideŕ:*

Deuna, deuna. deuna, goi-gudoztien Urtzi Jauna: ortzi-ludijak zeure aintzaz beterik dagoz.

*Danak erantzutekua*:

Aintza Afari, aintza Semiari, aintza Goteunari.

## SEMIARI

Betiko egija zara, Urtzi-Seme-bakaŕ ori, ta zeu-barik guzuŕa ta iruzuŕa baño eleukegu ixango. Zeure argi pozkaŕija itxungizkero, dana da iluna ta baltza. Zeure itz bixijak entzuten dauzanarentzat gixonenak motel eta uskoŕak dira. ¡Oi! ¿noiz elduko ete-yat zeu, betiko egi ori, aŕpegiz-aŕpegi ikusi ta zeure itz zoragaŕijak ondo entzuteko zoztoŕik ixango eztaukedan aldija? ¡Axe bai ixango dala zorun betia, betiko egijaren argiẗan amaibaga egon al-ixatia!

**Geure Afa, Aguŕ Miren,** *eta gero bederatzi bideŕ:* **Deuna... Aintza...**

## GOTEUNARI

Afa-Semien alkaŕ-mafasun bixija zaran Goteun ori: Urtzi Jaunaren zorun betia zara, ta beste zorun eta poz gustijen ifuŕburuba. Mafasun aunetan murgilduta dagon gogua ¡bai-dala benetan zoruntsuba! ¡Ut! alde nigandik, guzuŕezko atsegin txatxaŕok, Goteuna'gandiko atsegin-izpirik txikaŕena zubek danok baño geyago da-ta! Eta izpitxuba oŕen gozua ba-yaku, ¿zer nabafuko dogu,

bańiz, donokijan, mańasun onek bete-bete gaikezanian? ¿Noz elduko yat, Jauna, noz elduko yat amaibako egun zoragańi ori?

**Geure Ańa, Aguŕ Miren,** *eta gero bederatzi bideŕ:* **Deuna... Aintza...**

## ESLENA

Zeu, Urtzi-Ańa sońtuge; zeu, Urtzi-Seme sońtubakaŕ; zeu, Urtzi-Goteun pozkiĺe; zeu, Irubatasun zuŕgańi ori, bijotz-bijotzez autońtu, goraldu ta onetsi zagiguz. Zeuri aintzea ta omena amaibako egunetan. Olantxe.

*I.* Onetsi daigun Ańea, ta Semia, ta Goteuna

*E.* Orain eta beti goretsi ta autońtu daigunzan.

## OTOYA

Urtzi Jaun Irubat ońek, zeure eskańa, zeure mańasuna, ta zeure erazokuntza iguzuz, ańen, orain eta betiraun osuan mańe ta aintzaldu zaikeguzantzat. Urtzi-Ańa, Urtzi-Seme, Urtzi -Goteun, beti-betiko Jaungoiko bakaŕ ori! Olantxe.

## AŔENTZA

Urtzi-Aŕa, algustidun Jaungoiko: *Ixaki danak maŕe ta goretsi zaikezala.*
Urtzi-Seme, bazteŕbako Jaungoiko: *Ixaki danak...*
Urtzi-Goteun, azkenbako Jaungoiko: *Ixaki danak...*
Irukoitz deun, egizko Urtzi bakaŕ: *Ixaki danak...*
Bakaldun goyen, ikusezin eta iľezin ori: *Ixaki danak...*
Ixaki gustijen Irazale, iraukitzaľe ta jauŕle: *Ixaki danak...*
Zeugan, zeugandik, eta zeure bidez bixi gozuzan bixitz-iŕuŕi: *Ixaki danak...*
Iru notiñetako Urtzi-bixitza bakaŕ ori: *Ixaki danak...*
Jaungoikozko donoki goyen eta uren ori: *Ixaki danak...*
Ortziz-goŕiko donoki, gixonek ikusezin ori: *Ixaki danak...*
Jaungoikozko eguzki irazanbako: *Ixaki danak...*
Oborik osuen eta betezin ori: *Ixaki danak...*
Gotzonen jaungoikozko janari: *Ixaki danak...*
Oztadaŕ edeŕ, eŕuki-uztai: *Ixaki danak...*

Ixadija argiztetan dozun argi-buru irukoitz ori: *Ixakí danak*...

Gogo-soñetako gaitz gustitik: *Jabon gaikezuz, Irukoitz Jaungoiko.*

Oben eta oben-bide orotatik: *Jabon gaikezuz*...

Zeure asaře-sumiñetatik: *Jabon gaikezuz*...

Bat-bateko ta ustebako erijotzetik: *Jabon gaikezuz*...

Txeřenaren iruzuř ta malmuzkerijetatik: *Jabon gaikezuz*...

Liłura ta lixunkerijetatik: *Jabon gaikezuz*...

Aragi-iřitsetatik: *Jabon gaikezuz*...

Aseře, gořoto ta olde gaizto gustijetatik: *Jabon gaikezuz*...

Ixuřiře, gosete, guda ta luřikaretatik: *Jabon gaikezuz*...

Itxaso-luřetako ekatxetatik: *Jabon gaikezuz*...

Egizko ziñeskintzearen arerijuetatik: *Jabon gaikezuz*...

Geure etsai ta euren malmuzkerijetatik: *Jabon gaikezuz*...

Betiko erijotzetik: *Jabon gaikezuz*...

Batasun Irukotxa ta Irutasun Bakařa zaralako: *Jabon gaikezuz*...

Ixate bakařdun iru Notin zaralako: *Jabon gaikezuz*...

Irubatasun-ziñeskai goyen-goyena zaralako: *Jabon gaikezuz...*

Irukoitz-ixen atzaleziña dozulako: *Jabon gaikezuz...*

Irubata ixen gelgařija dozulako: *Jabon gaikezuz...*

Irukoitz-deun-zaliak atsegin-atsegin dozuzalako: *Jabon gaikezuz...*

Irukoitz-zalerik dagon eřijak zoritxařetatik mařero zainduten dozuzalako: *Jabon gaikezuz...*

Irukoitz deun ori mate zabezanakan txeřenak jaungoikozko indař gotu-eziña jařugiten dabelako: *Jabon gaikezuz...*

Geu obendijok: *Entzun gaxuz, ařen.*

Irukoitz deun ori mate ta guřtubaz goteungiari auřka-egin daiskiagula: *Entzun gaxuz, ařen.*

Geure goguetan dogun zure antz-irudija eskař deunaz gero ta edeřagotu daiskeguzula: *Entzun gaxuz, ařen.*

Kistařak oro Irukoitz deun ori matetan alegindu datezala: *Entzun gaxuz, ařen.*

Irukoitz deun ori mate zabezanai zoř yakezan zorun ugarijak danok ezkuratu daikeguzala: *Entzun gaxuz, ařen.*

Guk Irukoitz deunořetzazko ziñeskaya autořturik, ziñeskien uste okeřak ezereztu datezala: *Entzun gaxuz, ařen.*

Irukoitz deun ori bide, garbitokiko gokaxo

gustijen miñak arindu dařezala: *Entzun gaxuz, ařen.*

Zeure eřuki aundija dala-ta, entzun gaxuz: *Entzun gaxuz, ařen.*

Urtzi deun, indařtsu deun, iłezin deun: *Gatxetatik jabon gaxuz, Jaun ořek.*

Urtzi deun, indařtsu deun, iłezin deun: *Gatxetatik jabon gaxuz, Jaun ořek.*

Urtzi deun, inuařtsu deun, iłezin deun: *Gatxetatik jabon gaxuz, Jaun ořek.*

*I.* Ařea ta Semia ta Goteuna onetsi daiguzan.

*E.* Goretsi ta aintzaldu daiguzan beti ta beti.

OTOYA. Betiko Urtzi algustidun ori: zeure otseñoi, egizko ziñeskintzea autořtubaz betiko Irutasun-aintzea ezagutu ta zeure almen goyenian Batasuna guřtuteko eskařa emon dauskuzunezkero, ařen, ziñeskintza onexen sendotasunak gaitz gustijetatik jabon gaikezala deskatzugu, Josu-Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

## ABINTZAK

1.ª ¡Irukoitz deun ori! Nire gogua zeure antz-irudiz ta donokirako irazana danezkero, berau gaizkatzeko alegin-alegiñak egingo dodazala dabintzut. Bařa, zeure edeřařen,

nire geidien goguak gaizkatzen, be, alegindđuko naz.

2.ª Nire gogua gaizkatu ta zeu goretsi ta aintzaldduteko, zeure Lagija bete biaŕ dođala bai-đakit-eta, ziaro beteko dođala đabintzut; eta bestiak bete dagikien, be, alegindđuko naz.

3.ª Ludijon zeu goresten jardungo dot, eta gero iñoz donokijan obeto egingo dođala ditxarot; oŕegat̄ik, *deuntza* saŕi esango dot; eta saŕijago, baŕiz, goraltzau: «Aintza At̄eari, ta Semiari, ta Goteunari». Bestiak goraldu zagikiezan, be, alegindđuko naz. Olantxe.



Jaungoikozko Ikuŕton deuna beti ta beti onetsi ta goretsi bedi.

# IKUŔTON DEUNARI

## IKEŔALDIJA

**Ikuŕton deuneko gure Jauna ikeŕtutia,** Urtzi'ri atsegin-atsegin yako, ta geuretzako, bańiz, gustizko onuragańija ta sarigańija da.

Egiñen au dan gozua dalako, Jaungo-zaliarentzat berezkua dala dirudi: Urtzi Jauna mate-mate daunak berez joten dau matiagana, ta mate ori Ikuŕton deunan dau, Joskorputz-ikuŕtonan dau.

Saba'ko bakaldume aginteduna Salomon ikusi ta entzuten jun zan beronen jauregira. Gogo onak, iŕits eta girin okeŕak agintzape daukezanen goguak, be, Salomon baño jakintsubagua dan Josu-Kisto ikeŕtzen etoŕi oi dira beronen jauretxe edo txadoneko Ikuŕton deunera.

Soŕtaldeko bakaldunak uŕunetik Betelen'era etoŕi ziran Josu jauresten, eta uŕe-kedatz-abañak eskeñi eutsoezan. Berebat egiten dabe kistaŕ onak: txadonera oteuneko Josu ikeŕtu ta jauresten etoŕi, ta eskeingayok eskeintzen dautsoez: abañak dikuŕan ildurea, kedatzak dikuŕan otoya, ta uŕiak dikuŕan jaumatasuna. Eta eskeingayok pozaŕen aŕtzen dauz Josu-Kisto'k: eta gixon aberatsak bera ikeŕtzen duakijazan adizkidientzako bezuzeak ixaten dauzan letz, Josu'k, be, ikeŕtzen duakijozan bere adizkidiak eskaŕ ta ontaŕtez betetan dauz ludijon, eta azken-egunian onan itz-egingo dautse: Zatoze, neure Ateak onetsi oŕeik, geŕturik dozuben goi-bakaldeŕijaz jaubetuten, Ikuŕton deunian matasunaren matasunez atxiloturik nenguala ikeŕtu egiten bai'ninduzuben.

Zuk, kistaŕ oŕek, oteundegiko gure Jauna egunian-egunian ikeŕtuteko alegiña egikezu, eta ariago

Oteuna agirijan dagoken egunian. Txadoneratu ezingo zaikezanian, bafiz, zeure etxetik bertatik gogozko ikeŕtaldija egin.

## OTEUNEKO JOSU'RI

¡Josu-Kisto neure Jaun, Urtzi bixijaren Seme ori! Ona ni, Miren Neskutza ta donokiko gotzon eta deunak lagun dodazala, zeu, oteuneko Josu, ikeŕtu ta jauresten natoŕkixu. Oteun oŕetan donokijan baxen egiz ta algustidun eta aintzatsu zagozala bene-benetan ziñesten dot; zeure irabazi ta irakaskixunak bide dirala, donokiko aintzea jaritxiko dodala uste dot; neuŕibako zeure maŕasunagaŕik, bijotz-bijotzez ta gogo-gogoz maŕe-nai -zaudaz.

Erosle laztan ori: biĺebaikundian eta nekaldi donian neugaŕik ixuri euzun odolaŕen, erospen ori neutzaz betatu dediĺa eikezu; oŕetarako, zeure Ama deuna dala bide, erasmena ta otoi-zaletasuna geŕu egiskedazuz, ta beti onbidez irauteko laguntzea emon, oingo biztaldijaz ostian donokijan betikua eskuratu dagikedantzat. Olantxe.

## BETIKO AŤEARI

Neure Jaun eta Jabe: donokiko zure egotoki guren oŕetatik begiratu egixu, ta oldez begiratu be, Melkisedek-arauzko Jaupari

nagusijak, Josu-Kisto zeure Seme laztanak, bere anayon oben-ordez ta obenak azketsi dagiskeguzuzan eskeintzen dautzun Opari bikañau. Josu-Kisto gure anai nagusijaren odolak oteunetik didaŕ-dagitzu, Aŧa deun oŕi: entzuzu bere didaŕa; ibiŧu zeure aseŕia; eŕukiz begiratu ta azketsi gaikezuz. Eskaŕau ez ukatu, aŕen, zure maŧasuna aundija da-ta; zeure ixen deuna oyuztetan dogunoi eŕuki -zakiguz. Olantxe.

## OTOYA

¡Goiko Urŧzi-Aŧa deun ori! Ziñesmen eta uste osoz eskatzen yatzunik ezpai'dozu ukatuten, nik bijotz-bijotzez ta ustebeterik auŕkezten dautzudaz eskakixunok: obendijak onbideratu egikezuz; onai azkeneraŕte bide zuzenez irauteko eskaŕa emoskiezu, ta gokaxuai betiko atsedena; beste gustijentzako zeure eskaŕ ugarija deskatzut, maŧe ta jauretsi zagikiezantżat; neuri, baŕiz, jaumaŧasun bixija idazu, ta dan-dana zeure gura ta olde-arauz ta alik onduen egiŧeko biaŕ dodan zeure laguntza eragikoŕa.

Eskaŕok jadesteko bide ta neure oben eta utsekiko ordaintzat Josu-Kisto zeure Semia deskaintzut, geure goguak erosten bidaldu euzunian ixan euskuzun neuŕibako maŧasuna gogorazorik eskañi be. Oŕa, Erosle onen

gixakunde, bixitza, erijotza ta nekaldi gomutagaŕijak; oŕa, bere onoimen bikañak eta bere neke, lan, oñaze ta odol-ixurpen sarigaŕijak; oŕa, gebaŕen egin eta jasan eban gustija; oŕa, jaupatan —mezatan— berak orañaŕte egin dautzuzan eta geroztik egingo dautzuzan buru-eskeintzak; oŕa, gauŕaŕteko jaunaŕpen zintzuak eta gauŕgeroz egingo diranak; oŕa, Ikuŕton deun au dala-ta egiten diran jaurespen eta aguŕpen sutsubak; oŕa, oteuneko matale onek gixon gaiztuen eskaŕbaltz, lotsabage, birau ta donaustiak jasateko dauzan neuŕibako eruapena ta matasuna; oŕa, azkenik, Miren deunaren, donokiko deunen eta luŕbirako kistaŕ zintzuen irabazijak. Eurok dirala bide, ta zeure ontasun eta eŕukijaŕen, nire eskakixunak entzungo dozuzala, ta gero amaibako egunetan zeu bixi ta bakal-zaran donokiko aintzea emongo daustazula ditxarot. Olantxe.

## GUŔKETEA

**Bederatzi gotzon-taldiakin batera Oteuneko Josu-Kisto ta bere Amaren bijotz deuna guŕtzeko erea.**

*Ona emen, bederatzi taldietako gotzonen ixenak: Sudunak (Serapiñak), Jakitunak (Kerubiñak), Jauralkijak; Jabegodunak, Indaŕdunak, Aldunak, Auŕenak, Gongotzonak, eta Gotzonak. Gotzon-taldiok iru malatan banatzen dira, irunaka. Lenengo mala*

*bijetako sei gotzon-taldiak Josu'ren bost zaurijak eta arantzazko burestuna gufituteko lagun-ixango doguz; eta irugafen malako iru taldiak, bafiz, Miren-Bijotza gufitu ta bere bidez iru onoimenok, apaltasuna, garbitasuna ta matasuna, eskatuteko.*

I. Ene Josu mate: Sudunakin batera zeure eskuma-eskuko zauri deuna guŕ-dagit; eta bere bidez jaumatasuna deskatzut, Sudunak letz gogo-gogoz mate-zaikedazantzat. Olantxe.

**Geure Ata *ta* Aguŕ Miren**

II. Ene Josu mate: Jakitunakin batera zeure eskeŕ-eskuko zauri deuna guŕ-dagit; eta bere bidez goi-jakintzea deskatzut, donokiko Jakitunak letz zeu ezagun eta mate-zaikedazantzat. Olantxe.

**Geure Ata *ta* Aguŕ Miren**

III. Ene Josu mate: Jauralkijakin batera zeure eskuma-oñeko zauri deuna guŕ-dagit; eta bere bidez baŕuko gentza-baretasunak deskatzudaz, donokiko Jauralkijakan letz neure bijotzan, be, eroso jezaŕita egon zaditezantzat, Bakaldun gentzati ori. Olantxe.

**Geure Ata *ta* Aguŕ Miren**

IV. Ene Josu mate: Jabegodunakin batera zeure eskeŕ-oñeko zauri deuna guŕ-dagit; eta bere bidez goi-laguntzea deskatzut, neure girin okeŕetaz jabetuta, donokiko Jabegodunak letz zintzoro mate ta jauretsi zaikedazantzat. Olantxe.

**Geure Ata *ta* Aguŕ Miren**

V. Ene Josu mate: Indaŕdunakin batera zeure bulaŕeko zauri deuna guŕ dagit; eta bere bidez goi-indaŕa deskatzut, onoimenak sendotuta onbidez

adoretsu ibiīirik, gero donokiko Indaŕdunak letz betiko zeure otseña nadiīentzat. Olantxe.

Geure Aīa *ta* Aguŕ Miren

VI. Ene Josu maīe: Aldunakin batera zeure arantzazko burestun deuna guŕ-dagit; eta bere bidez goi-al eta eskaŕez bete naikezula deskatzut, orain gogo-etsayen auŕka kementsu gudakatuta, gero donck'ko Aldunak letz betiko burestun diztikoŕa loŕtu daikedantzat. Olantxe.

Geure Aīa *ta* Aguŕ Miren

VII. Urtzi Josu'ren Ama ta neure Ama: Auŕenakin batera zeure Bijotz apal eta otzan ori guŕ -dagit; eta bere bidez Josu zeure Semiari bijotz -apaltasun-otzandasunak deskatsodaz, beroni jaŕai auŕena nadiīentzat. Olantxe.

Geure Aīa *ta* Aguŕ Miren

VIII. Josu'ren Ama ta neure Ama: Gongotzonakin batera zeure Bijotz garbi ori guŕ-dagit; eta bere bidez Josu zeure Semiari bijotz-garbiīasuna deskatsot, donokijan Gongotzonak letz ikusi zagikedazantzat. Olantxe.

Geure Aīa *ta* Aguŕ Miren

IX Josu'ren Ama ta neure Ama: Gotzonakin batera zeure Bijotz maīati ori guŕ-dagit; eta bere bidez Josu zeure Semiari bijotz-maīasun berua deskatsot, Gotzonak letz neuk Urtzi Jauna maīe ta bestiai, be, maīerazo dagiskiedantzat. Olantxe.

Geure Aīa *ta* Aguŕ Miren

## ABINTZAK

1. ¡Oteuneko neure Jaun eta Jabe ori! Egunian -egunian etoriko nayatzu, zeu ikertzen, zeu agurtetan, zeuri itz-egiten: eta bertora erdu ezin naikenian, etxian zeugaz sari gomutauko naz, ta bertatik agurtauko zaudaz...

2. ¡Oteuneko neure Jaun eta Jabe ori! Urtian bein gitxijenez, aginduta dagonetz, jaunartuten erduko naz; eta orez ganera al-daikedanik sarijen be, bai. Ordu-jotaldijetan, bariz, gogozko jaunartzea egingo dot...

3. ¡Oteuneko neure Jaun eta Jabe ori! Zuk ikurton deun oretan zeure bijotza, gorputza, odola, gogua, jaungotasuna ta dozun gustija damostazuz, ta ordez-orde neure bijotza deskastazu. Ona emen nire bijotzau: oso-osorik damotzut; artu zeuk, eta zeure Bijotz-baru sartu eikezu, jaumatasun-garetan sutau ta kiskali datentzat...

## ESKAŔ-EGIPENAK

I. ¡Eskarik asko, neure Irazale on ori, irazan ninduzulako! Nire gogua barik, zintzoro mateko zindukiezan beste amaikatxu gogo irazan leikezuzanaren, neuriau irazan eta zeure antz-irudikua egiñik, matasun aundija erakutsi daustazu. ¡Ontarte augatik bijotz-bijotzez eskar-dagitzut!

II. ¡Eskarik asko, neure Jaungoiko Erosle ori, kistartu ninduzulako! Ni jayo nintzan egunan bertan jayoriko asko ta asko ziñestebakuen artian luteratu ziran eta ugutzau-barik geratu; ni, bariz, kistar zintzuen seme jayo, ta ugutzaz laster kistartu ninduben. ¿Ontarte aundi ori jaristeko ezer geyagorik ete-eukadan nik bestiak baño? ¡Ezebez! ¡Zeure

eŕuki ta maīasun utzai zoŕ dautset! ¡Emoi bikain augaīik bijotz-bijotzez eskaŕ-dagitzut!

III. ¡Eskaŕik asko, Urtzi Jaun oŕi, zeure Seme laztana emon dauskuzulako! Maīasunaren maīasunak eraginda, Josu-Kisto zeure Seme bakaŕa bidaldu euskuzun, geure Eroslia, Gaizkatzalia, Irakaslia ta eredu bikaña ixan lediīentzat. ¡Saneuŕibako ariguri edeŕ augaīik gogo-gogoz ta bijotz-bijotzez eskaŕ-dagitzut!

IV. ¡Eskaŕik asko, zeuri, Josu on oŕi, be! Gebaŕen egin eta jasan dozun gustijagaīik eskaŕ -dagitzut.

V. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Maīasunaren maīasunaz neugaīik gixatu, ta Miren Neskutzagandik jayorik, askatxuban ezaŕi, biīebai ta Egiīo'ra igesi eruan zindubezalako, eskaŕ-dagitzut.

VI ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Maīasunaren maīasunaz, Jon'ak ugutzau ta txeŕenak ziltzau ixanda gero, Goizpaŕa edasten, gexuak osatuten eta iīak beŕpiztuten jardun zintzazalako, eskaŕ -dagitzut.

VII. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Maīasunaren maīasunaz zeure bixitza osuan ainbeste neke, lan, irain, jazaŕkunde. laido ta ezespen neugaīik eruan euzuzalako, eskaŕ-dagitzut.

VIII ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Maīasunaren maīasunaz zeure Ikasliakin Igaratza ospatu, eurai oñak garbiīurik apaltasun-eredu bikaña emon, eta zeure gorputz-odolak ogi-ardau-anzpian ostendubaz azken-egunerańte geure ańtian ixango zindu-guzala abindu euskuzulako, eskaŕ-dagitzut

IX. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugaīik, Getsemani'ko baratzan atsebage-laŕijak odol-ixerdiz bete, Aīearen aginduz gotzonak adoretu, Juda'k mosubaz ukañi, ikasliak utzi, ta judaŕ gaiztuak atxiīotuta Jerusalen'go txaide-ziaŕ eruan zindubezalako, eskaŕ-dagitzut

X. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugaīik, Ana're-

nian otseñak jo ta Kaipa'renian txu-egotzijaz-ta laidoztau, ta eŕijaren gaizkakunderako erijope iragaŕi zindubezalako, eskaŕ-dagitzut.

XI ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, guzuŕezko lekuko-itxez salatu, batzaŕak erijogai etsi ta danak irañez bete, gudari ta otseñak aŕpegija estalita joka erabili, guzuŕ-iragaŕletzat etsi ta, batez be, Kepa'k ukatu ixan zintzazalako, eskaŕ-dagitzut.

XII. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, txaiderik txaide lenen Pilatus'enera ta gero Erode'renera eruan, Erode'k zoro-etsi ta zuriz jantzirik baŕiro Pilatus'gana bidaldu, onek eŕubako-etsi-aŕen gogoŕkiro aztinduteko agindu, arantzaz burestundau, Baraba baño ezago-etsi, ta Pilatus'ek erijorako emon ixan zintzazalako, eskaŕ-dagitzut

XIII. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, gurutz aztuna lepuan Golgota'rantz urten, bidian zeure Ama nekatsuba ikusijaz laŕitu, gurutza ezin eruanik iru bideŕ jausi, ta zauriz ta autsez beterik eldu zintzazalako, eskaŕ-dagitzut.

XIV. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, Koskategi-ganian biloxik gurutzan josi ta tente jaso ixanik, biaztun-ozpiñak mustau, gurutzetik saspi bideŕ itz-egin, zeure Amea gixonai Amatzat emon, eta iragaŕliak zeutzaz iragaŕitako gustija jasan eta betatu euzunian, neuri betiko bixija emotiaŕen il egin zintzazalako, eskaŕ-dagitzut.

XV. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, ilda gero gudarijak aztamakilaz zeure bulaŕa edegi ta odol-urak iraxuri eutzuzanian, zuk zeure Bijotz-baŕuko ikuŕton-ituŕi bixija ageŕtu euskuzulako, eskaŕ-dagitzut.

XVI. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, gurutzetik eratsi, Ama laŕijaren besuetan imiñi, ta gero ioŕtzi egin zindubezalako, eskaŕ-dagitzut.

XVII. ¡Eskaŕik asko, Josu on oŕi! Neugatik, irugaŕen egunian beŕpiztuki, lenen zeure Ama ma-

r̄iari ta gero Miren Matale'tar̄ari ta askotan zeure Ikasliai ager̄tu, ta geruago oneik gixon gustijai edatsi ta irakatsi biar̄ko eutsiena zeuk mar̄ero irakatsi eutsezulako, eskar̄-dagitzut.

XVIII. ¡Eskar̄ik asko, Josu on or̄i! Neugar̄ik, ilpiztuta ber̄ogeigar̄en egunian ikasle gustijen ager̄ijan aundikiro goira igonda, donokijan geure bir̄ar̄teko ixateko Ar̄earen eskumaldian jezar̄i zintzazalako, eskar̄-dagitzut.

XIX. ¡Eskar̄ik asko, Josu on or̄i! Neugar̄ik, goira igonda amar̄gar̄en egunan zeure Ameari ta ikasr̄iai Goteuna bidaldurik goi-emoi ta eskar̄ez bete-bete euzuzanian, aek aldar̄ika Jabe Jauna goraltzen asi ziralako, eskar̄-dagitzut.

XX ¡Eskar̄ik asko, Josu on or̄i! Neugar̄ik, betiko Ar̄eak zeu gor̄ik bidaldu zindūzan letz, zeuk beldu-ikasliak lur̄bira osoz-ziar̄ goizpar̄a edasten igor̄i, ta Doibatza Kepa-gane irasirik gaiztokiko indar̄ak egundo eztabela menperatuko abindu euskuzulako, eskar̄-dagitzut.

XXI. ¡Eskar̄ik asko, Josu on ori! Neugar̄ik, Doibatzari Kepa'ren ordezko Doipurubak eta euron menpeko gotzain eta jauparijak eten-barik zuzendurik, zeure odol deunaz erosir̄ako goguak donoki-bidez ar̄teztu ixan dozuzalako, eskar̄-dagitzut.

XXII. ¡Eskar̄ik asko, ene Jaun eta Jabe or̄i! Nire goguak edozenbat eskar̄ ta ontar̄te zor̄ dautzuz: askotan neure obenak azketsi ta ariago ez jaukir̄eko lagundu ixan nozu; ikur̄tonak, autor̄kintzea ta jaunar̄tza-ikur̄tona batez be, maiz ar̄tu al ixan dodaz; goi-emoi ta eskar̄ deunaz sendotu egin nozu; egiñen onetarako ta bide oker̄etatik jaboteko, zeure laguntza ugarijaz ganera gotzon zaindarija emon daustazu Ontar̄te gustijokar̄ik gogo-gogoz eskar̄-dagitzut.

XXIII. ¡Eskar̄ik asko, ene Jaun eta Jabe or̄i! Nire soñak zor̄ dautzuna, be, ezta gitxi: osasuna ta zegaz jantzi ta zer-jana beste asko ta askori

baño eułezago zuzendu daustazuz; eta nik emoyok beti zeuri otsein-egiteko erabili eztodazanaren, eztaustazuz ukatu. Azketsi egistazu, aren, gaurtik -eta obeto erabiliko bai'dodaz.

XXIV. ¡Eskařik asko, ene Jaun eta Jabe ori, zeugandik artu dodazan eskar, emoi ta ontarte gusti-gustijakatik! Nai goguari dagokijazala nai gorputzari, nai ezaunak yatazala nai ezaunezak, zeure eskuzabaletik artu dodazan onegin ugarijakatik, bijotz-bijotzez zeure aurian auzpezturik, eskar-dagitzut.

## ESKAKIXUNAK

I. ¡Neure Jabe ta Ata! Onbera ta erukijor utza zara-ta, gu eskatuteko baño zu emoteko guratsubago zagoz, egon be. Orezkero, nire obenak azkesteko deskatzut, zeu iraindubaz garbai ta atsebage bai'nozu, on utza zaralako. Gaurgeroz oben lařirik ez jaukiteko eskara emon, eta oben ariñetatik eta obenbide danetatik, be, jabon naikezu: Josu -Kisto zeure Semia dala bide.

II. ¡Neure Jabe ta Ata! Gaizkatu naikezula deskatzut: sulezatik jabon eta donokira naruakezu, antxe gotzon eta deunakin batera zeu amaibako egunetan onetsi, mate ta aintzaldu zaikedazantzat: Josu Kisto zeure Semia dala bide.

III. ¡Neure Jabe ta Ata! Zeu mate ta zeuri otsein -egiteko nire goguak biar dauzan laguntza ta eskar -emotxak deskatzudaz; azkenerarte onbidez irauteko eskara ezeiskedazu ukatu, aren; geidiekiko gentza-matasunak eta zeuri atsegin ixateko apaltasun-garbitasunak eta beste ekandun edo onoimenak, be, emon egiskedazuz: Josu-Kisto zeure Semia dala bide.

IV. ¡Neure Jabe ta Ata! Goguari kaltegari ez ixatekotan, gorputzari yaokozanak, be, ustetsu

deskatzudaz: bixitz, osasun, janedaki, ixenon, alat̄asun, ogasun, eta a. Zeure oldezko nire onerako daikena emoskedazu: Josu-Kisto zeure Semia dala bide.

V. ¡Neure Jabe ta At̄a! Obendijen alde deskatzut, gaŕbai-ixanik onbidera datoŕkezan: il-agiñian dagozanai egizko oben-gaŕbaya ixateko ta azken-ikuŕtonak ondo aŕtzeko erea zuzendu egiskiezu, erijotza eurentzako gentza-lua dadit̄entzat; gokaxuak Gardostegi'tik len-bai-len atera eikezuz; neure geide gustijai euren oparin eta zoritxaŕetan lagun-zakijez; neure aide ta ongil̄iak, adizkide ta arerijuak, otoi-eske erdu yatazanak eta otoi-abintzea egin dautsedanak, gustijak jabon eikezuz: Josu-Kisto zeure Semia dala bide.

VI. ¡Neure Jabe ta At̄a! Ziñeske ta obendijak onbidera eratoŕi ta egizko ziñeskintzea edaztu egixu. Doipuruba, Janzkoŕdunak, Gongotzain eta Gotzañak, Jaupari ta enparau txaungixonak; lekaide-lekaimiak eta euron nagusijak; eŕidijetako agint̄ari ta aldunak: danak lagundu ta zaindu daikezuzala deskatzut, beti zeure otsein zintzuak ixanik, zeu mat̄e ta goretsi zagikiezantzat: Josu-Kisto zeure Semia dala bide.

VII. ¡Neure Jabe ta At̄a! Zure Doibatzari berein jaupari on eta arduratsu eratu egiskiozuz, masti donia arduraz landu daikientzat; gixa-eme gustijak Jaungo-itza entzuten leyaz betoŕkez, ta onuratsuba ixan bekikie: zeure agintza ta esanak ziaro betatu, tu ikuŕtonak, autoŕkintzea ta jaunaŕtzea batez be, saŕi ta ondo aŕtu daikiezala; otoi-zaliak, Miren-deun-mat̄aliak, geidiekiko eŕukitsubak eta zeure otsein zintzuak dat̄ezala egixu: Josu-Kisto zeure Semia dala bide.

VIII. ¡Neure Jabe ta At̄a! Azkenez; oraingo gixaŕte ustel au osatu egixu: aundikeri ta aŕokerijak, iñartzi ta bekatxak, biguŕikeri ta asalda-zalekerijak, atsegin-gose ta nasaikerijak, burukoikeri

ta ildurarik gura-ezak, txindikoikeri ta zuzenbagiak, alkaŕ-goŕoto ta gentzarik-ezak, eta beste berein gatxek kutsututa dagon gixaŕte eŕukaŕi onegaz eŕukiṫuta, sendatu eikezu, gixadija eredutzat emon euskuzun Josu-Kisto'ren antzeko egiñik: Zeu ta Goteunarekin batez betiko bixi ta bakal-dan Josu-Kisto zeure Semia dala bide. Olantxe.

## JAUMAṪASUN - EIKUNAK

*Maṫe-ixatia, ona opa-ixatia dala, diño Toma deunak. Urtzi Jaunak on oro dau-ta, ezin daiskiaga eztaun onik opa ixan; on oro daula-ta, baŕiz, atsegin eta poz-ixan gintzakez, eta oŕetara geure maṫasuna erakutsi.*

I. Goiko Jaun ori: Urtzi zara, ta beti ta beti ixango be; nik atsegin dot zeu betiko Urtzi Jauna ixatia. Algustiduna zara, ta betiko ixango be; atsegin dot zeu betiko algustiduna ixatia. Neuŕibako jakintzea dozu, dan-dana dakixu, ta beti jakingo be; atsegin dot zeuk olako jakintza betia ixatia. On-utza zara ta bazteŕbako maṫasun-eŕukijak dozuz, ta beti ixango be; atsegin dot zeu beti olakua ixatia. Onbera, arduratsu ta eskuzabala zara, ta betiko ixango be; atsegin dot zeu olakua ixatia. Aintzatsuba ta zorunduna zara, ta beti ixango be; atsegin-atsegin dot zeu beti oŕen aintzatsuba ta zorunduna ixatia.

II. Goiko Jaun eta Jabe: Urtzi bat eta Irukotxa zara, Aṫa-Seme-Goteun, iru-notindun Jaungo bakaŕa. ¡Urtzi Irubata zaralako nire poza! Gure Eroslia ta Jaregiḻia zara. ¡Ori bai-dala guretzat zori ona! ¡Atsegin dot zeu olakua ixatia!

III. Urtzi Jaun ori: zeure jaungoikozko ixatia bazteŕbakua danaŕen, ziaro ta bete-betian ezaun dazauzu; atsegin dot neuŕibako zeure ezagutza ori, ain zuzen be, bazteŕbako ixatiari neuŕibako ezagu-

tza dagokija-ta. Zeure ixatia azkenbako ontasuna da, ta neuřibako mařasunaz maře-dozu; olako zeure mařasun ori atsegin dot, ain zuzen be, azkenbako ontasunari neuřibako mařasuna dagokija-ta. Zu zorun-zoruntsuba zara ta amaibako pozořaz pozten zara; atsegin dot amaibako zeure pozbetia, ain zuzen be, neuřibako zeure aintzeari amaibako pozořa dagokija-ta. Zeure ezagutza, mařasun eta pozoř ořeik neuřibakuak eta beti betikuak dirala-ta, poztu be, pozoř aundiz pozten naz, ta atsegin -atsegin dodaz!

IV. Goiko Jaun altsu ori: ixaki gustijen Jaun eta Jabe zara, ixan be; donokiko gotzon eta deunak eta luřbirako kistař zintzuak otseñak dozuz; eta eurok zeu maře, onetsi ta jauretsi egiřen zauze. ¡Donokiko ta ortzi-ludijetako ixaki orok maře, onetsi ta jauretsi zaikiezala, Jabe Jaun ori, amaibako egunetan!

V. ¡Neure Jaun eta Jaungo! Ziñeske ta obendi gustijak onbidera ekaři gura leukedaz, gauřgeroz iñortxok iraindu etzaikezan, dan-danak zeu etenbarik maře ta goraldu baño. Danak zeure otsein zintzuak ixan lediřezantzat, nik pozařen emongo leuket neure zanetako odol gustija, ta amaika bideř emon be. Ondo dazaut, ordian, ořetarako nire gauza-eza. Zeu, bařiz, aloroduna zara-ta, gixa-eme gustijak zeure otsein zintzuak dadiřezala egixu, ta ixaki dan-danak zeu maře, onetsi ta goraldu egin zaikiezala, etenbarik eta beti egin be ¡Egiztu zeuk, Jaun ořek, nire gurari bixijau!

¡Josu-Bijotz deun: nire ordez Urtzi Jauna maře -egixu!

¡Miren-Bijotz deun: nire ordez Urtzi Jauna maře -egixu!

¡Deun gustijok: nire ordez Urtzi Jauna bijotz -bijotzez maře-egixube!

¡Gotzon taldiok: nire ordez Urtzi Jauna maře -egixube!



Bere Bijotzari itz-egiñaz edozerbere jadetsi dagiket.

*(Bonabendur dk.)*

# JOSU'REN BIJOTZ DEUNARI

## ERASPENA

Josu-Bijotzari eraspen edo zaletasunik aundijena zoŕ dautsagu. Urtzi Jaunaren Seme bakaŕ onek gixaumiok mat̄e-mat̄e-ixan gauz, ta gu goi-eskaŕ ta emotxez betetako, bere Bijotz deuneko atiak zabal-zabal egin dauskuz. Danok ondasun-it̄uŕi bixi aunetara erdutia gura dau; danok zori-on-it̄uŕburu ustu-eziñera, bere Bijotz mat̄etsura, jotia opa-dau; gixaki oro zorunez ta goi-ondasunez betetiaŕen, eraskun au luŕbira osoz edaztu ta zabaltzeko eskatu dau.

Mat̄e-eikezu, ba, Bijotz mat̄ekoŕ au; mat̄e-eikezu irañez bete daruen obendi gaiztuen ordez, mat̄e-eikezu, bere mat̄e-gurea asetutiaŕen; mat̄e-eikezu, berak ordez-orde goi-eskaŕ ta ontaŕtez bete zagikezantzat. Irakuŕi, Josu-Bijotza mat̄e ta goresten dabenen aldez Alacoque'taŕ Margarit̄e deunari egind̄ako abintz ederak.

¡Ixaki gustijok: nire ordez Urtzi Jauna maŕe-egixube.

¡Urtzi'ren maŕe-sugaŕ itxungi-ezin ori: sutu nire gogua! Josu'ren Bijotz bero ta beti maŕasunaren maŕasunak kiskaltzen dirauzun ori: nire bijotzau, be, Jaungo-maŕasun-gaŕetan eŕe ta kiskaldu daŕela egixu!

¡Ene Jaun-Goiko! ¡Maŕe ta maŕe gura-zaudaz! Maŕasun oŕek kizkali ta ezereztu beist bijotza, kedatz-aletxuba txingaŕetan luŕíndu egiŕen dan letxe! ¡Maŕe ori! ¡ene maŕe ori!

# JOSU-BIJOTZAK

## BERE MATALIAI EGINDAKO

## ABINTZAK

1.ª Euren bixibiderako biař dabezan eskař gustijak emongo dautsedaz.

2.ª Euren sendijai gentzea damoskiet.

3.ª Euren atsebage-aldi orotan poztu egingo dodaz.

4.ª Babes ta zaindoki eskijeřa ixango nayake, bai biztaldijan, bara, batez be, erijotzaldijan.

5.ª Neure aintzarako daikezan euren asmo ta ekintzak oparo onetsiko dodaz.

6.ª Obendijak nire Bijotzan eřukizko iturburuba ta mugabako itxasua idoroko dabe.

7.ª Gogo epelak berotu egingo dira.

8.ª Gogo beruak, bařiz, iradu donetasun aundija lořtuko dabe

9.ª Jauparijai, obendirik bijotz-gogořenak bigunduteko eskařa damoskiet.

10.ª Nire Bijotz-irudija agirijan imiñi ta guřtuko dan etxiak onetsi egingo dodaz.

11.ª Eraskun au zabaldu dagikienen ixenak neure Bijotz-bařu irařiko dodaz, bertotik iñoz ez kentzeko.

12.ª «Nire Bijotzeko eřuki-eřukijařen, eta neure algustidun maťasuna dala bide; ilaren lenengo bederatzi barijekutan jařaikiro jaunařtu leikienai azken-gařbařarako eskařa emongo dautsedala dabintzut: eztira neure eskař ta ikuřton-barik ilgo,

jaungoikozko ene Bijotzau azkenengo une aretan igesleku eskijeŕa ixango bai'yake». Azkenengo abintza pozkaŕijau itxokaz egin eutsan Margarite deunari.

## OTOI-BELGUNTZA

Otoi-belguntza deretxon bazkun on aunetako lagunak euren burubetan eta geide gustijakan otoi-zaletasuna geŕuten alegindu biaŕ dira, beti geure alde otoi-ta-aŕen diñardun Josu'ren Bijotz deunaren gura ta eredu-arauz.

Bazkunak iru mala dauz. Lenengo malako bazkidiak, egunoro euren otoi, lan eta egiñen on gustijak Urtzi Jaunari Josu'ren Bijotz deunagaz batera eskeintzen dautsaez, ta Josu-Bijotza Ikuŕton deunian eskeintzen dan asmo gustijetarako eskeñi be. Bigaŕen malakuak, ganera, egunian-egunian **Geure Ata** ta amaŕ **Aguŕ Miren** esaten dabez, ilian-ilian bazkidiai iragaŕten yaken asmorako. Irugaŕen malakuak, ganera be, astero edo ilero, *ordain-jaunaŕpena* egiten dabe, Josu-Bijotza adikoŕ ixan eta oben-irañak ordaintziaŕen.

## OTOI-BELGUNTZAKO IKEŔTALDIJA

**Eskeintza.** Josu'ren Bijotz deun ori: gauŕko otoi, lan eta neke gustijak Miren-Bijotz garbijaren bidez deskeintzudaz, Ondijan —aldaran— etenbako buru-eskeintza dagixularik zeuk dozuzan asmuakaz batera; eta berebat gure otoi-begira imiñi dauskubezan opariñen alde.

*Orain, Ikuŕton deunari sei bideŕ* **Geure Ata, Aguŕ Miren** *eta* **Aintza** *esan; eta gero:*

*Aña.* — Adiuva nos, Deus, salutaris noster, et propter gloriam Nominis tui, libera nos, et propitíus esto peccatis nostris propter nomem tuum.

*Ps. 53.* — Deus, in nomine tuo salvum me fac; et in virtute tua iudica me.

Deus, exaudi orationem meam; auribus percipe verba oris mei.

Quoniam alieni insurrexerunt adversum me, et fortes quaesierunt animam meam; et non proposuerunt Deum ante conspectum suum.

Ecce, enim, Deus adiuvat me; et Dominus susceptor est animae meae.

Averte mala inimicis meis; et in veritate tua disperde illos.

Voluntarie sacrificabo tibi, et confitebor nomini tuo, Domine, quoniam bonum est;

Quoniam ex omni tribulatione eripuisti me; et super inimicos

*Eslena.*—Urtzi gure jaregile ori: lagun zatoŕkiguz, ta zeure Ixenaren aintzea dala-ta gaizkatu gaikezuz, ta azketsi gure obenak zeure ixen oŕegatik.

*53'g. Eresija.*—Urtzi Jaun: zeure ixenaŕen gaizkatu nagixu; eta zeure alaz aldeztu.

Aditu. Jabe oŕek, nire otoya; entzun neure ezpanetako itzak.

Bestekuak auŕka jagi bai'yataz, ta gixon ankeŕak erail gura nabe; eta Jaungoikua' gaz eztira gomutetan, gomutau be.

Ona, baña, Jaungua laguntzen datoŕkidala; nire bixi-euskaya Jauna bai'da.

Zoritxaŕak etsayetara ixurkezuz; eta zeure abintza-arauz ondatu.

Nik eskaña oldez eskeñiko dautzut, eta zeure ixena goralduko dok, ixan be ona da-ta;

Loŕaldi orotik jaregin bai'nozu; eta onezkero areyuak bilduŕ

meos despexit oculus meas.

Gloria Patri... Sicut erat...

*V.* Propter gloriam Nominis tui libera nos.

*R.* Et propitius esto peccatis nostris propter nomen tuum.

**Oremus.** Preces populi tui, quaesumus, Domine, clementer, exaudi, ut qui iuste pro peccatis nostris affligimur, pro gloria Nominis tui misericorditer liberemur. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Te, ergo, quaesumus, tuis famulis subveni; quos pretioso Sanguine redemisti.

-barik begiratuten dodaz.

Aintza At̄eari... Len lez...

Zeure Ixenaren aintzea dala-ta gaizkatu gaikezuz.

Eta azketsi gure obenak zeure ixen oŕegat̄ik.

**Otoi-daigun.**—Zeure eŕijaren otoyak, aŕen, adikoŕ entzuzuz, Jaun oŕek, geure obenakat̄ik bidez zigoŕtau garanaŕen, zeure Ixenaren aintzea dala-ta eŕukiz jaregin gadit̄ezantzat Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

Zeure otseñok lagundu gaikezuz aŕen; zeure Odol edeŕaz erosi gozuzanok.

*Orain* **Salve Regina,** *edo* **Aguŕ Andera,** *esan; eta gero:*

*V.* Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix,

*R.* Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

*I.* Otoi gure alde, Urtzi'ren Ama deun oŕek.

*E.* Josu-Kisto'k abind̄utakua jaritxi daikeguntzat.

**Oremus**

Protege, Domine, famulos tuos subsidiis pacis, et beatae Mariae semper Virginis patrocinio confidentes, a cunctis hostibus et periculis redde securos, Per Christum Dominum nostrum. Amen.

**Otoi-daigun**

Zeure otseñok gentza-laguntzaz jabon, Jaun ořek, eta Miren beti Neskutz deunaren zaipenaz ustetsu gozuzanezkero, etsai ta galbide orotatik aldeztu gaikezuz. Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

*Orain iru bideŕ* **Sub tuum praesidium,** *edo* **Zeure babesera** *esan:*

Zeure babesera joten dogu, Jaungo-Ama deun ori: geure opariñetako eskarijak adikoŕ entzun, aŕen, eta galbide orotatik jabon gaikezuz beti, Neskutz aintzatsu ta donetsi ořek.

*Josu ta Miren'en Bijotz deunai* **Geure Āta, Aguŕ Miren** *eta* **Aintza.**



Maťasun-edeŕdun Ama naz

# MIREN NESKUTZARI

## IKEŔALDIJA

¡Aguŕ, Miren, Urtzi'ren Ama Neskutz ori! Obendi gaxo au ustetsu natoŕkixu zeure oñetara, gixonak Jaungua'gandiko eskaŕ oro zeure bidez jadesten dabezala bai'dakit. Zu aberats-aberatsa zara; ni, baŕiz, txiro eukijeza. Zu Amea zara; ni zeure semia, oŕetarako gayeza naz, baña. **Amea zaudazala erakutsi egixu.** ¿Iñungo amak, al ixanik, bere semia laguntza-barik utziko ete-leuke? Zu, baŕiz, altsutan be altsuba zara-ta, ¿ez ete-nozu lagunduko? Ez aztu, Miren Neskutz eŕukitsu ori, babes ta laguntza-eske zeugana jo eban edonorbere zeuk jabon-baga geratu zanik egundo eztala entzun. Danentzako beti zabal-zabalik egon dan ate au, ¿gauŕ lelengoz ta neuretzako bakaŕik itxiŧa egongo ete? Itxiŧa ba'lego be, baña, usterik eztot galduko; geruago ta didaŕago egingo dot, bai?, ta biaŕ dodana eskuratu-aŕte eske -ta-eske ixango nozu. Bai, ene Ama ta Andera: entzun nire eskarija; azkeneraŕte Jaunari otsein-egiŧeko eskaŕa idazu; eta, zoritxaŕez, oben aztunik jaukiko ba'leut, eztaikedala gentza ta bare-aldirik nabaŧu, bijotz-bijotzez garbai-ixan eta autoŕtu-aŕte.

Ganera, onai donoki-bidez azkenerano irauteko eskaŕa ta obendijai gaŕbai zintzua emoskiezuz. ¿Zer gura dozu nik obendi gaxuen alde dagidan? Eurak bide onera ekaŕteko bit̄aŕtekotzat aŕtu nai ba-nozu, ona ni emen, gertu nozu. Garbit̄okiko gokaxuen alde, be, aŕen-dagitzut; bat̄a, neure guraso, adizkide, ongil̄e ta otoi-laguntza eskatu dausten gustijen alde; Doipurubaren eta neure gotzañaren alde; janzkoŕdun, gongotzain, gotzain, jaupari ta beste txaungixonen alde; lekaide-lekaime gustijen alde, euren burubak donetu daikiezan, eta oŕetara bestientzako eredu ta ikasbide ixan. Egizko ziñeskintzea luŕbira osuan zabaldu egixu, ta ziñausle-taŕgolarijen asmo okeŕak ezereztu; Goiko Jaunak eŕidi ta eŕi gustijetako jauŕle ta agint̄arijai, menpekuentzat egoki let̄ekezan aberaskijak, gentzea ta zorijona eratoŕteko biaŕ dabezan jakintzea, artezija ta zuŕtasuna emon daiskiezala, egixu, arako Salomon ospatsubari emon eutsazan letz. Azkenez, neure geide gustijen alde deskatzut, gexorik edo espetxetan nai eŕbestian dagozanen eta luŕez edo itxasoz dabixan bidaztijen alde, batez be; danai biaŕ dabezan eskaŕak jaritxi eiskiezuz.

Eta eskatu dautzudana emon daiskedazun, eragibidetzat ona zertzuk auŕkezten dautzudazan: Irukoitz deunari dautsazun mat̄asuna;

Oteuneko zeure Semiari dautsazuna; Jokin eta Ane zeure guraso deunai dautsezuna; Joseba senaŕ deunari, Jon beldu zorundunari, Albontsa, Domeka, Bonabendur, Bernarta, Iñaki ta Ligori zeure mat̄ale deunai dautsezuna. Eta aboro biaŕ ba'litz, bit̄aŕteko oneik dimintzudaz: bederatzi taldietako gotzon gustijak, eŕkaba ta iragaŕliak, beldu ta goizpaŕgil̄iak, ziñopa, gotzain eta autoŕle deunak, neskutz eta alargun deunak, donokiko deun eta luŕeko kistaŕ zintzo gustijak. Onezkero, ene Ama ta Josu'ren Ama deun oŕek, ezingo daustazu ukatu bit̄aŕteko gustijok deskatzubena. Olantxe.

*Irukoitz deunari, Miren Neskutza eskaŕez bete ebalako, iru bideŕ* **Geure At̄a, Aguŕ Miren,** *eta* **Aintza** *esan.* Bendita sea tu pureza

**Donetsi zadiz** ta aintzaldu
Ama Neskarbi aratza:
Jaungoikua, be, egin bai'da
Zeugat̄ik pozez alat̄u.
Zeuretu, Miren, nagixu;
Gogo, soin eta bixija,
Neuria dodan gustija,
Zeuretzat aŕtu egixu.
Amatxu: jabon naikezu
ta azken-orduban lagundu.

*(Esaten dan bakotxian 300 eguneko nekazkea).*

## MEMORARE edo GOGORATU

### Bernarta deunaren otoya

**Gogoratu**, Miren Neskutz bijozpera oŕek, zeugana babes ta laguntza-eske jo ixan daun iñortxu lagundu-baga utzi dozunik egundo eztala entzun. Ori dala-ta, neu be ustetsu natoŕkixu, ¡Miren Neskutz, beste neskutzen Ama ori!; eta neure oben andijakat̄ik laŕi nagonezkero, beste biderik eztot-eta, zeure auŕian auzpeztuten naz Nire eskarijai entzungoŕ ez egin, Jaungoikua'ren Ama deun oŕek, adi-adi entzun eta aintzat aŕtu baño. Olantxe

*(Esaten dan bakotxian 300 eguneko nekazkea, ta egunoro esanezkero il̄ian bein nekazka osua, autoŕtu, jaunaŕtu ta txadonen bat ikeŕluz Doipurubaren asmuetarako otoi-egiñik).*

## MIREN DEUNAK ATSEGIN DAUZAN EINTZAK

1. Ondo dakit, ene Ama Garbi ori, zeure mat̄ale zintzua ixatekotan, oneik gauzaok betatu biaŕ dodazana: oben orotik igesi, zeure ekandun edo onoimenak antzaŕtu, ikuŕton deunetara saŕi erdu, ta zeuri eskeñiko dautzudazan oparitxu, otoi ta beste gauza

gustijak oldez ta iraunkiro eskeñi. Zeu lagun, alantxe jardungo dot, ene Ama, zeuri edeŕ ta atsegin-ixatiaŕen.

2. Aintze edo ordu-jotaldijan **Aguŕ Miren** esango dot; Aguŕtzea, baŕiz, egunian-egunian; larunbatetan baru-egin, edo neure buruba zedozertan ilduratu, beintzat, egingo dot. Ilaren lelengo igandetan bederik autoŕtu ta jaunaŕtuko dot eta Aguŕtza osua esan.

3. Zeure edeŕaŕen eta zeuri atsegin-ixateko, al daikedanetan amalau eŕuki-egintzetan jardungo dot.

## ESKEINTZ-OPARIJA

### Urtzi'ren Amea ta neure Amea dan Miren deunari (1)

Nik....., gixon gustijen bixitzak euki gura leukedaz, danak Jaungo-Ameari otsein egiten erabilteko; donokiko Deun gustijen bixitzak euki gura leukedaz, Miren Neskarbi deuna, Urtzi'ren Amea, eurek orain dautsoen maŕasun gaŕtsuz maŕe al ixateko. Abeŕi, eŕki, uri ta eŕi gustijetako gixon, emakume, gaste ta ume danak Miren deuna donokiko deunak letz ezagun, maŕe, otsein-

(1) Claret Andoni Aba Deunkijak saŕi egiten eban.

du ta goretsi dagikiela opa-dot bijotz-bijotzez.

Miren, Jaungo-Ama Neskutza, guŕtu ta maŀetiaŕen, neure odol gustija ixurijaz iŀtia opa-dot. Bai: Miren, Urtzi'ren Amea ta neure Amea, maŀe ta guŕtutiaŕen neure soin-ataŕ bakotxa oñaztau ta txikiŀuten uzteko biadodazan eskaŕa ta indaŕa Josu'k damoskel dazala opa-dot. Olantxe, olantxe. *Fiat, fiat.*

# AGUŔTZA

## Ondo esan biaŕ dala

Aguŕtza, edo **Eŕosarijua**, deretxon otoitz au, Jaupea kenduzkero, eraspen-eintzarik onena da: Urtzi'rentzako ta Miren deunarentzako atsegiñena ta gixa-umientzako onuragaŕijena. Goiko Jaunaren Ameak berak irakatsi eutsan Domeka deunari, aguŕtza-bidez gixa-emiak opariñetan uŕgatzija ta gaizkatzeko eskaŕa euŕez loŕtuto ebezala-ta. Ixan be, aguŕtzako amaŕekuak gixonak donokira igoteko maladijak dira. Zoruntsubak egunian-egunian esan daikien notin eta sendijak, Miren deunak bixitzarako ta erijotzerako biaŕ dabezan eskaŕak erdetsiko bai'dautsez, ta azkenik betiko zorijona, be.

Miren Ameari atsegin-ixan, eta bere eskutik eskaŕak jadesteko, baŕiz, Aguŕtza ondo esan biaŕ da, txaŕto esaten dabenai laguntzea barik zigoŕa zoŕ yake-ta. Ona, ondo esateko zer egin biaŕ dozun. Asi-orduko, donokiko Andera gurenari itz-egiteko egokijak eztiran egoerak utzita, gogobildurik eta eratsu jaŕi. Aguŕtza-bitaŕtian, bestelako itzik ez esan, biaŕezkuak ixan ezik; ez loti egon; itzak aŕausika ez esan, ez ta gogoŕegi edo naŕazka oguzi, be. Aguŕtza alkaŕegaz esatekotan, lagunak amatu baño len ez asi: batzuk amatu baño lenago bestiak asten diranian, naste baŕegaŕija jazoten da, ta otoitza barik ots-utza, ta Miren Amea guŕtu-ordez txeŕena poztu egiten da. Itxi, ba, lagunari, itz gustijak esaten; eta zeuk, be, danak arduraz, astiro ta osorik oguzi, ez erdizka ta zatija janaz. Andikiren

bategaz jarduteko egoera egokija aŕtu, ta zer eta zelan esan ondo begiratuko leukezu. Aguŕtzea esatian, ba, goiko Jabe Jaunagaz ta bere Ameagaz jarduten dozu-ta, ariago eratsu egon, eta esaten dozunari adi, itxak arduraz oguzi ta esan biaŕ dozuz.

Ganera, amaŕekuari dagokijan ziñeskaya ondo gogaŕtzen alegindu zaditez: bako xan nortzuk at̄atu edo saŕtzen diran, zer egit̄en daben, eta a., azteŕtu; eta Josu'k eta Miren'ek zeure goguaren alde egin dabena geruago ta argiruago ikasiko dozu. Bat̄a, zeure eskaŕ baltza, be, argi ikusiko dozu; eta oŕezkero, Josu ta Miren'en onegiñak oben gor̄ijakaz ordaindu dozuzala-ta, bijotzian gaŕbai samiña soŕtuko yatzu. Gero, Josu ta Miren eredutzat aŕtuki, eurok antzaŕtuteko erabagi, ta oŕetarako biaŕ dozuzan eskaŕa ta laguntzea ustetsu eskatu, emongo dautzubez-ta. Zeure lagunen ona bil̄etan alegindu teko erabakija be aŕtu biaŕ dozu, ta euren aldez otoi-egin. Aguŕtzea ondo-ondo esateko alegiñak egixuz, ba, esan dautzudana ziaro betetan dozularik.

Aguŕtza-bit̄aŕtian jezaŕit̄a zagozala lo-gurea nabarit̄u ba-dagixu, jagi egin zadikez, edo ta ur otzaz begijak busti. Onena, baŕiz, etxeko gustijak batera Miren Amearen irudi-auŕian belaunbiko esatia litxake. Miren deunaren irudi ori agirijan imiñit̄a euki biaŕ dozu, bat̄a zeure gela-baŕu be, *Aguŕ, Miren Garbija, eŕubarik soŕtuba,* esanaz, saŕuŕtenetan aguŕtuteko

Astelen-egubenetan *pozezko* ziñeskayak gogaŕtuten dira; astaŕte-barikubetan *nekezkuak;* eta egubazten-larunbata-igandetan, *aintzazkuak*. Nekazkeak irabazteko, baña, edozein egunetan edozeintzu gogaŕtu dat̄ekez. Eta Josu-Kisto'ren edo Miren deunaren jaya jazoten dan egunian, jai arekiko ziñeskayari dagokijazanak gogaŕtutia da onena.

## AGUŔTZA ESATEKO EREA

### Curutze deunaren...

*V.* Ave, María, gratia plena, Dominus tecum.
*K.* Benedicta tu in mulieribus, et benedictus fructus ventris tui, Jesus.
*V.* Domine, labia mea aperies.
*E.* Et os meum annuntiabit laudem tuam.
*V.* Deus, in adiutorium meum intende.
*E.* Domine, ad adiuvandum me festina
*V.* Gloria Patri...
*E.* Sicut erat...

*I.* Aguŕ, Miren, eskaŕez betia, Jauna zurekin.
*E.* Donetsija zeu emakumien aŕtian, eta donetsija zeure sabelak soŕtuba, Josu.
*I.* Jauna, zabaldu nire ezpanak.
*E.* Eta neure abuak goraldu egingo zauz.
*I.* Ene Jaungoiko: lagun zakidaz.
*E.* Jauna, zatoz bizkoŕ ni laguntzen.
*I.* Aintza Aīeari...
*E.* Len letz...

## ESKEINTZA

Gure Jaun eta Jaungoiko: zuzendu ta aŕtu egixuz gure uste, itz eta egiñen gustijak. Eta zuk, Ama deun oŕek, zeure Semiagandik loŕtu egiskuzu Aguŕtza ondo esateko biaŕ dogun laguntzea. Zeure aintzarako ta egizko uskuŕtza alde gustijetara edatu dedintzat eskeintzen dautzugu. Emoskuzu bere

bidez gorputz eta goguarentzako biaŕ doguna; guk, ordian, irabaziko doguzan nekazka edo parkamenak gogokuen yatzuzan Garbitokiko gokaxuentzat damotzuguz.

## POZEZKO ZIÑESKAYAK
(Astelen-egubenetan)



**Lenengo ziñeskaya:** Urtzi-Semia Miren Garbijaren sabelian gixatu zana. Eskarija: *Apaltasuna.*

*Geure Aŧa... 10 Aguŕ Miren .. Aintza...*



**Bigaŕen ziñeskaya:** Miren Ameak Elixabete'ri egin eutsan ikeŕtaldija. Eskarija: *Geidiagazko maŧasuna.*

*Geure Aŧa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Irugaŕen ziñeskaya:** Jaungoiko - Semiaren jayotza. Eskarija: *Bijotza ogasunetara ez makuŕtzia.*

*Geure Aŧa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*

**Laugaŕen ziñeskaya:** Miren Amea jauretxera saŕtu zana. Eskarija: *Jaungua'ŕen eta Doibatzaren agindubak betetia.*

*Geure Aŧa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*





**Boskaŕen ziñeskaya:** Josu umia galdu ta jauretxian idoro ebena. Eskarija: *Obenaz galdu dan Jauna lasteŕ idorotia.*

*Geure Aŧa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*

## NEKEZKO ZIÑESKAYAK

(Astaŕte-barikubetan)



**Lenengo ziñeskaya:** Getsemani'ko Josu'ren otoitza. Eskarija: *Oben-gaŕbaya.*

*Geure Āta .. 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Bigaŕen ziñeskaya:** Jaungoiko-Semia zigoŕka astinduba. Eskarija: *Aragikeriťik iges-egiťia.*

*Geure Āta... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Irugaŕen ziñeskaya:** Josu'ri arantzazko burestuna ezaŕi eutsoena. Eskarija: *Gogapen txaŕak uxatutia.*

*Geure Aīa .. 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Laugaŕen ziñeskaya:** Josu-Kisto gurutze aztunaz zamatuba. Eskarija: *Naibagiak onez aŕtu ta eruatia.*

*Geure Aīa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*

**Boskaŕen ziñeskaya:** Josu-Kisto'ren gurutzeko erijotza Eskarija: *Josu'ren erijotza obenaz geure bijotzetan ez baŕiztetia.*

*Geure Aīa... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



# AINTZAZKO ZIÑESKAYAK

(Egubazten-larunbata-igandetan)



**Lenengo ziñeskaya:** Josu-Kisto aintzaz beterik ilpiztu zana. Eskarija: *Eskaŕezko bixitzatan erijotzeraño irautia.*

*Geure Āta... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Bigaŕen ziñeskaya:** Josu-Kisto Āteagana igon zana. Eskarija: *Donokirako zaletasun bixija.*

*Geure Āta... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*



**Irugaŕen ziñeskaya:** Goteunaren etoŕkundia. Eskarija: *Otoitzu mat̄e -mat̄e ixatia.*

*Geure At̄a... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*

**Laugaŕen ziñeskaya:** Miren Anderea gogo-ta -gorputz donokira jaso ixan zana. Eskarija: *Erijotz ona ixateko, deunak lez bixit̄ia.*

*Geure At̄a... 10 Aguŕ Miren.. Aintza...*





**Boskaŕen ziñeskaya:** Jaungoikuak bere Amea donokijan zorundun oroz got̄i ezaŕi ebana. Eskarija: *Miren Ameaganako onerasmen aundija.*

*Geure At̄a... 10 Aguŕ Miren... Aintza...*

## AGUŔAK

¡Aguŕ, Miren, Urtzi-Aťearen Alaba!
¡Aguŕ, Miren, Urtzi-Semiaren Ama!
¡Aguŕ, Miren, Urtzi-Goteunaren Emaste!
¡Aguŕ, Miren, Irukoitz deunaren jauretxe!
¡Aguŕ, Miren, oŕban-barik soŕtu ori!

## ESKAŔ-EGINTZA

Eskaŕik asko, goiko Ama, egunian-egunian zure esku zabaletik aŕtzen doguzan ontaŕtiakaťik; zeure babes ta ardurapian jabon gagixuz orain eta beti; oŕetara biaŕtu egingo zauguz «Aguŕ Andera» esanaz:

*Salve...* *Aguŕ, Andera...*

## AŔENTZA

| | |
|---|---|
| Kyrie, eleison. | Jaunoi, eŕukiťu. |
| Christe, eleison. | Kisto, eŕukiťu. |
| Kyrie, eleison. | Jaunoi, eŕukiťu. |
| Christe, audi nos. | Kisto, adiguzu. |
| Christe, exaudi nos. | Kisto, entzuskuzu. |

| | |
|---|---|
| Pater de caelis Deus, *miserere nobis.* | Urtzi At̄a-goiko, *eŕuki zakiguz.* |
| Fili Redemptor mundi, Deus, *miserere nobis.* | Urtzi-Seme, gixadijaren Erosle, *eŕuki-zakiguz.* |
| Spiritus Sancte, Deus, *miserere nobis.* | Urtzi-Goteun, *eŕuki -zakiguz.* |
| Sancta Trinitas unus Deus, *miserere nobis.* | Urtzi bakaŕ Irukoitz deun, *eŕuki-zakiguz.* |
| Sancta Maria, *ora pro nobis.* | Miren deuna, *aŕen gure alde.* |
| Sancta Dei Genitrix, *ora...* | Jaungo-Ama deuna, *aŕen...* |
| Sancta Virgo virginum, *ora...* | Neskutz guren deuna, *aŕen...* |
| Mater Christi, *ora...* | Kisto'ren Ama, *aŕen...* |
| Mater divinae gratiae, *ora...* | Urtzi-eskaŕdun Ama, *aŕen...* |
| Mater purissima, *ora...* | Ama gustiz aratza, *aŕen...* |
| Mater castissima, *ora...* | Ama gustiz garbija, *aŕen...* |
| Mater inviolata, *ora...* | Ama galdugia, *aŕen...* |
| Mater intemerata, *ora...* | Ama ikutugia, *aŕea...* |
| Mater inmaculata, *ora...* | Ama orbangia, *aŕen...* |
| Mater amabilis, *ora...* | Ama mat̄agaŕija, *aŕen...* |
| Mater admirabilis, *ora...* | Ama gelgaŕija, *aŕen...* |
| Mater boni consilii, *ora...* | Ama esonduna, *aŕen...* |
| Mater Creatoris, *ora...*, | Irazaliaren Ama, *aŕen...* |
| Mater Salvatoris, *ora...* | Jaregil̄iaren Ama, *aŕen...* |
| Virgo prudentissima, *ora...* | Neskutz oso zuŕa, *aŕen...* |
| Virgo veneranda, *ora...* | Neskutz aguŕgaŕija, *aŕen...* |
| Virgo praedicanda, *ora...* | Neskutz goragaŕija, *aŕen..* |
| Virgo potens, *ora...* | Neskutz altsuba, *aŕen...* |
| Virgo clemens, *ora...* | Neskutz bijozpera, *aŕen...* |

Virgo fidelis, *ora...*
Speculum justitiae, *ora...*

Sedes sapientiae, *ora...*
Causa nostrae laetitiae, *ora...*
Vas spirituale, *ora...*
Vas honorabile, *ora...*
Vas insigne devotionis, *ora...*
Rosa mystica, *ora...*

Turris davidica, *ora...*
Turris eburnea, *ora...*
Domus aurea, *ora...*
Faederis arca, *ora...*
Ianua coeli, *ora...*
Stel-la matutina, *ora...*
Salus infirmorum, *ora...*
Refugium peccatorum, *ora...*
Consolatrix afflictorum, *ora...*
Auxilium christianorum, *ora..*
Regina angelorum, *ora...*

Regina patriarcharum, *ora...*
Regina prophetarum, *ora...*
Regina apostolorum, *ora...*

Neskutz kirmena, *aŕen...*
Zuzentza-antzikuŕa, *aŕen...*
Jakintza-jaŕtokija, *aŕen...*
Geure Poz-bidia, *aŕen...*

Gogozko ontzija, *aŕen...*
Dedu-ontzija, *aŕen...*
Onerasmen-ontzi urena, *aŕen...*
Arkarakats urtzikoŕa, *aŕen...*
Dabi'ren gudetxia, *aŕen...*
Bolizko gudetxia, *aŕen...*
Uŕezko etxia, *aŕen...*
Iŕunaldi-kutxea, *aŕen,..*
Donoki-atia, *aŕen...*
Goxeko ixaŕa, *aŕen...*
Gexuen osasuna, *aŕen...*
Obendijen igeslekuba, *aŕen...*
Atsekabedunen pozkarija, *aŕen...*
Kistaŕen laguntzea, *aŕen...*
Gotzonen Bakaldumia, *aŕen...*
Eŕkabaen Bakaldumia, *aŕen...*
Iragaŕlien Bakaldumia, *aŕen...*
Belduben Bakaldumia, *aŕen...*

Regina martyrum, *ora...*

Regina confessorum, *ora...*

Regina virginum, *ora...*

Regina sanctorum omniun, *ora...*

Regina sine labe originali concepta, *ora...*

Regina sacratissimi Rosarii, *ora...*

Regina pacis, *ora ..*

Ágnus Dei, qui tollis peccata mundi, *parce nobis, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, *exaudi nos, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, *miserere nobis.*

*V.* Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix.

*R.* Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Ziñopaen Bakaldumia, *aŕen...*

Autoŕlien Bakaldumia, *aŕen...*

Neskutzen Bakaldumia, *aŕen...*

Deun gustijen Bakaldumia, *aŕen...*

Orban-barik soŕtutako Bakaldumia, *aŕen...*

Aguŕtza deunaren Bakaldumia, *aŕen...*

Gentzadun Bakaldumia, *aŕen...*

Luŕeko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *azketsi geuri, Jauna.*

Luŕeko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *entzun geuri, Jauna.*

Luŕeko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *eŕuki-zakiguz.*

*I.* Geure aide otoi -egin, Urtzi'ren Ama deun oŕek.

*E.* Josu-Kisto'k abindduba jadetsi daikegun.

**Oremus**

Gratiam tuam, quaesumus, Domine, mentibus nostris infunde; ut qui angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem eius et crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum.

*R* Amen.

**Otoi-daigun**

Bafendu egijezu, afen, geure goguai zeure eskafa, Jaun ofek, gotzonaren agoz Kisto zeure Semiaren gixakundia ezaun dogunok aren nekauste ta gurutz-bidez befbizkunde-aintzara eldu gaikezantzat. Josu-Kisto beraxe dala bide.

*E.* Olantxe

## Nekazkeak

1.ª Ziñeskayak gogaftzen diralarik Aguftzea esaten danian, bost amafekuak esanaz *bost urte ta bost befogeiko nekazkea* irabazten da.

2.ª Ganera, aguftzestun onetsija erabilfen dalarik esanezkero, *urtian nekazka osua,* eta *Geure Ata ta Aguf Miren bakotxeko, eun egunekua.*

3.ª *Gurutzedunen* onespenaz onetsifako aguftzestuna erabilizkero, edozein **Geure Ata** ta **Aguf Miren**'gafik, nai ta bat bakafa esan, 500 *egunekua.*



# AMA NEKATSUBARI

## SASPI OÑAZIAK

Gurutze deunaren...

*I.* Jauna, zabaldu nire ezpanak.

*E.* Eta neure abuak goraldu egingo zauz.

*I.* Ene Jaungoiko: lagun-zakidaz.

*E.* Jauna, zatoz bizkoŕ niri laguntzen.

*I.* Aintza Aŕeari, ta Semiari, ta Goteunari.

*E.*. Len lez, orain eta beti ta amaibako egunetan. Olantxe.

## LEN-OTOYA

¡Eŕubako Neskutz, Ama eŕukitsu, atsebage ta samintasunez bete ori! Bijotz-apal deskatzut: argiztu nire adimena ta berotu nire bijotza, gogo-bero ta eŕukiz beterik zeure saspi oñaziak gogaŕtubaz zeugandiko eskaŕ ta ontaŕte ugari jaditxi daikedantzat. Olantxe.

## LENENGO OÑAZIA

Ama nekatsu ori: zeure Semiaren nekiak bijotza biŕindu egingo eutzubela Simeon agureak iragaŕi eutzunian nabatu euzun oñaze-samiñagatik eŕuki-nayatzu. Getu egixu, ene Ama oŕek, nire bijotzian Josu'ren neke ta zeure oñaziekiko eŕukija. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure lenengo oñaze samiña gogaŕtuz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Ata,** *saspi* **Aguŕ Miren,** *eta* **Aintza.**

## BIGAŔEN OÑAZIA

Ama nekatsu ori: Egito'ra zeure Semetxubagaz igesi-biaŕak eratoŕi eutzun oñaze samiñagatik eŕuki-nayatzu. Neure arerijuen jazaŕpenetatik jabon naikezu, ene Ama oŕek. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure bigaŕen oñaze samiña gogaŕtuz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Ata,** *ta a.*

## IRUGAŔEN OÑAZIA

Ama nekatsu ori: Jerusalen'en Semia galdu, ta iru egunetan Seme-baga egon biaŕak eragin eutzun oñaze samiñagaŕik eŕuki-nayatzu. Neure obenakaz Goiko Jauna galdu egin dodalako gaŕbai-negaŕaz negaŕ-egin eta Jauna betiko beŕidoroteko laguntzea indazu, ene Ama oŕek. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure irugaŕen oñaze samiña gogaŕtuz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Aŕa,** *ta a.*

## LAUGAŔEN OÑAZIA

Ama nekatsu ori: zeure Semia, gurutza soŕbaldan, ixeka ta irañez beterik eta jausika Koskategi'rantz bide-egiŕen ikusi enzunian zeure bijotzak nabaŕu eban oñaze samiñagaŕik eŕuki-nayatzu. Neuk, be, ildura ta nekezko gurutza oldez eruateko biaŕ dodan eskaŕa jadetsi egiskedazu. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure laugaŕen oñaze samiña gogaŕtubaz otoi ta aŕen-dagitzut. **Geure Aŕa,** *ta a.*

## BOSKAŔEN OÑAZIA

Ama nekatsu ori: zeure Seme laztana lapuŕ biren aŕtian gurutzan josiŕa ikusijaz zeure bijotz eŕukitsuban soŕtu yatzun oñaze samiñagaŕik eŕuki-nayatzu. Ilduraz neure

girin okeŕak untzaurik Josu'ren gurutzan josiťa egon nadiťela egixu, ene Ama oŕek. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure boskaŕen oñaze samiña gogaŕtubaz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Aťa,** *ta a.*

## SEIGAŔEN OÑAIZA

Ama nekatsu ori: Josu'ren iľotz deun zauriz betia gurutzetik eratzi ta besuetan imiñi eutzubenian nabaťu euzun oñaze samiñagaťik eŕuki-nayatzu. Nire bijotza Jaungo-maťasunak zauriťu ta oben-gaiztakerirako il daikela egixu, ene Ama oŕek. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure seigaŕen oñaze samiña gogaŕtubaz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Aťa,** *tu a.*

## SASPIGAŔEN OÑAZIA

Ama nekatsu ori: zeure Semiaren iľotza ioŕtziťa-geroko bakaŕaldi iľunak eratoŕi eutzun oñaze samiñagaťik eŕuki nayatzu. Luŕeko gauza gustijetarako ioŕtzirik, zeuretzako bakaŕik bixi nadiťela egixu, ene Ama oŕek. Oŕetara zeu biaŕtuteko, zeure saspigaŕen oñaze samiña gogaŕtubaz otoi ta aŕen-dagitzut: **Geure Aťa,** *ta a.*

Ama nekatsu ta laŕi ori: Josu'ren bixitza, nekaldi ta erijotzan zeure begi edeŕ oŕeik

jarijondako negaŕ-malko gaŕatzak gogoratu ta guŕtetan dodazala, otoi ta aŕen-dagitzut, iru **Aguŕ Miren** esanaz. *Aguŕ Miren.*

## OTOYA

Miren Neskarbi deun ori: Simeon'ek iragaŕiŕako ezpata zoŕotzak bijotza erdiratu egin eutzun; biaŕtsu ta laŕi Egiŕo'ra igesi biaŕ ixan zintzazan; iŕun eta loŕ Seme galduba biŕetan iru egunez jardun; gurutz aztuna eruaten Golgota'rako bidian jaŕugijaz saminŕasunez bete; Seme gurutzaldubaren onduan iru ordutan atsebage laŕiz josirik egon; iŕotz deuna besuetan aŕtubaz tamal-oñaze goŕiŕan murgildu; eta iŕotza ioŕtzizkero bakaŕtaldi iŕun-iŕunan lotu zintzazan. Zeure oñaze samiñok bide dirala, deskatzudan eskaŕa Josu'gandik jaditxi egistazu, Jaunaren aintzarako ta neure goguaren onerako ixatekotan; ostantzean, baña, Urtzi Jaunaren naŕaŕa jaŕteko ta bera iñoz ez iraindutekо eskaŕa idazu. Geure Doipuru Jaun aguŕgaŕija jabon eikezu: eŕidijetako agindarijen aŕtian gentza-baretasunak iraun, egizko ziñeskintzea zabaldu, ziñautsak ezereztu ta ziñeskiak egi-argiŕara itxuli dadiŕezala egixu; zeure maŕaliak eŕukiz begiratu, ta eskaŕ ta laguntza bedegaŕez bete eikezuz, Jaunaren eta zeure aintzarako. Olantxe.

**Aguŕ Andera** *esanaz amaŕu.*

# MIREN'EN ERABILGAĪUBAK

## Soingaīuba, aguŕtzaīuba, ikuŕgaīuba

Miren Ama deunaren soingaīu edo kutunak, aguŕtzaīuba, ta ikuŕgaīu edo domiñak erabiīi ta aldian eruatia, on-ona ta gustiz onuragaŕija ixaten da: oŕetara Miren deuna goretsi, ta geure gogo-soñetako opariñetan bere uŕgatzija jaristen dogu

Bere soingaīu, aguŕtzaīu ta ikuŕgaīu-bidez Ama eŕukijoŕ onek kistaŕak euren soñetako gexo ta opariñetan lagundu ta jabon ixan dauzala-ta, idaztijak dakaŕezan jazokunak irakuŕi-ala dira.

Erabilgaīu done oŕein eragintasun andija Idazteun Zaŕan bertan len-antzaz iragaŕi yakula esan daīeke. Salomon bakaldunak Abiatar jauparija, ilgaŕi zala-ta be, erijotzetik ¿zegaīik jabon eban? *(Lib. III, Reg. II, 26)*. Kutxa deuna eruan ebenetarikua zalako Kutxa deuna, baŕiz, Miren Garbijaren len-antza zan.

Eta soingaīubaren bidez-ta Ama eŕukitsu onek gogo-gatxetatik jabon dauzanak ¿zenbatzu diran nok esan? Miren'en ikuŕgaīuba imiñi eutsielako bide onera etoŕi diran obendijak askuak dira. Oyetakua ixan zan Ratisbona eretxan judaŕ ospetsuba. Miren -Bijotz-Gonanaidiko bazkidiak banatuten dabezan ikuŕgaīubak dirala bide, amaikatxu obendi onduten dira egunian-egunian; eta askozaz geyagok euren burubak obenetik jabon eta donetasun-bidez auŕera -egiīen dabe.

Zeuk, be, kistaŕ maīe oŕek, eruakezu beti aldian Miren deunaren soingaīuba, edo aguŕtzaīuba, edo ikuŕgaīuba; eta goxian oetik jagiīian mun-eiskiozu, ondo aziīako umiak gurusuai eskumun-egiīen dau-

tsien letxe. Gabaz, be, itxaŕtu ba-zadiz, mun-eiskiozu: ariago, baŕiz, txeŕenak ziltzetan ba-zauz ziltzau; eta batera Miren deunari dei-egiñezkero, ez bilduŕik ixan, ezpai'dozu obenik jaukiko. Ziñetsi egistazu: Miren deunari dei ta otoi-egiŕiaz aztuten eztana eztau etsayak egundo garaŕuko. Azkenez: soingaluba-ta zeuk eruatiaz naikotu-barik, bestiak eruan daikien, be, alegindu zadikez, danak goiko Ama onek gogo-soñetako gatxetatik jabon eta ontaŕtez bete daikezantzat.

## SOINGALUBAK

*Claret Andoni Mirena deunkijaren gurarijai jaŕaika, ta kistaŕen onerako, iru soingalu nagusi aŕatuko doguz emen:* Miren Bijotz Garbijarena, Karmel'go Amearena, *ta* Soŕkunde Garbijarena.

## MIREN BIJOTZ GARBIJAREN SOINGALUBA

Soingalu onek, galaŕtzuz edo lokariz batutako oyalkitxu bi dauz, artule zurizkuak eurak. Oyalki batak Miren-Bijotz Garbijaren irudija ixaten dau, onetara: bijotzari goyaldetik *gaŕak* urtetan yakaz; gaŕetan, baŕiz, *zitorija* da; eta eskeŕaldetik eskumaldetara, koneŕka bijotza zulatuz. *ezpatea*.

Bijotza eun-zatitxu goŕijaz egindakua ixan dateke, artule zurizko oyalkitxubari ganian josita, gaŕak -eta egalunduta dauzala; edo ta bijotza ta gusti eun-ataltxu zurijari iraŕi leikiaz, ta eun-atala artulezko oyalkijari josi. Lenengo erazkua IX Pi Doipurubak onetsi eban, 1877'g. oŕila-11'gn., Miren -Bijotz-Semien Lekaipuru Nausijenak eskatuta; bigaŕena, baŕiz, X Pi Doipurubak, 1907'g. dagonila-11'gn ; oŕezkero, nai bata nai bestia erabili datekez.

## Soingal̄u oni dagokijozan nekazkeak

**Nekazka osuak:** 1. Soingal̄u-ezaŕpen-egunan. 2. Obendijak ontzeko egunian-egunian **Aguŕ Miren** bat esanezkero, norbere ugutz-urteburubetan. 3. Il̄ian biŕitan, edozein egunetan, autoŕtu, jaunaŕtu ta txadonen bat ikeŕtzen dala Doipurubaren asmorako otoi-egiñaz. 4. Uŕengo jai-egunotan: Miren-Bijotz-Garbija. Josu-Bil̄ebaikundia, Garbikundia, Deikundia, Ikeŕkundia, Jasokundia, Jayokundia, Auŕkezkundia, Soŕkunde garbija, Ama Nekatsuba (jai bijetan), Joseba deuna (jai bijetan), Jon Ugutzari deuna, Jon Goizpaŕgil̄e deuna, Augustin Gotzain eta Irakasle deuna, Miren Matalaŕ deuna, ta Paul Beldu deuna donekundia. 5. Erijo-unian; nekazka au irabazteko, autoŕtu ta jaunaŕtu egin biaŕ da, edo obenetzaz gaŕbai-ixan beintzat. eta Josu ixena mat̄ero oguzi, edo, besterik eziñian, bijotzez oles-egin. 6. Roma'ko txadon-ikeŕaldijetako nekazkeak; Josu-jayokundian, eguben gurenan, Beŕbizkundian eta Jauna-igokundian, aut̄oŕtu, ta txadonenbat ikeŕtuzkero, nekazka osuak dira.

**Bestelako nekazkeak.** 1. Roma'ko txadon-ikeŕaldijetakuak jaupa-idaztijak dakaŕtzan egunetan. 2. *Saspi urte ta saspi beŕogeiko nekazkea* Josu-Kisto'ren eta Miren deunaren beste jai orotan, edo, Doibatz osuak ospatuten dauzan eta len at̄atu eztiran jayetan. 3. *Bost urte ta bost beŕogeikua,* Joskorputza gexuenera daruelarik, lagundu ta gexo-aldez otoi-egit̄ekotan. 4. *Seiramaŕ egunekua,* edozein egiñen on eta eŕuki-egintzagat̄ik.

Erijo-unekua ez, beste nekazka gustijak gokaxuai egokit̄u leikikiez.

## KARMEL'GO AMEAREN SOINGAĪUBA

**Jatořija.** Soingaīu onen jatořija XIII eungikua da, Karmel'go Ameak berak Stock'ař Simon deunari, Karmeldařen Lekaipuru Nagusijari, erakutsi eutsanetikua. Miren Andereak Simon deunari, soingaīubau emonik, itxok esan eutsazan: «Ařtu, ene seme maře, eure Lekaidiko soingaīu eta neure Anaidiko ezaubide au, euretzat eta karmeldař gustijentzat bezuzea ixateko ta betiko gentza-iīunben-baīurea; soingaīubau jantzirik il daikena, estok betiko su-lexara amildūko».

**Bete-biařak.** A) Edozein kistařek, Karmel-anaidiko eskař ta nekazkeak jaritxi al ixateko, iru gauzaok bete biař dauz: 1.ª Soingaīu au eskubidedun jauparijak jantzi daiskiala; 2.ª Soingaīuba beti jantziīa eruan, ataltxu bata bulařaz gane ta bestia lepuan dirala; 3.ª Ixena anaidiko ixendegijan idatzi (XIII Lon Doipurubak 1887'g. jořaīaren 27'gn. agindū eban letz).

G) **Larunbatekua** deretxan ontařtia jaritxi al ixateko, Karmel'go bazkidiak gauza bijok betatu biař dabez: 1.ª, Norbere bixibidiari dagokijan garbiīasuna jabon; 2.ª, Irakuřten dakijenak egunian-egunian Miren deunaren ařendí txikija esan, edo eskubidedun jauparijak ořen ordez agindū leiskiena bete; irakuřten eztakijenak, agindūtako barubetaz ganera egubazten eta larunbata gustijetan okelarik jan ez, edo eskubidedunak ořen ordez agindū leiskiena bete.

**Eskař ta ontařtiak.** Karmel'go Amearen soingaīuba jantziīa eruaten dabenak irabazi legikiezan eskař ta ontařte nagusijak oneik dira: 1. Miren Nesku-

tzaren **Semiak** ixendatu. 2. Karmel'go Amearen itxalpe bedegaŕa loŕtu, erijotzaldirako batez be. 3. Karmel'dar lekaidien egiñen onetan esku-aŕtu. 4. Len esandakua betatuzkero, Miren deunaren laguntza berezija ixango dabe garbiḹokijan, **larunbatetan** batez be. 5. Autoŕtu ta Doipurubaren asmuetarako jaunaŕtuzkero, **nekazka osua** eguneton: *a)* Soingaḹuba jantzi dan egunan *g)* Erijotzan, Josu-ixena esan edo oles-egiñik *k)* Ilero igande baten, Anaidiko ibildeunera erdurik, edo, ori ezin dala, Anaidija dagon txadona ikeŕturik. *y)* Otzaḹako 2'gn. eta 4'gn., epaḹako 19'gn. eta 25'kn., Eguben gurenan, Igaratz-igandian, Joseba deunaren Zaindaritza -egunan edo uŕengo saspi egunetariko baten. Igokunde-egunan, oŕiḹako 5'gn., 16'gn. eta 25'kn., gariḹako 2'gn , 16'gn., edo uŕengo saspi egunetariko baten, 20'gn. eta 26'gn. , dagoniḹako 7'gn. eta 15'kn. Jasokunde-osteko igandian eta dagoniḹa-27'gn., iraḹako 8'gn., uŕiḹako 15'kn., edo uŕengo saspijetariko baten, aziḹako 15'kn. (igandia jazozkero, 16'gra. aldatzen da), 21'gn. eta 24'gn. edo uŕengo saspijetariko baten, lotaziḹako 8'gn., Josu'ren Jayotz-egunan, eta *Beŕogei Ordubak* deretxan eraspen-eikuntzako egun baten: bakotxian Anaidija dagon txadona ikeŕtu biaŕ da, edo, ezpa'lego, eŕtxadona.

## SOŔKUNDE GARBIJAREN SOINGAḸUBA

**Jatoŕija.** Soingaḹu **oztiña** Benincasa Urtsule lekaime aguŕgaŕijak goi-argiz asmau ta 1710'g urtian XI Kelmen Doipurubak ontzat aŕtu eban. Teatiŕaŕ lekaidiak ezaŕten dabe, edo ta, aekandiko eskubidia daben beste jauparijak.

**Nekazka osuak.** Soingal̄u oztiña jantzir̄a daruenak, autoŕtu, jaunaŕtu ta txadona ikeŕtuz Doipurubaren asmuetarako otoi-egiñezkero, nekazka osua irabazi dagikie uŕengo egunotan. 1. Soingal̄uba jantzi dan egunan. 2. Erijotz-unian. 3. Beŕogeikaroko larunbatetan 4. Il̄aren lenengo igandetan. 5 Nekaldi-igandian eta uŕengo barijekuban. 6. Egubaz ten, eguben eta barijeku gurenetan. 7. Uŕengo jai-egunotan: Josu-jayotza, Jauna-Erakuskundia, Beŕbizkundia, Igokundia, Goteuna-Etoŕkundia, Irukoitz deuna 8. Miren deunaren jayotan: Soŕkunde Garbija, Miren-Jayotza, Garbikundia, Deikundia ta Jasokundia. 9. Uŕengo egunotan: urtar̄il̄ako 3'gn., epal̄ako 19'gn., joŕal̄ako 12'gn., oŕil̄ako 3'gn., bagil̄ako 17'gn., 24'gn. eta 29'gn,, garil̄ako azken-igandian, dagonil̄ako 2'gn., 7'gn. eta 29'gn , iral̄ako 14'gn. eta 29'gn., uŕil̄ako 2'gn. eta 15'gn., azil̄ako 1'gn. eta 10'gn., lotazil̄ako 15'gn 10. Josu'ren Jayotzeko bederatzuŕunan lenengo egunan eta azkenenguan. 11. Urtian bein *Beŕogei Ordubak* egir̄ian. 12. Urtian bein norbere oldezko egunan.

**Beste nekazkeak.** Teatir̄aŕ abaen txadona ikeŕtubaz Roma'ko txadon-ikeŕtaldijetako nekazkeak irabazi dar̄ekez ixendauta dagozan egunetan; eta Teatir̄aŕen txadonik eztagon eŕijetan Miren Neskutzak oindiren bat daun beste edozein txadon ikeŕtutia naikua da. —Roma'ko saspi Jauretxietako nekazkeak *il̄ian biŕir̄an* irabazi dar̄ekez, jaunaŕtu ta Teatir̄aŕen txadoneko saspi ondi ikeŕtubaz, edo beste txadonen batekuak, len esan dan letz. —Baldintza oŕeik betezkero, Jerosolin'go Il̄obi deuna ta Luiki deuna ikeŕtubaz ibazten diran nekazkeak be, il̄ian biŕir̄an irabazi dar̄ekez. - 60 urteko nekazkea, aintzerdir̄an (ordu-erdir̄an) gogaŕtubaz. —20 urtekua, gogoz ala gorputzez gexoren bati sorosijaz; sorosi ezin danian, gexo-aldez bost *Geure Ata. Aguŕ Miŕen* eta *Aintza* esatia naikua da. —20 urtekua, Josu-Kisto'ren jai bakotxeko zoŕtzuŕen-egu-

nan, eta Augustindaŕ, Domekaŕ, Karmeldaŕ, Irukoiztaŕ ta Joputaŕen Lekaidijetako Deun-jayetan. —7 urte ta 7 beŕogeikua, Miren deunaren jai txikaŕetan, autoŕtu ta jaunaŕtu dan edozein egunetan, jaunaŕtzen dan iru barikutan ilero, Josu-Jayotz-bederatzuŕuneko saspi egunetan, gure Jauna ikeŕtzen dan astelen orotan, Doibatzaren oparin-aldez otoi-egiñik *Aguŕ Andera* esaten dan aŕatsaldetan. — 300 egunekua, Goteun-Etoŕkundeko zoŕtzuŕen-egunan; 200 egunekua, txonitxa entzunaz; 50 egunekua, Josu edo Miren ixenak oguzijaz, ta bardin txadonan *Geure Aĩa*, *Aguŕ Miren* eta *Aintza* esanaz. Ganera, soñun oztiña jantzita eruan ebanaren alde jaupa-egiten dan edozein oindi *nekazkaduna* ixaten da.

**Eskaŕ bedegaŕa.** Soingalu-oztindunak sei *Geure Aĩa*, *Aguŕ Miren* eta *Aintza* esanaz, edozenbat nekazka irabazi legikiezan len; orain, ostera, gitxi baño ez: sei *Geure Aĩa*-ta esaten diran bakotxian, *amaŕ urteko* nekazkea; eta Ilabete osuan esanezkero, nekazka *oso bat*, autoŕtuz ta a.

Sei *Geure Aĩa*-ta Doipurubaren asmoz esan biaŕ.

Aldakuntza au XI Pi'ren aginduz egin zan, 1933-IV-22'gn.

## SOINGALU-ORDEZKO IKUŔGALUBA

X Pi Doipurubak ontzat emon ebanezkero, soingalu-ordez aldian ikuŕgaluba eruatia naikua da, baldintza oneikaz, baña: 1.ª Lenen soingaluba ezaŕi biaŕ da. 2.ª Ikuŕgalubak alde baten Josu-Bijotz-irudija ta bestian Miren deunaren edozein irudi biaŕ dauz ixan. 3.ª Ikuŕgaluba onetsi egin biaŕ da, ta soingaluba ezaŕteko eskubidia daunak onetsi be. 4.ª Ikuŕgalu batez bi ala geyago soingalu ordeztu

daikez, **beste ainbeste** oneskun egokitu baldin ba -yakaz. 5.ª Ikurgaluba aldian eruatia naikua da, sakelan-edo.

Onetara ikurgalubaz soingaluben nekazka ta eskar gustijak irabazi daikez. Irugarendaren soingalubak baña, eztatekez ikurgaluz ordeztu.



MIREN AMAREN BIJOTZA

# MIREN-BIJOTZA

Goiko Jaunak, gexotasun bakotxari osagaīu egokija araberatuten ondo daki-ta, mende aunetako gixonak guzuŕezko maīasun eta atsegiñen biīa ikusirik, bere Amearen Bijotz edeŕa auŕkeztu dautse, Bijotz maīagaŕijau maīaturik euren bijotzak garbi ta oben-barik jabon dagikiezantzat, Miren-Bijotzagazko maīasun-eraskunak gixa-bijotzetan ixijo ta piztu gura ba-doguz, baŕiz, gixonok Miren-Bijotzaren Anaidi Nagusira ekaŕten alegin-dagigun. Anaidijau egizko *Noe'ren Kutxea* yake, bai?, ta Noe ta bere sendija kutxa-baŕu saŕturik gaizkatu ziran letz, Anaidijon liraukienak, be, gixaŕteko gaiztakeri-uyoletik enparatu ta gaizkatuko dira.

## MIREN-BIJOTZAREN ANAIDI NAGUSIJA

Bazkun au Dufriche Desgenettes txaunburubak irasi eban Paris'en 1836'g. urtian. Bazkidien egikixuna, Miren-Bijotza maŕe ta guŕtubaz obendijak onbideratuten alegindutia da. Onezkero, Miren-Bijotzaren Anaidi Nagusija luŕbira osuan zabalduta dago, ta bazkidiak unei (miloi) askuak dira. Kistaŕ gustijak bazkidetu biaŕ litxakez, Doipurubak be Anaidijau onetsi ta nekazka ta ontaŕtez aberastu bai'dabe.

**Nekazka osuak.** 1. Anaidira saŕtzian, norbere ugutz-urteuŕenan, iĺian biŕiĺan norberak aututako egunetan, eta erijotz-unian. 2. Anaidiko jayotan: Miren-Bijotz deuna, Biĺebaikundia, Garbikundia, Deikundia, Miren'en Nekiak, Jasokundia, Miren-Jayotza, ta Soŕkundia; Paul deunaren Donekundia; Miren Matalaŕarena; Joseba deuna; Jon Ugutzarija, ta Jon Goizpaŕgiĺia.

**Beste nekazkeak.** 500 egunekua, ilđako bazkidien aldez larunbatetan emoten dan jaupatara erđuzkero; 100 egunekua, *Aguŕ Miren* bat eta uŕengo ototxuba esaten diran bakotxian: *¡Miren oŕbanbarik soŕtuboi! Otoi-egixu zeugana gerduzanon aldez.*

**Uaŕtu.** Nekazka osuak irabazteko, autoŕtu, jaunaŕtu ta txadona ikeŕtu biaŕa da. Bere Anaidikuak eztiranak, be, Miren-Bijotza jauretsi ta guŕtutia egoki-da-ta, eurentzako otoi batzu imiñi dira uŕengo. Bazkidiak, baŕiz, otoitz berezijak egiĺen dabez.

## MIREN-BIJOTZARI IKEŔALDIJA

### Otoya

¡Miren-Bijotz ori! ¡Urtzi-Amearen eta geu gustijon Amearen Bijotz deun ori! Gustiz mařagařija zara-ta, Irukoitz deunak, be, maře-maře zauz; gotzonak, bařiz, samuřkiro guřtetan zabez. ¡Josu'ren Bijotza ezin obeto antzeztuten dozun Bijotz deun ori! ¡Gure oparin eta zoritxařak dirala-ta, eřukiz beterik zagokiguzan Miren-Bijotz mařati ori! Gure bijotz ixoztubak urtu ta Josu-Bijotzaren antzekotu egixuz: zeure onoimenak antzařtu, ta zeure goimařasun-gař bixija geure bijotzetan ixijo ta piztuten batez be, lagundu gaikezuz.

Doibatz donia magalpe abokezu: etsayen kaltez bere babes ta zaindoki eskijeřa ixan zadikez. Doibatzaren semiok Josu'gana erduteko bidia ta donokira juteko biař dogu-zan eskař gustijak eskuratuteko biřařtekua ixan zakiguz. Zeu ixan opariñetako gure soroskija, ziltxaldijetako gure sendasuna, jazařaldijetako gure babesa, ta galtzori orotako gure laguntzea. Erijotzaldiko azken-buřuka gogořetan, bařiz, txeřenak gure gogua betiko galdu nairik leřenak dagikezan une ikaragařijan, ¡oi Ama laztan!, zeure Bijotz amatijař ořen gozua erakuskeguzu, ta,

zeure eskumen altsuba bide dala, Josu'ren Bijotz eŕukitsuban kerizpe eskijeŕa geŕtu, donokijan zeurekin batera Urtzi Jauna etenbarik onesten jarduteko zorun aundija jaritxi daikeguntzat. Olantxe.

**Otoñua.** Josu'ren jaungoikozko Bijotza ta Miren-Bijotz garbija beti ta edonun ezagun, goraldu, onetsi, maŕe, otseindu ta aintzaldu beikez. Olantxe.

*Uaŕtu.* Goiko otoya ta otoñua esanaz 60 eguneko nekazkea irabazi daike; egunian-egunian esanezkero, baŕiz, nekazka osua Miren'en Jayotz-egunan, Jasokunde-egunan, Miren-Bijotz-jayan, eta norbere erijotz-unian.

## MIREN-BIJOTZ GARBIJARI

### Aguŕak

1.ª Aguŕ, Miren-Bijotz maŕagaŕi ori: beti eŕetan zagozan *gaŕok* dikuŕen jaumaŕasunagaŕik, ene Ama maŕekoŕ, neure bijotz epelau, be, zeure sugaŕ oŕek eŕe ta kiskaldu dagikela egixu.

*Aguŕ Miren* eta *Aintza*.

2.ª Aguŕ, Miren-Bijotz garbi ori: zeugan aziŕako *ziŕori* edeŕ oŕek dikuŕan neskutz-garbiŕasunagaŕik, ene Ama eŕuge, neure

bijotz orbandunau, be, zeure garbiťasun oŕen bidez garbiťu ta apaindu egistazu.

*Aguŕ Miren* eta *Aintza.*

3.ª Aguŕ, Miren-Bijotz atsekabez bete ori: Josu-Kisto'ren Nekaldi-erijotzak eta Goiko Jaunari etenbarik egiťen yakazan irañak bide, zauriztu zauzan ezpata oŕek dikuŕan oñaziagaťik, atsekabedun Ama, nire bijotz gogoŕau, be, neure obenetzazko gaŕbai-gaŕbayaz ta obendijak neure Urtzi Erosliaren Bijotz aguŕgaŕijari egiťen dautsaezan irain eta ogenetzazko gogo-miñaz leŕtu daditela egixu.

*Aguŕ Miren* eta *Aintza.*

*Orain*, Bernarta deunaren otoya *esan* (165'g. ingoskijan).

¡Miren-Bijotz gozatsu,
aŕen, gaizka-nagixu!

*(Bakotxian 300 eguneko nekazkea, ta osua iľian bein).*

# GURUTZE-BIDIA




Onesten zauguz, Kisto,
te auzpezturik agurtzen;
gixona gurutz bidez
erosi dozulako.

## GURUTZE-BIDIA ZER DAN

**Gurutze-bidia egitia**, oŕetarako amalau gurutziak onetsi ta imiñi diran lekuban batetik bestera ibiḹi ta gurutzetan egotaldi bana egin eta Josu-Kisto'ren Nekaldija gogaŕtutia da. Gurutze-bidia lenen Miren Deunak, Josu'ren gorpuba ioŕtziḹa gero atzera Jerosolin'era itxuliḹerakuan, egin ebala esan daḹeke. Kistaŕak Gurutze-bidia egiñaz Josu-Kisto'ren Nekaldija gogoratutia Urtzi Jaunak atsegin daula esan biaŕik ezta. Josu-Kisto'k berak uŕengo itxok zuzendu ei eutsazan bere maḹale zíntzo ezeinbati: «Ezer be eztot atsegiñago, kistaŕak apal eta zaletsu neure Nekaldija gogaŕtuten ikustia baño». Gure goguentzat, baŕiz, oneraskun bikain au gustizko onuragaŕijagua dala, diño Porto-Maurici'ko Lonarta deunak, ogi ta ur utsez barau-egin, norbere buruba odol ixuriḹeraño astindu, ta Dabi'ren eresi gustijak esatia baño. Deun berori, belguntzetan ebiḹala, biztanle geyen-geyenak egunero gurutze-bidia egiḹen eben eŕira eldu ei-zan; eta eŕiḹaŕak eraskun oŕen bidez obenetik igesi ta onbidez auŕera-be-auŕera egijela nabariḹu eban.

Zeuk, be, gurutze-bidia egunian-egunian, edo saŕi beintzat, egikezu, ta goi-eskaŕ ugari eskuratuko dozu.

### Nekazkeak

XI Pi Doipurubak 1931'g. uŕiḹako 20'gn. erabaki ebanetz, gurutze-bidia egiñaz uŕengo nekazkaok irabazi daikeguz:

**Nekazka osuak:** a) Gurutze-bidia egiten dan bakotxian, egun berean askotan eginda be, nekazka oso bana; g) Ganera, gurutze-bidia egiten dan egunan jaunaŕtuzkero, beste nekazka osua; k) edo ta ilian bein, ila berean amaŕ bideŕ gurutze-bidia eginda gero jaunaŕtuzkero.

**Nekazka oseza:** Gurutze-bidia asita-gero amatu ezin danian, egindako egotaldi bakotxarekiko amaŕ urte ta amaŕ beŕogeiko nekazkea irabazten da.

## Zelan egin biaŕ dan

1. Al daunak, gurutze batetik bestera ibili ta Josu'ren Nekaldija gogaŕturik gurutze bakotxan egotalditxuba egin biaŕa dau; eta, nekazka osuak irabazi al ixateko, asita-gero eten-barik amatu biaŕ da, jaupea entzun edo beste gogo-jardunen bati ekiteko ixan ezik. 2. Gurutze-bidia esan dan lez egin ezin danian beste onetara egin daike oŕetarako onetsi dan gurutza eskutan aŕtu ta Josu'ren Nekaldija goguan dala **ogei** bideŕ *Geure Ata, Aguŕ Miren* eta *Aintza* esanaz. Nekazka osuak irabazteko, ogei *Geure Ata*-ta esan biaŕa da; asita gero ogeirak amatu ezin diranian, baŕiz, *Geure Ata* bakotxeko amaŕ urte ta amaŕ beŕogeiko nekazkea irabazten da. 3. Gexuak, baña, oŕetara be ezin ba -daikie egin, gurutz onetsija matero begiratu edo mun-egitia naikua dabe, ta al ixanezkero Josu'ren Nekaldi-gomutaz ototxuren bat esan.

*Uaŕtu:* Lenago esan danetz, nekazkeak irabazteko egotaldi bakotxan Josu'ren Nekaldija gogaŕtutia naikua da; eztago, beraz, otoirik esan biaŕik. Ori ta be, baña, askorentzat Nekaldijazko gogaŕtia obeto egiteko bide ixango dirala-ta, otoi egokijak imiñi dira.

# GURUTZE-BIDIA EGIṘEKO

# ERA ONA

*Gurutze deunaren...*

### Gaŕbai-egintza

Aguŕ, Josu-Kisto neure Jaun, Jaungoiko ta gixon egi, neure Irazale, Aba ta Erosle ori: zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro; zeu edozein gauza baño maṙiago zaudaz bijotz-bijotzez, garbai-naz zeu iraindubaz zaran on utza zaralako, baṙa gaiztokiko neke betikoŕakaz nekaldu naikezulako, be, garbai naz; gauŕdanik obenik ez egiṙeko, zeu irainduteko zorijetatik igesteko, autoŕtuteko ta ezaŕiko leikedan oben-nekia egizteko erabaki sendo-sendua aŕtzen dot.

Nire bixitza, egiñen eta neke-oñaze gustijak neure obenen ordez deskeintzudaz; eta zaran on eta eŕukijoŕ oŕek, zeure odol edeŕ, neke-oñaze ta erijotz-irabazijak bide dirala, obenak azketsi, ta zuzendu-bidia ta erijotz -aŕterańo jopu-egiṙia emongo daustazuzala ditxarot. Olantxe.

### Eskeintza

Neure Jaun eta Jabe ori: zeure ageŕijan apal-apal auzpeztuta, egin gura dodan gurutze-bide au deskeintzut, zeuretzat oldezko ta niretzat onuragaŕi dadiŕentzat. Doipurubaren asmoz otoi-egin eta nekazkeak irabazi nai dodaz, neure obenen azkespenerako ta garbiŕokiko gokaxuen sorosarirako. Olantxe.



I

## Josu-Kisto gure Jauna ilťeko erabakija

## LENENGO EGOTALDIJA

Lenengo egotaldi onetan, Pilatus'ek Josu-Kisto gogoŕkiro astindu-erazota gero, bere auŕka zuzenbagezko erijo-epai ikaŕigaŕija iragaŕi daula gogoratu egixu.

### Otoya

¡Ene Josu otzan ori! Gaizkiñik aundijena bai'zintzazan, goroikiz gogoŕ lotuta apal-apal ageŕtu zintzakijazan judaŕ eŕi ziŕalari, ta Pilatus'en epai ankeŕa ixil-ixiŕik entzun euzun. Andikeri ta aŕokeri oro bezau ta eziŕen lagundu naikezu, aŕen, oraingo irañak apalkiro jasan eta eruanaz oben-goroikijak azkaturik, erijotz-ostian onezko epai pozkaŕija entzun daikedantzat. Olantxe.

Geure Aŕa, Aguŕ Miren *eta* Aintza *esanda gero:*

Oben-egin dot, Jauna; gaŕbai-naz zeu iraindubaz; eŕuki-zakidaz, Josu on ori; gauŕ-geroz obenik ez jaukiŕeko lagundu naikezu. Olantxe.

*Gero luŕa mun-egin daikezu, ta onetara esan:*

I Onesten zauguz, Kisto,
ta auzpezturik aguŕtzen;
gixona gurutz-bidez
erosi dozulako.

Josu-Kisto'ren Nekaldi-erijotzak onetsi ta goraldu beikez, baŕa Miren Neskutzaren oŕbanbako Soŕkunde Garbija, be. Olantxe.



## II

**Josu-Kisto gure Jauna**

**gurutza aŕtzen**

## BIGAŔEN EGOTALDIJA

Bigaŕen egotaldi onetan, Josu auldubari gurutz aztuna lepaldu eutsaen tokijan zagozala egixu.

### Otoya

¡Goi-bakaldun guren ori! Urtzi-Aŧearen gurea betetiaŕen, zure buruba judaŕ gaiztuen eskutan utzi, ta gurutz aztuna oldez lepaldu dozu. Goi-eskaŕ ugarija indazu, aŕen, ene Erosle maŧe oŕek, neure buruba ilduratubaz oben-zoŕa ordaindurik orain zeure gurea ziaro bete, ta gero betiko aintzea eskuratu dagikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenengo egotaldijan letz.*



III

**Josu-Kisto gure Jauna**
**lenengoz jausi da**

## IRUGAŔEN EGOTALDIJA

Irugaŕen egotaldijau, Josu laztana aultasunaŕen gurutz-aztunpian luŕera jausi zana dozu.

### Otoya

¡Ene Josu eŕukigaŕi! Gurutz aztunak leŕtuta nekiaren nekiaz luŕ-jo dozu, guk geure oben laŕijen aztuna dezaukeguntzat. Onezkero, obenetik jagi ta oben-bidetatik alde -egin gura dot-eta, lagundu nagixu, aŕen, gauŕgeroz aragi-giriñak ezi ta zeure agindubak ziaro beterik donokira eldu nadiŕentzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



## IV

**Josu-Kisto gure Jaunak**

**eta bere Amak alkaŕ ikusi**

## LAUGAŔEN EGOTALDIJA

Laugaŕen egotaldijau, Josu'k eta bere Ameak alkaŕ ikusi ebenekua da: Seme maŕia gurutz aztuna soŕbaldan ikusijaz Amearen bijotza eŕuki laŕijak ikutu eban; eta Amearen tamala igaŕijaz Josu'ren bijotza atsekabez bete zan.

### Otoya

¡Amarik samuŕ ta nekatsuben ori! ¡Zeure Seme laztan oŕen betaŕte negaŕgaŕija! Begijak ilun, aŕpegija itxustuta, soin osua zauriz beterik eta gurutz aztunak leŕtuta dauz, ta Bera gixonak laidogaŕi etsi dabe... ¡Ikuskixun oŕek eratoŕi dautzun samin gaŕatza! Bai -dakit zeure Seme laztana oŕetara neure obenak imiñi dabena. Zeu, baña, eŕukijoŕa zara-ta, azketsi egistazu, ta obenak benetako garbayaz autoŕtuteko laguntzea indazu, Ama samuŕ oŕek, donokijan zeurekin batera Josu'ren arpegi edeŕa ikusi dagikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



V

**Josu-Kisto gure Jaunak**
**Simon Kirenetaŕa lagun**

## BOSKAŔEN EGOTALDIJA

Boskaŕen egotaldi onetan, Simon Kirenetaŕak egiña gogaŕtu biaŕ dozu: Judaŕak, Josu bidian ilgo ete-yaken bilđuŕaŕen, Simon đamotsoe laguntzat, eta arek oldez laguntzen đautso.

### Otoya

¡Josu on ori! ¡Zoruntsuba, benetan, gurutz aztuna eruaten lagundu dautzun Simon Kirenetaŕa, bere laguntzea ontzat aŕtu, ta goi-eskaŕez sariztu dozu-ta! Neuk, be, ilđura-gurutza oldez eruan gura dot, onetara zeuri atsegin-ixan eta neure giriña okeŕak bezaurik betiko sarija eskuratu dagikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



VI

**Josu-Kisto gure Jaunari**

**Beronike'k aŕpegija garbitu**

## SEIGAŔEN EGOTALDIJA

Seigaŕen egotaldi onetan, Beronike emakume eŕukijoŕak Josu'ri egit̄en d̄autsona gogoratu biaŕ dozu: Josu'ren aŕpegija autsez, ixerdiz ta txistuz zikind̄uta ikusirik, eŕuki-eŕukit̄u egin yako, ta buruko zapi zurijakaz gabit̄uten dautso.

### Otoya

¡Ene Josu, gixonik ed̄eŕen ori! Lotsabako gixon ankeŕak zikind̄u dautzuben aŕpegija Beronike emakume eŕukijoŕak garbit̄u dautzunian, zeure aŕpegi aguŕgaŕijaren atza zapijetan iraŕit̄a utzi dautsazunezkero, nire goguan, be, zeure aŕpegi-irudi edeŕa iraŕi egistazu, ta egundo ez galtzeko eskaŕa emon, irudi ori bide dala Urtzi'gana betiko aŕtu ixan nadit̄entzat. Olantxe.

*Beste gustija tenenguan letz.*



VII

**Josu-Kisto gure Jauna**

**bigaŕenez jausi**

## SASPIGAŔEN EGOTALDIJA

Saspigaŕen egotaldijau, Josu-Kisto gure Jauna Epai-atia eretxanaren onduan aultasunaren aultasunaz bigaŕenez jausi zana dozu.

### Otoya

¡Ene Josu deun ori! ¡Simon onaren laguntzea gora-bera guruzpian, zutunik iraun eziñik baŕiro luŕ-jota zakustaz! Nire oben laŕijen aztuna ikasteko, adimena argiztu eiskedazu, ta ariago ez jaukiteko, naimena goi-eskaŕez indaŕtu, obenok dirala bide su-lexara jausi -barik, zeu maŧatubaz betiko zoruna jadetsi daikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



## VIII

### Josu-Kisto gure Jauna
### emakumiai itz-egiten

## ZOŔTZIGAŔEN EGOTALDIJA

Zoŕtzigaŕen egotaldi onetan, Josu'k emakume eŕukitsubai erantzun eutsena gogoratu biaŕ dozu: areik, Josu ona eŕubarik gurutzalduten eruela-ta, negaŕ-egijen; Josu'k, baŕiz, «Jerusalen'go alabaok, —dirautse—, nigatik ez negaŕ-egin, zeuron buru ta seme-alabeakatik baño».

### Otoya

¡Irakasle guren ori! Koskategi-bidian neke-miñez beterik zagozala, zeutzaz eŕukituta negaŕ-dagijen emakumiai euren obenakatik, bai, negaŕ-egin biaŕ dabela dirakatsezu. Neure obenakatik negaŕ-ta-negaŕ dagikedala indazu, Jaun oŕek, neure gogua egizko garbaiz garbituta, geroztik beti Jaungo-adizkide ixanik, betiko bixitza loŕtu daikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



IX

**Josu-Kisto gure Jauna**

**irugarenez jausi**

## BEDERATZIGAŔEN EGOTALDIJA

Bederatzigaŕen egotaldija, Josu-Kisto irugaŕenez jausi zana dozu oinguan gustiz indaŕgetuta dago, ta guruzpian auzpez luŕ-jo daularik, ariago zutunduteko, be, ezta gauza.

### Otoya

¡Jaungo altsubaren Seme bakaŕ ori! Onezkero, indaŕ-apuŕik be eztozu-ta, irugaŕenez auzpez luŕ-jo dozu; eta zutunduteko gauza etzaranaŕen, judaŕak zeutzaz eŕukiłu-barik ostikoka zarabiłez. Zeure laguntzea indazu, ene Urtzi Jabe oŕek, orain areyuen irañak oldez jasan eta neure buruba ildúraturik, gerokuan atseden betia eskuratu dagikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



X

**Josu-Kisto gure Jaunari janzkijak eranzten**

## AMAŔGAŔEN EGOTALDIJA

Amaŕgaŕen egotaldija, Koskategi-ganian gure Erosle deunari eŕuki-baga janzkijak erantzi ta biaztun-ospiñak edaten emon eutsaezana dozu.

### Otoya

¡Jaungo-Seme eŕukigaŕi ori! Judaŕ gaiztuak eŕuki-baga janzkijak kendubaz soñeko zauri gustijak baŕiztu egin dautzubez, ta zeu gustijen ageŕiz bilutsik itxi; eta gero biaztun-ozpiñak damotzubez edateko. Ene Josu: eztagikedala nik egundo aragizko oben-edaririk mustau, ez ta eskaŕ-jantzi zurija iñoiz erantzi, be, erijotz-ostian donokiko aintzeaz jantzi nadiŕentzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



XI

**Josu-Kisto gure Jauna gurutzari josten**

## AMAIKAGAŔEN EGOTALDIJA

Amaikagaŕen egotaldi onetan, Josu ona untze gogoŕakaz gurutzari josi eutsaela, ta malukada ikaragaŕi aek bere Amearen bijotza ausi egin ebela gogoratu egixu.

### Otoya

¡Ene Jaun maŕati ori! Maŕasunaren maŕasunaz gixakume oro besaŕkatu gurarik, zeure besuak gurutze-gane zabaldu dozuz, gebaŕen gurutzaldu ixateko. Ezpeikedaz nik neure besuak gaiztakerira luzatu, zeuganako maŕasuna bide dala ilđureaz ta buru-ukoz beti gurutze deunari josiŕa jabon baño, orain zeure eŕukija ta gero betiko aintzea eskuratu dagikedazantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*




XII

**Josu-Kisto gure Jauna**

**gurutzian esegita**

## AMABIGAŔEN EGOTALDIJA

Amabigaŕen egotaldija, Josu gurutzan esegiṫa egon zana da: Jaungo-Semia gurutzan dingiḷizka, miñaren miñez esku-oñetatik odol-darijola; Ama samuŕa gurutz-onduan zutunik, tamalaren tamalaz bijotza leŕtuta.

### Otoya

¡Ene Josu, ene Erosle ori! ¡Gurutzian josiṫa luŕetik gora jaso zabezalarik, lapuŕ biren erdijan, ortzi-ludijen biṫaŕtian, gixadi osuari agiri, oñaze goŕiṫan zakustaz! Nire gogua zeure odol deunaz garbiṫu egistazu, Jaun oŕek, nire adimena ludiko uskerijetatik jasorik goikuetara zuzendu, ta neure bijotza beko gauza oro goŕotaurik zeuganatu dagikedantzat, eta erijotz onaz ostian zeure atzegindegira juatia loŕtu. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



XIII

**Josu-Kisto gure Jaunaren**

**iĪotza Amaren altzuan**

## AMAIRUGAŔEN EGOTALDIJA

Amairugaŕen egotaldija, Joseba ta Nikodema gixon zintzuak Josu'ren ilotza Ama nekatsubaren besuetan imiñi ebena dozu.

### Otoya

¡Ama samuŕ, Andera nekatsu ori! ¿Seme laztanaren gorpuba altzuan imiñi dautzubelarik zeure bijotz eŕukitsubak nabaŕu daun oñaze goŕija, nok igaŕi? ¡Ori ilotzaren eŕukigaŕija ta negaŕgaŕija! ¡Ori zeure bijotzeko naibage samiña! ¡Ama samuŕ! ¡Andera nekatsu! Erijotz-ostian nire gogua zeure besuetan aŕkezu, ta Epale zoŕotzari zeuk auŕkeztu, nire obenetaz-arauz-barik Josu'ren irabazi-arauz ebatzi ixanik, zeure oñaze ta naibagiak bide dirala, donokiko poz betia eskuratu daikedantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*



XIV

**Josu-Kisto gure Jaunaren**

**ilotza obiratzen**

## AMALAUGAŔEN EGOTALDIJA

Amalaugaŕen egotaldija, Josu'ren iḻotza iḻobiratu ta iortzi ebena dozu: gixon zintzuak Josu'ren iḻotza iḻobi baŕijan imiñi eben; Ama samuŕa, baŕiz, bakaŕtaldi iḻunetan lotu zan.

### Otoya

¡Urtzi-Seme ta geure Erosle deun ori! Geure kaltez oguzi zan betiko erijotz-epai zuzena atzera-egiṫiaŕen zeure odol gustija ixuri ta erijotzik gogoŕena jasanda, gorpu deuna iḻobi baŕijan iortzi ixatia gura ixan dozu, irugaŕen egunan ilpiztuteko, baña. Zeure nekauste-erijotzak dirala bide, ludi aunetan iortziṫa lez bixi gaikezala egixu, aŕen, orain bijotz-baŕu zeure neke-oñazietzazko gomuta bixija dogula, azken-egunan aintzaz beterik ilpiztu ta zeure eskumaldian jezaŕi gadiṫezantzat. Olantxe.

*Beste gustija lenenguan letz.*

# JOSU'RI-JARAI GURUTZA

## ERUATEKO BIDIA

**Kistař**-ixena daunari Kisto'ren ikasle ta jařaitzalia ixatia dagokijo-ta, ořetan buru-belaři alegindu zadikez. Ořezkero, Josu-Kisto'k Goizpařan diraus-kuna bete biař dozu, edo: *Iñok gura ba-dau nire ostez etoři, bere buruba ukatu begike, egunoro biz-kařgain ařtu begike bere gurutza, ta beřaikiket.* Itxokaz gure Jaunak ilďurea agindu dausku, ilďura bikotxa agindu, be: bařukua ta azalekua, gogo -ilďurea ta soin-ilďurea. «Bere buruba ukatu begike» itxakaz gogo-ilďurea, norbere gureari uko -egiťia, esan gura dau; «bizkařgain ařtu begike bere gurutza» itxakaz, bařiz, soin-ilďurea dadirazo. Ilďurea, Sales'tař Pantzeska deunak edeřto diñonetz, okeleak gatza baxen biařa dogu: gatzaldu bako okelea ezta irauteko gauza, usteldu ta ařez bete egiťen bai'da; geure aragija, be, ilďureaz gatziťu ezik, mizkeri ta girin okeřez betetan da-ta, onbidez irauteko gauza ezkarala uzten gauz; aragijaren mizkerijak eta bařuko giriñak ilďureaz ezizkero, bařiz, onbidez eřez iraungo gara, gatzalduriko okelea aldi luzian irauten dan letxe. *Aragi -arauz bixizkero, il egingo zarae; aragija ilďuratuzkero, bařiz, bixiko zarae,* iñuan Paul deunak edo, aragijaren mizkerijak ilďureaz bezau ezik, oben-erijotzaz ilgo garala; aragija ilďuratu ba-dagigu, ordez, betiko bixitzea eskuratuko dogula. Ořegaťik Josu-Kisto'ren gurutza eruaten ikasi daikezun, ilďurea zer dan eta zelan egin biař dan irakatsi gura dautzut emen.

Ilďuratutia ilťia ezta, ezi ta bezau egiťia baño.

Gixonak alde bi dauz, goikaldia ta bekaldia: goikaldian adimena, ta adimena argiztetan daun ziñesmena doguz; bekaldian, bariz, giriñak eta aragi-mizkerijak. Gixonagan dana zuzen egoteko, bekaldia goikaldiari azpiko ixan biar yaka; eta ori ildureaz lortuten dau. Orezkero, ilduratutia bekaldeko giriñak ezi ta goyaldepian lotutia da.

Ildurea **biarezkua** ta **oldezkua** ixan dateke: biarezko ildureaz Goiko Jaunaren agintzak betetako sostor-yakun edozerbere ezi edo kendu egiten dogu; oldezkuaz, bariz, berez txara eztana, be, goguaren onerako ta Jaunari atsegiñago ixatiaren, geure burubari ukatu egiten dautzogu. Adibidez: loretegi ikusgarija begitutia, egari ixanik edontzibete ur otz edatia, ta a., eurenez gauza txarak eztira, baña, eurok Goiko Jaunaren eta Miren deunagatik geure burubari ukatutia, goguarentzat gustizko onuragarija ixaten da. Oldezko ildurapenok noxian bein bederik egikezuz, oldezkorik egiten eztaunak biarezko ildureaz, be, uts-egin daruala uarikasiz bai'dakigu.

Oldezko ildurea, be, bitarikua da: egikora ta jasakora. Lenengua, Urtzi ta Miren'ganako matasunaren, norberari nekagari edo apalbide yakona oldez bilatu ta nai ixatia da. Ildura jasakoraz, bariz, geuk bilatubako gauza nekagarijak oldez jasaten doguz, Goiko Jaunaren nai-arauz ta eruapenez jasan, be: jazarpenak, irañak, gexoerijak, otz-beruak, eta abar.

Baruko ildurea azalekua baño bikañagua ta biaragua ixanaren, bigarena barukua jadesteko bide egokija da-ta, lenen azalekuaz jardungo dogu.

# AZALEKO ILDUREA

## 1. Ikusmen ildurapenak

«Itxuba ixatia, obengia ixateko bide-zatija da», esaten ei-eban Seneka ospetsubak; eta aŕtez ta egiz esan be, begijak bide, amaikatxuk oben-egin eta gaiztakeri-bidera jo dabela ondo dakigu-ta. Ořegatik, Tertulianus'ek dirauskunetz, antxiñako jakintzari ezeinbatek bere begijak atara egin ei ebazan. Olakorik egitia zilegi ezta, baña, ikusmena ildurata, bai, egin biaŕ leukezu, Josu-Kisto antzaŕtuteko, be. Goizpaŕgiliak arduraz iragaŕi dauskube Josu eratsubak begijak noiz jazo ebazan-eta, gitxitan jasoten ebazala autoŕtu biaŕ. Zuk onetara ildurata:

1.ª Irudipen lixunak eratořiko dautzuzan gauzarik ezegikezu begiratu: irudi zantaŕ, antzeŕki nabaŕ, dantza nastau, ta a. Alipi, Augustin deunak dirauskunetz, gauza txařik ez begiratzeko asmoz jun ei-zan antzokira; baña, antzeŕkija ikustiařen gauza txařak, be, begiratu ebazan-eta, begirakun aek ondore negaŕgařija ixan eben: berak oben-egin, eta lagunai, be, oben-eragin eutsen. Dautzaketa nabařak begiratutia, emakume dantzarijak txaŕto jantzita dabiltzanian batez be, norbere buruban irudi lixun ugari soŕtuteko bidia da; eta olako irudipen lixunak obenezko gozaŕtzia eřez dakaŕe. Zu etzaditez jun egundo olako leku txařetara; eta txaide-ziaŕ zabiltzanian, be, janzki motzegijak darabilezan emakumiak-eta so-egin barik euretatik begijak arduraz aldendu egikezuz. Olako lagunak, beste asko ta asko atzitu ta sulexeratuteko txeřenak darabiltzan amubak dirala egixu.

2.ª «Jabon egikezuz nire begijak, Jaun ořek, uskeririk eztakuskientzat», otoi-egiten eban Iragaŕliak. Eta zeuk, be, alpeřiko ikuskixun eta uskeri-

jetatik aldendu egixuz zeure begijak. Onako gauzetaz ikusmena ildūratutia, onbidez aurera-egin eta donetasuna jadesteko bide zuzena da. Borja'tar Pantzeska deuna, lekaide ixan-orduko, aztore edo mirotzaz exan jarduten zalia ei-zan; baña, ikusmena ildūratutiaren, unerik atsegingarrijenan, mirotzak atzemoten eban unian, begijak aldendu egiten euzan. Gonzaga'tar Koldobika deuna, nai-ta-ez berein ikuskixunetara jun biar ixanaren, euretan begi-beti egoten zan, ezertxu ikusteke. Zeuk, be, noxian bein olakuak egikezuz, txaide ta egurastokijetan ibili biar zaranian, batez be. Lenengotan gaitz ixango edo-yatzu, baña, etzadikez atzeratu, geruago ta errezago ta atsegiñago ixango dozu-ta; goguarentzako, bariz, onaurkirik asko ta gerorako sari bikaña jadetsiko dozuz.

3.ª Gauza on ikusgarrijak, lore, zugatz, etxe eder, ta a., begiratubaz zeure begijai pozkaritxuba emon gurako dautsezunian, bariz, gauzaok gogua Urtzi Jaunaganaño jasoteko bide ixan biar dozuz, ederrtasun danaren iturrburuba Urtzi dala-ta, berak emon bai'dautse aetan dakusazun ederrtasuna edo politasuna. Orrezkero, ondore au atera zuk: *Erbeste aunetan onako gauza ikusgarrijak jarugiten dodazanezkero, ¿zelakuak begitanduko ete-yataz goiko Aberi zoragarrijan?*

## 2. Entzumen-ildūrapenak

1.ª Paul deunak diñonetz otura onak zantarrtu egiten dabezan izketa, ipuin eta abesti nabarrak gure egunotan lar zabaldu dira-ta, olakorik ez entzuteko ardura-ardura zadikez. ¡Min-loyakandik iges-egikezu, goteungiaren laguntzaliak dira-ta! ¡Olakuen lakijuetan gaste zurrez askuak atxilotu ixan dira, eiztarijenetan txoritxubak letz! «Arako abesti edo autu zantar a entzun ixan ezpa'leut, eleukedan nik obenik egingo; jakin, be, olako gau-

zarik eleukedan nik jakingo». Onako autoŕpenak saŕi askotan entzuten dira. Zeuri baŕdin jazo eztakikezun, entzumena ildŭratu egikezu.

2.ª Bestietzazko maxio ta esamesak ezeikezuz oldez entzun; eta zeure auŕian iñoren uts eta akatzak aipatuten diranian, olakorik eztozula ontzat aŕtzen erakuskiezu, naiz bestelako jardunen bat asirik, naiz zeure buruba ixil eta ben ageŕturik. *Ipaŕaxiak odei-moltzua banatuten daun letz, aŕpegi ilunak min-luzia geldi-erazoten dau*, diño Idazteunak.

3.ª Uskeri ta alpeŕiko izpaŕak entzuteko naya, be, ildŭratu egikezu; eta gogaŕte ta otoyaldirako gertubago egongo zara, ezpai dozu zeure baŕuba ainbeste izkimizkiz beterik jaŕugiko.

### 3. Usaimen-ildŭrapenak

1.ª Usaimena. be, ildŭratu biaŕ dozu. Lasteŕtxe usteldu ta austuko dan gorputza usaingi ta luŕingaiz atsegindŭtia bidezkua eztala egixu. Kedatz eta beste atsondun luŕiñez Goiko Jauna ospatutia, bai, bidezkua da; aragi ustelkoŕari, baŕiz, eztagokijo usañonik.

2.ª Gexo-ikeŕtze ta beste eŕuki-egintzetan nabatu leikezuzan usain txaŕak oldez jasan biaŕ dozuz, donokijan sari betia ixango dozula-ta.

### 4. Abo-min-ildŭrapenak

Ardura-arduraz jabon eta ildŭratu biaŕ da miña, obenik asko darijon itŭŕija ixan oi da-ta. *Miñaz obenik eztagijana oso ona da*, dirausku Jagoba deunak; Origenes jakintsubak, baŕiz: *Miñazko obenik jaukiten eztauna benetan oso ona dala ziñestau daike, miña ezi daunak beste naikun eta giriñak eŕez ezi ta aŕteztuko dauz-ta*. Uaŕikasiz dakigu, jakin be, miña gaiztakeri ugarijaren itŭŕi-

ja dana, ta onbidez joyazan berein kistaŕ on tuzurijak min-lakijoz atxil̄otu dauzana. Oŕegat̄ik miña arduraz jauŕi biaŕ da, itz-egin-orduko, Bernarta deunaren aulkubau betaturik: *miñak bein oguziko dauna lenago adimenak biŕit̄an oŕaztu biaŕ daula.* Esan gura dozuna esan baño len, goguan erabilkezu, ba, ta ona ala txaŕa dan, lagunai onuragaŕi ala kaltegaŕi ixango yaken, arduraz gogaldu. Onan jardunezkero, esanda gero garbai-ixango zintxakezan berein itz ez esatia loŕtuko dozu. *Asko itz -egit̄en dauna oben-barik eztala ixango,* diño Idazteunak; eta Seneka jakintzarijak: *Ixil̄ik egon nazalako garbat̄u-biaŕik eztot egundo ixan, itz-egin dodalako bai, baña.* Alik gitxijen itz-egin, beraz; eta egin-biaŕa daukezunian, oguziko dozuzan itzak zeure bixitz-idaztijan epaikunderako idatzit̄a lotuko dirala, ta Idazteunak dirauskunetz, Urtzi Jaunak alpeŕiko itz edozeinbere ziaro azteŕtuko daula gogoratu. Itz-egin baño len, Jaunagana bijotza jaso ta Iragaŕliaren eskarijau egit̄ia on ixango yatzu: *Abuan atakea iminstazu, Jaun oŕek, eta ezpanetan moŕol̄ua,* itz egokijezik ez oguzteko. Oŕezkero:

1.ª Bigaŕen eta zortzigaŕen agindubak oben laŕiz ez austeko ardura ixan biaŕ zara lenen.

2.ª Oben ariñik ez jaukit̄eko, be, alegindu zadikez. Iñoren oben eta akatzik ez zabalduteko, batez be, ardura aundija biaŕ dozu ixan; eta agirijak eta jakiñak ixanaŕen, eurotzaz ixiltzia oba da, bere akatzak at̄atutin iñori atsegin etxaka-ta.

3.ª Eztabaidaka ez ekin, ez ta zeure aburuba setatsu aldeztu be. Norbere ustiak begirunez ta mat̄ero ageŕtu daikez, baña egija bil̄atu biaŕ da beti, ta zintzoro bil̄atu be. Oŕegat̄ik, egizkuak zeuriak-barik bestien ustiak dirala erakutsi daiskezubenian, zeuriak bertanbera lagata bestienak ontzat aŕkezuz. Egija argi agiri eztalarik, be, bestien ustiak ontzat aŕtutia onuragaŕijago ixan oi da, oŕetara alkaŕ-mat̄asuna sendotu ta get̄u egit̄en da-ta.

4.ª Iñori edozetara kalte lekaŕskiokenik ezeikezu esan, ez ta mindu egin legikenik be: onetarikuak ixaten dira adaŕ-jote aztuntxubak-eta.

5.ª Zeure burubatzaz alik gitxijen itz-egin, buruba goraltzen, baŕiz, bein bez. Bestiak andetsi zagikiezantzat zeure esakun eta egiñenak aipatu ba -dagixuz, zeure buruba ezeskaŕi egingo dozu. Bestien egiñenak, ordian, al dalarik, goraldu egikezuz.

## 5. Txastamen-ildurapenak

Txastamena ildūratutia biaŕ-biaŕa da. *Lenago salokerija ildūratu ezik, alpeŕik uste dozu beste girin okeŕak eziko dozuzanik*, diño Gergori deunak. Onetan auxe dogu jasoin eta oñaŕi: eztala bixi biaŕ jadetateko, bixi-ixateko jatedan baño. Oŕezkero, gozaŕtziaŕen-barik soña elikatutiaŕen jatedan biaŕ dogu; eta zer ta zenbat jan eta edan biaŕ dogun jakiteko, atsegiña-barik osasuna gogaŕtu, eta soñaren osasuna, gero. *Salokerija ildūratuten eztauna ezingo da obenge iraun*, iñuan Sena'taŕ Katariñe deunak.

Jan edo edan laŕegija gorputzari, be, beti yako kaltegaŕi. Gexoeri geyen-geyenak salokerijak eratoŕten dauzala ezin daike ukatu. Soŕeri, berazko, idoŕeri, uŕdalen, alboko ta soñeko beste min geyenak maxenik jan laŕegijak soŕtzen dauz. Baña, oneik baño andijaguak dira salokerijak goguari dakaŕtsazan kaltiak.

*Janariz asebetia lixunkerijak ziltzau-barik eztagoke*, iñuan Kasian lekautijak. Oŕegatik, deunak, garbitasuna jabotiaŕen, salokerija arduraz ildūratuten eben. Goteungiak, salokeriz ziltzau ta gotu dauna aragikeriz ziltzau-biaŕik eztaula ixaten, dirausku Toma deunak. *Ardaua ta gaztarua atsegin-zalekerijaren bultzagayak dira*, idatzi eutsan Jeronima deunak Eustoke neskutz deunari. Eta gero onubau emotsan: *Josu-Kisto'ren emaste zara-*

*nezkero, ardaua edena bai'litzan aldera-eikezu.* Salomon'ek Esakunetan: *Ardaua arogikoŕa da ta lixunkeri-alija. ¿Ayene edo alaka nok egingo dau, ardozale ta txolkada-edalik baño?* Ori dala-ta, oraingo ta betiko gure zoritxaŕa opa-daun Satan deungiak edozenbat ardandegi ta edariτegi zabaldu -erazoten dauz, lekubok garbiτasunari gogoŕ-egiτeko egokijenak dirala bai'daki; lixunkerira erakaŕi dauna, baŕiz, eŕez naŕeztuko dau beste obenetara, baτa ziñaustera be, arako esakun-arauz: *Eztago emukume-bako ziñausterik.*

Oŕezkero, jatedaten dozunatzaz ernai ixan. Biaŕ -biaŕa ixan ezik, etzadikez ardandegi ta edariτegijetara saŕtu; eta jatordu-biτartetan ezer jan eta edan barik egoten oτu zadikez, osasungaŕijagua da-ta. Jataldijetan, baŕiz, asi-orduko janarijak onetsi eikezuz, ta amaτutian Goiko Jaunari eskaŕ -egin. Jaunagaz gomutau-barik jatedaten dabenak belaŕluzien antzekuak dozuz: areik, artepeko ezkuŕak irunsten dabezalarik, eztarue bururik jaso, janarija nundik yatoŕken ikusteko be. Zuk, ordez, noxian bein Uŕtzi Jabe'gana bijotza jasorik onan -edo esaskiazu: *Jaun ori, eztot gozaŕtziaŕen jan eta edan gura, soña elikatubaz neure biaŕkixunak betetako indaŕa ixatiaŕen baño.* Jataldijan gozaŕtutia obena danik eztot esan gura, baña: gozaŕtzia berez ezta txaŕa, igali gozatsubak-eta janaritzat Jaun-goikuak berak emon bai'dauskuz; gozaŕtziaŕen bakaŕik jatedatia, bai, txaŕa litzake. Gozaŕtzen dala jatedatia ta gozaŕtziaŕen bakaŕik jatedatia baŕdin eztira: lenengua ziτegi da, gozamena geure soña elikatuteko biaŕkixuna eŕezago bete daikegun emon yaku-ta. Gozaŕtziaŕen bakaŕik jaten daunak, baŕiz, bidia elburutzat aŕtu, ta bixiτeko jan-biaŕian jateko bixi dala adirazoten dau.

Txastamena ilduratu gura daunak, janarijak dirala-ta eztau egundo espaka jardun biaŕ, auŕkesten yakona oldez jan baño; baldin goguari edo gorpu-

tzari kaltegafi ezpa-yaka, beintzat. Toma deunak ez ei-eban egundo onelako edo bestelako janaririk eskatu; iminten eutsoenaz naiko-ebala esaten eban beti. Iñaki deunak, ondo gertuta ezeguala-ta, ezeban iñoz jakirik aldera-egin. Jon Kilmaka deunak edozer jaten eban, eta gitxi atan be; lagunakaz batera amatutiaŕen, baña, astiro jaten ei-eban.

Atsegiñen yatzuzan janarijetatik, lagunak igaŕi -barik, gitxitxubago jatia ildura onuragaŕija litxake, ta oŕetara Josu-Kisto'ri adiguri-egingo leuskiozu, bere gurutza mate dozula erakutsirik; ezpai'dabe sabel-zaliak Josu'ren gurutza mate, edo, Paul deunak diñonetz, olakuak *Kisto'ren gurutzari areyo yakoz ta jaungotzat sabela besterik eztabe.*

## 6. Ikumen-ildurapenak

1.ª Seigaŕen agindubaz-atxin egundo aragi-obenik ez jauki, obenok goguari ta gorputzari, be, gustiz kaltegaŕijak yakez-ta.

2.ª Dantza lotu ta oben-bide litxakezan beste jolasetatik alde-egikezu.

3.ª Beste gixako laguna ez ezik, norbere gixakua ezeikezu eŕezegi ikutu, garbitasuna jabon nai ba-dozu, beintzat.

## 7. Soin osua ilduratu biaŕa

Goguaren areyorik ankeŕena ta bilduŕgaŕijena geure gorputza, geure aragija dogu. Goguak ezin dau aragijagandik alde-egin, eta aragijak etenbarik deragotsa goguari ziri-ta-ziri, oben-eragin nayez. Ezibako zaldijaren antzera, eŕez zoratuten da, ta eztau goguaren menbian iraun gura ixaten; eta augalak nasai itxizkero, geruago ta lazteŕago eruango gauz girin okeŕ ta gaiztakeritara. Oŕegatik, gure soña, gure gorputza, lugiñak lanerako aberiak elikatuten dauzan letz elikatu biaŕ dogu.

Lanerako beyari edo manduari lařegirik etxaka jaten emon biař, lan-egiteko biař daun beste baño, mardulegituzkero nekez buztařtu edo zamapetu leikelako. Berebat egin biař dautsagu soñari: bixi ixan eta lan-egiteko biař daun beste, bai, jaten emon biař dautsagu; lařegirik ez, baña. Jatedan lařegiz ta gozuegiz elikatu ba-dagigu, mizkatu egingo yaku, bai?, ta ařezkero nekez eukiko dogu Urtzi-lagipian buztařtuta. Agindubai, bařiz, zama lořa eřitxiko dautse-ta, zama ori jauřtikirik adimenbako aberien bizkerara ekařiko gauz: edo txařagora, baiki, aberiak eurei dagokijen sen-arauz bixi bai'dira; girin-okeř-arauz bixi dan gixonak, bařiz, sen ori be uts-ixaten dau.

Girin okeřak aragijaren gexoerijak dira-ta, sendatzaliak gexuari egiten dautsana egin biař yako aragijari, be. Sendatzaliak lenen januřija agindu darua; jaki ta edari kaltegařijak, bařiz, gustiz eragozten dautsaz gexuari; eta eguzkija ařtu edo axe garbija arnastuteko aulkuba emonda, zeintzu sendagaři ařtu biař dauzan esaten dautsa. Girin okeřak eziteko, be, lenen gorputzari janedana uřitu egin biař yako ta giriñak ernarazoten dautsozana gustiz eragotzi; lagun eta toki txařetatik, bařiz, aldendu, ta sendagařitzat bestelako ildurapenak ařerazotia, be, egoki da, ildurapenok gogořtxubak ixatekotan geure autoř-entzuliaren eretxija galdetutia oba daike, baña. Berein ildurapen onuragařitarako, bařiz, ezta iñoren aulku-biařik: geuk bilatu-barik yatořkuzanak jasateko-ta. Olako ildureak, naiz lagunak, naiz piztijak, naiz bestelako gauzeak eragiten dauskubezala, oldez eruan biař doguz;ořetara, neguko otzak, udako beruak, buruko miñak, ařdijen ziztadeak, geidiakandiko gogataldijak, eta abař, aragija eziteko bide ixango yakuz.

Nik dazaudan norbatek, ařdijak ozka-egiten dautsoenian, onan itz-egiten dautsc bere burubari: «¡Tira! lenengo gurasuak oben bat jauki ebelako

piztitxubok gixon gustijai ozka-egiťia bidezkua danezkero, ¿berein oben jauki dodazan oni ařdi gustijak ozka-egiťia bidezkua ez ete-litxake?» Esan eta egin: ařdijen ziztadeak eruapenez ta aragija ilđuratziařen ařturik, eztauz piztitxubok ařtegatu gura ixaten (1). Zeuk, be, ořenbesteko eruamenik baldin ezpa-dozu, orañařte baño getxubago ixateko, beintzat, alegiña egikezu. Oben lařidun iľezkero betiko sulexera jungo zarala ta an ludijon baño ariago jasan biařko leukezula gogora-exu. Orain zeure buruba ilđuratubaz oben-zoř gustija kiťau ezpa-dagixu, garbiťokijan, beintzat, oñaze ikaragařijak jasan biařko dozuzala ez aztu; autořtzeaz oben lařijak azkestia jadetsi-ařen, oben-zoř osua eřez azkesten etxakuna bai-dakixu-ta.

*Goguari men-dagiskiontzat, neure soña ilđuratu egiťen dot*, iñuan Paul deunak; eta zeuri be on ixango yatzu bestelakoz-ganera oldezko ilđurapenak biľatutia. Oldezko ilđurapenok, baña, autořentzuliaren aburu-arauz aukeratu biař leukezuz, danentzat eztira berberak egoki ixaten-eta.

## BAŘUKO ILĐUREA

### 1. Galemena; giriñak ilđuratu-biařa

Galemena, edo guramena, bikotxa da: suminkořa ta zalekořa. Galemen suminkořari sumimena deretxo; zalekořari, bařiz, zalemena. Men bijotan datzaz gure giriñak, edo lendanik ezaunđako ona jadetsi ala txařa itxuri egiťeko bultzetan gabezan galemen-igigunak.

Giriñak amaika dira: sei zalemenekuak, eta beste bostak sumimenekuak. Lenenguak oneik dira: ma-

(1) Emen diñonau Claret Abea bera zan.

t̄asuna, gořotua; gurea, igesa; poza ta goibela. Bestiak, bařiz: itxaropena, espena; bilđuřa, oldařa ta asařia.

Giriñak eurenez txařak eztira, gaiztakerirako bide eřez ixaten yakuz, baña. Soñurakaz erkatu daikez: Soñurak einkatuta edo neuřiz-arauz doguzanian, osasuntsu ixaten gara; bakotxa bere giñuan -barik nastauta doguzanian, bařiz, gexorik. Giriñak, be, adimenak bezau ta ařteztuten dauzalarikan, onoimen-laguntzale ta on-egit̄eko bide yakuz; ezi ta arautu-bako giriñak, ordian, gaiztakerija asaro darijuen it̄uřburubak dira. Ori dala-ta, adimenaren menpian euki biař doguz beti; eta ustebaga goguaren mendetik igesi-ba-legije, zaldi ezikatxak bai'litxazan teink-egin biař yake gogoř. Giriñak onetara ilđuratuzkero, gogua bare-bare ta bijotza gentzatsu izatia lořtuko dogu.

## 2. Irudimen-ilđurapenak

Irudimenak ekin eta ekin diñardu beti, ezin da geldi egon. Ořegat̄ik, gai on eta onurakořetaz jardun -erazorik ilđuratu eikezu.

1.ª Oldozkun eta irudipen txařak, inđař-ařtuzkero kentzen gatxago ixaten da-ta, sořtu-ala aldera -eikezuz; eta gauza onetzaz bakařik oldozten alegikezu.

2.ª Asmen edo zentzunetarako atiak diran soin -uařkiñak, begi, belaři, ta abař, arduraz jabon biař dozuz, ta txařerako itxit̄a euki. Irudimena ilđuratu al ixateko, lenen uařkiñok ilđuratutia nai-ta-ezkua dozu.

3.ª Ezer egin-barik dagon alpeřaren irudimena uskeriz ta irudipen kaltegařiz betetan da-ta, zu iñoz, be, alpeř ez egon; edo zeure egikixunetan edo Jaungua'ri ta geidiai dagokijezan gauzetan jardun, bai, beti.

4.ª Zeure bařuba Goiko Jaunari agiri-agiri ya-

kola ez aztu, ta Jaun ořek itz eta egiñenak ez ezik oldozkunak, be, zořozkiro azteřtu ta ebatziko dauzala. Gixonak jakiťiaz lotsa-zintxakezan oldozkun eta irudipenak, dan-dana dakusan Epaikari zořotzaren ageřijan eukiťen, ez-ete-zara lotsatuko?

### 3. Adimen-ildurapenak

Adimena, gixonagan dan on eta gaitz ororen zusteřaya da. Norbere adimena edo aburuba ildurаtutia ukaldi aundija da, ta Urtzi'jařen egiñezkero, eskein adiguritsuba egingo dautsozu.

1.ª Lenen, adimen-zabařkerija iñardausiťa, jakinbiařak ondo ikasten alegindu zakidez, *etxakiña ezauneza ixango da,* Beldubak diñona, jazorik, Goiko Jaunaren sumiñak ikutu ta dongetsi etzagikezantzat.

2.ª Buru edo nagusi yakuzanen agintzak, Jaunaren agindubaz-atxiñekuak eztirala, ontzat ařtu ta betatu egikezuz, osterantzeko zeure uste ta aburubak aldera lagata.

3.ª Norbere aburuba, gauza txařetan eztalarik, nagusi etxakuzanen eta jakiťunezaguen aburubari atzetiťu egiťia. be, adimen-ildura egokija da. Ořegaťik, eztabaida ta etiketan jardun barik, etořkořa zadikez; etořkořtasuna, Sales'tař Pantzeska deunak diñonetz, maťasunaren alabea da, ta gixařtian gentzea ta alkař-maťasařia eratořteko bidia.

4.ª Jakin-gurea sаři ildurаtu biařa dozu: gebendutako idazti txařetan dagonik ez jakin gura-ixan, ez ta beste iñogazko esamesik, be.

5.ª Atara biařtuta egon-ezik, ezeikezuz bestien egipen eta itxak etsi gura ixan. Nagusijak, bai, euren menpekuak zer esan eta zer egiťen daben uařtu ta azteřtu biař dabe, ta euron egipenak etsi; naiz txařto-esana ta okeř-egiña zuzentzeko, naiz jazo baño lenagotik eragozteko. Menpekuai, bařiz, eztagokije bestien ebazle edo epale ixaterik; eta

txaŕto-esana edo oker-egiña argi ta garbi agiri dalarikan, be, geidia eŕukiz ebatzi biaŕ da. Olakuetan, geuk be txaŕik eta okeŕik asko egiten dogula gogoratu daigun, eta Jaungoikua'k lagundu-ezik geidia baño gaiztuaguak ixango gintzakezala uste -ixan

## 4. Gomutamen-ildurapenak

1.ª Gomuta gaiztuak burutik iradu jauŕti; eta entzun edo ikusi egin dan gauza txaŕik ez gogoratu, ez ta norberari egindako irañik, be.

2.ª Alpeŕiko gomutakixunai atiak gustiz itxi, gomutamena ta irudimena, otoyaldijan batez be, irudi-nasteboŕastez bete eztaditezantzat.

3.ª Gogaŕte ta otoi-aldijan, jaupa-entzutian eta a., ostantzeko oldozkun eta gomuteai, onak ixanaŕen, etxake lekurik utzi biaŕ.

4.ª Beti Urtzi Jaunagaz gomutetako alegiñak egin, orixe da-ta gomutamenaren jardunik onena ta onuragaŕijena.

## 5. Naimen-ildurapenak

Blois (Blosius) aguŕgaŕijak diñonetz, Goiko Jaunari eztaikio ukaldi ta opari oberik eskeñi, norbere naimena ukatubaz egindakua baño; eta luzaro ogi -urez barau-egin eta soña gogoŕkiro astindutia baño atsegiñago dau Jaunak bere aintza ta maŕasunaŕen norbere naya barik bestiena egitia. Ostera, baña, ilduratu-bako naimenak goguari erakaŕten dautsazan kaltiak zerenbestekuak diran Bernarta deunaren esakun onek dadirazo: *gaiztokirik be elegokela, norbere nairik ezpa'lego*. Oŕezkero, zeure naimena ilduratuten alegindu zadikez.

1.ª Egikixun orotzaz Jaungua'ren naya biŕakatu biaŕ dozu lenen, eta gero nai ori betatu.

2.ª Adimena ilduratuteko zeure burubagaz uste

-baga, uste osua Jaunagan ezařirik, bere laguntzea eskatu egiskiozu, laguntza ori lořtuzkero edozer dagikezula-ta.

3.ª Uřengo otoñuak edo euren antzekuak sařitxu esan: a) *Jaun ori: ¿zer nai dozu nik dagikeuan?* g) *Nire naya ukatu ta zeuria egiten irakastazu, Jaun ořek.* k) *Zeure naya egin bedi donokijan lez ludijon be.* y) *Eztot besterik nai, zeuk, Jaungo ořek, nai dozuna baño.* j) *Jauna, nigaz nai dozuna egikezu...*

4.ª Naizko gauzaetan, norbere olde-arauz egin ala egin ez, batera ala bestera egin daikezan gauzetan, Goiko Jaunařen zeure buruba bestiai lotuteko, zeure naya-barik iñorena egin. Jardukera au, norbere buruba ukatu ta beste onoimenak ekiteko, on-ona da; eta ořetarako adijonak arduraz ustiatu edo erabili ba-dagixuz, Jaunari atsegin-ixan eta onbidez arin-be-arin auřeragotuko zara. Aunetan, otoizti ta ontzaliak diralako askok, be, uts-egin darue: nai daben gustija nai daben eraz eta eragozpen-baga egin al dabenian on-onak yatzuz; auřka-egiten ba-dautsezu, bařiz, gura dabena eragotzi egiten ba-dautsezu, su-ta-gař jagiko yatzuz, ta bekozko ilunaz ta, biařba, itz gařatzakaz euren bařuko aseřia erakutsiko dautzube. Ařasta edo suzotza baño sukořaguak dozuz ořeik; eta etxekuentzat, batez be, jasangatxak eta gogobete-eziñak: *txadonan otoizti, etxian liskařti.* ¡Gixaxuak!

5.ª Naimenari, gebendutako gauzeak ez ezik atsegin dozuzan beste asko, be, ukatu egizkiozuz, norbere buruba ukatutia orixe da-ta.

6.ª Gauza orotan Josu-Kisto eredutzat ařturik, lagunak ezetsi ta iraindu zagikiezala opa-ixan biař leukezu, ta aginbide dedugařijak itxuřita lanbide apalak obetsi. Urtzi'ren aintzeak edo gaidiaren onauřkijak biařetsi-ezik, ezeikezu egundo goragaři daiken zeure gauza edo egiñenik aipatu. Iñok akař

-ba'legitzu, eŕudun ixan ez-aŕen, zeure buruba agarbitu-barik, ixildu zadikez, ta Jaungua'ri opaldu dana; olakuetan, egizko beste zeure obenakatik ezeskaŕi zarala-ta, eŕudun etsi ixatiaz poztu zadikez, ta iñogandiko jaso edo onespenik ez opa-ixan.

7.ª Nagusijak aginduba ez ezik, euren nai ta gura utsak betetako, be, gerturik zagokez

8.ª Urtzi bakaŕik mate-mate ixan, eta beste ezerik ez, Jaunaŕen baño; ostantzeko zaletasun eta lera gustijak bijotzetik erauzi ta zusteŕkatu egikezuz. Gauzetatik buruba jaregitia, deuntasunera eltzeko biaŕezkua dozu-ta, gauzarik txikaŕenera, be, ezeikezu bijotza makuŕtu, gauzatxubok bete eztaiskezubentzat. Uskeriz beteriko bijotza ezta gauza Jaungoikua mate-mate ixateko; eta Jauna mate-mate-ezik eztago deuntasunera eltzerik. Euki edo erabili biaŕ dozun gustija edonoz uzteko gerturik zagokez, ta utzi be, onerako zoztoŕ yatzula uaŕtuzkero, bertatik uzkezu.

9.ª Neke, min, laido ta irañak eruatasunaz jasan biaŕ dira, Jaunaren gurea dala-ta. Oŕetan, deuntasunera igoteko lau mala dozuz:

*a)* Jasankoŕ ta eruatasunez aŕtutia, *in tribulatione patientes* (atsekabiak jasanik) Paul deunak diñona betatuz.

*g)* Jasankoŕ aŕtutiaz ganera, Jaunari eskaŕ-egitia, bere adizkide kutunentzako jaboten daun edontzitik edaten emon dautzula-ta.

*k)* Eruatasunez ta Jaunari eskaŕ-egiñik jasatiaz ganera, Beldubak lez poztu egitia; Beldubak, *Josu-ixena zala-ta ezesten ebezalako, pozaŕen urteten ziran epategijetatik.*

*y)* Eruatasunez, eskaŕ-egiñik eta pozaŕen jasatiaz ganera, Josu'gatik eta bere antzera ariago jasan nai ixatia: Josu'k, gurutzan oñazez ta atsekabez bete-beterik eguanaŕen, geyago jasateko egaŕi bixija eban-eta. Urtzi Jauna mate-mate dabenak, matasun andijagua ta neke-gura bixijagua

ixan darue; eta Paul deunak iñuan a esaten dabe: *¡Ut! ezertzaz ni ilaraintzerik, Josu-Kisto gure Jaunaren gurutzaz baño!*

Ona emen, kistaŕ maŕe ori, Josu-Kisto'ri jaŕaŕeko egin biaŕ dozuna; zeure buruba ukatu, gurutza bizkaŕian aŕtu, ta Josu'ri jaŕai ibiŕi. Bide au soñari latza ba yako, be, deuntasunerako beste biderik eztago-ta, bertara jo biaŕ dogu. ¡Aunitxek, baña, bide ori neketsuba dala-ta, itzi egin darue! ¡Au tamala! ¡Tabor mendira, bai, asko erduten yakoz Josu'ri; Koskategi'ra, baŕiz, gitxi-be-gitxi! Onaruan Jaungua'ri adizkide yakozan asko txaŕaldijan itxuri egiŕen yakoz. Ez ixan oŕeŕarikua, ta Jaunagandiko edozerbere ontzat aŕkezu. Onarua damoskezunian, bere ontasun utza dala-ta, eskaŕ-egin bijotz-bijotzaz; zoritxaŕakaz zeure eruapena azteŕtu nai ba -dagike, baŕiz, bere nai done ori onetsi egikezu ta loŕaldija zeure goguaren onerako ixango dozula ta Josu onak ariago jazan ebala gogoratu.

Onetara jardunezkero, betiko atsedena jadetsiko dozu, baiki. ¡Nik orixe opa!

## Eruatasuna

Kistaŕ maŕe ori: bixi zaran luŕbira au eŕbestia ta negaŕ-eŕija dozu-ta, eruatasuna biaŕ-biaŕa yatzu, soñarentzako jakija baxen biaŕa. ¿Eruapentsuba ixatia loŕtu gura ete-dozu? Uŕengo aulkubok betatu ba-dagixuz, loŕtuko dozu:

1.ª Asaŕe ba-zara, ixiŕik egon. Asaŕe-sumiñak erazota eztozu ezer egin biaŕ, ez tautik esan; ostantzian ondore negaŕgaŕijak eratoŕi leiskezuz zeure asaŕiak, eta alpeŕik garbaŕuko zintzakez.

2.ª Lelengo oben laŕija jaukiŕakuan il ba-zintzazan, orain sulexatan zengokezala gogoratu, ta oñaze goŕiŕan egon be. Sulexako oñaziak ala luŕbirakuak aukeratuteko eskuba ixatekotan, ¿ez-ete -leukezuz emenguok aukeratuko? Oŕa, ba: emen-

guok Goiko Jaunak anguen ordez damotzuzala egixu.

3.ª Donokijaz gomutau zadikez, ta orain eruapentsu jasandako neke-ordez goyan aintza betia jadetsiko dozula gogoratu. Biztaldi aunetako neke-miñak, ordez-ordian Urtzi Jaunak emongo dautzun aintza-sarijaz ezelan be eztaikez bardindu. Gergori deunak dirauskunetz, baña, goiko sari aundijetara ezin daike iñor eldu neke aundijen bidez baño; nekiok, bariz, goi-eskaraz ta jasatasunez eruan biar, ostantzian donokirako alperik dira-ta.

4.ª Orain eruapentsu ta eskardun jasan-ezik eztaike iñortxu, be, aintzaz burestundu. Donokiko deunak palmadarakaz ikusi euzan Jon deunak, eta palmadara garaikunde-ikura da. Garaikunde ori batzuk Goiko Jaunaren bixija emonik eskuratu eben; bestiak, bariz, biztaldiko nekiak jasatasunez eruanik. Begira Josu'k eta Miren'ek, eta erubako besten beredin deunek, oldez jasan ebena: irain baltz, jazarpen, mengo, oparin, eta gustitariko neke-oñaze latzak Eta zuk, zeure obenakatik aspaldijon gaiztokiko sutan egon biar zintzakezan orek, ¿ez-ete-dozu jasan gura?...

5.ª Esandakuaz naiko ezpa-dozu, zatoz neurekin Koskategi'ra... Josu'ren eskar-eskumaldetako gixonok, ikusten dozuz? Lapurak dira-bijok: oñaze bardiñetan dagoz bijok; gurutzalduta dakuskuz bijok ¡Amaikerea, bariz, bardiñezena dabe! Eskumaldekua gurutzetik betiko atsegiñetara dua; ¡eskeraldekua, gaiztokira, betiko sutara amildu da! ¿Zegatik-ete? Ara: lenenguak jasatasunez artu ta eruan dauz gurutzeko oñaziak, eta oñaziok sarigari ixan yakaz: bigarenak, ordian, ustegekeriz ta jasatazunezaz dana galdu dau... Erbestion gurutz bana eruan biara dabe gixakume gustijak: norbere obenakatik aztunagua, be, zor-daula-ta, eruapentsu ta apal-apal daruakena, lapurona letz donokira jungo da; ustegekeriz ta birauka daruakena, bariz,

lapuŕ gaiztua letz sulexara jausiko da, ta betiko jausi be.

6.ª Eruatasun edo jasatasun ori jadesteko, Josu'ri ta Miren deunari apal-apal eskatu biaŕ dautsezu. Goxian-goxian eskatu, *Geure Āta* ta iru *Aguŕ Miren* esanaz. Neke-loŕaldijetan, baŕiz, onetara dei-egin leiskiezu: *Ene Josu, lagundu nagixu; Miren Neskutz oŕek, uŕgazi egistazu: dana Goiko Jaunaŕen eta neure oben-ordez beike.* Ogeratu -orduko zeure buruba azteŕtu egikezu, egunez zenbat eruapen-uts jauki dozuzan jakiteko; eta beste ainbeste bideŕ *Aguŕ Miren* esakezu.



# JOSEBA DEUNA

Josu-Miren'etaz beste, Joseba deuna biaŕ dogu ixan deunik maꞅiena, ta gure opariñetan beregana ustetsuben jo. Urtzi Jaunagaz ta Miren Neskutza'gaz Joseba deuna dogu, ixan be, biꞅaŕtekorik onena. Josu'ren Amea, Miren Neskutz Garbija, Joseba'ren emastia ixan zan. Ořezkero, Miren'en Senaŕtzat aukeratu eban Goiko Jaunak, ¿zerenbesteko eskařez apaindu ete-eban? Urtzi-Ama deunari

egokijon lako senaŕa ixateko, Joseba'ren gogua onoimen gustijakaz beren-beregi edeŕeztuta egon biaŕ. Egon be, alantxerik eguan: ¡aren apaltasun sakona, aren garbiťasun aratza, aren maťasun gorija!...

Joseba deunak Miren Neskutza, emastia ebanetz, lagundu, zaindu ta jabon egiťen eban. Etzan, baña, ori ixan Joseba'ren egikixun bakaŕa. Miren Neskutza'ren sabel garbijan Urtzi-Semia gixatu zalarik, jazokun guren ori, Joseba bide, txeŕenari ezkutau ixan yakan; Josu'k, baŕiz, jayo zanezkero, Joseba deuna aťatzat ixan eban. Joseba zindua Sendi deuneko buru zan, ixan be, Ama-Semiak bere menpian egozan; eta berak arduratsu jabon eta alikatuten euzan.

Ludijon men-egiťen eutsoenak, ¿donokijan ez-ete -dabez Joseba'ren eskarijak entzun eta ontzat aŕtuko? ¡Bai, beintzat! Eta kistaŕ orok Joseba'gana joteko gura dau Jaungoikuak: antxiña Egito'ko Paronak letz dirausku: *Ite ad Joseph*, erdu Joseba' gana.

Ixan be, aundija da Joseba deunaren biťaŕtekotasuna: ori jazokunak saŕi-be-saŕi egiztetan dabe, ta Doibatzeko Irakaslerik urtenenak argi-ta-garbi irakatsi dabe, batez de Toma d., Bernardin d., Sales'taŕ Pantzeska d., eta abaŕek. Terese deunak, baŕiz, bere buru-bixizpaŕeko seigaŕen atalan auxe diño:

«Neure buruba ain gaste ta, luŕeko sendatzaľiak gora-bera, ain makal ikusirik, goikuakana jotia erabaki eudan... Biťaŕteko ta Jaubetzat Joseba deuna aŕtu eudan, bai?, ta askotan otoi-egiťen eutsadan; ene Aťa ta Jaube onek oparin aunetik, baťa beste andijaguetatik be, ixen ona ta gogua bera galtzeko zorijetatik-eta, nik eskatu leikedan baño obeto atera nindubala argi-ta-garbi nabaťu dot. Jaungoikuak beste Deunai oparin ezeinbaten uŕgazteko eskuba emon dautse edo; Deun aintza-

gaři onek, bařiz, danetan uŕgazten daula uařikasi dot; ludijon, Goiko Jaunaren uřordia ixanik ařa -ixenez agintzeko eskubidia ebalako, men-egiřen eutson letz, donokijan be eskatuten dautsan gustija egiřen daula adirazo gura dausku Jaunak. Berauxe uařtu dabe beroni otoi-egiřeko esan eutsedan beste lagun batzuk, be... Deun au egiz maře ta beroni beren-beregi adiguri-egiñezkero onagotu eztanik eztot ezagun... Idazteko eskuduna ba'nintz ixan, pozařen eta luze idatziko leuket, Deun aintzagaři onek neuri ta beste lagunai egindako ontařtiak ziaro atzaltzen... Norbařek ziñetsi nai ezpa-daist, ařen, Eŕkaba aintzagaři onengana jo dagikela, besterik eztiñotsat; eta beraxek uařikasiko dau Deun au otoiztu ta mařetia dan onuragařija...»

Kistař irakuŕie o.i: onezkero, Joseba deunaren mařale zintzua ixan gura zara, ¿ezta? Ořa, ba; mařasun ori onetara, batez be, erakutsi biař dautsozu: otoi beroz beregana jo, ta autoŕkintza zindoz zeure gogua garbiřubaz; adiguri batzuk eskeñi, ta bere onoimenak antzařtubaz, ta a. Ixan be, Joseba deuna gustiřariko gixakumien eredu bikaña dogu: ezkongayak Joseba deunaren garbiřasuna antzařtu biař dabe, ta ezkontziaz apara-egiřen beregandik ikasi; ezkondubak ezkontidiagaz nolan bixi ta seme-alabeakaz zelako ardurea ařtu ikasi biař dabe; jauparijak, bařiz, gure Jauna nolan erabiři, ta beste kistař gustijak nolan ařtu biař daben ikasi legikie. Danok Joseba deunaren onoimenak antzařtu biař doguz, batez be bere lantzaletasuna, eruapena ta Miren Deunarekiko mařasuna; eta azkenik, Joseba deunagana jo biař dogu danok, biztaldi aunetan eta erijotzaldijan, batez be, jabon gaikezantzat.

Eta Deun onen biřařtekotasuna jadesteko biderik onenetarikua bere saspi atsekabe-atsegiñak gogařtzia danezkero, ondoren imiñi dot ořetarako era eřaza.

## JOSEBA DEUNAREN SASPI ATSEKABE-ATSEGIÑAK

*Gurutze deunaren...*
*Agur̃, Josu-Kisto...*

### Otoya

¡Joseba Deun, Er̃kaba aintzagar̃i ori! Josu-Miren'en irabazkijak eta zeure irabazki ta onoimenak bide, donoki-goi-goyan aintzaz beterik zagozala ziñesten dot, eta ustetsu nator̃kixu laguntza-eske. Lagundu nagixu, bai, neure buruba saspi oben nagusijetatik jabon eta euren aur̃ezko saspi onoimenakaz ta Goteunaren saspi emotxakaz eder̃eztuta Josu ta Miren mat̃e-mat̃e dagikedazantzat. Eta zeure bijotz berati or̃i ariago eragit̃iar̃en, Josu ta Miren zeure emaste deunarekin nabat̃utako saspi atsekabe ta saspi atsegin nagusijak aipatu ta gogorazoko dautzudaz, zeure saspi atsekabe-atsegiñakaz gomuturik neutzaz er̃ukit̃u, ta nik deskatzudana ta Goiko Jauna mat̃iago ixan eta neure gogua gaizkatzeko biar̃ dodala dakixun gustija emon dagiskedazuntzat. Olantxe.

**Lenengo atsekabe-atsegiñak.** ¡Joseba deun, Miren Neskutzaren Senaŕ Gizkaŕbi ori! Miren deunagandik alde-egiteko ezpai zengozala, zeure bijotza estu ta laŕi ixan zan; Gotzonak Urtzi-Semiaren Gixakundia iragaŕi eutzunian, baŕiz, atsegin betiaz poztu zintzazan.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, emoskeguzuz, aŕen, zeu letz Josu ta Miren'ekin bixi ixateko eskaŕa, erijo-esturaldijetarako zeure laguntza pozkaŕija, ta azkenik erijotz on ona. *Geure Aŕa, Aguŕ Miren, Aintza.*

**Bigaŕen atsekabe-atsegiñak.** ¡Joseba zoruntsu, Jaungo-gixonaren aŕatzat autetsi ori! Josu'ren jayokunderako toki erosorik ez idorotiak atsekabez bete zinduzan; Auŕ jayopaŕija gotzonak iragaŕi ta artzañak jauretsi egin ebela ikustiaz, baŕiz, zure atsekabia atsegin biguŕtu zan.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, lagundu gaikezuz, aŕen, ludijon zeu ibili zintzazan bidez ibiliŕa gero, donokijan gotzonen abesti pozkoŕak entzunik Urtzi Jauna goresten diñardukeguntzat. *Geure Aŕa, Aguŕ Miren, Aintza.*

**Irugaŕen atsekabe-atsegiñak.** ¡Joseba deun, Goiko Jaunaren Lagija ziaro betatu euzun ori! Urtzi-luŕak Bilebaikundian ixuriŕako odola ikusijaz zure bijotza atsekabe

gořijak erdiratu eban; Auřari, baña, Josu eretxijaz atsegiñez bete zintzazan.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, goi-eskařa jadetsi eiskuzu, ařen, orain geure bijotzetik ekandu txař oro mozturik, Josu ixen edeřa oguzten ilťeko zoruna lořtu daikeguntzat. *Geure Ata, Aguř Miren, Aintza.*

**Laugařen atsekabe-atsegiñak.** ¡Joseba kirmen, Erosliaren Atorde ori! Simon agureak Josu-Miren'en neke-min lařijak iragařtian, aundija ixan zan zure atsekabia; atsekage ori, baña, atsegin biguřtu yatzun, Josu -Miren'en neke miñak bide, gogo aunitzek jareingo zirala jakitian.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, iguzu, ařen, Erosliaren eta bere Ama deunaren irabazijak jareindako ilpiztuben ařtian, zenbatu gaikezala, donokijan Urtzi Jauna betiraun osuan goretsi daikeguntzat. *Geure Ata, Aguř Miren, Aintza.*

**Boskařen atsekake-atsegiñak.** ¡Joseba zintzo, Urtzi-Semiaren jabole arduratsu ori! Erode'gandik igesi, Josu ta Miren Aigito'ra eruan biařa atsekabe-bidia ixan yatzun; Josu Auřa Erode'ren eskutatik jaregitia, bařiz, atsegin-bide.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, lagundu gagixuz, ařen, txeřenaren ziltzetatik igesi ta oben-zorijetatik aldendurik, geure goguak

betiko jaregiťia jadetsi daikeguntzat. *Geure Aťa, Aguŕ Miren, Aintza.*

**Seigaŕen ätsekabe - atsegiñak.** ¡Joseba guren, Sendi deuneko Buru ori! Judeŕi'ra etoŕterakuan, Erode'ren seme gaiztua agintari zala jakiťiak atsekabez bete zinduzan; gotzonak esanda, baña, Nazaret'era jun eta antxe gentzatsu bixi al ixanaz atsegin-atsegiña nabaťu euzun.

Atsekabe-atsegiñok dirala bide, aŕtega ta bilduŕ kaltegaŕijetatik jarein gagixuz, aŕen, biztaldijon gogo-geŕtzaz ta Josu-Miren'en aizkidet asunian bixirik, goyan eurokin beti bixi-ixatia eskuratu daikeguntzat. *Geure Aťa, Aguŕ Miren, Aintza.*

**Saspigaŕen atsekabe-atsegiñak.** ¡Joseba guren, deuntasun-eredu bikain ori! Eŕu-barik Josu Auŕa galtzian, ezin-esan-alakua ixan zan zure bijotzeko atsekabe samiña; iru egun buru, txadonan, jakiťun-aŕtian idororik, baŕiz, neuŕi-bako atsegin-pozoŕez poztu zintzazan.

Atsekage-atsegiñok dirala bide, Josu oben laŕijaz egundo galdu eztaikegula inguzu ta zoritxaŕez iñoz galdu ba-daikegu, len-bai-len gaŕbai zintzoz idoro daikegula; beti Jaunaren aizkidetasunian bixi ixanda, donokijan zeu ta Miren deunarekin betiraun osuan goretsi ta aintzaldu daikeguntzat. *Geure Aťa, Aguŕ Miren, Aintza.*

*Eslena.* Josu bera, azaltzen asi zanian, ogetamaŕ urte-irikua zan, Joseba'ren semia uste zan letz.

*I.* Geure aldez otoi-egin, Joseba deun oŕek.

*E.* Josu-Kisto'k abinđuba jađetsi đaikegun.

**Otoya**

¡Joseba deuna arđuratasun guŕgaŕijaz zeure Amearen senaŕtzat autetsi euzun Urtzi Jabe ori! Ludijon geure zaindaritzat guŕtetan dogunezkero, goyan zeugazko Bitaŕtekua daikegula inguzu, aŕen, amaibako egunetan bixi ta bakal-zaran oŕek. Olantxe.

*Nekazkeak.* Egunian bein 100 eguneko nekazkea; egubaztenetan, baŕiz, 300 egunekua, bata Joseba deunaren jai bijetarako gerkun-bederatzuŕenetako egun bakotxian, be; ilabetian egunero esanezkero, *nekazka osua* norberak aukeratutako egun baten, autoŕtu, ta a., eginda; bata, baŕdin, igande bakotxian, be, saspi igande jaŕayetan egiñik.

## JOSEBA DEUNARI

## AŔENTZA

Jaunoi, *eŕukītu.*
Kisto, *eŕukītu.*
Jaunoi, *eŕukītu.*
Kisto, *adiguzu.*
Kisto, *entzuskuzu.*
Urtzi Aīa-goiko, *eŕuki-zakiguz.*
Urtzi-Seme, gixadijaren Erosle, *eŕuki-zakiguz.*
Urtzi-Goteun, *eŕuki-zakiguz.*
Urtzi bakaŕ Irukoitz deun, *eŕuki-zakiguz.*
Miren deuna, *aŕen gure aldez.*
Joseba deuna, *aŕen gure aldez.*
Dabi'ren ondore urena, *aŕen...*
Eŕkabaen argija, *aŕen...*
Jaungo-Amearen Senaŕa, *aŕen* .
Neskutzaren Jabole garbija, *aŕen...*
Urtzi-Semiaren Aīordia, *aŕen.* .
Kisto'ren Zaintzaīe arduratsuba, *aŕen...*
Sendi Deuneko Buruba, *aŕen...*
Joseba, gustiz zuzena, *aŕen...*
Joseba, gustiz garbija, *aŕen...*
Joseba, gustiz zuŕa, *aŕen* ..
Joseba, gustiz azkaŕa, *aŕen...*
Joseba, gustiz esanekua, *aŕen...*
Joseba, gustiz kirmena, *aŕen...*
Eruatasun-antzikuŕa, *aŕen...*
Ezeuki-zalia, *aŕen..*
Langiīien ereduba, *aŕen...*
Etxeko bizkeraren edeŕgaīuba, *aŕen...*
Gizkarbi-neskutzen zaindarija, *aŕen...*
Sendijen oñaŕija, *aŕen...*
Eŕukaŕijen poza, *aŕen...*
Gexuen itxaropidia, *aŕen...*
Iīuŕenen zaindarija, *aŕen...*

Txeŕenen ikarabidia, *aŕen...*
Doibatzaren Zaindarija, *aŕen...*
Ludiko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *azketsi geuri, Jauna.*
Ludiko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *entzun geuri, Jauna.*
Ludiko obenak kentzen dozuzan Jaungo-Bildots: *eŕuki-zakiguz.*

*I.* Bere etxeko jaun egin eban.
*E.* Eta bere ogasun gustijen arduradun.

### Otoya

Joseba đeuna Arduratasun guŕgaŕijaz zeure Amearen senaŕtzat autetsi euzun Urtzi Jabe ori! Luđijon geure Zaindaritzat guŕtetan dogunezkero, goyan zeugazko Biŕaŕtekua đaikegula inguzu, aŕen, amaibako egunetan bixi ta bakal-zaran oŕek. Olantxe.

*(300 eguneko nekazkea egunian bein).*



# IÑAKI DEUNARI (1)

## ESKARIJA

*(Txabieŕ taŕ Pantzeska deunak bixi zalarik egin eutsana).*

Neure gogoko Aba gustiz guŕgaŕijori: belaunak luŕian josiťa nagola, auŕez-auŕe bai'zenkustaz lez, apal-apal eskarijau dagi-

(1) «Argi Donea» tik aŕtuta.

tzut: neure aldez Goiko Jaunari etenbarik afen-dagiskiozula, bere gura donia argi ezagun eta bete-betian egin daikedantzat.

*I.* Geure aldez otoi-egin, Iñaki Aba deun oŕek.
*E.* Zeure seme on eta mat̄aliak gadit̄ezantzat.

### Otoya

Zeure ixenaren aintza gurena zabaltzeko, Iñaki deunaren bidez Doibatz gudalarijari indaŕ baŕija emon eutsazun Goiko Jaun ori: bere laguntzaz ta ereduz ludijon guda-eginda, donokijan berekin sariztu gadit̄ezala egixu; amaibako egunetan zeu ta Goteunarekin batez bakaldun bixi dan zeure Seme Josu-Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

¡Euzkotaŕ urena ta gure At̄ea zaran Iñaki!

¡Euzkadi'ren aldez eta gure aldez otoi Jaunari!

*Egunian-egunian eskatu biaŕ dautsazu Iñaki deunari Abeŕi-aldez, euzkotaŕen goguetan ziñesmen-onoimenak get̄u dagikezantzat. Bixi zalarik bere jayoteŕijau aintzat ebala argi-ta-garbi derakusku 1541'g. urtian Roma'tik idatzi eban onek:* Ezeudan nik ezelan be irabazi, ta eztautsat iñoz Jaunari biaŕ bezela ordainduko, eŕi oŕetan jayotziaz agertu eustan mat̄asuna.



# TXABIEŔ'TAŔ PANTZESKA

## DEUNARI

## BEDERATZUŔEN ESKAŔTSUBA

*Ona, Pantzeska deunak Josu'ren Lagundiko Mastrili abeari abindu eutsana: «Epalaren 4'gtik 12'gra. bederatzuŕen au legikienai euren eskakixuna jadetsiko dautsiela». Beste edozein urte-arotan, be, egin daike, baña.*

### Otoya

¡Txabieŕ Deun mařagaři ta mařale zintzo ori! Zeurekin batera, Urtzi Jabe Jauna auzpez guŕtzen dot; eta bixi zintzazala emon eutzuzan eskaŕ bedegaŕak eta orain donokijan dozuzan aintza-atsegiñak dirala-ta, pozaren pozez ta bijotz-bijotzez eskaŕ-dagitsat; neuretzako, bařiz, zeure biřaŕtez, ondo bixi ta ondo ilřeko laguntzea deskatzut, bara bederatzuŕen onetaz jadetsi gura dodana, be *(emen zer dan aipatu)*...; deskatzudanau, baña, Goiko Jaunaren aintzarako ta neure goguaren onerako ezpa'litxake, bijotarako onena daikena gura dot jadetsi. Olantxe. *Iru bideŕ* Geure Ała, Aguŕ Miren, Aintza.

*(Otoyau ezin ba da esan, bost* Geure Ała, Aguŕ Miren *eta* Aintza *esatia nuiko da.*

**Nekazkeak.** 300 eguneko nekazkea bederatzuŕeneko egun bakotxan, eta nekazka osua azkenerako, autoŕtu, jaunaŕtu, ta Doipuru-asmoz otoi-eginda.




# PADUA'KO ANDONI

## DEUNARI

Kistaŕ zintzuak Andoni deuna maŧe-maŧe ixan dabe beti, ta ustetsu beregana jo. Bizkaŧaŕok, baŕiz, Urkiola'n batez be, maŧero guŕtu ta aundikiro ospatuten dogu. Maŧa-

gaŕija ta guŕgaŕija da, gero: deunik aundijenetarikua ixan be, ta Urtzi Jaunak beste gitxiri lako ontaŕte ta eskaŕ bedegaŕak egin eutsozana. Gelgaŕijak dira bere onoimenak: apaltasun sakon-sakona, gotzonena lako garbiťasun aratza, Josu Auŕari eutsan maťasun samuŕa, Oteunazko ziñesmen bixi-bixija, lagunak onbidera ekaŕteko ataza arduratsuba, ziñausliai ziñestarazoteko kemen auskatxa, ta lagun gustijekiko maťasaŕe gaŕtsuba... Maťasaŕe onek eraginda edozenbat neke ta lan aŕtu euzan, eta beredin alatz aŕigaŕi egin; alatzok, baŕiz, iľezkero be, etenbarik diñardu egiťen donokiťik. Bai beintzat: azkenengo saspi eungijotan Andoni deuna, ustetsu beregana jo dabenentzat, uŕgazle ta pozkiľe altsuba ixan da; eztaikez zenbatu bere biťaŕtekotasunaz aŕigaŕiro idorotako gauza galdubak, ez ta bere maťaliak gogo-soñetarako, biztaldi ta betiraunerako, jadetsi ixan dabezan eskaŕ ta ontaŕte aundijak.

Zuk, deun oni atsegin ixatiaŕen, bere onoimenak antzaŕtu eikezuz, ta ganera egunian-egunian iru *Geure Aťa*, *Aguŕ Miren* eta *Aintza* esan, Irukoitz Deunari, Andoni'ren gogua goi-eskaŕ ta emotxez bete ebala -ta, eskaŕ-egiťeko; eta Miren Neskutza'ri Josu Auŕari ta Oteuneko gure Jaunari ixan eutsen maťasun bixija ospatuteko.

**Andoni deunaren Erantzukarija**

¿Alatzak nai dozuz? Ara:
gexua da sendatu,
erijo ankeŕa igesi,
goteungia azpiratu.

*Itxaso zabalak bare,*
*gotilunak alaitsu,*
*giltzape ziranak azke,*
*ziñausliak ziñestun.*

Galbide orotik iges
nora jo bai-dakigu:
Padua'n uŕgazle ona
danontzako bai'dogu.

*Itxaso zabalak bare,*
*gotilunak alaitsu,*
*giltzape ziranak azke,*
*ziñausliak ziñestun.*

Aintza Aŧeari,
aintza Semiari,
aintza Goteunari.

*Itxaso zabalak bare,*
*gotilunak alaitsu,*
*giltzape ziranak azke,*
*ziñausliak ziñestun*

*I.* Gure aldez otoi-egin, Andoni deun oŕek.
*E.* Josu-Kisto'k abindūba jadetsi daikegun.

**Otoya**

Jaun ori: zure Doibatza Andoni deunaren biŧaŕteko otoyak poztu beike, goi-laguntzak

beti jabonda amaibako pozoŕetara eldu dadiŕentzat. Josu-Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

*(Bakotxian 100 eguneko nekazkea, ta osua iľian bein, autoŕtu, ta a., egindа).*

Uaŕtu: *Amairu astaŕtiak* deretxan eraskuna egiŕia ta *Andoni deunaren Ogiŕarako* ukaŕa emotia, be, deun oni atsegin, eta zeure goguari on egiŕeko bide egokijak dozuz.

# SULEXAKO AYENE LAŔIJAK

EDO

GAIZTOKIKUEN AI-OTSAK

ETA

EUREN ZORITXAŔETIK IGES-EGITEKO BIDIAK

## Senakeriba birautijaren ai-otsak

¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!... ¡Nire zori-baltza! Bixi nintzala, birau-ta-birau jarđun eudan, orain euk, gixon ƀirauti ořek, egiten đokan letz: guzuřez zin -egiten eudan; nire abotik edozenbat itz gaizto urtetan ziran... Erijo-ayotzak, baña, ¡ai!, luř-azaletik ebagi ninđuban, eta ebazle zuzenak zořozkiro ebatzi; ařezkero, su bixi aunetan nago... ¡Ai-ene!... Eu oin azana ixan nintzan; neu oin nazana ixango az, nire zori-baltza ikusita zintzotu ezpa-adite. ¿Orain birauka jařatu, ta gero neure ondora, su bixi aunetara, etoři gura az? ¡Eure zoritxařa!... ¡Au subaren inđařa! ¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!...

### *Birautijentzako osagařijak*

1.ª Goxian, oetik jagitian, biraurik ez egiteko erabaki sendua ařtu, ta erabakijok ziaro betetako goi-laguntza eskatu, Miren Neskutzari iru *Aguř Miren* esanaz.

2.ª Aseře ta sumiñaldijetan tautik ez esan, ixilđu baño; olako unietan itz gaiztuak eřez ta euřez esaten dira-ta. Zeure kolkorako, ordian, onan-edo esan: *Lagundu nagixu, Miren deun ořek; Jaunol, erdu niri uřgazten: ¡egundo bez obenik!*

3.ª Igaŕi-baga-samaŕ birau-egin ba-daikezu, Jaunari beriala azkespena eskatu ta *Aguŕ Miren* bat esan; eta ganera, bakaŕik egotekotan, luŕari mun-egiťia, be, ona litzakikezu

4.ª Txaŕto itz egin daruenetatik alde-egin, eta biraurik entzunezkero *Gora Jaungoikua,* edo ta *Aguŕ Miren Garbija,* esan, eta biraulari-aldez aŕen-egin.

## Kain suminkoŕaren ai-otsak

¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!... ¡Au tokijaren ikaragaŕija! Iñartzi-amoŕubak eraginda anaya erail eudalako nago emengo gaŕetan murgilduta. ¡Bijotza amoŕuz beterik dokan bekaizti ori! eure lagunatzaz txaŕto esaten diñardukan ori! gaŕbaťu adi, ta lagunagaz len-bai-len onezkuak egikezak; lagunak maťe-egixak, baťa arerijuak, be. Ostantzian, onaxe etoŕiko az, ¡ai!, gaŕ-zulo aunetan lagun ixango aut, eta eure oñaziak niriok geťu baño eztaustez egingo... ¡Au zori baltza! ¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!...

## *Amoŕu-goŕotuekiko osagaŕijak*

1.ª Geidia zeure buruba letz maťe-eikezu.

2.ª Zeuk Jaunari egindako irañak, lagunak zeuri egindakuak baño amaika bideŕ laŕijaguak dirala gogoratu; eta zeuk lagunenak azketsi ezik, Jaunak be zeuriak eztautzuzala azketsiko ez aztu. Zure laguna azkespen-gai edo duin ezpa'litz, be, Jaungoikua bai-da, ta azkesteko agintzen dautzu.

3.ª Lagunak zeuri egindako irañaz len-bai-len aztu zadikez; eta aretzazko oroipen edo gomutea baŕiro datoŕkikezunian, beriala auŕtikezu, txingaŕ bixija bai'litxan.

4.ª Kistaŕa, edo Kisto'ren ikaslia, zarala gogoratu egixu, ta ikasliak irakaslia antzaŕtu biaŕ

daula. Josu-Kisto laido ta irañez bete, astindu, arantzaz burestundau, ta soñeko gustijak kendurik, gurutzaldu egin eben. Berak, bafiz, gurutzetik arerijo ankeŕai azketsi ta euren aldez Āta Goikuari aŕen-egin eutsan. Azketsi zeuk, be, zeure arerijuai, ta euren aldez otoi egin; aguŕik ez ukatu eurei, ta al ixanezkero, opariñetan uŕgazi.

5.ª Egunero *Geure Āta goikua*-ta esan laidoztu edo iraindu zabezanen aldez.

## Jatun aragikoyaren ai-otsak

¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!... ¡Anbijolako nire atseginkerijen ondore negaŕgaŕija! ¡Gaŕbai ta oben-neketarako astirik emon ba'leust emon Goikuak!.. Euk, baŕiz, nire bixikerea antzaŕtu dokan oŕek, bai-dok oŕetarako astirik. Ezeikek alpeŕik galdu: ardandegi ta antzoki txaŕetatik alde-egik; sutara jauŕtiki arako idantzezki, ingi ta idazti zikin aek; osotu soñeko labuŕ-motz oŕeik; oinketa edo dantza nastau ta kirol galgaŕijetan ez jardun; lagun gaiztuakandik iges-eikek, eta gabaz eure etxian egon; ez eure burubagaz ez beste iñogaz, lixunkeririk ez jauki, ez ta olako gauzetzaz abestu edo itz-egin be. Ostantzian, ¡eure betiko zoritxaŕa!, onaxe, neure ondora, etoŕiko az-ta... ¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!...

## *Lixunkeri-kaltezko osagaŕijak*

1.ª Garbitasunaren Amea dan Miren Neskutzari iru *Aguŕ Miren* esaskiozuz goiz-gabetan, gogo-garbi irauten lagundu zagikezantzat.

2.ª Oldozkun garbijezik bururatu-orduko, berialaxe jauŕtiki, ta Miren deunari dei-egin, *Miren Neskutzoi, lagun-zatozkiz*, esanaz.

3.ª Lagun eta toki txaŕetatik iges-eikezu; idazti ta ingi zikiñik ikutu bez; obenbide litxakikezun mar-

gozkirik edo beste gauzarik ez begiŕu; eta, batez be, egiŕezko lixunkeririk ez jauki iñoz.

4.ª Gogo-garbi irauteko soña ilduratu biaŕa dozu: neuŕiz jatedan, ba, ta mizkeri oro ukatu zeure soñari; janzki eratsubak baño ez erabiŕi; itz zikiñik ez oguzi egundo, ez ta bestiak esandakorik gogoz entzun be; eta begijak arduraz jabon.

5.ª Goiko Jaunagaz gomuta zadiz beti: etenbarik begira bai'dagokixu, ta oben egin-ala bertantxe il eta betiko sutzaŕetara amildu zengikez, Onan gaiztuagaz egin eban letz.

6.ª Autoŕtu ta jaunaŕtzen saŕi-saŕi erdu.

## Lapuŕ gaiztuaren ai-otsak

¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!... ¡Nire eukijeza! nire oparin laŕija! .. ¡Zoltxaŕ euri be, kistaŕ eskuloi, iñoren-gauza-zale azan oŕi! Sulexa aunetako oparin laŕijetara etoŕiko az, zuzen-zuzen etoŕi be, ekandu gaizto ori laga ezpa'daikek. Ez uste, baña, iñori indaŕez ostu dautsaenak bakaŕik ona datozenik; baŕa beste asko ta asko be: salerosketan iruzuŕ-egiŕen dabenak, irabazgoi edo mozkin-laŕegija kentzen dabenak, zoŕak adijonez ordaintzen eztabezanak, bidegabero auziŕara jorik-eta geidiari kalte-egiŕen dautsaenak, eta a. Olako gustijok, gaŕbaŕu ta kalte-zoŕak ordaindu ezpa'daikiez, ementxe betiko lagun ixango dodaz, ixan be. ¡Au zori -gogoŕa! ¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!...

### *Lapuŕentzako osagaŕijak*

1.ª Zeure burubari jazoterik gurako eleukezuna. geidiai jazoterik ez gura ixan. Iñok zeure gauzarik kendu ala kendu gura ixaterik eztozu nai ¿ezta? Zeuk, be, iñori bere gauzarik ez kendu edo kendu gura ixan, ba.

2.ª Ikusi dakusaz Goiko Jaunak zure eskubok,

bara zeure bijotz-baruba, be; eta esku-loi ta bijotz -garbijezak betiko sutara amilduko dauz. ¡Ez aztu!

3.ª Iñorena ebasten daunak beria, be, galdu darua, okerbidez eskuratutia zuzenbidez eskuratu dana ondatuteko bide arteza da-ta. Eta erijotzaldijan, beintzat, dana utzi biarko dau, ta betiko zigora eskuratu. Eta lurbira osua irabazijaz, ¿zein onura leukake gixaumiak, bere gogua txerenak eruango ba-dautsa?

4.ª Ukar-egikezu, ezeukijai urgazi egiskiezu, iñorena ebastia norberia ondatuteko bide arteza dan letz, norberia txiruai emotia ogasun-iturija da-ta.

5.ª Al daikezun bestian, egunoro zerbaist ukar -egikezu, ba; eta Jaungoikuaren egin be, ez antustez ta ixen ona-bila. On-egitiaz etzaditez arotu, lotsa ixan bez, baña; ukara eztozu iñok ikusi ixatiaren egin biar, iñok ikusiko zauzala-ta egin-barik utzi bez.

## Juda donaustunaren ai-otsak

¡Ai-ene! ai-ene! ai-ene!... ¡Nire gaiztakeri baltza! nire zoritxara! Nire Irakasle Jauna saldubaz jaukitako donauste ikaragarijak sulexako basterik ilunen aunetara ekari ninduban. Txarto autortu edo jaunartubaz donauste-obena jauki dokan kistar ori: ona emen, euretzako gerturik dagon lekuba, be. Benetan garbatu, ta obenok autortu ezpa-dagixak, ementxe ixango aut betiko lagun, ementxe ereko az su bixi aunetan... ¡Au bai-dala oñaze betia! ¡Ai -ene! ai-ene! ai-ene!...

### *Txarto autortu ta jaunartu daunarentzako osagarijak*

1.ª Lotsarik andijena damotzun obena autortu lenen, eta txerena azpiratu egingo dozu.

2.ª Lotsearen lotseaz, obena esateko gauza ezpa-zara, lotsa-zarala esaskiazu autoŕ-entzuliari, ta berak uŕgaziko dautzu obena ageŕtuten. Lotsa zarala esateko, be, bildur̄ baldin ba-zara, beste jaupari bategana jo eikezu, ostantzian donauste ikaragaŕija jaukiko dozu-ta.

3.ª Askotan, autoŕkintza txaŕa egit̄ia ezta autoŕa bera egizkua ixan eztalako ixaten, erabaki zintzorik ezagat̄ik baño; eta erabaki-zintzueza arik eta geroko bixikereak erakusten dau. Zapijak oŕbantsu geratu diran zurigarbija—gobara edo lexibia—txaŕa ixan dala esaten dogun letz, autoŕkintza-ostian lengo oben berberak, birau, lixunkeri, ta a., eta eŕaztasun baŕdiñaz jaukit̄en dauzanaren autoŕkintzea, be, txaŕa ixan zala esan biaŕ. Autoŕ-entzuliari oben gustijak autoŕtia ezta naikua, zurigarbit̄an zapi zikin gustijak saŕtutia naikua eztan letz; oŕbanak kentzeko alegiñak egin biaŕ dira, ganera; eta autoŕkintzea ona ixateko, be, gogua oben aztun-barik lotu biaŕ da.

4.ª Lengo obenak baŕiro ez jaukit̄eko, obenbidietatik alde-egit̄ia biaŕ-biaŕa da-ta, zuk arduraz alde-egikezu, oŕetarako autoŕ-entzuliak esan dautzuna ziero beterik.

5.ª Jaunaŕtu baño len zeure baŕunbia azteŕtu egixu, oben aztun baŕirik dozunentz jakit̄eko; eta euki ba'leukakezu, autoŕtu-barik ez erdu mai donera. Jaunaŕtuta gero, baŕiz, astirik ixatekotan, eskaŕ-egit̄en lotu txadonan bertan, beriala urten barik.

## Gaiztokiko gustijen didaŕa

«Atsegin labuŕa; betiko oñazia».

¡Obendi itxubok! Ogasun gustijak eskuratu ta dedu aundijak jadetsi-aŕen; soñari eskatu ala atsegin emon eta etsayen kaltez apendu edo aspeŕtu ixan-aŕen; gogua betiko galdu ba-daikezube, ¿zein

onura daukakezube? ¡Ai! Oŕeik oŕko gauzok iraxekuak eta iradu amatu-biaŕak dira!... ¡Geroko oñaze latzak, baŕiz, amaibakuak ixango dozubez! ¿Nolan jasango dozubez? Zuben obenok orain gaŕbai zintzoz autoŕtu ezpa-dagixubez, geure aŕtera etoŕiko zarae, geure oñaziok getuten etoŕiko zarae. su bixi aunetara etoŕiko zarae, ta beti-betiko etoŕi, be! ¡Ai! obenetik itxuriteko abagunerik ba'lego egon guretzat!... ¡ezkintzakez baŕiro ona etoŕiko!

### *Betiko sutara ez jausteko osagaŕijak*

1.ª Goiz-gabetan Miren deunari *Aguŕ, Miren, Jaungoikua'ren Ama Neskutzoi*.. eta iru *Aguŕ Miren* esan (31'gn.); zeure Gotzon Jagoliari, baŕiz, *Geure Ata, Aguŕ Miren*, eta *Aintza*.

2.ª Saŕi gogoratu Goiko Jauna begira dagokixuna; eta, zuk oben egin-ala, il eta sulexara amildu zaikezala ez aztu, beste obendi askori egin dautsen lez.

3.ª *Oben-egik, gero autoŕtu egingo dok-eta*, esango dautzu txeŕenak. Ez ziñetsi olakorik, edo autoŕtuteko astirik ixan ez edo txaŕto autoŕtutia jazo daikikezu-ta. ¡Amaikatxuri jazo yake!

4.ª Ildurratu zeure gogo-almenak eta gorputza, gebendutako gauzetan ez ezik bestelakuetan be.

5.ª Astian bein baru-egikezu, edo oldezko-yatzun zerbaist utzi beintzat.

6.ª Egunero gogaŕte-alditxuba eukakezu, amabost iroiren edo miñutukua bederik.

7.ª Miren Neskutz deuna maŕe-maŕe ixan beti, ta saŕi dei-egiskiozu.

8.ª Ikuŕton deunak saŕi aŕtu.

9.ª Irakuŕkixun onak baño ez irakuŕi; eta galbide ta lagun gaiztuetatik igesi.

10.ª Goiko Jaunaren agindubak eta zeure biaŕkixunak ziero betatu eikezuz, ta amaibako egunetan zoruntsu ixango zara.

# NEKAZKEAK

## Zer diran eta zelan irabazi daikezan

Nekazkea, edo neke-azkapena, oben-neketik azke geratutia da; lenago azketsi edo parkatu yakun obenari dagokijan neketik, gero. Oben lařijari betiko neke lařija, sulexakua, dagokija; oben ariñari, bařiz, iraxeko neke amaibiařa dagokija, naiz biztaldijan naiz garbiīokijan jasatekua. Oben lařija maīe-gařbaiz edo autořkintza-bidez azketsi dalarik, oben ari egokijan betiko nekia aldirakotu egiīen da, ta ařezkero, sulexean-barik, edo lułbira aunetan edo garbiīokijan jasan biařa da, oben ariñari dagokijana letxe. Obenaz batera oben-nekia, be, osorik azketsi ixatia jazo daike; ořetarako, baña, gařbaya bixi-bixija ixan biař.

Iraxeko oben-nekia, aldirakua, biīara ordaindu daikegu; edo norbere egiīez edo beste iñoren bidez, naiz lułbirean naiz garbiīokijan. Oben-nekia norbere egiīez ordainduteko, gogua Jaungoikua'ren eskař edo aizkidetasunian ixatia nai-ta-ezkua da, ta ganera ordaingai dan zerbaist egin biař da: otoya, ukařa, baruba, irain eta lořaldijak jasatasunez eruatia, ta a. Trento'ko Batzař doniak argi-ta-garbi dirausku: «Urtzi Jaun onaren esku-zabaltasuna aunđija da-ta, norbere oldezko ilđurapenakaz ta autoř-entzuliak ezařiīakuakaz bakařik barik, Jaunak berak biztaldijon bidaltzen dauskuzan zigořak jasatasunez eruanaz, be, Josu-Kisto'ren eskařa dala bide, Urtzi Aīeari oben-nekia ordaindu daiskiogu. ¡Au bai-dala Jaunak maīe gauzanaren ezaupide argija!» Orezkero, oben-nekia norbere egiīez askotara ordaindu daike: abozko ta gogo utsezko otoyaz; edolako ilđura ta nekarijakaz, naiz norbere guraz naiz lekoretik sořtzen yakuzala; bai

Jaungua'k berak biťaťteko-barik bidaltzen dauskuzanakaz, baťa lagunen eta gauzaen bidez etoťten yakuzanakaz, be, eruatasunez beintzat jasatekotan; Jaungoikua'ren egindako ukaťaz ta gustiťariko eťuki-egintzakaz. Norbere egiťezko gauzaok edo euťez edo maťasun-andiz egiťen ba-dira, oben -zoťak osotoro ordaintzia, be, jadetsi daike.

Gure oben-nekia beste iñoren bidez ordaintzeko, norbaťek geure oben-neke edo zoť ori ordaintziaťen Urtzi Jaunari zerbaist opaldu biať dautsa: edo ordaingai dan egiñen bat, edo lenagoko irabaziren bat. Gure zoťak lenen Josu-Kisto gure Jaunak ordaindu euzan bere egipenakaz; eta orain, be, orixe egiťen dabe euren otoi, baru ta ukaťak, eta a., ordaingai diranetz, geure aldez eskeintzen dabezanak; gure zoťak lenagoko irabazijakaz ordaindu, baťiz, Doibatzak egiťen dau, Josu-Kito'ren, Miren deunaren eta Deunen irabazijen eukitzaľe ta emoľe danetz. Josu Kisto'ren irabazijak neuťibakuak ixan ziranezkero, Doibatzaren ardurapeko irabazi-bilďegija, be, neuťibakua da-ta, altxoť ori ezta iñoz ustuko, ta Daibatzak beti eukiko dau guri oben-zoťak ordaintzen zegaz lagundu. Doibatzaren laguntza ori eskuratutiari *nekazkea irabaztia* deretxa. Doibatzak gure oben-zoťa osorik ordaintzeko-beste irabazi egokiťuten dauskunian, *nekazka osua* deretxa; ostantzian, baťiz, *nekazka osueza*.

Nekazka osua irabazi daunak oben-neke edo zoť gustija ordaindu dau, ba; eta oben baťirik ezpa-dagi egin, eztauke ezer ordaindu biaťik ixango, ez ludijon ez garbiťokijan.

Nekazka osuezak, berez, oben-zoťa gitxiťu baño eztau egiťen, zenbatian gitxiťuten daun ezin daikegu jakin, baña. Ez uste ixan, ba, eun eguneko nekazkea irabazijaz garbiťokiko nekiak eun egunez gitxiťu yatzuzanik, olakorik ezpai'da jazoten. ¿Zenbatian gitxiťu ete-yatzuzan? Antxiña Doibatzak

oben-neketzat eginduten euzan zigoraldi ta ildurapenak eun egunetan betaturik gitxituko yatzuzan bestian. Ara: birau-egijana, saspi igandetako jaupa -nagusi-bitartetan txadon-atarijan egon biar zan, baruratu-barik, eta azkenenguan ortozik eta soinganeko-baga egon be; saspi bariku aetan, ganera, ogi-ur-utsez barau-egin biara eban. Gurasuen kaltezko añena esaten ebanak, bariz, berogei egunetako baruba egin biar eban, eta ogi-urez egin be; eta a. Ildurapenok zintzoro ta goi-eskardun egiten euzanak, Doibatzaren egindnba betiaz ganera, oben -zora gitxitutia, be, lortuten eban, Goiko Jaunak oben-neke-zatija beintzat azketsiko eutsan-eta. Zenbat azketsi ta zenbat azketsi-baga geratzen yakan eztakigu, Jaunak eztausku agertu gura ixan -eta. Oregatik, saspi edo berogei eguneko nekazkeaz oben-zora zenbatian gitxituten yakun, be, eztakigu, antxiñako ildurapen aek saspi edo berogei egunetan egiñaz-ainbestian gitxituten yakula baño.

Nekazkeak irabazteko, badintza batzu bete biar dira:

1. Irabazi gura dauzana kistar orokara edo katolikua ixan biar da, ta doibazkatu barik, edo axekatu barik, egon.

2. Nekazkea irabazteko asmua ixan biar dau: asmo au bein betiko artzia naikua da; goxian-goxian bariztetia oba da, baña, Doipurubaren asmuaz bat egiñik.

3. Ganera, eskardun egotia, edo oben lari baga, nai-ta-ezkua da, nekazkea irabazteko agindu dana amatutian beintzat.

4. Agindutako gustija betatu biar da, zati andirik, beintzat, uzteke.

5. Agindutakua asmo zuzenaz betatu biar da, antuste utsez-edo betatuzkero alperik ixango litxake-ta.

6. Eta azkenik, agindutako aldijan eta agindu

dan letz betatu-ezik, eztago nekazkea irabazterik. Ori dala-ta, bederatzuŕenai dagokijezan nekazkeak irabazteko, bederatzuŕena etenbarik egin biaŕ da; eta baŕdin bestelako egikixunak, be, agindu diran letz betatu biaŕ dira.

Esan danaz ganera, uaŕtu:

1.ª Erijotz-unerako nekazkeatzaz: a) *Josu* ixena -edo oguzi dagikienai abindu ba-yake, ixen ori oguztia naikua da, agoz ezin ba-da bijotzez beintzat; nekazkea jauparijak ezaŕi edo egokitu biaŕik ezta. g) Nekazkea gurutzari-edo ezaŕitakua ba-da, gurutz ori eskuban edo bulaŕ-gane eukitia ona danaŕen, biaŕ-biaŕa ezta, albuan eukitia naikua da-ta; ikustia, be, ezta biaŕa, albuan dagola jakitia bakaŕik baño; eta erijo-une-uneraño euki biaŕik be eztago. k) Erijotzunian nekazka oso bat baño ezin daike irabazi, nekazka ori ezaŕita dauken egintza asko betatu ixanaŕen. Nekazka oso bakaŕa, baŕiz, baldintzeak bete baldin ba-dira, erijotz-une-unian irabaziko da, naiz ta gexuak irabaziko ebanik jakin ez.

2.ª Nekazkeak norbere burubarentzat irabazteko, gogua oben-laŕi-barik ixatia nai-ta-ezkua dan letz, garbitokiko gokaxuentzat irabazteko, be, geyenen aburuz, baldintza ori biaŕa da. Oŕezkero, gokaxuentzat nekazkeak irabazi gura daikezuzanian oben laŕirik ba-daukakezu, mate-gaŕbaiz, beintzat, gogua garbitu lenago.

3.ª Doipurubak ezaŕitako nekazkeak, argi-ta-garbi besterik ezpa-diño, gokaxuai be egokitu daikijez.

4.ª Nekazka bi edo geyagorako egintza berbera agindu ba-da, ta egunian bein baño imiñi ezin daiken egintzea agindu be, jaunaŕtzea, baruba, ta a., egintza bakaŕa naikua da nekazka bi edo geyago irabazteko.

5.ª Nekazka osua irabazteko astebetian edo ilabetian egunero otoiren bat esan biaŕa danian, astia

saspi eguneko epia da, ta iłabetia ogetamaŕ eguneko epia, naiz ta astelenian edo iłaren lenengo egunian-barik beste edozein egunetan asi.

6.ª Nekazka osua irabazteko geyenetan agintzen diran baldintzeak autoŕkintzea ta jaunaŕtzea ta Doipuru-asmoz otoi-egiťia ixaten dira. a) Autoŕkintzea, nekazkea irabazi biaŕ dan eguna baño zoŕtzi egun lenago edo geruago, be. egin daike; oŕezkero, astero edo iłian biŕiťan autoŕtu daruenak geyagotan autoŕtu biaŕik eztabe, asteko ta iłeko nekazka oso gustijak irabazteko; eta egunero jaunaŕtu daruenak, naiz ta astian egun bat edo biťan jaunaŕtu-baga egon, edozein nekazka irabazteko, autoŕtu biaŕik eztabe, oben laŕirik jauki ezpa-dabe beintzat. g) Jaunaŕtzea, nekazkea irabazi biaŕ dana baño egun bat lenago egin daike, baťa uŕengo zoŕtzi egun-baŕu, be. k) Doipuru-asmoz edozein otoi-esan daike, iru bideŕ *Geure Aťa*-ta edo, txadona ikeŕtubaz sei *Geure Aťa*-ta esateko agintzen ezpa-da, beintzat.

## Nekazka-batza

1. *Ařearen.* Kistaŕak «Atearen eta Semiaren eta Goteunaren ixenaz» esaten daularik bere buruba gurutzatu ba-dagi, *50 eguneko* nekazkea irabaziko dau; ur donetsijaz egiñezkero, baŕiz *100 egunekua.*

2. *Deuntza.* «Deuna, deuna, deuna, goi-gudoztien Urtzi Jauna: ortzi-ludijak zeure aintzaz beterik dagoz. Aintza Ařeari, aintza Semiari, aintza Goteunari». *100 eguneko* nekazkea egunian bein; igandietan eta Irukoitz deunaz uŕengo zoŕtzi egunetan, baŕiz, *300 egunekua;* egunero esanezkero, *nekazka osua* iłeko egun baten. (1)

3. *Josu-Miren-Joseba ixenak.* Iru ixenok batera,

---

(1) Nekazka oso au ta uŕenguak irabazteko, autoŕtu, jaunaŕtu ta txandona ikeŕtu biaŕa da, Doipuru-asmoz otoi-egiñik.

beste ezer geřu barik, esanezkero, bakotxian *saspi urte ta saspi beřogeiko* nekazkea irabazten da; eta *nekazka osua* iřian bein, egunero esan ba-dira. *Josu-Miren* ixenak agoz edo bijotzez oles-egiñaz *300 eguneko* nekazkea irabazten da.

4. *Jaungua'rekiko onoimen-eikunak.* «Neure Jaun eta Jaungoiko: zeuri ziñesten dautzut, egi utza zaralako; zeutzaz nitxaro, egi-egiřija zaralako; zeu bijotz-bijotzez maře-zaudaz, on utza zaralako». Iru onoimen-eikunok, edo euron antzekuak, esanezkero, bakotxian *saspi urte ta saspi beřogeiko* nekazkea irabazten da, *osua* iřian bein, eta *osua* erijotz-unerako be.

5. «¡Neure Jaun eta neure Jaungoikuoi!» Jauperdijan oteuna gora jasotian, edo ta gure Jauna agirijan dala, mařero begiřurik esanezkero, *7 urte ta 7 beřogeiko* nekazkea irabazten da; eta astian bein, *osua.*

6. *Gure Jaunari ikeřaldija.* a) Beřogei Ordubetan gure Jauna ikeřtubaz *nekazka osua* beingoz, ta ikeřaldi bakotxan *10 urte ta 10 beřogeikua,*

g) Nekazka bařdiñak irabazten dira Eguben eta Barijeku Gurenetan Erakustoindijak ikeřtubaz.

k) Aratuzteko iru egunetan agirijan dagon txadonan ikeřtubaz, *nekazka osua.*

y) Oteuna dagon txandonan sei *Geure Ara, Aguř Miren* eta *Aintza* esanezkero, bakotxian *300 eguneko* nekazkea; eta gure Jauna agirijan ba'lego, *7 urte ta 7 beřogeikua,* nekazka osorik-edo ez ixatekotan.

7. *Birau-kaltezko ařenak.* «Onetsi bedi Jaungoikua; onetsi bedi bere ixen deuna; onetsi bedi Josu-Kisto, Jaungoiko ta gixon egija; onetsi bedi Josu ixen deuna; onetsi bedi bere Bijotz Deuna; onetsi bedi Josu Ikuřton Deunan; onetsi bedi Miren Deuna, Urtzi'ren Ama gurena; onetsi bedi bere Sořkunde deun Ořbangia; onetsi bedi Miren, Ama Neskutza'ren ixena; onetsi bedi Joseba deuna, aren Senař

garbija; onetsi bedi goiko Jauna bere Gotzon eta Deunakan».

Ařenok esaten diran bakotxan *urtebeteko* nekazkea irabazten da; jaupa-ostian edo Oteunaz oneskuna emonda gero aldařika esaten diranian, bařiz, *urte bikua*; eta *osua* iłian bein.

Biraua entzutian, «Onetsi bedi Jaungoikua» esanezkero, *50 eguneko* nekazkea.

8. *Gure Jauna laguntzia.* Gexuai gure Jauna eruatian argijaz laguntzen daunak *7 urte ta 7 beřogeiko nekazkea* irabazten dau; argi-bage lagunduzkero, *5 urte ta 5 beřogeikua.* Doipuru-asmoz otoi -egin biařa da.

9. *Otoñuak.* «¡Josu'ren Bijotz gozuoi: geruago ta mařiago zagidazan!» *300 eguneko* nekazkea bakotxian, eta *osua* iłian bein.

«Josu'ren Bijotz ori: zeutzaz nitxaro». Bařdin.

«Betiko Urtzi-Ała: Josu-Kisto'ren Odol bikaña dała-ta, aren Ixen deuna aintzaldu egixu, bere Bijotz guřgařijaren asmo ta gureak betaturik». Bařdin.

«Miren-Bijotz gozatsu, ařen, gaizka nagixu». Bařdin.

«Jaungoikozko Ikuřton deunari etenbakc goraltza ta eskař-egipenak». *100 eguneko* nekazkea egunian bein, eta *osua* iłero

«¡Ene Jaungoiko, neure ogasun bakař ori! Zeu osorik neuretzako zara; neu, be, osorik zeuretzako nadiřela egixu». *300 egunekua* egunian bein, eta *osua* iłero.

«Ene Josu mařagaři: nik..., zeuri, atsegin ixan eta neure gaiztakerijak ordeztutiařen neure bijotza damotzut eta neure buruba osorik eskeintzen dautzut; eta zeu lagun, obenik geyago ez egiřeko darabagit». Josu-Bijotzaren irudi-auřian esanezkero, *100 egunekua* egunian bein, eta *osua* iłero».

«Zeugařik beike dana, Josu'ren Bijotz deunoi». *300 egunekua* bakotxian.

«Josu, bijotz otzan eta apal ori: nire bijotza zeure oŕen antzekotu egixu». *300 egunekua* bakotxian.

«¡Josu'ren Bijotz deunoi, zeure ala bel!». *300 egunekua* bakotxian

«¡Miren geure itxaropide ori, eŕuki-zakiguz!». *300 egunekua* bakotxian

«Maītasun, oñaze ta eŕukijaren Ama: otoi gure alde». *300 egunekua* bakotxian.

«¡Miren nekatsu, kistaŕ gustijen Ama: otoi gure alde! *500 egunekua* bakotxian

«¡Joseba deun, Josu-Kisto gure Jaunaren Aīorde ta Miren Neskutza'ren egizko Senaŕ ori: otoi gure alde!» *300 egunekua* egunian bein.

«Joseba deun aintzatsu oŕek, oben-baga ta beti zeure zaintzapian eskijeŕ bixi gaikezala inguzu». *300 egunekua* egunian bein

«¡Joseba deun Josu'ren Bijotz deuna maīe dabenen eredu ta Zaindari: otoi gure alde!». *100 egunekua* egunian bein.

«¡Aguŕ, Miren Garbija: eŕu-barik soŕtuba!» *50 egunekua* bakotxian, eta *osua* iīian bein, egunero esan ba-da.

10. *Aŕentzak.* Miren deunaren Aŕentza esaten dan bakotxian *300 eguneko* nekazkea irabazten da; eta egunero esanezkero, baīa *osua*, be, bost jayotan: Soŕkunde Garbija, Jayokundia, Deikundia, Garbikundia ta Jasokundia.

Uŕengo iru Aŕentzak, Josu-ixenarena, Josu-Bijotzarena, ta Joseba deunarena, esanezkero, bakotxagaīik egunian bein *300 eguneko* nekazkea irabazi daike.

11. *Bederatzuŕenak.* Uŕengo bederatzuŕenok gitxijenez *300 eguneko* nekazkea dabe egun bakotxerako, ta *osua* azkenian. Urtian egin daikezanak:

*A)* Jaunari zoŕtzi: Irakoitz Deunari bat (edo ta iruŕena), Goteunari bi, Joskorputzari bat, Josu-Bijotzari bi, ta Josu Auŕari bi. *G)* Miren Deunari amabi, ixen edo gayok dirala-ta: Soŕkundia, Jayo-

kundia, Auŕkezkundia, Deikundia, Ikeŕkundia, Erdikundia, Garbikundia, Nekiak, Jasokundia, Miren-Bijotza, Zaintzea ta Aguŕtza. *K)* Gotzonai ta Deunai amaŕ: Mikel, Gabirel eta Eŕapel gotzonai, norbere Gotzon Jaboliari, Joseba deunari, Paul'daŕ Bingen deunari, Txabieŕ'taŕ Pantzeska deunari bi, Ane deunari, ta Gokaxuai.

Uaŕtu: *a)* Bederatzuŕenok egiteko, norberak gura dauzan otoyak erabili daikez;

*g)* urteko edozein arotan egin daikez, laurok kenduzkero: Josu-Auŕaren Jayotzerakua, Josu-Bijotzaren jairakua, Goteun-Etoŕkunderakua, ta Joskorputz-egunerakua;

*k)* azkenian nekazka *osua* irabazteko, Doipuru-asmoz otoi-egin biaŕa da; eta Irukoitz Deunarenian, ganera, txadona ikeŕtu;

*y)* Goteun-Etoŕkunderako bederatzuŕenan, Irukoitz Deunarenan eta Joskorputz-egunerakuan *7 urte ta 7 beŕogeiko* nekazkea irabazten da egunero;

*j)* **Irañordezko Bederatzuŕena:** ilian-ilian lenengo bederatzi egunetan egin daike, Oteunan, batez be, egiten yakozan irañak dirala-ta, Josu ona poztuteko asmoz; egunian *300 eguneko* nekazkea irabazten da; asmo berberaz jaupea entzunezkero, baŕiz, *7 urte ta 7 beŕogeikua,* ta azkenian *osua,* txadona ikeŕtu ta Doipuru-asmoz otoi-eginda; eta beste *osua,* asmo baŕdiñaz jaupea ataraten dan bakotxian naiz ta jaupea bederatzuŕena amatuta geruago egin. Otoyak, norbere oldezkuak.

12 *Ilabetiak.* Ilabeteko jardukixunok egiñezkero, be, egunero gitxijenez *300 eguneko* nekazkea ta azkenan *osua* irabazten dira: *urtaŕilan* Josu ixen deunari, *epailan* Joseba deunari, *oŕilan* Miren Deunari, *bagilan* Josu-Bijotzari, *garilan* Josu'ren Odol bikañari, *dagonilan* Miren-Bijotzari, *irailan* Miren'en Nekiai, *uŕilan* Aguŕtzadun Ameari, *azilan* Gokaxuai ta *lotazilan* Sorkunde Garbijari.

Uaŕtu: *a*) Otoyak norberak aukeratu dagikez; uŕilan, baña, Aguŕtzea esan biaŕ da;

*g*) bagilan, garilan (au agiriz egitekotan), uŕilan eta azilan egunero *7 urte ta 7 beŕogeiko* nekazkea irabazi daike;

*k*) nekazka *osua* irabazteko, Doipuru-asmoz otoiztu biaŕa da, ta bagilan, dagonilan, uŕilan, azilan eta lotazilan irabazteko, ganera txadona ikeŕtu.

13. *Beste jardukixunak*. Egun bakotxan nekazka *osua* irabazi daike: Joseba deunaren saspi igandetan, Padua'ko Andoni deunaren amairu astaŕte edo igandetan, Aquino'taŕ Toma deunaren sei igandetan, Asis'taŕ Pantzeska deunaren bost igandetan, Loyola'taŕ Iñaki deunaren amaŕ igandetan, Gonzaga'taŕ Koldobika deunaren sei igandetan, Soŕkunde Garbijaren lenengo amabi larunbata (edo igande) jaŕayetan, Josu-Bijotzaren lenengo bariku gustijetan, eta Miren-Bijotzaren lenengo larunbatetan.

14. *Eŕuki-egintzak*. Josu, Miren eta Joseba'ri adiguri-ixatiaŕen iru txiro edo biaŕtsuri jaten emoten dautsenak *7 urten ta 7 beŕogeiko* nekazkea irabazten dau, ta ganera autoŕtu, jaunaŕtu ta Doipuru-alde otoi-egiñezkero, *osua;* etxekuak be, txiruai otseintzaz egiten dautsienak, *100 egunekua* irabazten dabe.

Gexuak eta espetxaldubak ikeŕtubaz *100 eguneko* nekazkea irabazten da.

15. *Portziunkula-nekazkurena*. Dagonila-2'gn., atzeguneko eberditik asita, Pantzeskaŕen txadona ikeŕtzen dan **bakotxan** *nekazka osua* irabazi daike. Oŕetarako, autoŕtu ta jaunaŕtu biaŕa da; eta ikeŕaldi bakotxan Doipuru-asmoz 6 *Geure Ata, Aguŕ Miren* eta *Aintza* esan.

Baldintza oŕeik betatuzkero, uŕengo egunotan, be, beste ainbeste nekazka *oso* irabazi daikez: Aguŕtza-jayan, Anaidijaren txadona edo oindija ikeŕtubaz; iralaren irugaŕen igandian, Miren-Neke

-jayan, Anaidijaren txadona ikeŕtubaz; Irukoitz Deun-jayan, Anaidijaren txadona ikeŕtubaz; gari̅la-16'gn., Karmeldaŕen txadona ikeŕtubaz; ira̅la -24'gn., Emoiztaŕen (Mertsedarijuen) txadona edo Emoitz-Anaidijarena ikeŕtubaz; Joskorputz jayan Oteundaŕen (Sakramentiñuen) txadona, edo ta Betiguŕtzaroko Anderaena, ikeŕtubaz; azi̅la-2'gn. edozein txadon edo otoitegi gokaxo-aldez ikeŕtubaz atzeguneko eberdi̅tik asi̅ta; eta bagi̅lako azken -igandian, txonitzak ixan diran txadonan.

16. Miren-Bijotz-jayan, atzeguneko eberdi̅tik asi̅ta nekazka *oso bat* irabazi daike Miren-Bijotz-Semien txadona ikeŕtubaz, autoŕtu, ta a., egiñezkero.

17. Jaupari baŕijaren lenengo jaupea entzunezkero, irugaŕen ma̅la-baŕuko senidiak nekazka *osua* irabazten dabe (autoŕtu ta a.), eta beste gustijak *7 urte ta 7 beŕogeikua*. Baŕdin, umien lenengo jaunaŕtzatara erduten diranak, be.

18. Jaupa-ixil-ostian esaten diran iru *Aguŕ Miren* eta beste otoyakaz *7 urte ta 7 beŕogeiko* nekazkea irabazten da.

19. *Magnificat* otoya esanaz, egunero *100 eguneko* nekazkea ta larunbatetan *7 urte ta 7 beŕogeikua* irabazi daike; *Memorare* (*Gogoratu*) esanaz, bakotxian *300 egunekua* ta i̅lian bein *osua,* autoŕtu ta a., egin̅da; *Ave Maris Stella* esanaz, egunian *300 egunekua*.

20. *I̅luŕenen aldez. a)* Belaunbiko, Josu-Kisto'ren Nekaldi-erijotzen gomutaz iru *Geure A̅ta*, ta gurutz-onduan Miren Ameak jasandako oñaze -gomutaz iru *Aguŕ Miren* esaten dirala, i̅luŕenen aldez eskatuzkero, *300 eguneko* nekazkea irabazten da bakotxian eta *osua* i̅lian bein.

*g)* «Ene Urtzi Jaun: gauŕ luŕbira osuan emongo diran jaupa gustijak gauŕtxe il biaŕ diran obendi i̅luŕenen aldez deskeintzudaz. Josu Erosliaren odol bikañak eŕukija jadetsi beiskie». *300 eguneko* nekazkea, esaten dan bakotxian.

*k*) «Betiko Urtzi-At̄a: ludijon zeure ordezkua ixateko autetsi euzun Joseba deunarekiko zeure mat̄asunagat̄ik, gutzaz ta il̄uŕen gaxuetzaz eŕuki zadiz». *Geure At̄a, Aguŕ Miren, Aintza.*

«Betiko Urtzi-Seme: ludijon Jabole zintzua ixan yatzun Joseba deunarekiko zeure mat̄asunagat̄ik, gutzaz ta il̄uŕen gaxuetzaz eŕuki zadiz». *Geure At̄a, Aguŕ Miren, Aintza.*

«Betiko Urtzi-Goteun: zeure Emaste laztana, Miren Deuna, arduratsu zaindu eban Joseba deunarekiko zeure mat̄asunagat̄ik, gutzaz ta il̄uŕen gaxuetzaz eŕuki zadiz». *Geure At̄a. Aguŕ Miren, Aintza* Bakotxian *300 eguneko* nekazkea.



# EŔAPEL GOTZONA

EDO

GEXUAK POZTU TA LAGUNTZEKO BIDIA

## I

### Gexuak ikeŕtutiaz

Gexuak ikeŕkutia dan eŕuki-egintza aundija uleŕtuteko, Matai deunak bere Goizpaŕeko XXV atzalburuban dakaŕena gogoratu biaŕ dozu: edo, orain gexuak ikeŕtzen dauzana, Josu-Kisto'k azken-epaikundian betiko aleŕi-jaube egingo daula, Josu bera ikeŕtu ebala-ta: *Gexorik nenguan, eta ikeŕtu ninduzuben.*

Alik sarijen gexuak ikertu eikezuz, ba; eta zeure senide edo aide gexuak ez ezik ostantzekuak be, bai, naiz euren etxietan naiz eritegijetan, euretan Josu bera ikertzen daukezula-ta. Zeure ikeraldijok, baña, ezpeikez agorak ixan, euri-bako odei lor batzu lez, euri-egin eta lura malastuten daben odei ontsubak lakuak baño.

Alperiko esames ta jardun laregijakaz gexuari gogait-eragin baga, adiguri ta atsegin ixaten alegindu zadikez. Al ixanezkero, gexo ezeukijai ukar-agiskiezu; edo, gogo-laguntzea, beintzat, ez ukatu iñori: eruki-zakikiez, Jaunari euren alde otoi-egin, eta aulku onak eta matero emon.

Gexuaren goguan eruatasuna ernarazoteko-ta, urengo jardukixunok egokijak dozuz:

1.ª Lagun mate ori: kistara zarala gogoratu egixu, ta kistara zaranezkero Josu-Kisto'ren ikaslia ixan, eta Josu bera antzartu biar dozula. Gexotasuna Josu antzartuteko bide-bidia dozu-ta, Getsemani'ko otoi a egin zeuk, be: *Ene Ata, al baldin ba-da, edontzi au nigandik alderatu egixu; ez, baña, nik gura dodanetz, zeure guraz letz baño*. Bai: Jaunari zeu neke-min oyetatik jaregiteko apal-apal eskatu leiskiazu; baña, bere gurea zeu neke-miñetan egotia ixanezkero, zeure goguaren onerako ixango dala-ta, jasatasunez eruateko bere laguntzea eskatu biar dautsazu, ta Josu-Kisto antzartutiaren oldez eruango dozuzala esan.

2.ª Bai-dakixu donokira eltzeko Jaunaren gurea betatu biar dana: argi ta garbi dirausku Josu-Kisto'k: *Ezta goi-ala-baru sartuko niri* Jabe Jabe *diñoskedan edonorbere; bai, arian, goyan dagon nire Atearen gurea betatuko daikena, orixe sartuko da goi-ala-baru* (Mat. VII). Egunero *Geure Ata*'n esaten dozun «zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijon be» eskarijaz ez aztu. Orain, ba, ia eskarijori benetan egiten ixan dautsozunentz zeuk erakustia gura dau Jaungoikua'k. Ugazabearen naya

betetako gertu dagola-ta beti deragoyon otseñari zerbait agindu yakalarik, otsein a espaka ta agindŭba betatu nai-ezik ba'lekuskezu, ¿zer esango leukezu aretzaz? Ara, ba: Urtzi Jaunaren otseñak gara danok, eta guri edozer agintzeko esku-eskuba dau. Zeuk, be, Jaun oŕen gurea ziero betatuko euzula-ta, amaikatxu bideŕ ekin dautsazu. ¿Ez-ete -dozu, ba, orain bere naya egingo? Zeu gexorik egotia nai ixan ba-dau, ¿ezetz esango ete-dautsozu? ¡Ez olakorik! Bai, ordian, bijotz-bijotzez ta saŕi esan itxok: *Zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijon be.*

3.ª Gexo-erijak jasatasunez eruatia gustizko onuragaŕija da, bai goguarentzako baŕa soñarentzako, be. Goguak, gexotasuna dala bide, irabazi aundijak jadetsi dagikez, ta etxekuai ta beste lagunai ikasbide ona emon. Soña, be, neke-miñak eruapentsu aŕtzen diralarik, lenago ta eŕezago zendatuten da, aŕtetsu egoten dalako. Jasatasun-ezak, baŕiz, gogo-soñai kalte ta lagunai ikasbide txaŕa ekaŕten dautse.

4.ª Neke-miñetan eruapentsu irauteko, Josu'ren oñaziak saŕi gogoratu eikezuz: antxiñako iragaŕle batek eretxi, be, *oñazedun gixona* eretxi eutsan. Ara: biluzik zutaŕijari lotuta dagola ikaragaŕiro astintzen dabe; ¿norenak dira oñaze aundijaguak, zeuriok ala beriak? Begira gero: arantzazko burestun mingaŕija ezaŕi dautsoe, guruzpian laŕi-be-laŕi dua Koskategi'ra, ara eldu daneko soñekuak edozelan eranzten dautsoez ..., gero gurutzian etzaunazo ta esku-oñak untze gogoŕakaz josten dautsoez. ¡Begira, adizkide oŕek, zure oe onen eta Josu'renaren aŕteko bardiñeza! ¡Zu oe bigunan etzaunik, eta Josu gurutz gogoŕan! ¡Zuk burko erosua dozu, Josu'k arantzazko burestuna! ¡Zu oian luze-luze, ta Josu iru untzetik dingilizka! ¡Zu ondo estalita, Josu biluzik! Zu etxekuak eta beste lagunak poztu egiten zauze; Josu arerijo

ankeŕak ixeka ta irañez betetan dabe! Zuri, egaŕi zaranian, edaten emoten dautzube; Josu'ri ozpiña ta biaztuna baño besterik eztautsoe emoten! Josu -Kisto, baŕiz, eŕubakua zan; gu obendijak gara... Obendijak, ba, oben-ordez bederik, nekiak jasatia bidezkua da-ta, zeure neke-miñok eruapenez jasan egixuz, adizkide oŕek.

5.ª Ene adizkide kutun ori: orain eŕbestian bixi gara, atzeŕi negaŕtsu ta neketsuban; bixi garan luŕbira au gure lenengo gurasuen obenaz ta geure obenakaz agoŕtuta dago-ta, neke-arantzak eta erijotz-eloŕija baño besterik eztau emoten. Adoretu zadiz, ba, eŕbestaldijau amaŕuko da-ta. Oraingo neke-miñak geroko aintza betia eskuratuteko bide yakuz, bai?, ta oldez eruan biaŕ doguz

6.ª Lagun maŕe: jauki dozuzan oben ariñak atzindu-barik eztago donokira saŕtzerik, orbandunik ezin daike bertaratu-ta. Zeure gogua, baŕiz, biŕara garbiŕu daikezu: edo emengo neke-miñakaz, edo garbiŕokiko oñaze latzakaz. ¡Bitzubon baŕdiñeza! Iñoz oben laŕirik egin ixan ba-dozu, baŕiz, betiko sulexatan ez egotia Goiko Jaunaren eŕuki aundijari zoŕ dautsazu. Gaŕbaŕuteko asti-baga il ixan ba-zintzazan, ¡zeure zoritxaŕa! Goizpaŕeko aberats jatun a letxe oñaze goŕiŕan murgilduta zengokezan aspaldijon. Eta su bixi aretan ¿zelan bixi? Oñaze ikaragaŕi areik ¿nolan jasan? Urtzi Jaun onak, baña, betiko oñaze areik azketsiŕa oraingo neke-miñakaz ordeztu dautzuz-ta, zuk ontzat aŕtu ta eruapentsu jasan biaŕ dozuz. Ganera, neke-miñok goi-eskaŕdun, edo Jaungua'ren aizkidetasunian, jasan ba-dagixuz, sarigaŕi ixango yatzuz, goyan aintza andijagua loŕtuteko bide ixango yatzuz. Gogua oben laŕiz loŕuta daukanak jasaten dauzan neke-miñak, baŕiz, donokirako alpeŕikuak dira. Zuk, ba, adizkide maŕe oŕek, maŕe-gaŕbaiz edo autoŕkintzaz gogua garbiŕu egixu, ta gexotasuna irabazpide ixango dozu.

7.ª Osagiḻe onak soñari egiṝen dautsana egiṝen dautsa Urtzi Jaunak gure goguari. Aunditsuba beratuteko, bestelako osagaḻubak alpeŕik diranian, osagiḻiak ziztagai zoŕotza aŕtu ta zizt-eta-zazt ebagi egiṝen dau. Goguaren oben-aunditsubak kentzeko Jaungoikuak erabilṝen daun ziztagaya da, ba, gexotasuna. Jaunaren bestelako deyai entzungoŕ egiñik oben-bidez zabal-zabal ebiḻana, gexua dala bide oian lotuten dau, ta etxe galdubetara edo beste leku txaŕetara jauten eragotzi egiṝen dautsa; eta autoŕkintzeaz gogua garbiṝu ta sendotutia, be, eŕez loŕtuten dau. Kistaŕen auŕka gogoŕ iñarduban Saul gastia Jaunak zaldi-ganetik eratzi egin eban. *¿Zer nai dozu nik dagidan?* iñotson arek Eta erantzun yakanetz Anani jauparijagana juan zalarik, gogo-ta-soin osatu zan. ¡Neke-min eta gexotasun bidez Jaunagana biguŕtu diran gixakumiak amaikatxu dira! ¡Ia, ba, zeu be gustiz Jaungua'gana biguŕtzen zaran!

## II

## Gexuai gure Jauna noiz ta zelan ekaŕi biaŕ yaken

Ligori deunak diñonetz, gure Jauna gexuari ekaŕtia ezta laŕegi luzatu biaŕ. Orixe agintzen dau Doibatz-Lagidijak be *(C. 865)*.

Gexotasun laŕija, gexua il-zorijan iminṝen dauna, ixanezkero, len-bai-len ekaŕi biaŕ yako, gexua sendatzaḻiak etsi ixan edo osatu-ezintzat iragaŕi-aŕte luzatu baga. Gure Jauna len-bai-len ekaŕtiak obari andijak dauz: gexuaren adimena argitsubago dagolarik obeto gertuko da, ta gaguarentzat onura geyago atarako dau, aŕtzen dauzana gertubago ta eskaŕ geyago emoten bai'dabe ikuŕton deunak.

Azken-jaunaŕtzea egin danezkero, gexo-aldi ber-

beran ostera-ta-ostera, be, barautsiȓa jaunaȓtu daȓeke. Umiak, be, adikuntza-urtietara eldu diranezkero, azken-jaunaȓtzea egin biaȓ dabe.

Gexua ikeȓtzen daunak aren bijotzan gure Jauna aȓtzeko gogua ernarazoten alegiñak egin biaȓ dauz, jaunaȓtzetik datoȓtzan onureak atzaldubaz-ta. Oteunaz indaȓtu dan goguak txeȓenaren ziltzaldijai eȓezago auȓka egingo dautse; Josu-Kisto'k ludijon bixi zala gexuak maȓero sendatuten euzan letz, orain be ikeȓtu gura dauz ta bere eskaȓ ta emoiz bete; eta, biaȓba, osasuna emon be, bai. Kuiril alesanduriȓaȓ deunak diñonetz, jaunaȓtubaz eriȓasunak axekatu ta gexuak sendatu egiȓen dira. Bere aȓa gexua, jaunaȓtu ebaneko, osatu egin zala dirausku Gergori nazentzaȓ deunak. Asko ikusi ixan dodaz (1) azken-jaunaȓtzea egindakuan obera jo ta gustiz sendatu ixaten.

## Gexorik egonda ontzatu egin danak esateko

### Otoya

Eskaȓik asko, Goiko Jaun oȓi, zeuk bidaldutako gexotasunagaȓik eta zeuk atzera emon daustazun osasunagaȓik, nitzaz eȓuki-ixan zara-ta. Gexorik edo osasuntsu, ¡beti zeu goraldu nai zaudaz! Oinguan eztozu ni ilȓerik nai ixan; gexotasuna, baȓiz, nire bixija zeure eskubetan dagola iragaȓteko igoȓi daustazu, ta gauȓgeroz nire indaȓ gustijak zeuri otseintzaz egiȓeko erabiȓi dagikedazantzat. Egin be, alantxe egingo dot, ene Jaun eta Aȓa maȓekoȓ ori; nire osasuna zeure eskubetan iminȓen dot, eta, zeu lagun, onerako baño eztot erabiȓiko. Oinguan il-zoriȓik jaregin nozunezkero, onik-eta kistaȓ zintzuari dagokijanetz bixiko naz, saȓi autoȓtu ta jaunaȓtuko dot, eta eȓuki-egintzetan jardungo naz.

(1) Claret abeak dagi itz.

Ořetarako, baña, zeure eskaŕa biaŕ-biaŕa dot-eta, euŕez ixuri eiskedazu. Olantxe.

*Uaŕtu.* Gexua etxetik urteteko gauza danezkero, len-bai-len txadoneratu beike, autoŕtu ta jaunaŕtubaz Goiko Jaunari eskaŕ-egin, eta Miren Deunaren irudijari ikeŕalditxuba egiteko, be.

## III

### Azken-igoŕtza zelan emon

Azken-igoŕtza gexuak azkenengo aŕtzen daun ikuŕtona da-ta, beragaz gexuaren gogo-bixija, be, burutu ta osotu egin biaŕ litxake, ta donokira saŕtzegai biguŕtu. Ořezkero, ikuŕtonau, be, gexuak konortia galdu baño len emon biaŕ litxakikio, onuratsubagua dakiontzat, Doibatz-Lagidijak argi ta garbi diñon letz. *(C. 544).*

Azken-igoŕtza gexo-aldi bakotxan bein baño ezin daike aŕtu; beste gexotasun laŕi batek jozkero, bai, baŕiro aŕtu daike. Adikuntza-urtietara eldu diran umiai, be, emon biaŕ yake.

Azken-igoŕtza zetarako dan gogorazo biaŕ yaka gexuari:

*a)* Egindako bixitxa okeŕaren aztaŕen eta oŕbanak kentzeko. Azken-igoŕtza bilduŕ-gaŕbaiz, beintzat, aŕtuzkero, gexuak oben laŕijen azkespena, be, jadetsi dagike, naiz ta obenokaz aztuta egon. Al daula, baña, lenago autoŕtu egin biaŕ dauz; eta ori eziñian, mate-gaŕbaiz gaŕbatu. Ořegatik, jauparija eldu baño len konortia galtzeko zorijan baldin ba-dago, gaŕbatu daditentzat alegin begije etxekuak-eta.

*g)* Arerijuaren ziltzaldijak goŕuteko goguari indaŕa emoteko. Ořegatik, ardura aundija aŕtu biaŕ da gexua azken-igoŕtza-bage il eztaditentzat.

*k)* Goguaren onerako ba-da, gorputzari osasuna emoteko. Oŕetarako, baña, ezta belubegi aŕtu biaŕ, sendatze ori ostantzeko sendagalu-bidez egiten dau-ta, sendagalubai indaŕ berezija damotselarik.

*Uaŕtu.* Gexua konorte-barik egonaŕen, emon biaŕ yako azken-igoŕtzija, bata azkenengo aŕnasia eginda gero be, benetako erijotza uste dan baño askoz geruago jazoten da-ta; ordu-erdi geruago gitxijenez, be

## IV

## Gexuari azken-ikuŕtonak aipatuteko bilduŕik ez ixan

*Apukuak.* «Azken-ikuŕtonak aipatuzkero, txaŕto dagola igaŕiko dau-ta, bilduŕ-naz olakorik atatuten.,.» ¿Eta gexo ori, zeure senide edo adizkide ori, benetan mate dozula uste dozu? Ez beintzat, kalte goŕija egiten dautsozu-ta: guzuŕezkua da zure matasuna, onik aundijena, biaŕba, eragotzi egiten dausotzu-ta. Gexua azken-ikuŕtonak aŕtu-barik, edo ta berandubegi edo ondo aŕtzeko gauza eztala aŕtuta il ba-dadi, ta betiko sulexaratu, eŕudun ixango zara ..

*Gogoŕkeri baltza.* Seme-bakaŕdun amea zan. Seme gaste-leŕden-ona ixan be-ta, ameak mate -mate eban; bata semiak, be, amea. Ara, baña, gabaz semia lotan dagola, berau erailteko asmoz arerijo ankeŕak datozala jakin dau ameak. ¿Zer egingo-ete?.. Bai-daki semia ikaratuko dauna, baña, ori gora-bera, ezpai-baga dua beregana, ta iratzaŕturik, iges-egiteko diñotsa. Ama samuŕak nayago dau semia ikaraz beterik eta igesi ikusi, oian ilteko zorijan utzi baño. ¿Eta zuk zeure adizkide gexua

ez ikaratutiaŕen goi-laguntza-barik utziko dozu? gaiztokiko etsai ankeŕen eskubetan utziko dozu? ¡Zeuria dan gogoŕkeri baltza!

*Sulezatiko didaŕa*. Otseñarekin bidez joyan ugazabeari lapuŕak urten eta txindi gustija kendu eutsaen, eta gero zauriz beterik luŕian luze-luze utzi eben. «¡Oi, ene ugazaba maŕe ori! —dirautsa otseñak;— bai-ekidan nik jakin leku onetan lapuŕak zirana, baña, zeu ez ikarazotiaŕen eztautzut ezer esan gura ixan». «¡Burubako otsein ziŕal ori! —darantzutsa ugazabeak.— ¿ez-ete-zuan oba ni ikarazotia, lapuŕen eskubetan jausteko zorijan iztia baño?» Zeugaŕik azken-ikuŕtonak aŕtu-baga il eta betiko gaiztokiratuko litxakenak, be, al ba'leuke, baŕdin didaŕ-egingo leuskezu: «Guzuŕ-adizkide ori: ¡eugaŕik nayagok emen betiko su bixijotan! ¿Zegaŕik atzipetu nindukan, eta azken-ikuŕtonak aŕtzen eragotzi?»

*Adizkidia gaizto-etsi*. Bai: zure adizkide gexua azken-ikuŕtonak aipatubaz ikaratu egingo dala uste ba-dozu, adizkide ori gaizto-esten dozu, kistaŕ ona -barik Kisto'ren arerijua dala uste dozu-ta. Ara: kistaŕ ona ikuŕtonak aŕtzen ezta bilduŕ-ixaten, poz baño, goguari gustizko onuragaŕijak yakazala ondo bai'daki. Azken-ikuŕtonak, baŕiz, biaŕ-biaŕak dauz, goguari ez ezik soñari, be, egoki ixanezkero, osasuna emoteko bide dira-ta. Ontzatuterik ezpa-dagokijo, ordian, goiko Jaunak erijotza eruatasunez ta oldez aŕtzeko eskaŕa ta laguntzea emongo dautsoz; eta ikaratu-barik poztu egingo da, betiko atsegiñera eltzeko ibiŕi biaŕ dan bidian gure Jauna bera lagun-ixango daula-ta. Oŕegaŕik ereisten yako, ba, Bidari edo **Biatikua**, be, azken-jaunaŕtzeari. Zuk, beraz, gure Jauna yatoŕkola-ta, zure adizkide gexua ikaratu egingo dala uste ba-dozu, gexo ori Kisto'ren arerijotzat esten dozu, arerijuaren ikeŕaldijak ikaratzen bai'dau gexua, ez adizkidiaren ikeŕaldijak.

*Egizko maŕasuna*. Zure adizkide gexua benetan

maṙe ba-dozu, ikuṙtonak aṙtu daikezantzat ardurarik aundijena ixango dozu; ostantzian guzuṙezkua da zure maṙasuna. Ona emen, diñodanaren argibidia. Maṙia gatxetik aldendu ta berari on-egiṙen biaṙtzen gauz egizko maṙasunak. Zuk, ba, gexuari onik aundijena erakaṙi daiskiozu, betiko zori ona erakaṙi daiskiozu; betiko sulexatik, baṙiz, jabon daikezu. Oṙetarako, azken-ikuṙtonak ondo aṙtu daikezantzat gertutia baño eztozu biaṙ. Beraz, gexua ez ikaratutiaṙen, ikuṙtonik aipatu gura ezpa-dautsozu, eztozu maṙe, edo zure maṙasuna Juda saltzaṙiarena lakoxia da.

*Osasuna jadesteko, be.* Ikuṙtonak aṙtzia soñari, be, onuragaṙija ixaten yaka. Ikuṙtonak aṙtubaz obekuntzea loṙtu daben gexuak asko-be-asko dira, ta gustiz ontzatu diranak ez gitxi; berein onetariko ezautu dodaz neuk be. Eta oṙetarako alatzik ezta biaṙ, ikuṙtonak berez eratoṙi daruana da-ta. *a)* Gogua ta soña korapiṙo estu-estuz lotuta dagozalako, goguaren iṙunaldi ta atsekabiak soñari, be, ondeza eratoṙten dautsae; goguaren atsaldi ta pozak. baṙiz. ondixan eta maṙasuna. Soñak, be, baṙdin eragiṙen dautsa goguari. Oṙegaṙik, gorputza gexorik dagonian. gogua be aṙtegatu ta asaldau egin oi da; eta obenez beterik ba-dago, obenakaz gomutau ta urduri lotuko da. osiñeko urari sendo eragiṙen yakonian azpiko zikiñaz nastau ta dana loṙu egiṙen dan letz. Idazteunak dirauskunez. Antuka gaiztuari orixe jazo yakan. bere buruba gexo ikusirik. «Oraintxe, bai, Jerosolin'i egin eutsadazan kaltiakaz gomuta-nazala», esaten ei-eban-eta; Voltaire, Rousseau ta beste amaikatxu gixon gaiztori, be, baṙdin jazo yaken; eta arimiaren bilduṙ-ikaraok soñaren miñak geṙutia berezkua da, ixan be. Olako gexuentzat sendabiderik onena ikuṙtonak aṙtzia da. Ondo autoṙtzen dauzanak bere bijotzeko arantzea atara ta oben-zamea jauṙtiki egiṙen dau; eta, baṙuko zimikuak ixildu ta gogua aṙtetu

egiten yakozalarik, bare-pozaldi ařigařija jadesten dau. Ořezkero, bařuko baretasun ori soñari irazten yaka; eta soña, ařtetsu dagolarik, bestelako sendakayak onuragaři ixateko bidian dagoke; ařtega dagonarentzat, bařiz, sendakayak alpeřik ixan oi dira.

*g)* Gixa-jakintzeak dirauskun orixe dirausku Urtzi-jakintzeak, be. Gure lelengo gurasuen obenak ludiratu euzan gexuak eta erijotza nobere obenakatik eratořten dauskuz sařitxu Urtzi Jaunak. Obendijak onbideratuteko sař askotan Jaunak gexotasun-bidia erabili dauna, argi ta garbi edesten dausku Idazteunak. Olakuetan, obena kendu ezik, ¿zelan jadetsi gexua kentzerik? Eřudunak garbatu ta bere obenak autořtu ezik, ¡jaregingo ete-dau Jaunak oben-zigořetik?

*k)* Ariago, be. Jaunařtzian, Josu-Kisto Jaungoiko ta gixon egija ařtzen da: itxubai begijak argiztu, gořai belařijak edegi, mintxogiai ningaña azkatu, bestelako beredin gexo sendatuta ilak be beřbiztu egiten euzan Josu-Kisto bera. Ařezkero Jaun altsu onen besua ezta indařgetu, ba; eta orain, be, egin legikez alako sendakuntza ařigařijak. Ez egitia geure eřuz ta geure ziñespagiagatik baño eztateke jazo. Nazaret'en, be, orixe jazo ei-zan: nazaretařen ziñeste uřija zala-ta, Josu'k an ezeuzan egin beste eřijetan egiten euzan lako sendakuntza ta alatz ařigařijak. Ziñestunak, bařiz, kanandařak edo atzeřitařak ixanařen, Josu'ren soñeko-mendela ikutubaz beste-baga gexorik zař-luzienetatik jaregiten ziran.

Orduban Josu'ren soñekua ikutubaz gexuak jadesten ebena, ¿ezin ete-legikie jadetsi oraingo gexuak, euren onerako ixatekotan, Josu beraren soin-odolak jatedanaz? ¡Ořetarako, baña, askok erakusten daben baño ziñesmen bixijagua biař! ¿Zelako ziñesmena dabe, bařiz, gexuari ikuřtonak erakařteko ardura eztiran senidiak? Antxiñako Jair batzařtegi-burubak, Josu'gana etořita, leyaren le-

yaz aŕen-egin eutson, berera jun eta alaba gexua sendatu leiskiantzat; eta Josu jun, eta orduŕako iloŕza zan neskatilea ilpiztu egin eban. Oraingo kistaŕ askok, baŕiz, gexuari gure Jauna ekaŕtia azken-ordurako utzi darue; eta orduban, be, biaŕba. eztabe gexuari on-egiŕiaŕen erakaŕiko, lagunak gexua ikuŕton-barik il dala esan eztaikientzat-edo baño. ¡Olakuen ziñeste uŕija ta jakiñeza! Jakin ba'lekije Josu etoŕtia gexuarentzat daiken onuragaŕija, ¡ikuŕtonak len-bai-len erakaŕten alegindūko litxakez, bai!

*Osagilien eginbiaŕa* Osagiliak be, gexuai gure Jauna erakaŕteko ardura-ixan biaŕ dira. Ikuŕtonak aŕtu dauzan gexua sendatzia deduzkuago etsi begije. Askotan, ganera, eŕezago be, bai, ixango dabela ezpigije aztu Margozkarijak, margozten asi baño len, euna ondo gertuko ezpa'leu, alpeŕik lan-egingo leuken letz; sendatzaliak, be, gexua sendatzeko bide leikenik eleuke gitxi-etsi biaŕ, beste gustija alpeŕik ixatia jazo leŕeke-ta. Gexuari ikuŕtonak ekaŕtia, ba, len esan danetz, osasunerako bide zuzena ixan daŕeke. Osasuna Goiko Jaunari zoŕ dautsagula, ta Jaunak lagundu-ezik, eurek alegiñak egin-aŕen, dana alpeŕik ixango dala uste begije. Amaika bideŕ jazo da sendatzalerik ospetsubenak on-onen eritxiŕako osabide ta sendakayak alpeŕ-alpeŕik ixatia. Jaungoikuak berak laketuten dau ori, osagilien aŕokeritxuba beratutiaŕen, eta goiko laguntza-barik alpeŕik lan-egingo leukiela ikasi dagijentzat.

Nik ezagun eta adizkide dodazan osagile batzuk, baŕiz, gexuarenera juteko deya aŕtzen dabeneko, Josu ixena oguzi ta Miren Neskutza, Eŕapel gongozona, ta Kosma ta Damen osagile deunak biŕaŕtekotzat deŕuten dabez; eta abagunia dala uste dabenian, gerorako utzi-baga, len-bai-len ikuŕtonak erakaŕteko esaten dautsie gexuaren etxekuai. Eurek, baŕiz, biŕaŕtian gexua ondo azteŕtu, ta sen-

dakai egokijak emoten arduratuten dira; eta ořetara gexo asko sendatutia jaristen dabe. Beste berein osagiḻe ařoskok, ordian, gitxijen uste dabenian uts-egiḻen dabe, ta gexua sendatzerik jadetsi ez.

### UAŘA

*Gexuak eřez begiḻuteko lekuban gurutzeko Josu'ren eta Miren deunaren irudijak ipiñi biař dira; eta, maitxu-ganian edo, ontzitxu-bete ur donetsi, gelea noxian bein bustiḻeko.*

*Gexua gustiz txařto lotu dadiḻenian, jauparija deḻu; eta jauparirik eratoři ezin ba-dadi, beste norbaḻek nozpeinka otoi labuřak gogorazo beiskiaz. Gexuaren gorputzari edari-apuřa edo sendakaya emonaz-ta urgaziḻen yakan letz, arimiari, be, otoitxubak aḻatubaz-ta uřgazi biař yako; neuřiz, baña, nekatu barik, sorosi ta gotasau dadiḻentzat. Ořegaḻik, ba, otoitxubak egoki ta eřezak bediḻez; eta gexuari, eurok bijotzez biřesatia naikua daula iragaři.*

## V

## Gexuari gogorazoteko asgorapen eta otoñuak

Jauna: ziñesten dautzut, egi utza zaralako; zeutzaz itxaroten naz, eřukoř utza zaralako; bijotz-bijotzez maḻe zaudaz, on utza zaralako.

Ene Jaun eta Jaungoiko: Doibatz deunak, Elexama doniak, ziñesteko agintzen daustan gustija ziñesten dot.

*Orain astiro-astiro* «Ziñesten dot» *esan, eta gexuak bijotzez biŕesan dagijala atal bakotxa.*

¡Ene Jaungoiko! zeure eŕuki aundija dala bide, oben gustijak azketsiko daustazuzala ditxarot, eta orain zeure eskaŕa ta lasteŕ donokiko aintzea emongo daustazuzala.

Jaungoiko Aīa on utza ta bijozperea zaran oŕek, neure oben gustijak azketsi egistazuz, ¡azketsi, ene Aīa!

Aīa ori: Josu zeure Seme laztanaren irabazkijak dirala-ta, nire oben gustijak azkesteko deskatzut.

Ene Aīa: obendijen Amea ta Biīaŕtekua dan Miren Neskutzaren irabazkijak eta eskutaŕtia dirala-ta, nire oben gustijak azkesteko deskatzut.

Ene Aīa: donokiko Deun eta Gotzon gustijen irabazkijak eta biīaŕtekotasuna dirala-ta, nire oben gustijak azkesteko deskatzut.

Ene Aīa: azketsi, bai, nire oben gustijak, neuk, be, kalte ta irain egin ixan edo-daustenai bijotz-bijotzez azkesten dautsedan letz.

¡Ene Josu, ene Erosle, Goiko Jaun on eta eŕukijoŕ ori! Asketsi, aŕen, obendi gaxo oni, Matale'ri ta emakume ezkonasijari azketsi eutsezun lez; Kepa'ri ta Lapuŕ onari azketsi

eutsezun ořek, azketsi neuri be, zeu iraindubaz bijotz-bijotzez garbai nozu-ta.

Miren Neskutz, Urtzi'ren Ama ta neure Ama on ori: eřuki zakidaz, lagundu nagixu, egindako oben gustijekiko garbai zindua jadetsi egistazu, gořoto ta iguin dodaz-ta.

*Orain*, Geure Aťa, Aguř Miren, Aguř Andera, *ta* Aguř Josu-Kisto *esan astiro, gexuak bijotzez biřesan daikezantzat.*

Goiko Jaun ori: pozik utziko dodaz emengo gauza gustijak, zu neuretutiařen, ixan, be, niretzako dan-dana zara-ta.

Ene Jaungoiko: ¿arpegiz-arpegi noiz ikusiko ete-zaudaz? noiz bijotz-bijotzez maťatuko?

Ene Josu: ¿zeu bařiro galtzeko bilduř-barik noiz ete-nagoke?

¡Donokija, ene Abeři zoragařija, ene Abeři maťagařija! ¿Nire begijok noiz ikusiko ete-dabe? bertara noiz elduko ete-naz?

¡Urtzi Jaun ori! ¡Betiraun osuan maťe gura zaudaz! Eztot nai besterik zeu, Jaun ori, baño. Enaikezu utzi zeugandik alde-egiťen.

Josu maťagařija neugaťik gurutzaldu eben; neu, be, beragaťik il gura naz.

Goiko Jaun ořek egin daustazuzan neuřibako ontařte aundijak dirala-ta, ¿zelan erakutsi daiskezut nik zoř dautzudan eskařonik? ¡Donokijan, bai, eten-baga eskař-egiťen iraungo nazala!

Maŕe-zaudaz, ene Jaungo, bijotz-bijotzez, gogo-gogoz, indaŕ-indaŕez ta adimen-adimenez. ¡Tamala, orañaŕte zeu beti maŕe ez ixana! ¡Tamala, oben-barik bixi ixan eza!

Miren, eskaŕdun Ama, Ama maŕagaŕi, Ama eŕukitsu: ¡biŕaŕteko zakidaz!

Miren deun, Jaungua'ren Ama: otoi nire alde, orain eta nire erijotzaldijan!

Joseba deun, il-uŕen diranen laguntzaŕe: otoi nire aldez.

Ene Gotzon Jabole: lagundu nagixu ta etsayetatik jabon.

Gotzon gustijok: erdu ta donokira lagundu nagixube, zebekin Jaunari betiko goraltza abestu daiskiodantzat.

¡Josu, Miren, Joseba!

Josu, Miren, Joseba: bijotza ta gogua damotzubedaz.

Josu, Miren, Joseba: erijotz-agiñian lagun-zakikedaze.

Josu, Miren, Joseba: nire gogua betiko atsedenian aŕkedazube.

*Uaŕa.* Otoñuok baŕiro, be, esan daŕekez, edo danak edo egokijenak beintzat.

## VI

### Iluŕen-azteŕenak

Gexua iŕiri edo iluŕen noiz dagoken igaŕi biaŕa dabe laguntzen diñardubenak, une laŕi aretan alik onduen sorosteko-ta. Ona emen, azteŕen edo ezau-

piderik urtenenak: taupadeak eten edo tarteka ixatia; arnasa larija; begijak oi baño zabalago edota sakonago letz ixatia; sudur-erpin zorotz-zuriskea; abotik auzpo-puzkadeak lakuak urtetia; aurpegi margul eta ubela; bekokiko ixerdi otza; esku-oñak otzitutia, ta a.

Il-agiñeko azterenak, bariz, oneik dira: arnasa geldija; taupadarik eza; agin-zirija; eztariko jarijua; adija ixil edo zotintxuba; begi geldijak darijon negar-malkua; eta abua, begijak eta gorputza okertutia. Aztarenok nabatuzkero, otoi labur ta sutsubak esan gexuari lenago baño abots gogoraguaz. Ona emen, oretarako otoño egokijak:

Jaun ori: nire gogua zeure eskutan izten dot.

Ene Josu: nire gogo au zeure odol ederaz erosi eustazun; artu ba zeuk, eta jabon egixu.

Ene Josu: ziñesten dautzut; eta ziñestedun il gura naz.

Josu matagari ori: mate zaudaz nik: garbai naz zeu iraindubaz.

Ene Jaun eta Jaungoiko: bai-datorkit zeu ikusteko, betiko zeuganatuteko orduba.

¡Beti mate ixan ai ba'zindudazan! egundo obenik jauki ai ezpa'leudan!

¡Miren deun, Jaungo-Ama ta ene Ama! Otoi-egixu nire aldez orain, erijotz-ordu onetan.

Ene Josu: gaizkatu nagixu. Miren Ama mate: jabon nagixu. Joseba deun: lagundu

nagixu Mikel gongotzon deun: zaindu nagixu, ta areyuetatik jabon.

Ene Gotzon jabole: Jaunaren ageŕira naruakezu. Gotzon gustijok: laguntza-biaŕa dot-eta, lagundu nagixube. Deun gustijok: lagun zakidaze; erijotz ona jadetsi eiskedazube. Olantxe.

## UAŔAK

Gexuari otoñuok gogorazoten yakazan bitaŕtian enparau lagun eta senidiak alboko aretuan-edo belaunbikotu biaŕ litxakez gexuaren aldez Miren deunari *Aguŕtzea* ta *Aŕentzea* esateko. Olantxe obeto lagun-egingo dautsae gexuari, oe-onduan negaŕ-zotinka egonaz baño. Gexuarekin lagun bat edo bi egotia naiko da.

Gexua ildakuan, jauparijak edo besteren batek lagunai onan itz egin leiskie:

«Il yaku, lagun matiok, il yaku gure... gaxua; aŕtu dau ludijon garanok aŕtu biaŕa dogun zigoŕa; ordaindu dau geuk, be, noxonoz ordaindu biaŕko dogun zoŕa. Iletadun etxera etoŕtia ona dala dirausku Goteunak, gustijon azkena zein ixango dan gogoratu daiguntzat. Ixan, be, azken berbera ixan biaŕko dogu gustijok: erijotza. Eztakigu, baña, nolan ilgo garan: etxian eta oyan, au letz, ala uŕun eta iñoren laguntza-barik. Eztakigu gure lagun onek letz ikuŕtonak aŕtzeko biderik ixango dogun, ala oŕetarako asti-barik bat-baten ilgo garan. Eztogu, biaŕba, ezetarako astirik ixango. Ori dala-ta, gerturik egon biaŕ gintxakez beti, geure gogua, geure arimia, betiko galdu eztaikeguntzat. *Gogua galtzekotan, ¿zer dau, ba, gixonak, ludi osua eskuratu al ixatia, be?* Gauŕdanik zintzoro bixi

gaṙezan, lagun maṙiok, egiñen onetan jardunaz; ludi aunetatik onegiñak baño eztoguz eruango-ta. Beste gauza gustijak ementxe laga biaŕko, gure lagun gaxo onek laga dauzan letz. Otoi-daigun bere gogo-aldez».

Ona emen, il yakun senide edo lagunaren gogo-aldez egin daikeguzan egintzarik onenetarikuak: len-bai-len autoŕtu ta jaunaŕtu; jaupeak atara ta entzun; eskekuai ilđakuaren ixenez ukaŕ-egin, bere gogo-aldez otoi-egin dagijela eskaturik.

¡Zoruntsubak iḻen gogo-aldez eŕuki-egintzetan jarduten diranak, eurek be eŕukija jadetsiko bai dabe! Olan jardutia ilđakuarentzat, be, oba da, alpeŕiko beste gauzeak egiṙia baño.

Azkenai-egiḻiak euren egikixuna len-bai len betatu beikie. Eta beste gustijok, be, norbere egin-biaŕak ziero betatu daiguzan, ordez-orde Goiko Jaunak orain bere eskaŕ deuna ta gero betiko aintzea damoskeguzantzat. Olantxe.

## Erijotza gogoz aŕtzia

*Kistaŕak uŕengo au iḻian-iḻian, beintzat, esan biaŕ leukie.*

Ene Jaun eta Jaungoiko: betiko zure ixate gurena guŕ-dagit; eta niri soŕkundian emon eustazuna zeuri deskeintzut, zeroŕek gurako unian erijuak eten dagikentzat. Erijotz ori ontzat aŕtzen dot, apal-apal eta Josu-Kisto gure Jaunak jasan ebanaz batera aŕtu, be. Onaŕpen au dala-ta, eŕuki-zakidaz, ta une laṙi aretan lagundu naikezu.

Nire erijotza buru-eskein osua bedike: niria etenaz zeure ixate gurena biaŕ dan letz

guřtu ta jauretsi gura dot. Nire erijotza ordañezko eskeintza bedike: nik, bildurgařija ixanařen, oraindixek ontzat ařtzen dot-eta, zeuk be, Jaun ořek, ene oben-ordaintzat onařtu, ařen.

Konorte-baga lotutia dagokit, bai, Jaun ori, zentzun eta asmenakaz oben-egin eudalako. Nire gogua gorputzetik aldendutia dagokit, oben-egiñaz zeugandik aldendu nazalako. Bidez iořtzi ta oinkatu ixango da nire ilotza, ařokerijak zirikauta, bestiak neu ikustia opa-ixan dodalako; arik-eta iñortxo nigaz ez gomutetia, be, bidez jazoko da, lagunak mate-nengijela gura ixan dodalako; bidezkua dot nire soñak zupu ikaragařijan iraun biařa, alpeřiko jardunaldijen ordaintzat; bata, soña ařak jan eta auts biguřtu biařa, be, eragez mate ixan dodanaren zigořtzat.

¡Auts ori! ¡Ařoik! Neure Jaunaren zigořkayak zaudaze: bere Lagijaz atxin jagi nazalako, nire antustia ta ařokerija zuben bidez zigořtauko bai'dauz. Zuzendu eikezubez nire okeř-egiñak; austu nire gorputz au, Jaunaren etsai au, irazakijaren gauza-ezaz Irazaliaren altasuna agirijago daditentzat. Danau onařtzen dot, ¡ene Jaun eta Jaungoiko! bata, erijotz-ostian nire goguak entzun biařko daun zure epai zuzena, be.

**Erijotz ona jadesteko otoya**

*Bakotxian 100 eguneko nekazkea, ta osua ilian bein, oi diran baldintzakaz.*

¡Ene Josu on, Jaungo eŕukitsu, Aŕa bijozpera! Apal-apal eta bijotz-gaŕbai natoŕkixu, erijotz-aldirako eŕuki-eske.

Nire oñak zirkiñik egiteko gauza eztirala -ta, geyago luŕetan ibiliko enazala igaŕi daikedanian,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Nire eskubak, dardarka, gurutza ezin eukiŕa, oe-ganera jausten itxi daikienian,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Nire begijak, erijotz-ikaraz nastau ta ilunduta, azken-begirakun laŕijak zuzendu daiskezubezanian,

*E*. Eŕuki, nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Nire ezpan otz-dardaratijak zeure ixen deuna azkenez oguzi daikienian,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Nire arpegi ubeldubak eta erijo-ixerdiz bustiŕako ule latzak, erijotza uŕian dala-ta, ikuslien bijotzetan eŕukija ta ikarea eragin daikiezanian,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Nire belaŕijak gixonen izketeak entzuteko gauza eztirakela, lasteŕ betiko epai zuzena entzun biaŕko daukedanian,

*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Nire irudimena, irudi ixugaŕijak eraginda, aŕtega ta laŕi; eta gogua, egindako obenak eta zeure zuzentasuna dirala-ta, estu ta armin, zeugazko itxaromena kendu nairik etoŕiko yatan areyo malmutzagaz buŕuka gogoŕa ixatian,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Nire bijotz argala oñazez menderatuba, erijo-ikaraz ixutuba, ta azken-buŕuka gogoŕaz erkindu ta indaŕgetuba dagokenian,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Nire bixitz-amaya iragaŕiko daben atsenengo negaŕ-malkuak neure oben-ordaintzat aŕtu, aŕen, eta une laŕi aretan,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Oe-onduan senide ta lagunak, nigaz eŕukiŕuta, neure aldez otoi-dagiskezubenian,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Gorputzaren zentzumenak gauza ixan ez-ta, alboko gustija ayenatuten asi, ta ni erijotz-laŕijetara saŕtu nadiŕenian,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Azkeneko bijotz-taupadeak goguari gorputzetik urten eta zeuganatuteko bultz-dagiskiaenian,
*E.* Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.
Gorputza ilotzik itxiŕa, nire gogua, zeure Aundiŕasunari dautsadan zoŕa ordainduteko, azkeneko arnasaz batera urten dadiŕenian,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, eŕuki nigaz.

Atzenez, nire arimia zeure ageŕira erduta laboŕi lotu dadiřenian, ezeikezu, aŕen, zeugandik egotzi; ostera, baŕiz, donokijan betiko goraldu zaikezantzat, eŕuki-zakizkio,

*E*. Eŕuki nigaz, Josu on ori, nigaz eŕuki.

¡Noiz ta nolan ilgo garan geuk jakiřerik nai izan eztozun Urtzi Jaun ori! Neure bixitzako egun gustijetan oben-baga iraunik, azken-arnasea, be, zeure aizkidetasuna galtzeka emoteko laguntza inđazu. Bixi ta agintzea zeu ta Goteunarekin batez dauzan Josu-Kisto gure Jaunaren irabazkijak dirala bide. Olantxe.

Josu, Miren, Joseba: bijotza ta gogua damotzubedaz.

Josu, Miren, Joseba: erijotz-agiñian lagun-zakikedaze.

Josu, Miren, Joseba: nire gogua betiko atsedenera aŕkedazube.

**Il-agiñerako nekazka osua**

*Autoŕtu ta jaunaŕtu ondoren, uŕengo onaŕpen au bein bederik mařero dagikienak erijotz-unerako nekazka osua irabaziko dabe, X Pi Doipurubak erabaki ebanetz:*

¡Ene Jaun eta Jaungoiko! Oraindixek, gogo-jasatasun aŕtetsuz, on-esten dot zeure eskutik etoŕi daikedan edozeinbere erijotz-mueta, bere neke, oñaze, esturaldi ta gusti.

# GOGO-ALDEZKO ARDURA-ESKIA

## ERÓMAR-JAIKUNIDAZTI-ARAUZ

### **Ilagiñeko arentzea**

Jaunoi, erukitu, *Jaunoi, erukitu.*
Kisto, erukitu, *Kisto, erukitu*
Jaunoi, erukitu, *Jaunoi, erukitu.*
Miren deuna, *aren bere aldez*
Gotzon eta gongotzon deun gustijok, *aren bere aldez*
Abel deuna, *aren...*
Done-talde osua, *aren...*
Abaran deuna, *aren...*
Jon Ugutzari deuna, *aren ..*
Joseba deuna, *aren ..*
Erkaba ta Iragarle deun gustijak, *aren ..*
Kepa deuna, *aren...*
Paul deuna, *aren...*
Ander deuna, *aren...*
Jon deuna, *aren...*
Beldu ta Goizpargile deun gustijak, *aren. .*
Jaunaren ikasle deun gustijak, *aren...*
Erubako ume gustijak, *aren...*
Estepan deuna, *aren...*
Laurenti deuna, *aren...*
Ziñopa deun gustijak, *aren...*
Silbester deuna, *aren...*
Gergori deuna, *aren...*
Augustin deuna, *aren...*
Gotzain eta Autorle deun gustijak, *aren...*
Bedita deuna, *aren. .*
Pantzeska deuna, *aren. .*

Kamil deuna, *aren...*
Jaungua'ren Jon deuna, *aren..*
Lekaide ta lekauti deun gustijak, *aren...*
Miren Matale deuna, *aren...*
Lutze deuna, *aren...*
Neskutz eta Alargun deun gustijak, *aren ..*
Urtzi'ren deun gustijak, *bere bitarteko ixan.*
Adibera zakijoz, *azketsi egin, Jauna.*
Adibera zakijoz, *jabon egixu, Jauna.*
Adibera zakijoz, *jabon...*
Zeure aseretik. *jabon...*
Erijo-galtzoritik, *jabon...*
Erijo txaretik, *jabon...*
Gaiztokiko oñazetatik, *jabon...*
Gaitz gustijetatik, *jabon ..*
Txerenaren mendetik, *jabon ..*
Zeure jayotza bide, *jabon...*
Zeure gurutze-nekaldijak bide, *jabon...*
Zeure erijotz eta obirakundia bide, *jabon...*
Zeure berbizkunde aintzagarija bide, *jabon...*
Zeure igokunde gelgarija bide, *jabon...*
Goteun Pozkiliaren eskara bide, *jabon...*
Epaikunde-egunian, *jabon...*
Obendijoi, *adiguzu, aren.*
Azketsi egijozu, *adiguzu, aren...*
Jauna, erukitu, *Jauna, erukitu.*
Kisto, erukitu, *Kisto, erukitu.*
Jauna, erukitu, *Jauna, erukitu.*

**Otoya**

Urten, gogo ori, urten ludi aunetatik, egin zinduzan Urtzi Ata algustidunaren ixenez; zeugatik il zan Josu-Kisto, Urtzi bixijaren Semiaren ixenez; zeugana ixuritako Goteunaren ixenez; Miren Neskutz, Jaungo-Ama

deun aintzagařijaren ixenez; Joseba deun, Neskutz beraren senař gurenaren ixenez; Gotzon eta Gongotzonen ixenez; Jauralki ta Jabegodunen ixenez; Auřen eta Aldunen ixenez; Jakiřun eta Sudunen ixenez; Eřkaba ta Iragařlien ixenez; Beldu ta Goizpařgiřien ixenez; Ziñopa ta Autořle deunen ixenez; Lekaide ta Lekauti deunen ixenez; Neskutz deunen eta Urtzi'ren deun gustijen ixenez; gentzea beike gauř zure egotokija, ta Sion deuna zeure bixiřokija. Kisto gure Jaun beraxe dala bide.

### Otoya

¡Urtzi eřukijoř, Urtzi bijozpera, zeure eřuki aundija dala bide, gařbaidunen obenak atzindu ta lengo gaiztakeri-eřubak osoro azketsi daruazuzan Urtzi Jaun ori! Zure mirabe au adibera begiřu, ařen, eta bere oben gustijak bijotz-bijotzez autořtubaz azkespena deskatzunezkero, entzun egixu. Bařiztu beronegan, Ařa bijozpera ořek, gixa -argaltasunez galdu edota txeřen malmutzak orbanduriko edozerbere; eta Josu-Kisto'k erosiřako soñatal au Doibatz-soin bakařari batu egijozu. Eřukiřu, Jaun ori, eřukiřu bere adija ta negařakařik; eta zeure eřukijaz baño uste eztanezkero, eskařezko zeure adizkidetasunera bařiro ařtu egixu. Josu-Kisto gure Jauna dala bide. *E.* Olantxe.

Ene anai (aŕeba) maŕe: Goiko Jaun algustidunari aŕendu ta zeure Irazaliari bidaltzen zautsadaz: gixa-zoŕa erijotzaz ordainduta, atzera, bustiñaz eraldu zinduzan Egiĺiagana, itxuli zadiŕezantzat. Gorputzetik alde-egiŕian, betoŕkez zeure goguagana gotzon-talde aintzatsuba, epaĺe ixateko Beldu-batzaŕa, ta Ziñopa bikañen gudozte garaĺia; Autoŕle-ozte aratzak, eta Neskutz-samalda argijak erdijan aŕtu zaikiezala; eta Eŕkabaen aŕtian donokiko zorunez bete zadiŕez. Iĺureneen Zaindari mazala dan Joseba deunak itxaropen aundija jadetsi dagitzula, ta Miren Jaungo-Ama Neskutz deunak bere begijak maŕero zeuganatu dagixala. Josu-Kisto, baŕiz, adikoŕ ta aŕpegi-alai agertu bekixu, donokira, bere ondora, betiko zaruakezantzat. Ez al dozu iĺunpe ikaragaŕirik jaŕugiko, ez sugaŕetako oñaze latzik. Aldendu bedi zugandik Satan gaizkiña bere txeŕenakin; eta zeu, Gotzonak lagun, eltzen ikusirik, ikararen ikaraz betiko gau iĺuneko oñezetara bigeske. Jaungoikua jagi, ta bere arerijuak banandu bediz; uxatu begiz aren aŕpegijak bera goŕoto-dabenak. Kia letz ayenatu bediz; subak argixaya urtu egiŕen dau letxe, Goiko Jaunak obendijak ondatu beikez. Zinduak, baŕiz, alai ta poz begoz Urtzi'ren ageŕijan. Lotsaz bete ta uxatu bediz, ba, gaiztokiko talde gustijak, eta

Satan'en laguntzaliak ezpeikie zure ibilbidia eragotzi. Zeugatik gurutzian josita il zan Kisto'k oñazetatik eta betiko erijotzetik jabon zagikezala. Kisto, Urtzi bixijaren Semiak, bere atsegin-baratz edeŕian jaŕiko al zauz, bere arditzat aŕturik, egizko Artzaña da-ta. Oben gustijak azketsi begitzuz, ta zeu bere eskumaldian autetsijen aŕtian jaŕi, zeure Eroslia aŕpegiz-aŕpegi ikusi dakuskezuntzat, eta, bere auŕian beti, egi-argi bixija zoruntsu begiztu. Zorundunen aŕtera jun, bai, ta amaibako egunetan Urtzi Jauna gozaŕtzen ziraukez. *E.* Olantxe.

### Otoya

¡Jauna! Zure eŕukija dala-ta itxaroten daun donokira aŕtu egixu zeure mirabe au. *E.* Olantxe.

¡Jauna! Zure mirabe au jabon egixu gaiztokirako bidietatik eta neke-loŕ gustijetatik. *E.* Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Enok eta Eli ludiko gustijen erijotzetik jabon euzuzan letz. *E.* Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Noe urijoletik jabon euzun letz. *E.* Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Abaŕan kaldataŕen Uri'tik jabon euzun letz. *E.* Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Joba lengo

neke-miñetatik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Ixaka Abaŕan aŕearen eskubetatik bixirik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Lot Sodoma'tik eta sugaŕetatik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Mois Paron Aigiŕo'ko bakaldunaren eskutik jabon euzun letz. *E*. Olantxe,

¡Jauna! Jabon bere gogua, Danel legoi -zulotik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, iru gastiak laba goriŕik eta bakaldunaren eskutik jabon euzuzan letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Susane guzuŕezko lekukotzatik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Dabi Saul bakaldunaren eta Goliat'en eskubetatik jabon euzun letz. *E*. Olantxe.

¡Jauna! Jabon bere gogua, Kepa ta Paul zijegatik jabon euzuzan letz. *E*. Olantxe.

Telke neskutza ta zeure ziñopa deuna iru oñaze ikaragaŕiŕik jabon euzun letz, zeure mirabe aunen gogua, be. jabon egixu, ta donokiko zeure atsegiñetara eruan. *E*.Olantxe.

### Otoya

Aŕen-dagitzugu, Jaun oŕi, zure mirabe onen gogo-aldez. Gixonen Eroslia zaran Josu-Kisto: gogo onegaz eŕukiḻurik ludira jatsi zintzazanezkero, aŕtu egixu, aŕen, Eŕkabaen egotokirako. Jauna: iñungo urtzik egiña barik zeure irazakija dala, zeuk, Urtzi bixi ta egi bakaŕ oŕek, egiña dala gogoratu egixu; zeu baño beste urtzirik, edo ta zeuriak lako egintzak ixan daikezanik eztago -ta. Poztu beike bere gogua zeu, Jaun ori, ikusijaz; ez gogoratu, aŕen, girin okeŕen zirika ta oldaŕak eraginḏa beñola egin-euzan gaiztakeri - obenak. Oben - egiñaŕen, Aŕea, ta Semia, ta Goteuna, beintzat, ezeuzan ukatu, beti ziñetsi baño; eta Urtzi Jaunatzazko atazea jabon ixan dau, ta gauza gustijen Egiḻia zintzoro jauretsi.

### Otoya

Gastaruan, jakiñeza bide, jauki euzan obenakaz ez gomutau, aŕen, Jaun ori; eta, zure eŕuki aundijaz arauz, ardura-zakijoz zeure aintza diztikoŕ oŕetan. Ortzijak edegi bekijoz, ta Gotzonak jostetan erdu. Zuk, baŕiz, Jaun oŕek, mirabe au zeure aleŕi-baŕu aŕtuxu. Aŕtu bei Mikel, Urtzi'ren Gongotzon deun, donokiko gudozte-burubak. Jabe' ren Gotzon deunak erdu bekijoz, goiko

Jerosolin urira eruateko. Aŕtu bei donokiko giltzak Jaunagandik eskuratu euzan Kepa Beldu deunak. Lagundu bei autatze-ontzi -gai ixandako Paul Beldu deunak. Biŕaŕteko -bekijo Jon, goiko ixilkayak ageŕtu yakazan eta Jaunak kolkokua eban Beldu deuna. Bere aldez otoi-begije, Jaunagandik lotu ta jaregiŕeko almena aŕtu eben Beldu deun gustijak. Goiko Jaunak autetsi ixanda ludijon Kisto'ren ixenaŕen oñazeturiko Deun gustijak biŕaŕteko-bekijoz, aragi-lokijak azkatuta donokiko aintzea jadetsi daikentzat, Aŕa ta Goteunarekin batez amaibako egunetan bakaldun bixi dan Josu-Kisto gure Jauna dala bide. Olantxe.

## Otoya

Atsekabetuben pozkiŕe bijozperea dan Miren, Jaungoikua'ren Ama Neskutz eŕukijoŕak, bere Semia otoiztu bei... mirabiaren gogo-aldez, Ama onen biŕaŕtekotasuna dala bide, erijotz-ikareak goŕurik, opa-daun goi -abeŕiko egotokira, bera lagun, pozaŕen eldu daŕentzat. Olantxe.

## Otoya

¡Zugana joten dot, Joseba deun ori, iŕuŕenen Zaindarija zara-ta! Zeure erijotzaldijan Josu ta Miren zaindari ixan yatzuzanezkero,

bat̄ura mat̄e bijok dirala bide, otoi-dagitzut bijotz-bijotzez il-agiñian dagon... mirabe onen gogo-aldez; zeuk goteungiaren iruzuŕetatik eta betiko erijotzetik jabonda, betiko atsegiñetara eldu dat̄entzat. Kisto gure Jaun beraxe dala bide. *E.* Olantxe.



# GARBITOKIKO GOKAXUEN ALDE

## BEDERATZUŔENA

### Gokaxuai bixi garanok sorosi biaŕ dautsegula

1. *Zuzentasuna*. Zuzentasuna dala-ta, ¿nortzuk sorosi biaŕ dautsie garbitokiko gokaxuai? Oŕetarako aginduba aŕtu dabenak: iŀaren oñordeko, azkenai-egiŀe ta. Oneik gokaxuen aldezko jaupeak atarateko-ta aŕtu dabezan txindijak, edo bestelako ondasunak, len-bai-len oŕetarako erabiŀen biaŕtuta dagoz; eta bestetarako erabiŀizkero, oben-legikie ta zoŕdun liraukez.

2. *Matasuna*. Geidiak geure burubak legez matatu biar doguz. Eta egizko matasuna itxak barik egipenak erakusten dabenezkero, gokaxuai egiñen onakaz sorosi biar dautsegu. Matasuna dala-ta, gokaxuen aldez egiñen onak egiten oneik dagoz biartuben: seme-alabeak gurasuen gogo -aldez, gurasuak seme-alaben gogo-aldez; emastia senararen gogo-aldez, senara emastiaren gogo -aldez; eta senidiak senidien gogo-aldez. Biarkixun ori, baña, beste gustijena be bai-da, gokaxuak bixi garanon geidiak dira-ta. Ildakuen ogasunak jarauntzi dabezanak, batez be, zuzentasun-arauzko sorosarijai naiko eretxi-baga, matasun-arauz beste egiñen onakaz sorosi biar dautsie, eskargaiztuak ixan gura ezpa-dira, beintzat.

3. *Erukija*. Bixi garanok garbitokiko gokaxuakaz eruki ixan biar gara. «Zoruntsubak erukijorak, erukija jadetsiko bai'dabe» esan eban Josu-Kisto gure Jaunak; eta beste baten: «Zubei bestiak egiteko gura leukezuben zerere, egin eurai zubek be». Garbitokijan ba'zengokez, bestiak zeure goguaz erukitu ta sorosariz laguntzeko guruko leukezu, ¿ezta? Orain, ba, eruki ixan zeu gokaxuakaz, ta al dozun bestian sorosi egiskiezu. Negar-egiten dabenakin negar-egiteko dirausku Paul beldu deunak. ¿Gokaxuen negar samiñak ez ete-dauskube, ba, bijotza ikutuko? Euren neke-oñaze ikaragarijak dirala-ta, ¿ez ete-gara erukituko? ¡Ango su bixija itxungiteko beste negar egin ai ba'leikegu! ¡Jeremi iragarliaren begijak judarakatik aña negar-malko ixuri ai ba'legikie gure begijak garbitokiko gokaxuen oñaze ikaragarijakatik!

4. *Geure ona*. Gokaxuai on-egitia geure burubai on-egitia da. Ludi aunetan eskargaiztoko asko dira -ta, onegin-ordez eskaronik, be, ez jasotia saritxu jazoten da. Garbitokiko gokaxuakaz, bariz, eleike olakorik jazo. Eskaron utzak dira-ta, gure sorosarijak geure aldez Jaunari zuzenduriko eskari

bixijakaz ordainduko dauskubez, donokiratu dařezanian, batez be; eta Goiko Jaunak gogo maře-maře aen eskarijak entzun, eta bere eskař deuna emongo dausku.

5. *Josu'ren Nekaldija.* Ařaturiko lau zijo edo zegařijok dirala-ta gokaxuai gogozago sorosteko, Josu-Kisto gure Jaunak geure gogo-aldez egin ebana ařtu biař leukegu eredutzat. Josu-Kisto'k, bere nekauste-erijotzak zirala bide, a) Urtzi Ařearen zuzentasunari gure oben-zořa bete-betian ordaindu eutsan; g) Paul deunak diñonetz, mařasun lařija ageřtu euskun; k) amarik samuřena bere seme gexuari baño eřukijago ixan yakun; y) ordez-orde Goiko Ařeak zorun betia ta ixen aintzatsuba emon eutsozan.

Josu'ren Nekaldija alik sařijen gogařtu egixu, ba, kistař ořek, eta zeure goguagaz ta garbiřokiko gokaxuakaz eřuki-ixaten ikasiko dozu. Eta Josu'ren Nekaldijan Ama gaxuak atsekabe lařijak jasan euzanezkero, gogařtu Miren-Bijotzaren atsekabe lařijok, be, zeure obenakařik eta gokaxuen oñaziakařik negař-egiřen ikasi daikezuntzat. Ordez-orde, Josu'k eta Miren deunak orain obenbarik bixi ixaten lagunduko zauze, ta gero garbiřokiřik jabon, edo ango egotaldija, beintzat, labuřtu egingo dautzube.

## Bederatzuřen au ondo-ondo egiřeko beste iñarkunak

1.ª Zintzoro autořtubaz goi-eskařa jadetsi, ta gero gogotsu jaunařtu.

2.ª Egunian-agunian jaupatara ta, al dala, itxaldijetara be erdu.

3.ª Txadonan, Jaunaren etxian zagozala-ta, ixiřik eta eratsu egon, gogo beroz otoi-egiñik.

4.ª Norbere buruba askotara ilđuratu, ilđurapenak gokaxuen aldez eskeñirik.

5.ª Oben-bidietatik arđuraz alde-egin, il-zorijetatik legez.

Josu-Kisto'ren bost zaurijai opaz bost iñarkunok betatu ba-dagixuz, bederatzuŕena ondo egiťia jadetsiko dozu; zeuretzat, baŕiz, eta gokaxuentzat onauŕki ugari eskuratu.

### Gokaxuen aldezko sorosarijak

1. **Jaupea.** Auxe dogu gokaxuak garbiťu ta donokiratzeko sorosaririk eragikoŕena. Beñola, Jaungoikua'k lekaide ezeinbati garbiťokiko sugaŕ ta oñaze laŕijak erakutsi ei-eutsazan Lekaidia eŕukiz beterik begira eguala, ara, gotzon bi erdu ziran garbiťokira: bijetariko batek eskuban edontzi edeŕa eukan, jaupatan gokaxo-aldez eskeñiriko Josu-Kisto'ren odolez beterik; bestiak, baŕiz, odol deunaz zipiŕiztinđu egiťen euzan gokaxuak: eta edol-tantatxu batek ikutu-orđuko, garbi-garbi ta eguzkija baño argijago lotuten ziran. Ixan be, jaupa-oparija Kozkotegi'kua bera da-ta, Jaungoikua'k beste edozein baño atsegiñago dau. Jauparijak, ba, arđura-arđuraz ta gogotsu esan begijez gokaxo-aldezko jaupeak; eta beste kistaŕak gogoz entzun eta, al ixanezkero, gokaxo-aldezko jaupeak atara.

Jaupeaz ganera, jaunaŕtzea ta beste ikuŕtonak, be, gokaxuentzako sorosari bikain-bikañak đoguz.

2. **Otoya.** Otoya, naiz gogozkua naiz abozkua, Goiko Jaunagandik eskaŕ ta onegiñak jadesteko bide zuzen-zuzena da. Oŕez beste, otoyaldijan belaunbiko egonaz-ta norbere buruba ilđuratuzkero, oben-zigoŕak ordainduteko inđaŕ bedegaŕa ixaten đau. Ezta, ba, sorosari txikeŕa garbiťokiko gokaxuentzat. Abozko otoitzak, aguŕtzea, aŕentzea,

ta a., onuragaŕijaguak ixateko, eurokaz batera gogozkuari ekin biaŕ yako, aboz esaten dana bera edo Josu'ren Nekaldija-ta gogoznaŕturik.

3. **Ilđurapenak.** Barau-egiŕia, beso-zabalik belaunbiko egotia, ta beste soin-ilđurapenak, oben-zoŕa kiŕetako alagalakuak dira-ta, gokaxo-aldez eskeñi daiskioguz Jaungoikua'ri. Barau-egiŕeko ta gauza eztiranak beste egintza eŕezaguak, beintzat, ezpeikiez ezetsi: jaki gozuena utzi, txiruai ukaŕ-egin, eta abaŕ.

4. **Gexotasunak.** Gexotasunak, eta bestelako neke ta irañak, be, gokaxuentzako sorosari bikañak ixan daŕekez. Oŕetarako, eruapen aundiz jasan biaŕ dira ta Josu'ren eta Miren deunaren oñaze ta atsekabiakaz batera eskeñi Urtzi Jaunari gokaxuen aldez.

5. **Nekazkeak.** Nekazkeak zer diran eta zelan irabazi daŕekezan lenago esan da. Geyen-geyenak garbiŕokiko gokaxuen aldez, be, irabazi daikez.

## UAŔAK

1.ª Bederatzuŕen au urteko edozein arotan egin daŕeke. Jaunagandik, naiz nor beretzat naiz beste iñorentzat, onegin bedegaŕen bat jađetsi gura danian egiŕeko alagalakua da berau. Bai, ba: geure sorosarijakaz garbiŕokiko bere emaste kutun areik jaregiŕia Jaungoikua'k atsegin-atsegin dau-ta.

2.ª Bederatzuŕena egiŕen txadonera jun eztaŕekenak etxian egin legike, Josu'ren edo Miren Neskutzaren irudi-auŕian.

3.ª Irakuŕteko gauza eztanak, bederatzuŕena egiŕeko, egun bakotxan Josu'ren zauri deunai bost *Geure Aŕa* ta *Aguŕ Miren*, eta Miren Nekatsubaren atsekabiai saspi *Aguŕ Miren*, astiro ta gogotsu esatia naikua dau. Otoyok gokaxuen aldez eskeñi biaŕ dira.

## BEDERATZUŔENA EGIT̄EKO EREA

*Asi baño len, Jaungoikua begira dagokixula-ta, zintzoro gaŕbai-ixan, eta bederatzuŕena asmo zuzen-zuzenez egit̄eko goi-laguntzea eskatu.*

*Zoritxaŕez, oben-laŕidun ba'zengokez, lenen autoŕtutia lit̄xake onena; eta ori ezin dalarik, bederatzuŕen-bit̄aŕtian beintzat. Orixe eskatu gokaxuai lenengo egunetik.*

Gurutze deunaren...

### Gaŕbai-egintza

Aguŕ, Josu-Kisto, neure Jaun, Jaungoiko ta gixon egi, neure Irazale, Aba ta Erosle ori: Zeuri ziñesten dautzut; zeutzaz nitxaro; zeu edozein gauza baño mat̄iago zaudaz; bijotz-bijotzez garbai-naz zeu iraindubaz, zaran on utza zaralako, bat̄a gaiztokiko neke betikoŕakaz nekaldu naikezulako, be, garbai-naz. Gauŕdanik obenik ez egit̄eko, zeu irainduteko zorijetatik igesteko, autoŕtuteko ta ezaŕiko leikedan oben-nekia egizteko erabaki sendo-sendua aŕtzen dot.

Artu, Jaun oŕek, nire bixi, egiñen eta neke gustijak oben-ordaintzat; eta, zeure odol deuna ta Miren Amearen atsekabiak dirala bide, azketsi egistazuz, ta bederatzuŕen au ondo egit̄eko laguntzea emon. Olantxe.

### Egunoroko otoya

¡Josu on ori! Gurutz ořetan josirik zagozala zoritxařekuen Ata eřukijořa zaranezkero, eřuki-zakidaz, zoritxařeko obendi gaxua naz -ta. Zeure neke-oñaze lařijakaz gomutaurik, eřukitu, ařen, nire goguaz ta Garbitokiko gokaxuakaz; eta zeure Ama laztana ta obendijen Ama eřukijořa dan Miren Neskutzaren neke ta atsekabiak dirala bide, garbai bixi-bixija emostazu, ta gokaxuak jaregin eta donokiko atsedenera eruakezuz. Olantxe.

## LENENGO EGUNA

### Otoya

¡Ene Erosle matagaři ori! Esku-oñak untze gogořakaz zulatu eutzubezanian, oñaze ikaragařijak jasan euzuzan gixonakatik. Oñaziok dirala bide, bijotza obenarekiko bildur aundiz zulatu egistazu, zeure lagi-menpetik aldendu enaditentzat. Zeure oñetan auzpeztuta guř-dagitzut, Josu samuř oři; eta, malukada-otsak entzutian zure Ama nekatsubak nabatu eban atsekabe samiña gogoraturik, Garbitokiko gokaxuenak arindu dagikezuzala deskatzut. Olantxe.

Emen, Josu-Kisto'ren bost zauřijai, bost bideř **Geure Ata, Aguř Miren,** eta uřengo otoñua esan:

«Jaungoiko Aŕa: Josu'ren odol edeŕa dala -ta, eŕukiŕu, ¡aŕen! Betirauneko atsedena emoskiezu, Jaun oŕek; eta betiko argijak argiztu beikez».

Otoño au ta **Geure Aŕa** ta **Aguŕ Miren** bost bideŕ esanaz 300 eguneko nekazkea irabazten da, ta osua iĺian bein, oi diran baldintzakaz.

### Egunoroko azken-otoya

¡Goiko Aŕagandiko agimen osua dozun Josu on ori! Garbiŕokiko gokaxuak oñaze latz aetatik atara egixuz, aŕen, Kozkotegi mendijan zeuk eta zeure Ameak jasaniko min eta atsekabiak dirala bide. Gure eskari, otoi ta ilđurapenak, eta obenetzazko garbai bixija, be, sorosaritzat deskeintzuguz. Entzun eta onaŕtu egixuz, Urtzi Jaun oŕek, eta Mikel Gongotzon deuna bidaldu gokaxuakana, garbiŕokiko iĺunpe ta miñetatik jaregindа donokiko atsegin-argiŕara eruan daikezantzat. Olantxe.

*Orain, apuŕ baten, garbiŕokiko nekiak gogaŕtu ta gokaxuen aldez ta norbere buru-aldez gogotsu aŕen-egin Josu gurutzaldubari. Gero, baŕiz, ilotoya esan.*

## ILOTOYA

| | |
|---|---|
| Ne recorderis peccata mea, Domine; Dum veneris judicare saeculum per ignem. | Ezeikezuz nire obenak goguan euki, Jaun oŕek; Subaz gixadija ebazten zatoŕkezanian. |

V. Dirige, Domine Deus meus, in conspectu tuo viam meam.

R. Dun veneris judicare saeculum per ignem.

V. Requiem aeternam dona eis, Domine; et lux perpetua luceat eis.

R. Dum veneris judicare saecúlum per ignem.

Kyrie eleison. Christe eleison. Kyrie eleison. Pater noster...

V. Et ne nos inducas in tentationem.

R. Sed libera nos a malo.

V. A porta inferi.

R. Erue, Domine, animas eorum.

V. Requiescant in pace.

R. Amen.

V. Domine, exaudi orationem meam.

R. Et clamor meus ad te veniat.

V. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

I. Ene Jaun eta Jaungoiko: zuzendu nire bidia zeure ageŕijan.

E. Subaz gixadija ebazten zatoŕkezanian.

I. Betirauneko atsedena emoskiezu, Jauna; eta betiko argijak argiztu beikez.

E. Subaz gixadija ebazten zatoŕkezanian.

Jaunoi, eŕukiñu. Kisto, eŕukiñu. Jaunoi, eŕukiñu. Geure Aña... *(ixiñik)*.

I. Eta ziltzaldiratu ezkagixuz.

E. Gatxetik jabon baño.

I. Gaiztoki-mendetik.

E. Jabon euren goguak, Jaun oŕek.

I. Gentzaz atseden bediñez.

E. Olantxe.

I. Jaunoi, entzun, aŕen, nire otoya.

E. Eta zeuganatu bedi nire oyuba.

I. Jauna zubekin.

E. Baña zeuŕe goguarekin, be.

**Oremus**

Fidelium Deus omnium Conditor et Redemptor, animabus famulorum famularunque tuarum remissionem cunctorum tribue peccatorum, ut indulgentiam quam semper optaverunt piis suplicationibus consequantur. Qui vivis et regnas in saecula saeculorum.

R. Amen.

V. Requien aeternam dona eis, Domine.

R. Et lux perpetua luceat eis.

V. Requiescant in pace.

R. Amen.

**Otoi-daigun**

Ziñestun gustijen Egiĩia ta Eroslia zaran Jaun ori: azketsi, aŕen, zure mirabien goguai oben gustijak, otoi beruak dirala bide, beti opa -ixan eben azkespena jadetsi daikientzat.

Amaibako egunetan bixija ta agintzea dozuzan ori.

E. Olantxe.

I. Betirauneko atsedena emoskiezu.

E. Eta betiko argijak argiztu beikez.

I. Gentzaz atseden bediŕez.

E. Olantxe.

# BIGAŔEN EGUNA

*Gurutze deunaren...*, *Garbai-egintza* ta *Eguneroko otoya* lenengo egunan letz esanda gero, uŕengo au:

**Otoya**

¡Geure Erosliaren eskuma deun ori! Donokirako autetsijen eskuba zara, ta eurok gaizkatziaŕen untze gogoŕaz gurutziari josiŕa

zagoz. Eutsi nagixu, ene Josu, zeure eskuma ořegaz, orain obenetara jausi-baga bixi, ta epai-egunan zeure eskumaldian nagokentzat. Eskumako zauri mingaři ori ta zeure eskuma-irazaki bikaña dan Miren Ama mařiaren atsekabia dirala bide, garbiřokiko gokaxuakaz gomutau zadiz, ta ango sugařetatik atara ta donokiko atsegiñetara eruakezuz, etenbaga zeu goresten diraukientzat. Olantxe.

Bost *Geure Āřa*, ta a., esanaz amařu, lenengo egunan letxe.

## IRUGAŘEN EGUNA

### Otoya

¡Ene Josu on ori! Untze gogořaz gurutziari josi dautzuben eskeřari ikaraz mun-dagitsot. Esku altsu ořegaz, zeure zuzentasun-arauz, deungiak betiko sutara egotziko dozuz azken-egunan. Ařijabař ikaragaři orixe irabazi ixan dot nik neure oben lařijakaz. Orain, bařiz, garbai-naz-ta, zeure eskeřaldian utzi barik eskumaldera aldatu nagixu, ařen. Eskař au zeure Ama nekatsubaren bidez deskatzut, Ama eřukijoř au maře dabenak azken-egunan zeure eskumaldian egongo dira-ta. Garbiřokiko gokaxuakaz, be, eřuki-zadiz, ta ango oñazetatik atara ta betiko atsegiñetara aldatu egixuz. Olantxe.

## LAUGAŔEN EGUNA

### Otoya

¡Ene Josu maťagaŕi ori! Zure soin osua zauriz uŕatuta agiri yat. ¡Astiñaldi gogoŕ a ixan yatzun mingaŕija! ¡Bijotz-bako gixon aen ankeŕkerija! Ni, baŕiz, eurek baño ankeŕagua ixan nayatzu: neure aragikerijak uŕatu bai'dautzube soin osua. ¡Orain, baña, garbai-nozu, Jauna! Girin okeŕak ezi ta aragija ilđuratu egingo dot. ¡Lagundu nagixu, aŕen! Eta zeure gorputzeko zaurijak eta eurok ikusijaz Miren deunaren bijotzak nabaťu eban atsekabe laŕija gogoraturik, gokaxuakaz eŕukiťu zađiťez, ta azkatu eikezuz. Olantxe.

## BOSKAŔEN EGUNA

### Otoya

Zure buruban arantzazko burestun mingaŕija dakust, ¡ene Josu! ¡Arantza gogoŕak buru gustija zulatu eutzubelarik nabaťu euzun oñaze laŕija! Arantzaok, baŕiz, geure aŕokerijak eta olđozpen gaiztuak saŕtu dautzubez. ¡Guria bai-dala gogoŕkeri baltza! Zeure buruko arantza bat bederik saŕtu egistazu bijotz-baŕu, onik-eta lengo obenakatik

garbai-ixan, eta bafirik jauki eztaikedantzat. Zeure arantzazko burestuna ta Miren deunaren bijotzeko atsekabia dirala bide, gokaxuak donokiratu, ta aintzazko burestun bana imiñi eiskiezu. Olantxe.

## SEIGAŔEN EGUNA

### Otoya

¡Ene Jaun eta Jaungoiko! Gurutze ořetan imiñi zauguzanon zoritxařa ikusirik, zure begi edeŕ ořeik negař-malko samiñak darijoez. ¡Guk, bařiz, geure gaiztakeri andijakařik, be, negařik ez! Eřuki-zakidaz, Jaun ori; eta zeure negař-malkuak eta Ama nekatsubarenak dirala bide, bijotz-garbai bixija indazu, negařaren negařaz neure obenak atzindu daikedazantzat. Entzun gokaxuen negař-zotiñak, be; eta len-bai-len donokiraturik, egundo amařuko eztan pozořetara, zeure begi zoruntsubak darijoen pozoŕ betera, ařkezuz. Olantxe.

## SASPIGAŔEN EGUNA

### Otoya

¡Josu laztan ori! Egaři-zarala dirauskuzu gurutze ořetatik. Zure soña egaři-da, ixan be, baña, zeure gogua egařijago da, gixa

-eme gustijak gaizkatzeko egaŕi bixijaz. Emostazu neuri, be, olako egaŕi andija, gaiztakeri-ur zikiña barik goi-eskaŕdun Iŕuŕijetako ur gaŕdena edan daikedantzat. Eta gurutzeko zeure egaŕija ta Miren deunak orduban nabaŕuriko tamal aundija dirala bide, gokaxuen egaŕi bixija, zeu ikusteko egaŕi andija, zeure aŕpegi edeŕa erakutsijaz iŕo eiskiezu. Olantxe.

## ZOŔTZIGAŔEN EGUNA

### Otoya

¡Josu on ori! Gurutzian beste neke-oñaze ta atsekabe laŕijetaz ganera, Goiko Aŕa laztanak galetsi ixatia jasan biaŕ ixan euzun. ¡Zeuria bai-dala jasatasun aundija! ¡Neuri damostazun ikasbidia! Oben-egiñaz betiko galespena irabazi ixan dodanaŕen, edozelako neke-miñak dirala-ta, gogauldu ta estutu egiŕen naz. Lagundu nagixu, Jaun oŕek, zeure eskutiko neke ta atsekabe gustijak pozaŕen eruan daikedazantzat. Eta zu il zintzazanian zeure Ama laztanak nabaŕu eban bakaŕ-min bixija dala bide, erijotz-aldijan lagun-zaikedaz; eta garbiŕokiko gokaxuak, be, babestu ta jaregixuz. Olantxe.

## BEDERATZIGAŔEN EGUNA

### Otoya

¡Aztamakil̄ak zulaturiko Bijotz guŕgaŕi ori! ¡Mat̄asunez beteriko Bijotz mat̄agaŕi ori! Nire bijotz epelau zeuriaz batu egixu, oben-azteŕen gustijak atzindduta mat̄asunaren mat̄asunaz kiskaldu dedintzat. Zeu lako bijotz otzan eta apal biguŕtu nagixu, Josu on oŕek. Bijotz-bijotzez mat̄e gura zaudaz zeu, ene Jaun eta Jaungoiko ori; bat̄a bixi diran neure geidiak eta garbit̄okiko gokaxuak be. Oneik len-bai-len atara eikezuz, donokijan mat̄e-mat̄e zagikiezantzat. Ni, baŕiz, enat̄ela egundo zeugandik aldendu; zeuria ta zeure Amearen Bijotz garbija geruago ta mat̄iago ixan daikedazala, ostera; betiraun osuan donokijan goretsi ta gozaŕtu zagikedazantzat. Olantxe.

*Lenengo egunan letz amat̄u.*

## GOKAXUEN ALDEZKO ESKEINTZA

*Eskeintza au gokaxuen aldezko egintza on-ona da; eta bein betiko egit̄ia naikua da. Onetan dago: norbere bixitzako egiñen on gustijak eta ilezkero geure aldez eskeñiko dabezan sorosarijak Jaungoikua'ren eskutan iztian, berak gokaxuai egokit̄u daiskiezantzat. Miren Neskutzaren bidez eskeñi daikez.*

*Eskeintza edeŕ au egiñezkero, a) Jaunaŕtza bakotxan nekazka osua irabazi daŕeke; g) baŕdin astelenetan, gokaxo-aldez jaupea entzunaz (astelenan ezin dabenak igandian entzutia naikua dabe); k) nekazka gustijak, naiz ta berez gokaxo-aldezkuak ixan ez, gokaxo-aldez irabazi daikez; y) jauparijak jaupa-egiñaz edozein egunetan irabazten dabe gokaxo-aldezko nekazka osua. Jaunaŕtunaz ta jaupea entzunaz nekazka osua irabazteko, txadona ikeŕtu ta doipuru aldez otoi-egin biaŕa da.*

## Eskeintzea onetara-edo egin daŕeke

Goiko Jaun ori: Josu ta Miren'en irabazijakaz batez, gokaxuen aldez eskeintzen dautzudaz nire egiñen on gustijak eta neure aldez bestiak egin legikiezanak.

## ON-BIDEZ AZKENERAŔTE IRAUTEKO BOST EIKUNAK

Donokira eltzeko, donoki-bidez ibilten astia ezta naikua; bide oŕetan azkeneraŕte iraun biaŕa da. Baseŕitaŕak, be, Bilbao'ra eltzeko, arako bide zuzena aŕtzia eztau naikua; bidekatu edo bidian lotu ba-dadi, baŕiro bide zuzena aŕtu ta azkeneraŕte ibili ezik, ezta egundo Bilbao'ratuko. Onbidez erijotzeraŕte iraunaz donokira eltzeko, baŕiz, Jaunaren goi-eskaŕ bedegaŕa eskuratu biaŕ-da-ta, egunian-egunian eskatu eikezu ta uŕengo bost eikunok arduraz betatu. Zintzoro betatuzkero, elduko zara, baiki, donokiko zorunetara.

1.ª **Il nayago ixan, oben-egin baño.** Lenengo agintza-arauz, Jaungoikua beste ezer baño matiago ixan biaŕ dozu-ta, obenaz Jauna ez galtziaŕen gauzaok galtzeko gerturik egon biaŕ. Ligorio'taŕ Albontsa deunak esaten ebana: **Jaungoikua ez galtziaŕen, beste dana galdu bei; Jaungoikua asaŕe ez ixatiaŕen, beste gustijak asaŕe betez.** Iñoz, baña, oben-egiñaz Jauna galdu ba-dagixu, etzatezala ustegatu, aŕen, txeŕenaren eragipenai jaramon egiñaz Oben-egiñaz gaŕbai-zaditez, bai, zeure Urtzi Jauna, zeure Egilia, zeure Eroslia, zeure Ata on -ona... iraindu dozula-ta. Len-bai-len autoŕtutia erabaki, ganera. Ara: edena iruntsi daunak egiten dauna egin biaŕ dozu. Edena iruntsi dauna len-bai -len oka-egiten alegindùten da, odola edenduta il eztatentzat. Zeuk, be, oben laŕija jauki ba-dagixu, len-bai-len jauŕtiki eikezu, bijotz-bijotzez garbatu ta gero zintzoro autoŕturik; ostantzian, zure arimia betiko galduko bai'dozu. ¡Arimia galduzkero, baŕiz, ludi osua irabazi ixanda, be, dan-dana galduko

leukezu! Gaiztokijan eztago gatxa ta zoritxaŕa baño besterik; bein ara saŕtuzkero, baŕiz, eztago andik urteterik. Bata edo bestia autetsi biaŕa dozu: edo beti-betiko zoruna donokijan, edo egundo ez amaītu ez gitxiītu egingo eztan zoritxaŕa gaiztokiko sutzaŕetan. ¡Aukeratu!...

2.ª **Oben-bidietatik alde-egin.** Oben-bidietatik alde ezpa-dagixu, obena jaukiko dozu, **jauspidia maīe-dauna jausi egingo dala** bai'diño Goteunak. Aberiak, be, adinbakuak ixanaŕen, miñaŕtu daben tokijetatik alde-egin darue. ¿Eta zuk ostera oben-bidera jo gura dozu? ¿Nolan ixango zara, ba, oben-barik? Zokonduetako miarma-sariak kendu-aŕen, miarmeak eurak il ezik, ostera miarma-sarez betetan dira; eta soluetako bedaŕ txaŕak ebagi-aŕen, zusteŕaīik kendu ezik, baŕiro erne ta azi egiīen dira. Zeure gogua, be, obenak zintzoro autoŕtu-aŕen, oben-zorijetatik aldendu ezik, obenez beteko yatzu baŕiro. Oŕegaīik, oben-bide yatzuzan arako lagun, jarduketa, dantza ta jolasetatik aldendu zadiīez, ta gogua oben-barik jabongo dozu.

3.ª **Jaunari otoi-egin eta Miren Amea maīe-maīe ixan.** Azkeneraŕte onbidez irautia Goiko Jaunaren emoi bedegaŕa da, Doibatz Ameak dirauskunetz; eta emoi ori saŕi eskatuten dautsoenai baño eztautse emoten. Oŕegaīik, donokiratu al ixateko, beti ta gogaīu-baga eskatu biaŕ dala diño Toma deunak. «Zeure ala bel», esan biaŕ dautsogu beti Jaunari: eldu bei gugana orain zeure eskaŕ deuna, ta gero betiko aintzea. Au gustijau jadesteko, baŕiz, Miren Ama Neskutza maīe-maīe ixan biaŕ. Eskaŕ ta emoi orotzazko biīaŕtekotasuna emon dautso Jaungoikua'k Miren Ameari, ta bere bidez etoŕten yakuz Jaunagandiko onauŕki gustijak. Donokiko atia da-ta, Kerman deunak diñonetz, Miren deuna biīaŕteko ixan-ezik eztago Jaunaren eŕukija loŕtuterik. Oŕegaīik, egunian-egunian otoiztu biaŕ dautsozu Ama laztan oni, ta oparitxu asko eskeñi:

agurtzea esan, bederatzuŕenak egin, barau ta bestelako ilđurapenak, eta abaŕ. Bere onoimenok, batez be, antzaŕtuten alegindu zaditez: apaltasuna, otzandasuna, garbitasuna ta Jaunarekiko matasun bixija. Zeure buruba goxian-goxian Miren Neskutzari ukaintziaz, beintzat, ez aztu, aŕen: oŕetarako, «Aguŕ, Miren, Jaungoikua'ren Ama Neskutzoi!» 31'g ingoskiko otoi labuŕa gogoz esatia naikua dozu. Labuŕa ixanaŕen, beti esan ba-dagixu, orain goi-eskaŕa ta gero betiko aintzea jadetsiko dozuzala dirautzut.

4.ª **Ikuŕtonak saŕi aŕtu, gure Jauna, batez be.** Goi-eskaŕa, goguari osasuna damotsan osakaya da; ikuŕtonak, baŕiz, goi-eskaŕa geuganatuteko ubidiak letxe dira. Ipiñi, be, oŕetarako ipiñi euzan Josu-Kisto gure Jaunak: goi-eskaŕa geuganatuz gogo-gexuak sendatu, nai sendo dagozanak obenetik jaboteko. Gorputza gexorik daunak osasuna jadesteko alegiñak egiten dauz, osakai egokijak aŕturik-eta; osasuna loŕtuzkero, baŕiz, jaki onakaz alikatuz-ta, osasuntsu irauten arduratuten da. Goguaren osasuna eskaŕ deuna da-ta, galdu ba-dozu, Autoŕtza-ikuŕtonera jo, ta atzera emongo yatzu; eskaŕa galdu ezpa-dozu, be, autoŕtutia onuragaŕi yatzu, eskaŕoi getu egingo bai'dautzu. Jaunaŕtza-ikuŕtona, baŕiz, gogua senduagotu ta inđaŕtsubagotu egiteko da. Ikuŕton aunetako gure Jauna Ogi bixija da, ixan be: donokitik jatsiriko ogi bixija, ogi gozo-gozua, ondo jaten dabenai betiko bixitza emoten dautsen ogija. Ogijau Josu-Kisto'ren Gorputz deuna da, gixadijaren bixitxarako emon ebana. Soñez sendo irauteko saŕi jaten dogun letz, gogoz sendo irauteko, be, saŕi jan biaŕ dogu Josu'ren Gorputza. ¡Saŕi ta ondo jaunaŕtzen dabenak, bai, onbidez arin-egiten dabela! Gogo-aŕtezkari ixan zan ogetabost urtietan auxe nabatu ebala esaten eban Sales'taŕ Pantzeska deunak: Jaunaŕtzeaz goguak beste ezegaz baño eŕezago donetu ta

jaungoikotu letz egiten zirala Alik sarijen jaunartu egixu, ba, ta ondo egin, be: edo, oben lari barik eta asmo zuzenaz, ona ixateko-ta. Egunian-egunian jaunartu dagikezunetz jakiteko, zeure baruba ziaro azalduta gero autorentzuliari itandutia oba dozu. Kistarak sari jaunartzia atsegin-atsegin dau Miren deunak, be. Ona emen, Señeri Gastiak diñonetz, Miren'gandik onegin aundijak eskuratuteko bide zuzen-zuzena: Jon deunak amabi ixarezko burestunaz ikusi ebala-ta, Miren Neskutzari opaz amabi astetan, edo ta amabi ilabetetan, jaraikiro jaunartzia. ¡Ora, Miren deunagandik zerbaist eskuratu gura danian egiteko eskeintza edera!

5.ª **Jaungoiko-ageritan zagozala ziñetsi ta gogoratu.** «Jaungoiko algustiduna nok: neure ageritan ibili, ta gustiz zintzua adite», esan eutsan Jaunak berak Abaran erkabeari. Jaungoiko-agerijan gagozala sari gogoratutia, obenik ez jaukiteko bide ona da, ixan be. **Goiko Jaunak ikusi nakus... Nire oldozpenik ixilenak, be, agiri-agiri yakoz... Oben-egiten osten-ostenera junaren, Jaunaren aurian nengoke beti...** Egijok ziñetsi ta gogoratuzkero, ¿nok egingo leuke obenik? Bere gudari kementsuben erdijan legoken bakalduna eleuke iñok aurez-aure irainduko, zororen batek ezik ¡Eta algustidun Jaungoikua oben-egiñaz aurez-aure iraindu darua gixonak! ¡Jaunak aginduzkero beriala zigortau ta erailgo leukien beste ixakijen agerijan iraindu, be! Axiak arnasbagetu egingo leuke; lurak iruntsi; urak irato; subak kiskaldu... Jaungoiko-ageritan zagozala ziñetsi ta sari gogoratu eikezu, ba, ta obenetik igesi ta donetasunera elduko zara. Olantxe.



# JOSU'REN NEKAUSTIAZKO
## GOGAŔTE-GAYAK

### Lenitxa

Augustin deunak dirauskunetz, betiko gaizkakundia jadesteko, eztago gauza obarik, gebaŕen Josu -Kisto'k jasaniko nekiak egunian-egunian gogaŕtutia baño. Eta lenago Origenes ospatsubak idatzi ebanetz, bere Erosliaren erijotza saŕi gogoratuten daunaren gogua eztaike ezelan be oben-menpian iraun. Lekauti ezeinbati, baŕiz, auxe ageŕtu eutsan

Jaunak berak: edozein bijotzetan Urtzi-maīasuna bizteko, gure Erosliaren Nekaustia gogaŕtutia baño eragokun eragikoŕagorik eztagola. Oŕegaīik, Josu-Kisto nekautsijagan doguzan onauŕki aundijak ez jakiīia dala, esaten eban Alvarez Baldasar abeak, Kistaŕen ondamendija; eta autoŕtzen juten yakozanai Josu gurutzaldubaren Bijotz-baŕu bixi ixateko agindūten eutsen, eleukiela ostantzian gauza onik egingo-ta. Bonabendur deunak, baŕiz, Josu-Kisto'ren zaurijak gezi gorijak zirala, esaten eban, bijotzik gogoŕenak zulatu ta gogorik otzenak berotu egiīeko adiñonak: «Aŕizko bijotzak zulatu ta gogo ixoztubak berotu egiīen dozubezan sugaŕok!», didar-egiīen eban.

Josu-Kisto'ren Nekaldijatzaz amaika gogaŕte-gai edeŕ argiīaldu dira, baña, kistaŕ onarentzat Idazteunekuak baño eragikoŕagorik eztaike aīatu. Idazteuneko itz batek indaŕ andijagua dau, ixan be, bestelako idaztijetan, Jaunak egiñikuak dirala-ta, irakuŕten diran amaika ageŕpenek baño; Idazteuneko gusti-gustija egi utza bai'da. Ori dala-ta, Goizpaŕetara jo dot gogaŕtegai-biļa. Goizpaŕgiļe deunak Josu'ren nekietzaz dirauskubena aipatu, ta gogaŕpen eta naikun labuŕ batzuk geīu, besterik eztot egin. Goizpaŕgiļiak dirauskubena, baŕiz, gogaŕtegai-naikua da gure adimenak urtietan gogaŕtuteko, be; eta geure bijotzak jaumaīasunez berotuteko, eztaike gauza obarik idoro.

Gebaŕen Josu-Kisto'k jasan euzan min eta irañak ziñetsi ta gogaŕtuzkero, ¿nok eleuke maīe-ixango? Jaungoiko maīale oŕi eskaŕona erakustiaŕen, ¿nok eleuke bere gogua donetuten alegiña egingo? Ziñetsi egin biaŕ, gero; ostantzian, Goiko Jaunak gebaŕen egin dauna, siñeskintza-bidez ezpa'lekigu, eziña zala lesakegun. **Bere buruba ezereztu egin eban, jopu-erea aŕturik.** Belen'go estalpetxuban jayoriko Josu donokijan gotzonak auzpez guŕtuten daben Jauna zanik, ¿nok uste-ixan leikian?

Erode'gandik igesi Oigito'ra jun zana Algustiduna zanik, ¿nok igaŕi? Baratzan neke-laŕiṫan eguana Goiko Jaun zoruntsuba zala, ta gurutzian josiṫa agiri zana gauza gustijen Jaubia zala, ¿nok esan leikian?

Bakaldun altsuba bere oldez koko biguŕtuta basatzatik aginđuten eta lagijak egiṫen ba'likuskegu, gure laboŕija txikeŕa, be, elitxake ixango. ¡Ziñeskintza đeun ori! Josu-Kisto nor dan, gixonik geldoena letz agiri yakun ori nor dan esaskuk, aŕen. **Eta Itxa gixatu egin zan**. Betiko Itxa dala, Urtzi'ren Seme-bakaŕa dala dirausku Jon deunak. Jaungo-Gixonau, baŕiz, ¿nola bixi ixan zan luđijon? Ona emen, Ixai iragaŕliaren erantzuna: **Gixonak ezetsi ta aŕbuyatuba ta nekez beterik ikusi dogu.** Urtzi-Semia gixon gaiztuak ezetsi ta askotara nekaldu egin eben, gixonik geldoena ta gaizkiñena bai'litxan. ¡Jaungoikua gaizkiñak letz atxiḹotuta! ¡Jaungoikua jopubak letz astinđuta! ¡Jaungoikua guzuŕ-bakalduna letz erabiliṫa! ¡Jaungoikua gurutzian josi ta ilđa! Au gustijau ziñesten daunaren bijotza eztaṫeke ikara-barik, eztaṫeke min -ixan-barik egon. «Erosliaren zaurijak —iñuan Sales'taŕ Pantzeska đeunak— beste ainbeste abo letz dira, ta beraŕen min-ixaten irakasten dauskube. Auxe dogu deunen jakintzea: neke-miñak beti Josu'gaṫik jasatia; eta berau betatu ba-dagigu, lasteŕ donetuko gara. Erosliaren bijotzeko maṫasun-gaŕak gogoratuzkero, ¡geuriak be, bai, gaŕtuko đirala! ¡Ene! ¡Aun zorun aundija: Jaungoikua eŕetan daun gaŕak berak eŕe al-ixatia! ¡Au pozoŕ betia: maṫasun-estuntzaz Urtzi Jaunari lotuta egotia!»

¿Zer dala-ta, ba, ainbeste kistaŕek Josu-gurutzalduba ezazol eta soŕgoŕ ikusi darue? Aste Gurenez, Josu'ren nekiak eta erijotza ospatzen điralarik, erduten dira, bai, txađonera; baña, euren bijotzak soŕgoŕ ixaten đabez, eđozelako eikixunak bai'litxazan. ¿Josu'ren Nekaustiaz Goizpaŕak đirauskubena

ez ete-dabe ziñesten? Bai, ziñesten dabe ziñetsi; gogaŕtu, baña, eztabe egit̄en. Josu-Kisto'k gebaŕen jasaniko nekiak eta erijotza arduraz gogaŕtuzkero, elegoke bijotz epelik, elegoke Urtzi-mat̄asunaz gaŕtu-bako bijotzik. **Kisto'ren mat̄asunak ind̄aŕ-egit̄en dausku,** idatzi eban Paul Beldubak. ¿Itzokaz zer dadirazo? Josu'ren mat̄asuna, batez be, gogaŕtu biaŕ dogula; gebaŕen alako oñaze latzak eta erijotzik mingaŕijena jasaten biaŕtu eban mat̄asun bixija gogo-goguan ixan biaŕ dogula beti. Gure goguak erosi ta jaregit̄eko, ezeban Josu-Kisto'k ainbeste irain eta neke-oñaze aŕtu biaŕik; oŕetarako bere otoitxu bat edo nekerik txikaŕena naikua zan. Baña, mat̄e-mat̄e gind̄uzala egiztu ta geure bijotzak irabaztiaŕen, irañik baltzenak eta nekerik laŕijenak jasan gura ixan euzan. Mat̄asun bixijoi gogo-goguan ixanezkero, Josu mat̄e-barik ezin iñor bixi. **Kisto'ren mat̄asunak ind̄aŕ-egit̄en dausku,** esango leuke, ta bijotz osua ta bixitza gustija Josu-Kisto'ri ukañiko leuskioz. Bidezkua da, ixan be, gu geure Erosliarentzako bakaŕik bixi-ixatia, geugandik orixe jadestiaŕen il zan-eta.

¡Oi! zoruntsubak zubek, gogo mat̄aliok, —diño Ixai iragaŕliak—, Jaunaren Nekaustia saŕi gogaŕtu ba-dagixube! **Jaunaren it̄uŕijetako ura pozaŕen aŕtuko dozube:** Josu'ren zaurijetatik mat̄asun-ur bixija artuko dozube. Mat̄asun oŕek, baŕiz, uste betia dekaŕ, Jaunaren eŕukija jadetsiko dalako uste betia. Josu gurutzalduba mat̄e-dauna oben-egiñaz garbai-da; eta gaŕbai-danezkero Goiko Jaunak azketsiko dautsala ondo daki, Goiko At̄eak bere Seme laztan oni lepaldu bai'eutsozan gure obenak, bere erijotz deunaz ordaindu leiskiazantzat. **Jaunak geu gustijon obenak lepaldu eutsozan** (Ixai, 53. 6). Eta bere Seme bakaŕa emon euskun Urtzi Jaunak, Seme oŕen bidez eskatu leiskiagunik eztausku ukatuko. «Bere-beria eban Semia ukatu barik geu-gustijon aldez emon ebanezkero, ¿ez-ete-dausku berakin dana emongo?». diño Paul deunak.

# ILABETERAKO GOGAŔTE-GAYAK

## I Eguna.–Josu Jerosolin'era saŕtu zana.

I **Atala.** «Oŕa, eure bakalduna datoŕkin otzan eta astoganeko, eta bustaŕipekuaren astakume -ganeko «(*Mat.* 21, 5). Gure Eroslia, Nekauste -aldija uŕian ebala-ta, Betane'tik Jerosolin'erantz urten zan. ¡Josu-Kisto gure Jaunaren apaltasun aundija! Goiko bakaldun altsuba ixanaŕen, Jerosolin-baŕu astogane saŕtu gura-da. ¡Oi, Jerosolin! Oŕa, eure bakalduna apal eta otzan datoŕkin. Ezadi bilduŕ, ezpai'datoŕkin, gogoŕkiro agintzen, edota eure ondasunetaz jaubetuten, bere erijotzaz euri bixija emotiaŕen baño. Jerosolin'go lagunabaŕak, Elazaŕ ilpiztu ebanezkero, Josu aundi-esten eben-eta, urira etoŕala jakin ebenian, bidera urten yakozan su-ta-gaŕ. Batzuk soñekuak edazten ebezan. ¡Oi! ¿Nok uste une aretan, egun gitxi-baŕu Josu gurultzalduteko eskatu legikienik?...

II **Atala.** Gogaŕtu, ene gogo oŕek, Josu'k egin ebana. Jerosolindaŕak nausikiro aŕtu ixatia ezeban bere omenagatik laketu, egun gitxi-baŕu antxe jasango eban erijotza lotsagaŕijagua ixatiaŕen baño. ¡Ene Josu apal ori! Oraingo gorespenok lasteŕtxe irain eta birau biguŕtuko yatzuz. «Gora Dabi'ren Semia! ¡Onetsija Jaunaren ixenaz datoŕkiguna! ¡Aintza goyen-goyetan! (*Mat.* 21, 9), didaŕ -egiten dautzube orain; lasteŕtxe, baña, bestelako oyubok entzungo dautsezubez: «Utikan, utikan; gurutzaldu eikek». (*Jo.* 19, 15). «Kendu au, eta Baraba azkatu». (*Lu.* 23, 18). ¡Oi! ene Josu! Orain euren soñekuak erantzi egiten dabez, bidez edaz-

teko; gero, bafiz, zeuriak erantziko dautzubez, zeu astindu ta gurutzalduteko. Orain palmadafak aftu ta bidez zabaltzen dantzubez; gero, arantza-adafak aftuko dabez, zeuri arantzazko burestun mingafija josteko.

Orain goraka aftu zauze euren urijan; gero, uritik birauka atarako zabez. ¡Gixonen aldakoftasuna ta eskafbaltza! Nik, beintzat, beti mate ta onetsi gura zaudaz, Josu on ori, ¡Donetsija Jaunaren ixenaz etofi zakiguzan ori! Onetsija zeu, Erosle mate, nire gogua jaregiten etofi zaralako. Zeu etofi ezpa-zintzazan, ¡nire zoritxafa!...

## II Eguna.—Jerosolin dala-ta Josu'k negaf-dagi

**I Atala.** «Eta urbil zalarik, urija ikusijaz, beragatik negaf-egin eban». (*Lu.* 19, 41). Josu'k Jerosolin urija begiztu ebanian, aren eskafbaltza ta ondapena gogoratuki, negaf egin eban. Negaf dagixu Jaun ofek, bai uri aren eskafbaltz eta ondapenagatik, bata nire goguaren gaiztakeri ta zoritxafagatik, be. Negaf dagixu, ene Erosle mate ofek, oben egiñaz nire bijotzetik jaurtiki zaudazanian betiko zigofaldija irabazi dodalako. ¡Ni gaizkatziafen gurutzian il zana jaurtiki dot nire bijotzetik! ¡Neuria bai-dala eskafgaiztua! Josu'k barik neuk egin biaf dot negaf, irañak-irain egin dautsadazalako. Betiko Ata Jaun ori: zure Seme laztanaren negaf-malkuak dirala bide, garbai zintzo -zintzua indazu. Eta zu, Josu'ren Bijotz matale samuf ori, efuki zakidaz. Zeu iraindubaz garbai nozu bijotz-bijotzez; onik-eta zeu baño besterik eztot matatuko.

**II Atala.** Josu-Kisto, Jerosolin'era saftu zanezkero irakasten eta gexuak osatuten iñardun zan egun osuan. Afats-beran, bafiz, ezeban bertako iñok etxerako detu-ta, atzera Betane'ra itxuli zan.

Ene Jaun maťe ori: bestiak aŕtu gura ezpa-zabez, be, nik bijotz-baŕu euki gura zaudaz beti. Neuk, be, zoritxaŕeko onek, beñola jauŕtiki egin zindudazan; orain, baña, gurago dot zu bijotzian euki ludi osuaz jaubetutia baño. Lagundu nagixu, Jauna; zeuk lagunduzkero zeure maťasuna iñortxuk eztagisket kendu-ta.

## III Eguna.—Judaŕen batzaŕa Josu'ren kalte

**I Atala.** «Jaupari nagusijak eta parixetaŕak batzaŕa biltzatu eben, eta onan esaen: ¿Zetan gara? gixon onek alatzik asko egiťen dau-ta». *(Jo.* 11, 47). Ara: Josu-Kisto'k danai-onegiťen diñardun biťaŕtian, judaŕetariko nagusijenak aren kaltez batu, ta Jaungoiko Egiľia il biaŕa dala erabagi dabe. Kaipa jaupalburu gaiztuak argi-ta-garbi dirautse batzaŕkidiai: «Deusik eztakixube zubek; eta gixon bat eŕijaren ordez ilťia ta abenda osua sakatu ez ixatia ona ta biaŕezkua dala gogaltzen eztozube». *(Jo.* 11, 50). Eta aŕezkero, Jon deunak dirauskunetz, nolan bixitzea kendu leiskiaen bide-biľa ebiltzan. ¡Judaŕ gaiztuok! Josu'k eztautzube igesik egingo, ez, bere aldija datoŕkenian; etoŕi, be, oŕetarakoxe etoŕi bai'da, bere erijotzaz zebek eta gustijok betiko erijotzatik jaboteko.

**II Atala.** Juda'ren salgunde baltza gogoratu egixu. «Jaupari nagusijakana junda: ¿Zer emon gura daustazube, —esan eutsen—, eta neuk ukañiko dautzubet?» *(Ma.* 26, 15). ¡Jaupari gaiztuen poza! ¡Ain zuzen be, eurek goŕoto dabena, Josu-Kisto gure Jauna, beronen ikasletariko batek saldu gura dautse! Orain, be, Josu'ren ikasletariko batek, kistaŕen batek, oben-egiñaz bere Irakasle deuna saltzen daunian, txeŕenak eta Josu'ren etsai gustijak poztu egiťen dira. ¿Poz-biderik emon ete-dautsezu zuk?...

## IV Eguna.–Salgunde-saneuřija

I **Atala.** «Eta eurek ogetamař zidařezko abindu eutsaezan» (*Ma* 26, 15). Irañak-irain dagitsoez gure Jaunari. Bere ikasletariko batek saltzen dau, ta ogetamař txindigatik saldu, be; edo, gure ogei ogeřlekoren bestegatik; edozein jopuk aldi aretan egiten eban saneuřijagatik. ¡Oi, Juda, saltzale ankeř ori! ¿Ořen saneuři kazkařetan saltzen dok eure Irakaslia, Urtzi'ren Seme bakařa? Nagon ixilik, baña. ¡Neuria bai-ixan dala saldukeri lařija! ¿Zein saneuřitan eta zenbatetan saldu ixan dautsat nik goteungiari Jaunaren eskař deuna? ¡Ene Josu! Lotsa-naz, bai, zeure ageřira erduten, be. ¡Nik egin dautzudazan irain gořijak! Amaikatxu bidař saldu dot zure aizkidetasuna atsegin apuřagatik, edozein uskerigatik. ¡Ai il ba'nintz, ořetara zeu iraindu baño len! Garbai naz, Josu on ori, garbai -naz oben-egiñaz; garbai-naz zeu iraindubaz.

II **Atala.** Orain Josu-Kisto'ren otzandasuna ta samuřtasuna gogařtu egixuz. Josu'k saltzaliaren asmo baltzak jakiñařen, beregana itxuli zanian mařero ařtu eban eta beste ikasliakin mařara ezaři. Gero, bařiz, Juda'ren bijotza bigundutiařen, nok saldu gura eban bai-ekijala esatia naikua ixan etzala-ta, Juda'ri, be, oñak samuřkiro ikuzi eutsazan. ¡Oi, ene Josu! Nigaz, be, bařdin egin dozu: nire obenak gora-bera enozu zeugandik jauřti, ta Ikuřton deunera, zeure mai donetara ařtu nozu. ¡Beti mate-ixan ai ba'zindudazan! Gauřtik -eta, beintzat, etzaudaz egundo iraindubo; enaz zeure oñetatik aldenduko...

## V Eguna.—Josu'ren maitasuna azken-aparijan.

**I Atala.** «Josu'k bere aldija, ludi onetatik Aitagana juateko aldija, eldu yakala jakiñik, ludijon egozan beriak maite-ixan euzan, eta azkenerarte maite, be» (*Jo.* 13, 1). Josu-Kisto gure Jaunak bere bixitzako azkenaldijan egundoko maitasun-egintzarik arigarrijenak egin euzan, gixonai bere bijotzeko maitasuna erakustiarren. Lenago, be, askotara erakutsi eban maitasun ori, baña, argijago erakusteko guratsu zan. Orixe iragarri eutsen ikasliai maitara jarri ziraneko. «Gurari-gurarijaz gura ixan dot Igaratz au nekartu baño lenago zubekin jan» (*Lu.* 22, 15). Ekixube, ene ikasle maitiok, (itxok geu gustijontzat, be, esan euzan), azken-aparijau zubekin jateko beti gura-guratsu ixan nazala ekixube, apari onen ostian zebekatik neure bixitzea emongo dodalako. ¡Au bai-dala arigarrija! Zuk, gure Jaun eta Jabe ixanik, zeure ixaki kazkarron alde zeure bixitzea emoteko gurari bixija ixan! ¿Eta guk ez -ete-dogu zeugatik ezer jasan gurako? Bai, Erosle maite ori; gure bixitzako neke-miñak eta erijotza bera, be, pozarren artu ta jasango doguz, zeu autzartutiarren, zeuri eskarrona erakustiarren. Zeure gurea egiteko, zeuri atsegin ixateko, gerturik gozuz. Gurarijau getu ta indartu egiskuzu, zeure Bijotzeko maitasun aundija maitasun bixiz ordaindu daiskezuguntzat.

**II Atala.** Josu-Kisto gure Jaunak azken-aparitan Igaratzeko bildotsa bere ikasliakin jan eban. Bildots ori Josu-Kisto'ren irudija zan. Bildotsa apari oretan gustiz jan eta amaitu biar zan letz, Josu -Kisto, Urtzi'ren Bildots deuna, be, urrengo egunian gustiz nekautsiko zan, eta bere bixitzea gurutzian amaitu.

«Josu'ren bulaŕgane etzun zalarik...» (*Jo.* 13, 25). ¡Zoruntsuba zu, Jon beldu deun ori! ¡Erosliaren bulaŕ-gane etzunik aren Bijotzeko maṫasun-suba ondo nabaṫu ai ixan euzun, beintzat! ¡Oi, Josu on ori! Neuri, be, saŕi ageŕtu daustazu zeure Bijotzeko maṫasun aundija; neuk, be, goi-argiz ta pozoŕez bete ixan nozunian, nabaṫu al ixan dot zure maṫasun samuŕ-samuŕa. Ni, baŕiz; ¡ai ene!, zeure ikasle zintzua ixan ez. Gauŕgeroz enaikezu zeure eskutik laga; lagundu naikezu, gustiz zeuria ixan gura naz-ta.

## VI Eguna.—Josu'k ikasliai oñak ikuzi eutsezana

**I Atala.** «Jagi zan apalmaṫik, eta janzkijak utzi egin euzan; eta garbiketa-euna aŕtuta geŕijan lotu eban. Gero ura urontzijan imiñiki, ikaslien oñak ikuzten eta geŕijan lotutako eunaz lioŕtuten asi zan». (*Jo.* 13, 4-5). Ene gogo ori: oŕa, Josu'ren egintza aŕigaŕija. Urtzi'ren Seme bakaŕa ixanaŕen, apalmaṫik jagi, soñekua erantzi, garbiketa-euna geŕijan lotu, ta ura urontzijan imiñiṫa, ikaslien oñak ikuzten asi da ¡Goiko Bakaldun urena bere irazaki kazkaŕen oñetan belaunbiko! ¡Gotzonoik! ¿Zer diraustazube? ¿Zer deritxozuke?

**II Atala.** Beñola, Matale obendijak Josu'ren oñak negaŕez busti ta ikuzi euzan. Ikasliak Josu'ri beste ainbeste egin al ixatia, be, aentzako dedugaŕija litxakian. Jazo, baña, gustiz bestela jazo zan: Jauna bere otseñen oñetan auzpeztu bai'zan, azkenaldijan gixon gustijoi apaltasun-eredu ta maṫasun-ezaugaŕi bikañak uztiaŕen. ¿Eta guk buruba aŕokeriz beterik eukiko ete-dogu beti? Irañik txikaŕena ala edonoren lotseza dala-ta, ¿beinguan

mindu ta asařatu biař ete-gara? Geure obenakatik, ¿ez-ete-dogu gaiztokiko txeřenak oinkatu ixatia irabazi? ¡Josu mate! Zure apaltasuna ta matasuna gogařtzen dauzanarentzat, ezespen eta irañak eztira latzak, ez, matagařijak baño Nik, beintzat, onik-eta neuri egingo daustezanak eruapentsu jasan gura dodaz, zeure antzekua ixatiařen.

## VII Eguna.–Joskorputz-Ikuřtona

I Atala. «Eta apaltzen ziralarik, Josu'k ogija ařtu ta onetsi egin eban, eta zatitu ta bere ikasliai banandu, esanaz: Ařtu ta jan eikezube, au neure gorputza dozube-ta» (*Ma*. 26, 26). Josu, ikasliai oñak ikuzita, apari-matara etzun zan bařiro, ta apaltasun-ereduba emon eutsela-ta, eurek, be, bařdin egiteko esan eutsen. Gero, bařiz, Oteun-Ikuřtona irasijaz gixonai matasun ezaugařirik bikañena emoteko gertu zan. Ogija eskutan ařtu ta onetsi egin eban; eta zati-eginda, jaten emon eutsen ikasliai, «Ařtu ta jan eikezube, au neure gorputza dozube-ta», esanaz. Eta ařezkero jaunařtu leikien bakotxian bere erijo-gomutaz egiteko agindu eutsen, Paul deunak Korinto'kuai idatzi eutsenez: «Ogija jan... leikezuben bakotxian, Jaunaren erijotza iragařiko dozube» (*I Kor*. 11, 26). Emastia mate-mate daun bakalduna lasteř ilteko zorijan dagola egin daigun. Bakaldun ořek, bere txingirik edeřena artuta, onan dirautsa emastiari: Lasteř ilgo non-eta, nigaz aztu ezaditentzat, gomutakijau damosnat; txingijau dakuskenan bakotxian gomutau adike nigaz ta nire matasunaz. Orixe egin eban Josu-Kisto gure Jaunak goguen aldez. «Josu-Kisto'k gogo bakotxari dautsan matasuna dan aundija. —diño Alcántara'tař Kepa deunak—, elegike gixa-miñek ageřtu. Ořegatik, ludi onetatik alde egin biař

ebala-ta, goguak beragaz aztu eleřezantzat, Senař mařale onek Oteun-Ikuřton au emon eutsen gomutakitzat. Eleutsen gomutakitzat biřařtekorik utzi gura ixan, beraxe lotu baño, gomuta arduratsubagua jadestiařen». Ořezkero, gurari bixiz gura dau gu bere erijotzaz gomutetia, Oteuna bere erijotzaz erakutsi euskun mařasun aundija gogorazoteko gomutakija da-ta.

¡Oi, Josu maře! ¡Oi, Urtzi gogo-mařale! ¡Mařasunaren mařasunak geure janari biguřtu zauzan ori! ¿Zer geyagorik egin leikezun zuk gure bijotzetako mařasuna irabaztiařen? Oteun-Ikuřton aunetan zaran gusti-gustija emon dauskuzu; geu, be, osorik zeuriak ixango gozuz. Beste askok ludiko uskerijak maře gura ba-dabez, be, nik zeu bakařik maře gura zaudaz, ene Jaun eta Jabe ori. Zu jango zauzana zeugandik bixiko dala esan dozu: «Ni jango naikena niregandik bixiko da» (*Io.* 6, 58). Onezkero, ba, amaika bideř ařtu ta jan zaudaz-ta, neure burubarentzako il eta zeuregandik eta zeuretzako bakařik bixi nařela egixu. ¡Zeure mařale zintzua ixaten lagundu naikezu!

II **Atala**. Josu-Kisto'k Ikuřton gurenau noiz irasi eban gogoratu egixu. «Josu Jaunak, ukañiko zan gabiantxe, ogija ařtu, onetsi ta zatiřurik, Ařtu ta jan eikezube, au neure gorputza dozube-ta, esan eutsen» (I *Kor* 11, 23-24). Gixonak Josu-Kisto atxiřotu ta erailtzeko gerturik egozan gau atantxe, Erosle mařati onek geuretzako ogi bixija gertu eban, jaungoikozko bixija emongo euskun ogija. «Nire aragija... jan daikena neugan dirauke, ta ni beragan nirauke» (*Jon.* 6,57). ¡Oi, Josu'ren mařasun mařagařija! Onezkero, mařasun ori erakusteko zer emon geyagorik eztozu, Jaun ořek; dan-dana emon daustazu! Gustiz zeuretzat ařtu nagixu; neure bijotza osorik emoten jakin ezpa-dakit, ařtu zerořek. Oteunan ařtzen zaudazanian, gustiz neuretu egiřen zara zu; ¿ez-ete-naz, ba, ni gustiz zeuretuko? Argiztu

nagixu, zaran mat̄agar̄ija ikusirik geruago ta mat̄iago zaikedazantzat. Mat̄e zaudaz, ene Josu; bijotz-bijotzez mat̄e zaudaz. .

## VIII Eguna.—Getsemani'ko neke-lar̄ija.

**I Atala.** «Eta eresija esanda, Gaimelaritxeta mendirako urten ziran... Orduban Josu Getsemani deretxan imatsera eldu zan eurekin» (*Ma.* 26: 30, 36). Josu-Kisto gure Jauna, eskar̄-egit̄eko eresija esanda, ikasliakin apari-aretotik urten, Getsemani imatsera sar̄tu, ta otoi-egit̄en asi zan. Otot̄an asi zaneko, bar̄iz, ¡ai ene!, neke-lar̄ijak ar̄tu eban. «Lar̄it̄uten eta gogat̄uten asi zan» (*Mar.* 14: 33) dirausku Marka deunak; Matai deunak, bar̄iz: «it̄un-lar̄it̄an asi zan» (*Ma* 26: 37. Bere goguaren neke-lar̄ija zerenbestekua zan Josu'k berak esan eutsen ikasliai: «Erijorañoko it̄unaz lar̄i dozube nire gogua (*Ma.* 26 : 38). Une aretan gure Erosliari Nekaldiko irain eta oñaze gustijak begit̄andu yakozan. Gero bata bestiaren ostez jasango ebazanar̄en, ar̄endan batez gogoratu yakozan-eta, it̄un eta lar̄i imiñi eben. Irain eta nekiok, belar̄ondoko, txu, astiñaldi, arantza, untze, ta abar̄, gebar̄en gogoz onar̄tu euzan Josu-Kisto'k; eta eragin eutsoen lar̄ija zala-ta, sutsubago otoi-egijan. «Eta erijotz-agiñaldiz zalarik, ariago otoi-egijan». (*Lu.* 22: 43).

**II Atala.** Josu mat̄e: ¿nok biar̄tu zauz, baña, neke-oñaze aundijok onar̄tuten? ¡A! ondo dakit geuganako mat̄asunak biar̄tu zauzana ¡Ar̄it̄u zadikeze goiko gotzonoik: algustiduna aul ikusten dozube, donokiko pozkar̄ija it̄un, Urtzi Jauna neke-lar̄it̄an! ¿Zegat̄ik, bar̄iz? Bere irazakijak, gixakumiak, gaizkatziar̄en... Getsemani'n Goiko Jaunari er̄opari bikaña opaldu yakan: Josu ixan zan opagai, mat̄asuna jaupari, ta bere Bijotzeko gar̄a er̄etzal̄e...

## IX Eguna.-Josu'ren otoya ta odolezko ixerdija

**I Atala.** «Ene Ata, baldin al ba-da, edontzi au nigana-bage juan bedi». *(Ma.* 26: 39). Olantxe otoi-egijan Josu'k. Al ba-zan, neke ta oñaze lari areik beregandik alderatuteko eskatsan Goiko Ateari ¿Ez-ete-dauz, ba, geugatik gogoz onartu? Bai, beintzat; gogoz onartu euzan eta gebaren jasateko gerturik eguan, baña, bere bijotzeko lari aundija adirazo gura ixan euskun. Josu'k, ganera, beste auxe, be, irakutsi gura ixan euskun: loraldijetan eurotatik jaregiteko Jaunari eskatutia zilegi yakula; baña, geure eskarijak gora-bera, Jaungoikua'ren nayari men-egiteko gerturik egon biar garala irakastiaren, beste itzok getu euzan: «ez, baña, neure guraz lez, eure oldez arauz baño». Eta itzok bariro ta bariro esaten euzan: «Eta irugarenez otoi-egijan itz berberak esanaz». *(Ma.* 26: 44). Josu on ori: nik oldez eruango dodaz lepalduko daustazuzan gurutze gustijak. Zuk, erubakua ta on utza ixanaren, oldez onartu euzuzan irain eta oñazerik larijenak; ¿eta nik, zeuri atsegin-ixatiaren eta neure oben-zora, ordaintziaren, eztot nekerik jasan gurako? «Ene Ata: zeure guraz lez jazo beike»; niria barik zeure gurea egin beike beti. «Auzpez etzun zan». *(Ma.* 26: 39). Josu-Kisto gure Jauna otoyaldijan lurgane auzpeztu zan. Goiko Ateak lepaldu eutsan gure oben-zamea zala bide, begijak goira jasoteko gauza ezpai'litxan antsoz. ¡Ai ene! Zeuri, Josu on ori, egin dautzudazan irain aundijak dirala-ta, azkespen-eske zugana joteko, be, bildur-nintxakian; zeure nekiak eta irabazijak, bariz, uste osua damoste.

**II Atala.** ¡Goiko Ata deun! Nire gaiztakerija barik zure Semiaren aurpegija begitu, aren. Ora, Seme laztan ori auzpez, itun eta lari, odol-ixerdija

darijola, niretzako oben-azkespena jadestiaŕen. «Eta bere ixerdija odol-tantak lakua egin zan, eta luŕera jarijoten eban». (*Lu.* 22: 44). ¡Begitu zure Semia, Ata deun oŕek, eta eŕuki-zakidaz!

Zu, baŕiz, Josu mate, ¿zer dala-ta zara oŕen laŕi? ¿Zek ixerdi-eragiten dautzu? Oraindik eztozu jaŕugi ez zigoŕik, ez arantzarik, ez untzerik; eta gero eurok jasateko, be, gerturik zagoz, zeuk gurata aŕtuko bai'dozuz Ixai'k iragaŕi ebanetz: «Gura ixan ebalako erail eben» (53: 7). ¡Ai! Josu laztana neure obenakatik dago oŕen laŕi; neure gaiztakerijak eragin dautso odol-ixerdija. Azketsi egistazu, Jaun oŕek, garbai garbai naz-ta. Getu zeuk nire garbaya. Obenekiko goŕoto bixi-bixija indazu, gauŕgeroz iraindu etzaikedazantzat. Mate gura-zaudaz, ostera, ta bijotz-bijotzez mate, be. Eztot luŕeko gauzarik matatu nai, zeu bakaŕ-bakaŕik baño.

## X Eguna.—Josu atxilotuba.

I **Atala.** «Jagi gustijok, eta guazan: auŕ, eldu da ni ukaŕi nukainkena» (*Ma.* 26 : 46). Juda buru ebela etoŕtzan gudamilak eta beste judaŕak uŕbil zirala jakiñik, gure Eroslia jagi egin zan; eta ikasliakin bidera urtenda, «Noren bila zatoŕtze? «(Jo. 18 : 4) itaundu eutsen. ¡Oi, Josu mate! ¿Noŕ bilatu leikegu guk, zeu baño? Donokitik neure bila etoŕi zintzazan, neu galbidetik ataratiaŕen etoŕi zintzazan. Nik eztaiket, ba, besterik bilatu, zeu, Erosle deun ori, baño.

«Josu oratu ta atxilotu egin eben» (*Jo.* 18 : 12). ¡Ai ene! ¡Geure Jaun eta Jaungoikua atxilotuta! Edozein bakaldun bere otseñik kazkaŕenak oratu ta atxilotutia aundija litxake Emen, baŕiz, Urtzi algustiduna dakusgu gixonik kazkaŕenak estu-estu lotuta. ¡Oi, zoruntsubak, Erosliaren esku deunak

lotuteko erabiḻi ebezan goroiki guŕgaŕijak! ¡Nire bijotza ta Josu'rena, nire gogua ta Josu'rena alkaŕ-lotuko ai ba'lebez! Oŕetarako, Jaunaren gurea egingo dot beti..

**II Atala.** Atxiḻopena astiro gogaŕtu dagidan. Batzuk oratu ta bestiak lotu, oneik iñaŕdausi ta areik itxez iraindu egiṯen dabe Josu otzana Bera, baŕiz, bilḏotsa bai'litzan, geldi-geldi ta ixiḻik dago; gura daben gustija egiṯen izten dautse; laguntzarik eztau eskatuten. Ixai iragaŕliak aspaldi esana ziaro betatu da: «Ardija erijotzera lez eruan ixan zan, eta bilḏotsa, motzaḻiarekiko ixil, alantxe eztau berak agua zabaldu «(*Bel. e.* 8 : 32).

Josu atxiḻotu eben gaizkiñak imatsetik aterata txaide-ziaŕ jaupari-burubarenera eruan eben. ¿Eta ikasliak, nun dira? zer dagije? ¿Ez-ete-dabe euren Irakaslia lagundu beintzat egingo? ¡Ez-ta! utzi egin dabe». Orduban, bere ikasle gustijak bera galetsi, ta igesi egin ziran (*Ma* 26 : 56). ¡Bere ikasle maṯien igeskeak Erosliaren Bijotzari eragin eutsan tamala! ¡Ai ene! tamal ori neuk, be, eragin bai'eutsadan! Josu-Kisto'k aŕendan gogo-goguan ixan euzan berak onegiñez beteta gero obena jaukijaz utzi egingo eben gogo gustijak; eta gogo oŕeṯarikua ixan naz ni. ¡Nire eskaŕbaltza! Azketsi egistazu, Josu on oŕek; aŕtu nagixu baŕiro zeure ikasletzat, baŕiro etzaudaz utziko-ta.

## XI Eguna.–Josu Kaipa'renian

**I Atala.** «Areik, baña, Josu atxiḻotuki, Kaipa jaupari-lendakarijarenera eruan eben, idazle ta agureak arenian bilḏu ziran-eta». (*Ma.* 26: 57). Bost egun lenago Jerosolin urijan ospe aundiz aŕtu eben Eroslia, oinguan lapuŕ-antsoz lotuta darue jaupari-lendakarijarenera. Txaidietan guḏamutil eta

beste otseñak ataraten daben zaratea dala-ta jagiten diranak, ¿zer entzuten ete-dabe? Josu Nazaretaŕa gaizkiña dala ta atxilotuta daruela... ¡Oi! askoren bijotzak orain gustiz aldatu dira. Lenago Josu aintzat aŕtu ta goraldu egin dabe; orain lenguaz lotsa dira, ta ezetsi egiten dabe...

**II Atala.** Josu-Kisto Kaipa'renera saŕtu dabe. Jaupari-buruba begira eguan-eta, Josu bere ikasliak utzi egin ebela jakin eta bakaŕ-bakaŕik bere auŕian ikusi ebanian, poz aundija nabatu eban. Begitu zure Eroslia Kaipa'ren auŕian apal-apal eta ixilik, eskubak lotuta dauzala. Begitu bere auŕpegi edeŕa bare-baretsu, etsayen ezespen eta irañak gora-bera. ¡Oi, ene Josu! Orain gotzonen aŕtian barik goŕoto zabezan gixon gaiztuen aŕtian zagoz. Josu matia era oŕetan ikusita, ¿zer egingo dot nik? ¿Lenago lez, bere etsayakana jo? ¡Ez, beintzat! Onik-eta zeu bakaŕik mateko zaudaz, ene Josu; eztot beste iñor matatuko, ta iñoren matasunik opa-ixan. bez, zeuria baño. «Zeu baño beste matalerik eztot aintzat aŕtuko», dirautsat Iñese deunak lez. Zeu zarake nire matasun bakaŕa, nire ona, nire dana, ene Jaun eta Jabe bakaŕa.

## XII Eguna.—Josu erijo-zoŕ ebatzita

**I Atala.** Kaipa jaupalburubak Josu'ri beronen ikasle ta irakaskixunetaz itandu eutsan. «Ni agirijan mintxatu natxakak gixadijari,—erantzun eutsan Josu'k—; nik batzaŕtegijan eta txadonan, judaŕ danak biltzen dozakan lekubetan irakatsi yuat beti» (*Jo.* 10: 20). Gauza txaŕik irakatsi eztaula egiztetako, agirijan irakatsi ixan daula-ta, bere irakaskixun-lekuko dakaŕtz entzule gustijak, etsayak eurak, be, bai. Josu'k adeiz ta begirunez egindako erantzun zuzen au entzun dauneko,

otsein deunge batek belaŕondokua damotso, «Jaupalburubari oŕetara erantzuten dautsok?», esanik. ¡Ene Jaungoiko! Gixonaren zitalkerija! ¿Otsein gaiztua ez-ete-dabe zigoŕtauko? ¡Ez ta! zigoŕtau barik, ontzat aŕtzen dabe arek egiña... Josu'k, baŕiz, jaupalburubari lotsarik galdu eztautsala adirazotiaŕen, onan jardesten dautsa otsein gaiztuari: «Txaŕto esan ba-yuat, nire txaŕto-esanaz lekuko-itza egikek; ondo erantzun ba-yuat, baŕiz, ¿zegatik joten nok?» (*Jo*. 18: 23). ¡Neure Erosle matagaŕi ori! Zuk iraňik aundijenak, be, oldez jasaten dozuz, nik obenakaz Urtzi Jaunari egindakuak ordaintziaŕen. Azketsi, ba, Jaun oŕek, zeure irabazi aundijok dirala bide.

**II Atala.** «Josu'tzaz-atxiňeko guzuŕ-autoŕa bilatuten eben, Josu erijo-zoŕ erabakiteko; eta guzuŕ-lekukorik asko ageŕtuta, be, ezeutsaen idoro» (*Ma*. 26: 59) Oŕegatik, jaupalburubak Josu itz-egiten biaŕtuteko asmua aŕtzen dau, aren erantzuna bide, erijope erabakiteko. «Urtzi bixijaŕen, Urtzi'ren Semia azanentz esateko zin-dagiskat» (*Ma*. 26: 63), diňotsa. Josu-Kisto gure Jaunak, Urtzi'jaŕen itaundu dautsala-ta, argi-ta-garbi darantzutso: «Bai-naz, ixan be; baiki, baňa, dirautzubet: gauŕdanik geroxe Gixasemia Urtzi'ren indaŕ-eskumaldian jezaŕirik eta goi-odetan jasten ikusi dikuskezube (*Ma* 26: 64). Itxokaz Josu-Kisto'k Urtzi-Semia zala autoŕtu ta azkenaldijan nausikiro. bixi ilak epatetan, etoŕiko zala iragaŕi egin eban. Jaupalburubak, baŕiz, entzun dauneko, soňekuak uŕatu ta «Birau-egin dau, -esan eban—; ¿zetako geyago be lekukorik? Ona, ointxe biraua entzun dozube. ¿Zer deritxozube?» (*Ma*. 26: 65). Eta batzaŕ osuak «erijo-zoŕ da» erantzun eban. ¡Oi, Josu laztan! Epai baŕdiňa erabaki eban Goiko zeure Ateak, be, gure oben-zoŕa ordaintzeko gerturik ikusi zinduzanian: Ene Seme, gixonen oben-zoŕa ordaindu gura dausteanezkero. erijo-zoŕ az, bai?, ta il biaŕko az.

## XIII Eguna.–Josu txuka ta ukabilka darabiȓe

I Atala. «Orduban, auȓpegira txu-egin eutsaen, eta ukabilkadaka jo be, ta beste batzuk esku zabalaz masaȓetan jo, «Igaȓi geuri, Kisto, nok jo aun», esaten ebela» (*Ma.* 26: 67, 68) Josu-Kisto erijope ebatziȓako gaizkiña zala-ta, otseñak bera leyaka irainduten asi ziran: auȓpegira txu-egin eutsaen; gero auȓpegija oyalaz estaldu, ta jo egiȓen eben, «Iragaȓlia ei-az-ta, oin nok jo aun igaȓi egiskuk», esaten eutsaela. Jeronima deunak diñonetz, gau aretan Josu otzanak jasaniko ixeka ta irañak asko-be-asko ixan ziran, eta gustijak azken-epai-egunan baño eztoguz jakingo.

II Ata'a. ¡Gau onen baltza! ¡Gau onen nekegaȓija! Josu laztanarentzako eztago atsedenik; gau osuan irañak-irain egiȓen dautsoez otsein deunge areik. ¡Gixakumiok! Jaungoikua irañez beterik ikusiȓa, ¿aȓuak ixango ete-zarae? Zubekaȓik Eroslíak jasaniko neke-min laȓijak gogoratuta, ¿ez-ete-dozube maȓatuko? ¡Oi! Goizpaȓetakua ziñesten dauna, Josu-Kisto'k gebaȓen jasan euzan irain eta nekiak gogaȓtzen dauzana, ¿Jaun maȓale-utz au bijotz-bijotzez maȓatu-bage bixi ete-daȓeke? ¡Erosle otzan ori! ¡Josu maȓagaȓi ori!

## XIV Eguna.–Kepa'ren ukapenak

I Atala. «Ukatu, be, gau ontan oȓaȓak oȓaȓiȓe-egin orduko, irutan ukatuko nok» (*Ma.* 26 : 34) «Eta baȓiro ta ziñaz ukatu eban» (*Ma.* 26 : 72). Josu-Kisto'k Kepa'ri iragaȓija ziaro jazo zan: Kepa'k irutan ukatu eban, eta zin-añenka ukatu, Josu-Kisto ezautu be egiȓen ezebala-ta. ¡Kepa'ren

ukuak Josu'ren Bijotzari eragin eutsaen tamal aundija! ¡Ai, ene! Obena jaukijaz uko-egin dautsat neuk, be, Jaunari, ta Kepa'k baño geyagotan egin be. Ikasle ori obenetan antzaŕtu dodanezkero, garbatan, be, antzaŕtu dagidan. Bai, Josu maite, garbai-nozu zeu iraindubaz, zeu utzi ta ukatubaz. Eskaŕik asko zuri, garbairako aldija emon daustazulako. Bijotz samuŕ ori tamalez bete zaudazala-ta, garbayaren garbayaz il egin gura nintzake; gauŕgeroz eztot besterik nai, zeu maite-maite ixan baño. Azketsi egistazu, Josu on oŕek; Kepa'ri zuzendu eutsazuna lako begirakun samuŕa zuzendu egistazu. arek lez neuk, be, uko-egin dautzudala-ta, biztaldi osuan negaŕ-daikedantzat.

**II Atala.** ¡Jaungoiko-Seme altsuba! ¡Donokiko gotzonen pozkarija! ¿Nolan dakust gau onetan irañez beterik, adizkidiak utzita, gixon gaiztuak goŕotauta? Gotzonak lez gixa-eme gustijak, be, auzpez guŕtu ta goretsi biaŕ leukiena, ¡gixatxaŕik deungienen baŕegaŕi biguŕtu da! ¡Ene Josu! ¿Zer egin daiket nik neugatik jasaten dozuzan irañok ordeztu ta ordaintzeko? ¿Egingo daustezan irañak eruapentsu jasan? Jasango dodaz, ene Josu, oldez jasango dodaz, zeuri atsegin egitiaŕen. Lagundu naikezu, ta betoŕkez irañak...

## XV Eguna.–Josu Erode'k apaletsita

**I Atala.** «Eta goxian-goiz jaupari-lendakarijak eta eŕiko agureak Josu'gaz atxin, erijotan ukaintzeko, batzaŕa ixan eben. Eta atxiloturik, eruan eta Pontius Pilatus lendakarijari ukañi eutsaen». (*Ma.* 27:1,2).

Goxeko batzaŕ aunetan Josu'ri baŕiro itaundu eutsaen Urtzi-Semia zanentz; eta Josu'k bayetz erantzun eutselarik, eurek erijo-zoŕ erabaki eben; eta beriala Pilatus'i eruan eutsaen, gurutzalduteko

epayaren galde. Pilatus'ek, Josu'ri ta judařai beredın iřaun eginda, ezeban Josu'gan ogenik idoro, ta guzuřez salatuten ebela igaři eban. «Eztot gixon onegan ogenik idoroten», esan eutsen, ba, judařai. Oneik, baña, gero ta gogořago salatuten ebela-ta, Pilatus'ek auzija besteri lepaldu gura ixan eutsan. Josu galilatařa zala jakin eban, baı?, ta ango Erode bakaldunari igoři eutsan, ain zuzen be egun aetan Jerosolin'en bai'zan. Erode. Josu ikusijaz, asko poztu zan; beragazko beredin izpař entzun ixan euzanezkero, alatzen bat egiten ikusiko ebalakuan. «Augatik, iřaunkixunik asko egin eutsan; Josu'k. bařiz, ezeutsan ezertxo erantzun». (*Lu*. 9: 23). ¡Zoritxařekua Jaunak ezer esaten eztautsan gogua! Orixe, Jaunak geyago niri itxik ez egitia, irabazi ixan dot amaika bideř bere dei samuřai entzungoř egiñaz... ¡Eskařik asko, Josu mate, oindiñokařen, neu betiko utzi barik, itz samuřak zuzentzen daustazuzalako! «Itz-egin. Jaun ořek, zure otseñau adi nagokixu-ta». (I. *Bak*. 3 : 10). Esan nik zer egiteko gura dozun, egingo dot-eta.

**II Atala.** Josu-Kisto'k ezer erantzuten ezeutsalako, Erode mindu egin zan; eta zorua bai'litxan ezetsi eban. «Erode'k. bere gudataldiarekin batez, apaletsi ta nausa-egin eutsan; eta Josu. janzki argijaz jantzirik, Pilatus'i bidaldu eutsan atzera». (*Lu*. 23:11). Ara, gure Eroslia jantzi bařegařiz jantzita txaide-ziař darabile zarataka. ¡Ene Josu! ¡Zeuri, bai, irañak-irain egiten dautzubezala! ¡Gixakumien itxukerija! ¡Urtzi'ren Jakintzea, Jaungoiko-Semia, erotzat ařtu dabe! Gauřtik-eta gixakumiak aintzat ařtu naikien eztot opa-ixango. Apaletsi baldin ba-naikie, bařiz, poztu egingo naz, Josu apaletsija ta gurutzalduba antzařtutiařen. Bestelako jakintzea erokeri utza da-ta, Josu gurutzalduba baño eztot jakin nai, Paul beldu deunak letxe: «Ezeudan zubenian ezertxu jakin nai, Kisto baño, Kisto gurutzalduba, gero». (*Kor*. 1, 2:2).

## XVI Eguna. – Josu Baraba baño ezago

I Atala. Igaratzetan, giltzapekoren bat, judaŕak naiko ebena, lendakarijak azke emoteko oturea zan Ori zala-ta, Pilatus'ek Josu ta Baraba auŕkeztu eutsezan: «¿Nor autesten dozube azkatu dagitzubedantzat? - esanaz— Baraba ala Kisto eretxiz dan Josu?» (*Ma*. 27 : 17). Baraba lapuŕa ta gixeralia zalako, Josu autetsiko ebela uste eban Pilatus'ek. Alderantzira jazo zan: «Jaupari nagusijak eta agureak lagunabaŕai Baraba eskatzeko ta Josu erailtzeko saŕtu eutsien buruban». (*Ma*. 27 : 20); eta lagunabaŕak Baraba azkatuteko eskatu eutsaen Pilatus'i. «¿Kisto deretxan Josu'gaz zer dagiket, ba?» dirautse Pilatus'ek». Gurutzaldu bedike, diñotsae gustijak. «¿Zer okeŕik egin dau, ba?» diñotse lendakarijak. Areik, baña, gero ta didaŕago egiten eben, Gurutzaldu bedite, esaten» (*Ma*. 27 : 22, 23). ¡Ai ene! Amaika bideŕ egin dot neuk, be, orixe: Jaungoikua ala arako atsegiña onaŕtzeko aukerea ixan. eta nik atsegiña onaŕtu. ¡Nire itxukerija! Garbai nozu, Jauna; orain nayago dot zeure eskaŕ deuna ludiko atsegin eta altxoŕ gustijak baño. ¡Ene Josu, ene ogasun bakaŕ ori! Beste oro baño matiago zaudaz; eztot besterik nai zeu baño.

II Atala. Judaŕak Josu barik Baraba autetsi eben lez, Goiko Aŕeak, be, bere Seme laztana barik obendija gaizkatu ebala gogaŕtu egixu. «Bere -beria eban Semia ukatu barik geu gustijon aldez emon ebanak, ¿ez-ete-dausku dana arekin emongo?» (*Eŕ*. 8 : 32) dirausku Paul deunak. Eta Josu'k berak Nikodema'ri: «Urtzi'k gixadija bere Seme bakaŕa emoterano mate ixan yok, beronegaz ziñetsi yagiian edonorbere galdu eztadintzat». (*Jo*. 3 : 16) Jaungoikua'ren matasun aundija! «¡O, geuganako zeure eŕukijaren ona! – oyu-egiten dau Doibatzak

larunbata gurenez— O, jopuba erosteko Semia emon euzun oŕen neuŕibako maŧasun-maŧasuna!» ¡Mirabia gaizkatziaŕen, Semia erijo-zoŕ erakaki! ¿Oŕenbeste maŧe ixan gauzan Urtzi Jauna ez-ete -dogu bijotz-bijotzez maŧe biaŕ? Goiko Jaunak erakutsi euskun maŧasun aundija beti gogo-goguan ba'leugu...

## XVII Eguna. — Josu zutaŕijari lotuta

**I Atala.** «Arian Pilatus'ek Josu aŕtu ta aztindu -erazo eban». *(Jo.* 19:1*)*. Auzi a amaŧuteko era bijak, Josu Erode'ri bidaltzia ta Baraba'rekin eŕijari auŕkeztutia, alpeŕik ixan zirala-ta, Pilatus'ek Josu aztindu-erazota gero azkatuteko asmua aŕtu eban. Oŕegaŧik, judaŕak deŧu, ta onan itz-egin eutsen: «Au gixon au ekaŕi daustazube..., eta eztot beronegan salatuten dozubenezko ogen-zoŕik idoro; ez ta Erode'k, be... Oŕezkero, ba, ziatuko dot, eta azkatu egingo dautzubet». *(Lu.* 23: 14-16). Pilatus'ek, Josu eŕubakua zala jakiñaŕen, judaŕai edeŕ-ixan guraz, nekaldu egin gura dau. ¡Jaungoiko maŧia! ¡Eŕubakua dala jakin, eta nekaldu egin! ¡Au zuzenbagia! ¡Oi, ene Josu! Zu, bai, eŕubakua zara; ni, baŕiz, eŕuduna; eta neure eŕubagaŧik nekalduko zauze. Nire eŕubak lepaldu dozuzanezkero, bidezkua da Goiko Aŧeak lagata gixonak zu ziatutia...

**II Atala.** ¿Eta zein dok, epaikari gaizto, eŕubakuari ezaŕten dautsean eŕu-nekia? ¡Ai! Pilatus'ek Josu aztindu dagijela agindu dau; eta zigoŕdunak aŕtu ta bai-darue oŕetarako lekura, ta Josu'ren eskubak zutaŕijari gogoŕ lotuten dautsaez. Eta Josu'k ¿zer egiŧen dau? Bildotz otzan onek gura daben gustija egiŧen izten dautse; eztau aborik zabalduko; lotu dabenezkero eztau zirkiñik egingo... ¡Ai! geu obendijokaŕen oldez jasango dau aztinketa

mingaŕi ta lotsagaŕija. . ¡Bildots otzan ori! ¡Josu apal ori!

## XVIII Eguna. – Aztiñaldi gogoŕa

**I Atala.** «Arian Pilatus'ek Josu aŕtu, ta aztindu-erazo eban». Aztintzaliak zigoŕ bana aŕtu, ta Josu'ren soin deuna jo ta jo asi dira. ¿Zer dagixube, gixon ankeŕok? Josu'k barik neuk irabazi ixan dodaz zigoŕkadaok

Josu'ren aragi garbija lenen ubeldu-ubeldu egin da, ta gero alde gustijetatik odola ziri-ziri darijo. ¡Ai ene! Aztintzaliak eŕuki baga jo ta jo deragoyoe, zaurijak-zauri egiten «Getu egin dabe nire zauri-miña». (68'g. *Eŕ.* 27). ¿Eŕuki-baga begituko ete-dot Jaunaren aragi minduba? ¿Mate-barik gogaŕtuko-ete bere matasun aundija? Josu laztana aztiñaldijan neugaz gomutau zan; zigoŕkadeak nebaŕen jasan euzan. ¡Oi! Zigoŕkada bat bakaŕa aŕtu ba'leu, be, nire bijotza matasunaren matasunaz urtu egin biaŕ zan. Zenbatu ezin-ala aŕtu dauzanezkero, ¿zer egin biaŕko dot, ba? Ixai iragaŕliak diñon letz: «Geure gaiztakerijakatik zauritu dabe, geure obenakatik ziatu dabe». (53: 5). Gixasemerik edeŕena, ¿nolako biguŕtu da? «Eztau betaŕte onik, ez leŕdendasunik». (53:2) Ezautu, be, ezin daike egin, zigoŕkarijak gustiz zakaŕtu dabe-ta: legenaŕtsuba dirudi. «Legenaŕduntzat eta Jaungoikua'k zigoŕtau ta apaletsitzat aŕtu eugun» (53:4). Au gustijau, baŕiz, ¿zegatik jazo yako? Guk irabazitako zigoŕak Erosle mate onek lepaldu euzalako. «Gure gexuak berak aŕtu dauz, baiki, ta geure miñak lepaldu» (53:4). Eskaŕ-dagitzut, ene Josu, ni betiko oñazietatik jabotiaŕen oñazez bete zaralako. ¡Zorigaiztokua, Jaun matale ori mate-etzauzana!

**II Atala.** Eta zigoŕlarijak aztintzen daben bitaŕ-

tian, Josu'k zer dagi? Ixil-ixiïik eta geldi dago, ta gixon-obenak sumindutako Urtzi Jaunari opaltzen dautso dana, ibiťu dadiťentzat. «Bildotsa, motzaliarekiko ixil, alantxe eztau berak agua zabaldu». (*Bel. e* 8:32). ¡Ene Josu, eŕubako bildots otzan ori! Gixon ankeŕok artulia barik zeure aragija ebagiťen dabe. Auxe da, baña, zuk bixitza osuan opa-ixan dozun odolezko ugutza: «Ugutzaz ugutzau ixan biaŕ naz; ¡eta nik dodan laŕija ugutzan orduko!» (*Lu.* 13:50) Garbiťu, aŕen, nire gogua zeuk ixuriťako odol deunaz. ¡Zure maťasun aundija! Argi-ta-garbi erakusten dauste zaurijok; eta zeu, Erosle ori, maťetako eskatzen dauste. Ni gaizkatzeko zeure odol-tantatxu bat naikua ixanaŕen, odol gustija ixuri gura dozu, nire bijotza osorik zeuretutiaŕen. Bai, Josu maťe, osorik damotzut; aŕtu zeuk betiko...

## XIX Eguna. – Arantzazko burestuna

**I Atala.** «Orduban lendakarijaren gudarijak Josu jauregira eruanik, bere aldian bosteuntza gustija batzaldu eben; eta biĩustu, ta janzki goŕija leporatu eutsaen; eta arantzazko burestuna josi, ta buru-ganian imiñi eutsaen, eta eskumean zugutza». (*Ma.* 27-27-29) Aztiñaldi-ostian Josu'ri bestelako irain eta oñaziak dakaŕtsoez gudarijak. Danak batuta erdijan imiñi dabe gure Jauna. Gudarijak eurek erabilťen dabenetariko estalki goŕi zaŕa leporatuten dautsoe; uŕe-zigoŕ-ordez zugutza dimintsoe eskuban; eta burestuntzat, arantzeakaz eyoriko burukua, buru osua estaltzen dautsola. Arantzeak buru-baŕu saŕtzeko, baŕiz, zugutzaz sakatu egiťen dautsoe, biťaŕtian aŕpegira txu-egiñik. «Eta txu egotzi, ta zugutza oraturik buruban joten eben». (*Ma.* 27:30).

II Atala. ¡Arantza gogoŕok! ¿Zer dagixube? ¿Urtzi Irazaĺia oñazetu? ¡Ai ene! Arantzeak baño geyago geure oldozkun eta asmo deungiak oñazetu eben Erosliaren buruba. Bai, Josu maŕe: geuk eyo dautzugu burestun gogoŕ ori geure atsegin lixunakaz. Garbai naz, Jauna, ta goŕoto dodaz bijotz-bijotzez, Josu'ren odolak donetuŕiko arantza oŕeik: zulatu, bai, nire bijotzau, Urtzi Jauna iraindu dodanaz garbai nadiŕentzat. Zeuk, baŕiz, Josu on oŕek, nire bijotza beste gauza orotik azkatu egixu, zeure -zeuria dadiŕentzat. ¡Erosle ori, ortzi-ludijetako Bakaldun guren ori! Guzuŕ-bakaldun biguŕtuta zakustaz, gixon deungiak apaletsiŕa, arantzazko burestunak miñaren miñaz odolez goŕiztuta...

## XX Eguna. – Laidozko aguŕketea

I Atala. Ene Josu: aŕigaŕija da, ixan be, zeure soin osua ziatu ta minđubaz asetu-baga, irain eta laidoz betetan zabezanon gogoŕkerija; aŕigaŕijagua da, baña, zure otzandasuna, geugaŕik dana oldez ta eruapentsu jasaten dozu-ta. «Birau-esaten eutsoenai ezeutsen biraurik itxuli; ziatuten ebenak ezeuzan zematu; zuzenbagez ebazten ebanaren eskutan utzi eban bere buruba». (*Ke*. I. 2: 23). Beñola Jeremi iragaŕliak ala-eresijetan egindako iragaŕkijau betatu biaŕa zan: «Zaurtzaĺiai masaĺa auŕkeztuko dautse, ta laidoz asebeteko dabe» (3:30).

II Atala. Gudarijak, baŕiz, orañaŕte Josu'ri egindako irañakaz eztira asebete. «Eta Josu'gaz ageŕijan belaunikaturik, iñaka-egin eutsaen, **Aguŕ, judaŕen bakaldun ori**, esanaz» (*Ma*. 27:29). «Eta etoŕten yakazan, eta, **Aguŕ, judaŕen bakaldun ori**, esaten eutsaen, eta zartakuak emoten eutsaezan». (*Jo*. 19:3). Guzuŕ-bakalduntzat baŕegaŕiro jantzi eben Jaunari iñaka egiŕiaŕen, auŕian belaunikaturik

aguŕ-egiten eutsaen gudari gaiztuak: gero, baŕiz, zutundu, ta jo egiten eben baŕe-algaraz. Josu'k buru gustijan arantzeak saŕtu-saŕtu egiñik eukazan-eta, zartako bakotxak oñaze ikaragaŕijak eragiten eutsazan ¡Oi, ene Erosle mate! Nik, beintzat, egizko Bakalduntzat autoŕtzen zaudaz; eta zure agindubak ziaro betatuko dodaz. ¡Eskaŕik asko, nire matasuna jadestiaŕen laido ta miñez asebetetia nai ixan euzun Bakaldun oŕi! ¡Mate zaudaz bijotz-bijotzez!

## XXI Eguna.—Josu eŕijari auŕkeztuta

**I. Atala**. «Gero Pilatus baŕiro urten zan atera, ta, **Ona, atera dakaŕtzubet**, esan eutsen, **beroni obenik eztauŕkitsodala dakikezubentzat**. Josu, ba, urten zan atera arantzazko burestun, janzkoŕi ta gusti» (*Jo.* 19 : 4, 5). Gudarijak, Josu arantzaz burestu eginda, atzera Pilatus'i ekaŕi eutsaen. Pilatus'ek begitu ta ain zaurtun eta makal ikusi ebalarik, eŕija be eŕukituko yakola uste ixan eban. Oŕegatik, atera urten zan Josu'rekin; eta au ondo ikusi leikien tokijan imiñita, «**Ecce Homo**, ona emen gixonau». esan eutsen. Begitu, judaŕ bijotz-gogoŕoik, begitu gixonau, ta jasan daunaz asetu zateze. Ona, nolan dagon zuben bakalduna ixan gura ei -zan au. Nasai egon zindekeze, gixon onek luzarorako bixitzarik eztauka-ta. Juaten laga egixube, bere etxian il datentzat, be.

**II. Atala**. Begitu zeuk be gogo oŕek, Gixon eŕukaŕijau: ganeko estalki baŕegaŕija baño beste janzkirik eztau; burukotzat guzuŕ-burestun ikaragaŕija dau; soin osua odolez beterik eta gustiz minduta dauko... Zeu, ardi galdu ori, bereganatutiaŕen olako zantzu eŕukigaŕija aŕtu gura ixan daun Artzain ona dozu. ¡Oi, ene Josu mate! Zeu oŕen apa-

letsi ta minduta ikusi-aŕen, gixon geyenak goŕoto baltza baño eztautzube erakusten, judaŕ zitalak bezela. ¡Ai ene! aberiak eurak lenago eŕukituko litxakikezuz zure etsayok baño. «Jaupari nagusijak eta otseñak, ikusi ebeneko, oyuka ekitsaen: Gurutzaldu eikek, gurutzaldu eikek» (*Jo.* 19:6). ¡Ai! Azken-ebaztegunan, epai alkijan aintzaz beterik jezaŕita zakuskiezanian, ¿zer ezango ete-dabe?... Neuk, be, baña, judaŕak letz, **Gurutzaldu, gurutzaldu**, esan dautzut, obena jauki dodanian. Garbai naz, ene Josu; azketsi egistazu, aŕen, zeure neke-miñak dirala bide, azken-egunan zeure eskumaldian nagokentzat.

## XXII Eguna. – Ecce Homo: Ona emen Gixonau

**I Atala.** Pilatus'ek Josu eŕijari auŕkeztu ta «Ecce Homo, Ona emen gixonau», esan eutsen bezela, Urtzi-Aŕeak, be, Seme laztanau erakutsirik, **Ecce Homo** dirausku: ona emen, Gixon apaletsijau; ona emen, zuben oben-zoŕa ordaintziaŕen ezetsi ta nekaldu gura ixan daun ene Seme bakaŕau; begitu, ta maŕe egixube. Bai, Jauna, maŕe dot zure Seme laztan ori; bere nekiak dirala-ta, eŕuki-zakidaz ta lagundu naikezu, eguno ostera iraindu eztaikedantzat.

Euren didaŕak gora-bera Pilatus Josu azkatzeko asmotan dala igaŕi dabenian, judaŕak beste bidera joten dabe erijotz-epaya jadesteko: Josu azkatu ba dagi, Kaiser'en arerijo biguŕtuko dala dirautsae. «Au azkatuten baldin ba-dok, Kaiser-adizkidia ezaz; bere buruba bakaldun egiŕen yuan edonok-bere, Kaiser'i atxin bai'dagitsa». (*Jo.* 19:12). Ori entzun ebaneko, Pilatus gustiz kikildu zan; eta Josu aŕtu, ta epai-lekura jun zan erijotz-epaya emoteko. «Pilatus'ek itxok entzun eta, Josu atera egin eban,

eta... epai-aulkijan jezaŕi zan». (*Jo* 19:13). Baña, eŕubakua erijope ebazten, be, bilduŕ ixanik, «**Ona emen, zuben bakalduna,** esan eutsen judaŕai. Eurok, baŕiz, **Utikan, utikan,** didaŕ-egitsaen, **gurutzaldu eikek.** (*Jo.* 19:14,15). ¡Gure Erosle on ori! Zu gixonen aŕtera etoŕi zintzazan, eurok gaizkatzeko, eta Urtzi-Semia ixanaŕen gixonak ikusi, be, etzabez egin gura, ta zeu gurutzalduteko eskatzen dabe.

**II Atala.** «Bakalduna gurutzalduko dautzubet, ba? dirautse Pilatus'ek. Kaiser baño beste bakaldu-nik etxuagu, ijardetsi eutsaen jaupari nagusijak». (*Jo.* 19:15). ¡Josu on ori! Eskaŕgaiztoko-judaŕok etzabez bakalduntzat aŕtu gura. Nik, baŕiz, Urtzi ta Bakalduntzat, neure bijotzeko Jaun eta Jabe bakaŕtzat aŕtzen zaudaz. ¡Ai-ene, baña! Beñola, neuk be, girin okeŕak nigaz jabetu ziralarik, bijotzetik jauŕtiki egin zindudazan. Jabetu zadiz nire bijotzaz; zeuk bakaŕik agindu beti bertan. Terese deunarekin dirautzut: «¡Uleŕtu daikedan baño maŕtiago nozun maŕtale ori! Lagundu naikezu, zure mirabe zindua ixanik, nire burubaz aztuta zeu bakaŕik atsegindhuten bixi nadiŕentzat. Nerau betiko il, eta nigan beste iñor bixi beike. Bera bixi, ta ni beragandik; berak agindu, ta ni jopu ixan: nire goguak ezpeike bestelako azkatasunik opa-ixan». ¡Ene Josu: Zu zara nire bakaldun bakaŕa, nire onauŕki bakaŕa, nire maŕtasun bakaŕa! ¡Auxe egiz desakena, bai, gogo zoruntsuba!

## XXIII Eguna.—Josu Pilatus'ek erijozpe ebatziŕa

**I Atala.** «Arian, gurutzalduteko ukañi eutsen». (*Jo.* 19:16). Pilatus epaikari koldaŕak, bein eta baŕiro Josu'ren eŕubagia autoŕtuta, gero, bilduŕaŕen, ilŕeko damotse judaŕai, zuzenbage ori eurok

lepaldu biaŕko ebela-ta. «Pilatus'ek... ura aŕtu ta eskubak eŕijaz-ageŕijan ikuzi euzan, **Gixon zuzen onen odolaz garbi nagozube ni, oŕ ikusi zubek,** esanaz». *(Ma.* 27:24). ¡Pilatus dan epaikari zuzeneza! ¡Josu eŕubakua dala autoŕtu, ta batez erijotzerako emon! Eta, Luka deunak diñonetz, «Josu euren oldetara ukañi eban». (23:24). Oŕezkero, gure Erosle otzana bere etsai amoŕatuben eskutan dago, ta oneik gura daben erijotzaz erailteko eskubide osua dabe. ¡Oi, judaŕ itxubok! «Bere odola geure burubetara, ta geure seme-alabaenetara, ijardetsi ta esan eban eŕi osuak». (*Ma.* 27:25). Bai, beintzat: eskatu euzubena bete-betian jaso yatzube, ta azkenaldirańo Jaunaren zigoŕpian diraukezube, judaŕok.

**II Atala.** Epai-itza irakuŕi dabelarik, gure Jaunak ixiľik entzun eta bijotzez onaŕtu dau, Goiko Aťearen erabakija dala-ta. Il beike Josu, diño emen Pilatus epaikarijak; Il beike nire Semia, diño goyan Urtzi Aťeak. Semiak, baŕiz, Ona emen ni, diño, gurutzian ilťeko gerturik. «Bere buruba apaletsi, ta geugaťik erijotz-aŕteño men-egin eban, gurutz-erijotz-arteño. egin be» (*Paul, Piľ.* 2:8). Ene Erosle maťe: nik zoŕ dodan erijotza aŕtu ta zure erijotzaz bixija emon egin daustazu. ¡Eskaŕik asko! Donokira naruakezu, zeure eŕuki aundija etenbarik goretsi daikedantzat. «Jaunaren eŕukijak beti-ta-beti abestuko dodaz». (88'g. *Eŕ.* 2). Zuk, eŕubako Jaun oŕek, gurutz-erijotza oldez onaŕtu euzunezkero, obendijonek, be, oraindixek oldez donaŕt niretzako erabaki dozun erijotza, bere neke-min eta gusti. Zeure erijo deunaz batera deskeintsat Goiko Aťeari. Ene Josu: zeure gurutz-irabazkijak dirala bide, bixitz eta erijotzan bijotz-bijotzez maťe zaikedazala indazu. Olantxe.

## XXIV Eguna. — Josu gurutza soñez daruala

**I Atala.** «Janzki gořija erantzi egin eutsaen, eta bere soñekuakaz jantzi; eta gurutzalduteko atera eben». (*Mar.* 15:20) Erijo-epaya entzun ebenian, judařak pozaren pozaz Josu ainbat ariñen gurutzalduteko gertu ziran, Igaratz-egun aundija uř zala-ta. Ařtu eben, ba, gure Jauna, ta lenen janzki gořija kendu, ta bere soñekuak imiñi eutsoezan; eři osuak ezagutu, ta lenago aintzatu ebena malmutz utza zala uste ixatia nai bai'eben, Anbortzi deunak diñonetz. Geroxe gurutz aztuna lepaldu, ta soñez eruten biařtu eben. ¡Au gogořkerija! ¡Gustiz aunatuta dagon gixonari alako gurutz aztuna lepaldu!

**II Atala.** «Eta gurutza soñez ařtuta, ixenez Kozkategi dan lekura—iberkeraz Golgota da—bide-egin eban» (*Jo.* 19 : 17). Gure Jaunak oldez ařtu eban gurutz aztuna; eta, lagunabařak eřaikijazala, Kozkategi'rantz urten zan. Lařija ta oyeza da, ixan be, Josu-Kisto'ren Nekaldijan jazorikua. ¿Nok uste -leikian, Josu zauriz josiťa ikusijaz judařak ibiťu barik sumindubago egingo zirana, ta gurutzaldu-ko ebena? Eta oñaziaren oñaziaz aulduta eguana beretzako gurutza eruaten biařtuko ebenik, ¿nok esan? Zenbatu ezin-ala neke ta ixeka jasan euzan Josu'k gabeun-erditsutan, atxiľotu ebenetik il-ařteño: ezespen, nausa, masaľeko, zigořkada, arantza, untze, neke-laři ta erijo. Judař ta atzeřiťař, jaupari ta ostantzeko, gixon oro batu ziran Josu'ren kaltez, Ixai iragařliak iragařiťako **gixaseme mindµna** egiťeko. Josu azkatzeko Pilatus'en alegiñak, be, aren kaltezago ixan ziran; judařai ilťeko lelengotan emon ba'leutse, ezpai'leukien Baraba baño ezago etsiko, ez-eta aztindu ta arantzaz burestuko. Josu'k, baña, danori geugaťik jasan gura ixan eban...

## XXV Eguna.—Josu'k Kozkategi'ra bidez emakumiai itz-dagitse.

I Atala. Gure Eroslia Kozkategi'ra eruela gustizko eŕukigaŕi agiri zan-eta, eŕaikijazan emakumiak, eŕukiturik, negaŕ egijen «Eŕitalde aundija eta emakume-talde bikaña eŕaikijazan, negaŕ-uluka ta erostari. Eta Josu eurekana itxuli zan, eta, **Jerosolin'eko alabak,** esan eutsen, **ez negaŕ egin nigatik; negaŕ egin, bai, zuben burubakatik eta zuben seme-alabeakatik... Eguŕ ezian au jazo danezkero, ¿igaŕan zer jazo biarko?»** (*Lu.* 23: 27, 28, 31). Itxokaz geure oben-zoŕ aundijari dagokijan zigoŕa adirazoten dausku. Urtzi'ren Semia gure obenakatik ain gogoŕ zigoŕtau ixan danezkero, geu obendijok ¿nolan zigoŕtauko ete-gauz, ba, Goiko Jaunak? Garbai ixan ezik, betiko oñaziakaz zigoŕtau, be...

II Atala. Ointxe betatu da beñola Jeremi iragaŕliak iragaŕija: «erailteko daruen bildots otzana lakua nintzan» (11: 19). Eruan, be, alantxe darue gure Jauna, Koskategi'n erailteko Berak, baŕiz, erailtzalien aldez emongo dau bixija ¡Jerosolin, eskaŕbaltzeko urijori! ¡Urtzi'ren Bildots otzanau erijora daruazuben gixon gaiztuok! ¿Olan ordaintzen dozubez berak zubei egiñiko ontaŕte aundijak? ¡Ai! Orixe egiten dautsogu geuk, be, Jaun onen onegiñak obenaz ordaintzen dautsoguzanian .. ¡Gure eskaŕ baltza! ¡Gure dongakerija!

## XXVI Eguna.—Simon Kuirenetaŕa Josu'ren laguntzale

I Atala. Begitu Josu ona: astiro-astiro dabil guruzpe; ibilijaz buruko arantzeak min bixija era-

giren dautsae; areyuak irain eta birauka darabile. Gurutza aztunegi yokonaren, eztau itxi gura, geure bijotzetan bakaldun ixateko agintari-makila daulako, Ixai'k iragari ebanetz: «Aginpidia sorbalda-gane dau» (9 : 6) ¡Ene Josu! Erijotzera-bidian neugaz gomutau zintzazan, eta neu gaizkatziaren oldez ziñuazan erijora. «Iñorbat nitzaz-oste etori nai ba-da, bere buruba ukatu, ta bere gurutza bizkaretan artu beike, ta beraikiket» (*Mar.* 8 : 34). Orixe esan euzun beñola, Jaun orek; eta nik zeure esana betatu gura dot. Lagundu nagikezu nire gurutza oldez eruaten. Zeuri jarai ibili gura naz erijotzerarte; egundo etzaudaz itxi nai; mirabe zindua ixango nozu beti. Josu on orek, nebaren jasan euzuzanezkero, irañak eta nekiak matagari yataz ..

**II Atala.** Eta urtetan ziralarikan, Simon eretxan gixon kirenetara aurkitu eben; eta beroni aren gurutza eruan erazo eutsoen «(*Ma.* 27 : 32). Judarak Josu'ri erukitu egin ete-yakozan? ¡Ez-ta! Simon kuirenetara Josu'ren gurutza soñetan artu ta eruateko eraendutia, gure Jauna Koskategi'ra baño len ilgo ete-yaken bildur̄agatik ixan zan. Josu gustiz aulduta eguan-eta, gurutza azkeneraño eruateko gauza etzala uste ixan eben judarak; eurek, bariz, gurutzalduta iltia gura, olan ildakua biraugari esten zalako: «Gurutzalduriko edonorbere biraugari da». (*Paul-Gal.* 3 : 13) Oregatik, Pilatus'i, be, bestelako erijotza barik gurutz-erijotza eskatu eutsaen, **gurutzaldu, gurutzaldu,** didar-egiñik. Gure Eroslia gurutzalduzkero, bere ixena dongetsi ta orok aztu ixango zala uste eben: eta orixe gura, be, Jeremi'k iragari eban letz: «Bixidunen luretik zusterkatu egin daigun, eta ezpeike iñor bere ixenaz gomutau» (11 : 19). Josu'ren gurutza Simon'i lepaldutia, Josu Kozkategi'ra bixirik eltziaren ixan zan, ba; edo, erukijaren barik Josu gurutzalduta ikustiaren. ¡Oi, ene Josu matagari ori! Zure etsayen ordez mate-mate gura zaudaz beti

## XXVII Eguna. – Josu gurutzaldu dagije

**I Atala**. Josu-Kisto nekiaren nekiaz Koskategi'ra eldu zanian, bera ta beste lapuŕ bi gurutzalduteko gerkunak egin ebezan. Gurutzaldu biaŕ ziranai lerdamiñaz nastautako ardaua edaten emoteko oturea zan, soŕgoŕa bide, oñaze-laztasuna gitxitutiaŕen. Josu'ri, baŕiz, lerdamiñaz ta biaztunaz nastauta emon eutsaen; eta berak ezeban edan gura ixan, mustau bakaŕik baño. «Eta biaztunaz nastautako ardaua edaten emon eutsaen; eta berak, mustau ebalarik, ezeban edan gura ixan» (*Ma*. 27 : 34). «Eta leŕdamiñaz nastautado ardaua edaten emon eutsaen; berak, baña, ezeban edan» (*Mar*. 15 : 23). Gero bilustu egin eben gure Jauna, janzkijari itxasita egozan aragi-zatijak batez kentzen eutsaezala; eta gurutz-gane etzuteko agindu eutsaen. Begitu Josu otzana: abozkora etzun eta beso deunak zabaldu dagiz, Goiko Aŕeari geugatik bere bixija eskeintzen dautsan bitaŕtian .. ¡Eskaŕik asko, ene Josu, zeure buru-eskeintza oŕegatik!

**II Atala**. Aŕendan, Josu'ren esku-oñak untze gogoŕakaz zulatu ta gurutzari josi eutsaezan gabikuaz jo-ta-jo... Gabikokada-otsak durunda-egiten eban landa-ziaŕ; eta Semiari jaŕai eldu zan Miren Ameak entzun euzanian, bijotza leŕtu egin yakon. Begira: amaika ta amaika gexo sendatu ebezan esku altsu oŕeik zulatuta dagoz; geu ardi galdubon bila nekatu ziran oin done oŕeik gurutzari josita dagoz... Edozein ziztadak kirijo-izpitxu bat uŕatuten dauskunian, min bixi-bixija nabaŕuten dogu; ¿zelako oñaze latza nabaŕu ete eban, ba, gure Jaunak, esku-oñetako zan eta kirijo-izpijak untze motzakaz gustiz uŕatu eutsoezanian? ¡Ene Josu! ¡ni gaizkatu ta neure maŕasuna jadestiaŕen jasan dozuzan neke -oñaze goŕijak! Nik, baŕiz, maŕasun ori ukatu egin dautzut... ¡Azketsi, aŕen, azketsi egistazu!

## XXVIII Eguna. – Gurutza zutik

**I Atala.** Josu-Kisto'ren esku-oñak gurutzari josita gero, gurutza jaso egin eben eta eginda eguan zulora sartu; eta gurutz-oña arijakaz gogortu ebenezkero, Erosle deuna dindilizka lotu zan lapur biren erdijan. «Eta antxe gurutzaldu eben; bata beste bi, be, berarekin, alde batian eta bestian, eta Josu erdijan». (*Jo.* 19:18) Orixe iragari eban Ixai iragarliak, Marka goizpargiliak idatzi eban letz: «**Gaizkiñakin zenbatu ixan da,** diñon idazteuna egiztu egin zan». (*Mar.* 15:28). «Pilatus'ek idazkuna, be, idatzi ta gurutz-buruban imiñi eban; idazkuna auxe zan: Josu Nazaretara, judaren bakalduna». (*Jo.* 19:19). Idazkun ori aldatuteko eske jun yakazan Pilatus'i judaren jaupari nagusijak; arek, bariz. **Idatzija idatzita dago,** erantzun eutsen, eta ezeban aldatu nai ixan. Jaungoikua'k erabakita jazo zan ori, gurutzalduba luzaruan opa-ixandako judaren Bakalduna, Urtzi-Semia, zala agiri leditentzat.

**II Atala.** ¡Josu Gurutzan! ¡Ora or, Urtzi Jaunak emon dauskun matasun-agerbide argija! Belen'go estalpetxuban agertu yakunian, matasun ori argi erakutsi ba-eban, Gurutzan dindilizka agertubaz argi baño argijago erakutsi dausku. Beñola, Paula 'tar Pantzeska deuna Josu gurutzaldubaren matasuna gogartzen eguala, gogo-goyaldijak artu ta luretik gorantza jaso eban, eta iru didarok entzun eutsaezan: «Urtzi matasun utz, Urtzi matasun utz, Urtzi matasun utz!» Didarok, gebaren gurutzan il zan Jaunaren matasunaren aundija ezin ulertu daikegula adirazoten dauskube. Ureratu zakijoz zu gurutz-ondora, ta auzpez gurtu egixu zugatik josita dagon Eroslia. Besarkatu Josu'ren oñak, eta odol deuna zeure gane ixuri datela eskatu egixu, oben-orbanak atzindu daiskezuzantzat. Odol bikain au, Abel'ena lez zigor-eske barik, eruki-eske dago,

egon be; eta bertora ureratuteko dirausku Paul beldu deunak: «Itunaldi Bariko Bitartekua dan Josu'gana, ta Abel'enak baño obeto didar-dagijan Odolazko odolezketara». (*Iber*. 12:24).

## XXIX Eguna. – Josu iliri

**I Atala.** Josu gurutzaldubaren neke-miñak gogartu egixuz. Soin-atal gustijak minduta dauz, ta alkari lagundu eziñik, esku-oñak gurutzari josita dagoz-ta. ¡Ai! aresti bakotxian erijo-miñak jasaten dirau: gurutzan bixirik egon zan iru gabeukijetako aresti edo unetxuben beste erijotz jasan euzala esan daike. Gure Jaunak oge gogor aretan eztau atseden-izpirik: soñari eusteko, naiz eskubakaz naiz oñakaz indar-egiten daularik, untziak baño beste euskairik eztago-ta, zaurijetako oñazia getu egiten yako. ¡Urtzi-Semiaren gorputz deuna lau zauri bixijetatik dago zintxilika!

**II Atala.** ¡Oi, ene Erosle mate! Ganekua begitu, ta zaurijak eta odola baño eztautzudaz ikusten; barukua betetsi, ta zure Bijotza itun-laritan dakust. Bakalduna zarala diraust goiko idazkunak. ¿Zeintzu dozuz, baña, bakaldun-ezaugarijak? Bakaulkirik eztozu. gurutz laidogarija baño; jantzirik ez, odol gorija baño; burestunik bez, arantzazko mingarija baño. Ixan be, zure bakalduntzea deduzkua barik matasunezkua da-ta, bestelako ezaugaririk eztozu biar. Gurutz orek, odol deun orek, arantza ta untze oreik zeure matasunaren aundija erakusten dauskube.. ¡Oreik bai-dirala matasun-ezaugari bikañak!

## XXX Eguna. – Gurutza, matasun-bakaulkija

**I Atala.** Josu-Kisto gure Jaunak gurutzetik erukija baño leyazago matasuna eskatzen dausku; eta

bere neke oñaze latzak dirala-ta eŕuki-ixatia atsegin daunaŕen, eŕuki oŕek gure bijotzetan maŕasuna soŕtzia nai dau. On utza dalako bakaŕik, be, gure bijotzetako maŕasun gustija zoŕ eutsogun; Jaun onek, baña, beste bidera jo dau oinguan, gure maŕasuna jadesteko: gurutzan dindilizka ta neke-laŕiŕan ikusizkero, eŕukijaŕen beintzat, maŕatuko dogula uste ixan dau. ¡Ene Josu! Itzez-itz bete da beñola zuk esandakua: «Luŕetik jasoko ba'nindukie ni, gauza gustijak neuganatuko dodaz». (*Jo*. 12: 32). Zeuganatu dozuz, baiki, gure bijotzak; gauŕtik-eta zeure-zeuriak ixango dira; beste gauza gustijak baño maŕiago ixango zauguz. Jabon gaikezuz, Jaun oŕek, bijotza ziŕaldu egin gura dauskuben etsayen ziltzaldijetatik.

**II Atala.** ¡Neure Jaun eta Jabe bakaŕ ori! Lapuŕ biren erdijan ipiñi zabez gurutzalduta judaŕ gaiztuak; zuk, baŕiz, eztozu besterik ostu, gure bijotzak baño. ¡Goteungiari, bai, zeure maŕasuna dala bide, amaikatxu gogo kendu dautsazuzala! Txeŕenak beriak euzan, obenakaz erosiŕa eukazan; eta zuk kendu egin dautsazuz. Eurotarikua ixan naz neu, be. ¡Josu'ren zaurijok! ¡Maŕasunak egindako zauri deunok! Baŕura saŕtzeko leku-egistazube, maŕasun-gaŕetan kizkaldu nadiŕentzat. ¡Ene Josu maŕe! Enaŕela ni gaiztokiko gaŕetan eŕe, zeure Bijotzeko maŕasun-gaŕ bixiŕan baño.

## XXXI Eguna. – Gudarijak Josu'ren soñekuak laindu dagijez

**I Atala.** «Biŕaŕtian gudarijak, Josu gurutzalduta gero, Josu'ren soñekuak eta atoŕa aŕtu, ta lau alde egin ebezan, gudari bakotxari bana. Atoŕa, josi-barik goŕik bera iruna zan. **Eztaigun zatiŕu**, esan eutsaen alkaŕi, **zotz-egin daigun, bai, norena ixango**

dan. «Nire soñekuak eurentzat banandu ebezan, eta nire atoŕaz zotz-egin eben» (*Jo.* 19 : 23, 24). «Eta jezaŕi, ta jabon egiten eben» (*Ma.* 27 : 36). Josu -Kisto gure Jaunak lez, utzi zeuk be, Kistaŕ oŕek, ludiko gauzeak; biluztu zeure bijotza bestelako matasaŕe ta naikunetaz; eta Josu'gana uŕeratu ta gurutz - oñian jezaŕi zaditez. Orain gurutzaren gerizpetan iraunezkero, erijotzaldijan Abestijetako Emastiarena esango dozu: «Opa-eudanaren gerizpetan jezaŕi nintzan». (2 : 3). ¡Gixaŕteko zaŕamaŕak, txeŕenaren zirikaldijak eta Goiko Jaunaren epai zoŕotzak dirala-ta, bilduŕ-diran goguak, bai, atsegin gozua idorotan dabela Josu gurutzaldubaren onduan!

**II Atala.** Bidez erijopetu dan gaizkiñari, be, il-agiñian dakuskunian, eŕuki-ixaten gayakaz. Judaŕak, baŕiz, eŕubarik gurutzaldu ixanda iluŕen dagon Josu onari eztautsoe eŕuki-izpirik erakusten; iraindu ta ixeka-egin, bai, ostera. «Eta igaroten ziranak birau-egiten eutsaen burubak erabilirik; ¡Ai, i, Urtzi'ren txadona eratzi ta iru egunetan biŕeragiten duan ori! jarein ointxe eure buruba; Urtzi-Semia ba-az. jatsi adike gurutz oŕetatik. Orobat, jaupari nagusijak, idazle ta eŕiko agureak nausaz esaten eben: Bestiak jarein dauz; ezin dareike, baŕiz, bere buruba; Ixaŕel'go bakalduna ba-da, jatsi bei ointxe gurutzetik, eta ziñetsiko dautsogu; Urtzi'gaz itxaron zan; oin, ba, maite ba-dau, berak jarein beike, esan be, **Ni Urtzi'ren Semia naz** esan dau-ta» (*Ma* 27 : 39-43). ¡Oi Josu laztan ori! Iluŕen zagozala, be, irañak-irain egiten dautsubez etsayak. Azketsi, aŕen, nik egin dautzudazanak, eta eurakaz irabazi ixan dodan betiko erijotzetik jarein naikezu.

# SASPI ITZAK

## ASTEBETARAKO GOGAŔTE-GAYAK

**Igandia.** «Aīa: zer dagijen eztakije-ta, azketsi egiskiezu» (*Lu.* 23 : 34). ¿Irainduten ebenai Josu-Kisto'k gurutzetik nolan jardetsi eutsen? Goiko Aīeari maīero itz-egin eta etsayai azkesteko eskaturik ¡Ene Jaungoiko maīale! Josu'k, baña, geu obendi gustijon aldez aŕen-egin ebala ekixu. Oŕezkero, zeuk, be, Jaungoiko-Aīeari gogoz aŕen-egitsozu. ¡Betiko Aīa ori! Entzun, bai, zeure Seme laztan onek gure aldez dirautzuna. Geuri azkesteko deskatzu-ta, azketsi egiskuzu, aŕen. Guk zigoŕ aundija irabazi dogu, bai; Josu'k, baŕiz, gure oben-zoŕa ordaindu ta geuretzako azketsa irabazi egin dau. Eta zuk, Aīa deun oŕek, zeure Seme laztanaren irabazijak dirala-ta, azketsi egistazu, aŕen, eta zeure adizkidetasunera aŕtu nagixu, Josu-Kisto zeure Seme ta gure Jaunaren erijotza dala bide. Olantxe.

**Astelena.** «Nigaz gomuta, Jaunoi, eure bakaldeŕira eldu adiīenian. Eta Josu'k, **Ziñez dirauskat,** esan eutsan, **gauŕ berton ixango aut neurekin atsegindegijan.** (*Lu.* 23: 42, 43) Eskumaldeko lapuŕak Josu'gana jo dau eŕuki-eske; eta Josu'k betiko zoruna dabintso. ¡Gure Jauna dan eŕukijoŕa! Bijotzez garbai dan obendijari bertan azketsi, ta aren gaiztakerijaz ezta ariago gomuta ixango, Ezekel'ek iragaŕi eban letz: «Obendija egindako gaiztakeri orotzaz garbai ba'ledi. ., enaz gomutauko bere obe-

nakaz» (18: 21, 22). ¿Nok maŕe ixan ez gure Jaungoiko eŕukitsuba? Ene Josu: nik egin ixan dautzudazan irañakaz barik zeure erijotzaz gomutau zadiz, ta zeure atsegindegira naruakezu. Orain, bańiz, mańasunezko zeure bakaldeŕijan egon gura naz. Zure mańasunak bete beike nire bijotza; beronegaz jaubetu beike. Eztot besterik opa ludi onetan. ¡Josu'rekin gurutzan il intzan lapuŕ ori! ¡Zoruntsuba eu, beintzat! ¡Alantxe ilgo al naz neu, be! Josu maŕe dodala bixi, ta Josu lagun ixanik il: auxe indazu, aŕen, Goiko Aŕa deun oŕek.

**Astaŕtia.** «Josu'k, ba bere Amea, ta maŕe eban ikaslia, antxe zutunik ikusirik, **Andera, oŕa oŕ eure semia,** esan eutsan Ameari. Eta gero ikasliari: **Oŕa oŕ, eure Amea»** *(Jon,* 19: 26, 27). Begiŕu Miren Amea zutunik Seme gurutzaldubaren onduan. Seme laztanari begira dago, beronen atsekabe ta oñaze latzak tamalez beterik gogaŕtzen. Geu gaizkatzeko. Urtzi Jaunari Josu'ren bixija oldez eskeñi dautsanaŕen, eŕukijaren eŕukijaz ta mańasunaren mańasunaz bijotza biŕinduta dauka. ¡Ai ene! Edozein ama iluŕen dagon seme-onduan ikusizkero, eŕuki-ixango gintxakez. ¿Nortzuk dira, baña, emengo ama-semiok? Urtzi-Semia ta Urtzi-Semiaren Amea... Beste ama gustijak euren semiak baño askozaz mańiago eban Miren Neskutzak Josu bere seme-bakaŕ laztana. Josu bere Semia ta batez Jaungoikua eban, semerik edeŕena ta mańagaŕijena, semerik onena; Josu'k berak betidanik Amatzat autetsi ta beste irazaki oro baño mańiago ebala bai-ekijan. Eta Ama samuŕ onek alako Seme laztana gurutzan josiŕa iluŕen dakus, ta ezin dau lagundu... ¡Ama nekatsu ori! Orduko zeure atsekabia dala bide, eŕuki zakidaz, ta otoiztu egixu nire alde Seme ori, Jon deuna letz neu, be, semetzat emon nautzu-ta.

**Egubastena.** «Eta bederatzigaŕen gabeukiriz, Josu'k oyu andijaz didaŕ-egin eban, Eli, Eli, Lamma sabaktani? edo, Ene Urtzi, ene Urtzi, ¿zer-eta utzi

nok? esanaz». (*Ma.* 27:46). Josu il-agiñian dago. Erijorañoko iȓunaz laȓi zala esan eutsen ikasliai Getsemani'n; eta aȓezkero laȓijori gitxiȓu barik geȓu egin yako. Gorputza zauriz beterik eta oñaze goȓiȓan dauka, ta gogua iȓun-laȓi baltzetan. Nok poztuko daun biȓatu, ta ezin dau idoro, Dabi'k Eresijetan iñuanetz: «Pozkari-begira nenguan, eta pozkaririk ez» (68'g. Er. 21). Ama laztana begiȓu, ta aren naibagiak baȓuko laȓija geȓu baño eztautso egiȓen; lagunabaȓak begiȓu, ta areyoz moltsatuta dakus bere buruba. Goiko Aȓeagana jo biaȓko. Urtzi-Aȓeak, baȓiz, gixonen oben gustijak lepaldu dauzan Semia iȓun-laȓiȓan bakaȓik utzi dau... Aȓendan egin eban Josu'k didaȓ a: Ene Urtzi, ene Urtzi, ¿zer-eta utzi nok? ¡Gure Erosliaren erijotza, bai, samiña dala! ziñopa gustijenak baño samin-samiñagua, pozkari-bako erijotza. Zuk, baña, Erosle oȓek, erijotz ori, bere neke ta gusti, oldez onaȓtu dozu. ¿Zer dala-ta, ba, didaȓ ori? ¡A! bai-dakit... Zeure neke-laȓi aundija erakutsi gura ixan dauskuzu, ta geure gogo-loȓaldijetan zeugana jo biaȓ dogula irakatsi. ¡Ene Erosle on ori! Zeure erijo-laȓija dala bide, Jaungoikuak bere laguntza ukatuko eztaustala ditxarot, lengo nire obenak aundijak ixanaȓen Eskaȓik asko, nigaz gomutau zintzazalako. Lagundu naikezu, beti zeure atsekabe aundijaz ta maȓasun bixijaz gomutau nadiȓentzat.

**Egubena.** «Gero, Josu'k gustija betatu zala goguaȓturik, idazkuna, be, betatu lediȓentzat, **Egaȓi naz,** esan eban. Bai-zan an ontzi-bete ozpiña. Eta areik (gudarijak) belakija ozpiñaz urasetu ta seska-buruban imiñirik, abora emon eutsaen». (*Jo.* 19:28, 29). Betatu biaȓ zan idazkuna Dabi'ren au zan: «Egaȓija iȓoteko, ozpiña emon eusten». (68'g. Er. 22). Oñazez bete-beterik dagon gure Erosle maȓiak, ¿zer-eta egaȓija baño aȓatu ez? ¡Oi, ene Josu! Bai-dakit zuk aȓaturiko egaȓija soñarena barik bestelakua dana, maȓasun-egaȓija. Gixona-

kaŕik iluŕen zagozanezkero, gixon gustijak maŕe zaikiezala gura dozu. Zu, Jaun ori, luŕeko kokua baño enazan onen maŕasun-egaŕi zara; ¿eta ni ez ete naz zeure maŕasun-egaŕi ixango? ¡Bai, beintzat! zeure maŕasuna, zeure eskaŕ deuna egaŕi ta opa dot; zeure gurea betatu gura dot. Bete egixu zeuk nire bijotza, ta nik maŕe-maŕe ixango zaudaz beti; goi-eskaŕa ixuri egistazu, ta zeure Lagi deuna ziaro beteko dot; lagundu naikezu, ta zeure oldez -arauz bixiko naz biztaldi osuan. Nire gogua zeure maŕasunaz asebete egixu, Jauna.

**Barikuba.** «Josu'k, ba, ozpiña aŕtu ebalarik, **Asakatu da**, esan eban» (*Jo*. 19 : 30). Begiŕu Erosle maŕagaŕija il-agiñian: begi argi areik ilundubaz duaz; aŕpegi edeŕa zurbildu egin yako; Bijotz samuŕaren taupadeak geruago ta geldijaguak dira; eta soin osuan erijo-santzubak agiri yakoz. Olantxe iluŕan zala, ba, Josu'k bixitza gustiko nekiak, lanak, irañak eta oñaziak gogoratu, ta bere Aŕa betikoŕari eskeñi eutsazan, aginduriko gustija betatu ebala-ta. «Gustija betatu da». Neutzaz iragarliak iragaŕija, egiztu da; Goiko Jauna ibiŕuteko biaŕa zan oparija, eskeñi da; ordaindu yako Urtzi Zuzenari gixonen oben-zoŕa. Betatu da, diñotso bere Aŕeari, Betatu da, diñosku geuri, be. Bai, gixaseme maŕiok: betatu dot, egin dot zuben goguak gaizkatzeko biaŕa zana ta zuben maŕasuna loŕtuteko egoki zana; maŕe naikezube, ta ez iraindu baŕiro maŕe-maŕe zauzen Jaungoikua. ¡Oi, Erosle maŕe ori! Maŕatuko zaudaz; betatuko dot zure gurea; etzaudaz baŕiro irainduko... Lagundu naikezu, aŕen, orain Jaungoikua'ren naya zintzoro egiñik, erijotzaldijan zeuk letz egiz desakedantzat: Betatu dot agindu eustazun gustija.

**Larunbata.** «Eta Josu'k, didaŕ andija egiñik, Aŕa, esan eban, eure eskubetan ezaŕten yuat neure gogua» (*Lu*. 23 : 46). Ona emen, Josu gurutzaldubaren azkenengo itzak. Bere arimia ta gorputza

alkaŕgandik aldenduteko arestija dala-ta, jasankoŕ ta ustetsu dirautsa Goiko Aŕeari: Aŕa, eure eskubetan ezaŕten yuat neure gogua. Ene Aŕa: nire gurea barik euria egin nai yuat: nik gurutz onetan geyago jasatia gura ba-dok, gerturik nayagok, eure eskubetan ezaŕten yuat neure gogua ¡Geuk, be, neke ta loŕaldijetan Jaunari olantxe itz-egingo ai ba'leuskiagu! Sales'taŕ Pantsezka daunak diñonetz, onetan, geure buruba osorik Goiko Aŕearen eskubetan ezaŕte onetan datza gure donekuntza betia ¡Ene Josu! oraindixek ezaŕten dot nire buruba zeure eskubetan, il-agiñian eŕezago egin al daikedantzat. Aŕtu ta zeure zauri-baŕu jabon naikezu...

Josu ilŕeko orduba da. Erdu, gotzonoik, erdu zuben Urtzi Jaunaren erijotzera. Eta zu, Miren Ama nekatsu ori, uŕeratu zakijoz, jaso zure begijok eta begiŕu il-agiñian dozun Seme ori. Gure Erosliak erijotzari dei-dagitsa: Erdu, erijotz ori, erdu ta kendu egistak bixija, nire ardi gaxuak bixi dadiŕezantzat. «Eta buruba makuŕtu ta gogua emon eban» (*Jo*. 19 : 30). «Eta ara, txadoneko oyala erdibiŕu egin zan goŕik bera; eta luŕikarea ixan zan; eta atxak erdiratu ta zupubak ediki egin ziran» (*Ma*. 27 : 51, 52). Il da, il da, diñue ikusliak ikaraz. Il az, ene Seme, diño Ama gaxuak negaŕez... Il da, bai, il da zure Seme laztana, geuri bixija emotiaŕen. Aŕtu gagixuz semetzat. Bakaŕ-min samin ori arindu egin gura dautzut nik...

# JOSU'REN ERIJOTZAZ

## IRU EGUNETARAKO GOGAŔTE-GAYAK

**I Eguna.** Il da Josu-Kisto gure Jauna. Bixijaren Jabia, Urtzi'ren Seme bakaŕa, danaren Jauna, il egin da. ¡Erijotz ori! euria, bai, egipen aŕigaŕija! ¡Urtzi Jaunaren neuŕibako maŕasuna! Dana emon dau: atsedena, ixen ona, odola, bixija; eta eskaŕgaiztoko gixakumiokaŕik emon, be. Geu jaregiŕiaŕen il da; eta neke-oñazerik laŕijenak jasanik il, be. Begiŕu gurutzan Josu'ren iĺotza; begiŕu ondi oŕetan Jaungoikua'ren Bildots iĺa. Urtzi Aŕearen Seme laztana dozu, ta zeuri betiko bixitzea jadestiaŕen il da. Besuak zabalik dauz, zeu besaŕkatuteko; buruba makuŕtuta, zeuri mosu egiŕeko; sayetsa zulatuta, zeu bijotz-baŕu aŕtzeko. Maŕale bikain au ¿ez-ete-dozu maŕatuko? Beste iñortxuk etzauz onenbeste maŕe-ixan, ez maŕe-ixango .. ¡Ene Jaun eta Erosle on ori! Il egin zara, ta erijotzik laidotsubena ta mingaŕijena jasanik il be. ¿Zer dala-ta? ¡Nire bijotza irabaztiaŕen, neure maŕasuna jadestiaŕen! ¡Oi, Josu on ori! Nigaŕik iĺaz erakutsi daustasun maŕasun bixija eztagiskezut ordaindu, baña, ordez-orde nire bijotzeko maŕasun gustija deskeintzut. Neu gaizkatziaŕen gurutz oŕetan il zaranezkero, eztot beste ezerik maŕatu nai. Garbai naz lenago zeu iraindubaz. Onik-eta bijotzez eta etenbarik maŕatuko zaudaz, ene Jaun eta Jabe ori.

**II Eguna.** ¡Oi, ene Jaun eta Jaungoiko! Edozein gixon, gixonik txatxaŕena be, Josu-Kisto lez neugaŕik aztindu, iraindu ta gurutzalduta ba'likusket, ¿ez-ete-litxake nire bijotza eŕukiz ta maŕasunez samuŕtuko? Eta gixon gurutzaldu aren argazkija ba'lemoskede, ¿argazki ori ez-ete-leuket mosu ta

-mosu erabiři ta arduraz jabongo? ¡Ai-ene! Kistař askoren etxietan Josu gurutzaldubaren irudijaz ezta iñor gomutetan; edeřgařitzat ormean josita euki-ařen, eztabez aren zauri deunak mun-egiten; eztabe mařero begituten... ¡Ene Josu! ¡Enatela ni ořetarikua ixan! Gurutzaldu ixanezkero bijotz gustijak zeuganatu egingo euzuzala iragaři euzun -eta, niriau, beintzat, ařtu egixu ta zeure sayetseko zauri-bařu jabon beti, gixařteko mařekerijak kutsutu eztagijantzat. Zu neugatik il zintzazan; eta ni zeuretzako bakařik bixi gura naz. ¡Josu'ren oñaziok! ¡Josu'ren zaurijok! ¡Josu'ren erijotz ori! gogo -goguan ixango zaudaze nik beti. ¡Erosle on ori! maře zaudaz, bijotz-bijotzez maře-zaudaz. Azketsi, ařen, nire obenak, eta goi-eskařez bete naikezu

**III Eguna.** ¡Betiko Ařa on ori! Zeure Seme gurutzaldubaren irabazijak dirala bide, eřuki zakidaz. Obenik asko jauki dodaz, baña, Seme ori geu gaizkatziařen bidaldu euzunezkero, azketsiko daustazula uste dot. Zu, bařiz, Josu maře, gure oben-zořa ordaintzen etoři zintzazan; eta, ořetzaz beste, geure bijotzak zeuretutiařen, odol gustija ixuri ta erijotzik mingařijena jasan nai ixan dozu. Azketsi egistazu orañařteko nire eskařgabekerija ta zeutzaz geyago gomutau enazana. Argiztu nire adimena, gurutzan erakutsi eustazun mařasun aundija uleřtu daikedantzat. Gauřgeroz, zure Nekaustia gogařtu ta zeu antzařtuten alegindūko naz. Zeure eskutik etořiko yatazan gurutzak oldez lepaldu ta eruango dodaz. Ořetarako, zeure laguntzea indazu. Zoritxařekua nintzake, bai, onezkero zeu barik beste ezer mařatuko ba'leuket. Asis'tař Pantzezka deunarena esango dautzut: «Ene Josu: zure mařasuna jadesteko egařijaren egařijaz ilgo al naz, zeu, be, nire mařasuna jadesteko egařijaren egařijaz il zaran letz». ¡Josu'ren Bijotz zauritu ori! Ařtu nire bijotza ta zeure bijotz-bařu sařtu eikezu. ¡Miren deun, Ama Nekatsu ori! Begitu besuetan ařtu dozun zeure

Seme laztanaren iłotz aguŕgarija, ta neure mata-suna jadestiaŕen il dala gogoratu egixu. Matatu nai dot Josu ona, bijotz-bijotzez matatu nai dot. Nire bijotzan Josu'ganako matasun aundi-aundija biztuteko bitaŕteko zakidaz, bai?, ta mate-mate ixango dot orain eta betiraun osuan. Olantxe.

## JOSU GURUTZALDUBARI OPARIJAK

1.ª Goizpaŕ deuna saŕi irakuŕi ta gogaŕtuko dot, zori-onak, batez be, *(Ma.* 5); eta eurotan Josu Kisto'k diñona betetan alegindùko naz.

2.ª Zeure Nekaustia, ene Josu, alik saŕijen ira-kuŕi ta gogaŕtuko dot; eta zeure onoimenak neure-tuten alegindùko naz, apaltasuna, jasatasuna ta matasuna, batez be.

3.ª Geidiak mate-mate ixango dodaz zeuk letz, euren goguak Urtzi Irukotxaren irudijak eta zeure Odol deunaz erosijak diralako.



# ABESTI JAUNGOYAK

## OTEUNARI

### 1. Ereseŕkija

¡Abestu dayogun Mat̄asunari!
Abestu Jaunari!
Urtzi emen da;
erdu, guŕtzal̄e oŕeik,
guŕtu daigun Josu Eroslia.
¡Gora Josu Jauna!
Ortze-ludijok,
Jaun-Goikua aintzaldu!
Ospe ta aintza Zuri,
Goi-bakaldunoi!
Mat̄asuna Zeuri,
Jaungo mat̄e!

## 2 Gogoz guŕtzen zaudaz.

*(Adoro te devote).*

1.ª Gogoz guŕtzen zaudaz,
Jaungo ostenduboi,
ogi-irudipian
bixi zaranoi.
Zeuretzako ixan bei
nire bixitza,
zeu maŕatuteko
nire bijotza.

2.ª Begi, esku, miñak
ogija dala;
Zeuk, baŕiz, diñozu
zeroi zarala:
Jaungoiko-Semiak
esandakua
egija baño, be,
egijagua.

3.ª Gurutzan eztakust
jaungotasuna,
emen ezta agiri
gixatasuna:
baña, bijak baŕdin
ziñez autoŕtuz,
lapuŕ onarena
eskatzen dautzut.

4.ª Zauririk eztikut
Toma'k bezela,
baña, autoŕtu dautoŕt
Urtzi zarala:
nire ziñesmena
geŕu egixu,
zeugaz uste naŕen
ta zeu maŕatu.

## 3. Ogi zerutik

Ogi zerutik etořija,
zu zara gure poz gustija.

1.ª

Bilđots dontsuba
ona emen,
gixadi-gatxak
kentziařen;
oteundegijan
bera dago,
ludija goyaz
bat-eťeko.

2.ª

Ziñeskayetan
aundijena,
Jaungoikua'ren
oroipena,
gozotasunik
gozuena,
goguentzako
dozubena.

3.ª

Gauza gustijen
Egilia,
Goi ta Ludiko
Bakalduna,
geure ařtian
bixitzen da:
geure zoruna
bai-da andija!

4.ª

Eztot, ez, begiz
nik ikusten,
ziñetsi, bariz,
bai, ziñesten,
Oteunan dala
Josu emen,
geu onetsi ta
maitatuten.

## 4. Gora-daigun

*(Alleluia, Psallite).*

1.ª

Gora daigun!
Gora-daigun gure Jaungoikua,
gora-daigun!
Txaloka gure Bakaldunari!
Gora, gora!
Txalo, txalo!

2.ª

Gora-daigun!
Ludi osuaren Jaube da-ta,
gora-daigun
danok era batera.
Gora, gora!
Txalo, txalo!

3.ª

Gora-daigun!
Lureko gauza ta ixaki gustijak,
gora-daigun
alaturik poz-pozez.
Gora, gora!
Txalo, txalo!

## 5. Abes - egin dagijogun

(*Pange, lingua*).

1.ª

Abes-egin dagijogun
Josu-Gorputz deunari,
eta gixon gustijoen
obentzazko orde-sari
sabel donetiko Jaunak
ixurtako Odolari.

2.ª

Ama Neskutzaren bidez
geuganatu ein yakun;
biztaldijan goi-egija
irakasten iñaŕdun,
eta alatzez, jun-orduko,
gomutakija utziskun.

3.ª

Lagi-arauz gertutako
azken-apalostian.
bere buruba amabijai
jaten emon gura ixan,
ta alatz aundijena einda,
ogi-antzaz lotu zan.

4.ª

Gixon egin zan Autijak
ogija dau gixondu,
eta ardau utza Josu-Kisto'n
Odol deun da biguŕtu;
ikusi ein ezin danau
biaŕ dogu ziñistu.

5.ª

Ikuŕtonau ziñestunak
auzpez guŕtu begike;
lengo Iẗunaldiko ikuŕai
ikuŕ-buru ixan yake;
begiz ikusi eziñau
ziñetsi ein bedike.

6.ª

Aẗa-Seme betikoŕai
aintzea ta omena;
goraldu ta donetsi bei
aukandiko Goteuna:
Ikuŕton ontan daguŕgu
Goiko Jaun Irukotxa.

6. **«Ave, verum»**

Aguŕ, Miren Amagandik
jayotako Joskoŕputz:
obendijak gaizkatzeko
gurutzaldu ziñan zu;
odol-urak ixurtzeko,
ilda gero zulatu;
geure erijotz-aldirako
janarija zakigu.
¡Josu eztitsu!
¡Josu eŕukoŕ!
¡Josu on, Miren'en Seme!
Josu, eŕuki-ixan zaigu.

*(Oteun-abestijak. VIII. Bera abea).*

# JOSU'REN BIJOTZARI

## 7. Ixan zaŕez beti

Ixan zaŕez beti,
Josu maŕia,
gure bijotzaen
Jaun ta Jabia,

1.ª

Josu'ren Bijotza
dago suturik,
maŕasuna agertzen
alde gustiŕik.

2.ª

Nun auŕkiŕuko da
bijotz gogoŕik,
Bijotz onen sutan
urtu eziñik?

3.ª

Eztau Josu onak,
ez, atsegiñik,
gu oso beriak
egin-bagarik.

4.ª

Bere Bijotzian
danok aŕturik,
geratzen da Jauna
pozez beterik

5.ª

¡O Josu maŕia!
aŕtu, bai, pozik
gustijon bijotzak
betiko gauŕtik.

## 8. Josu'ren Bijotz

Josu'ren Bijotz
maŕagaŕi:
maŕeko zauguz,
maŕe beti.

1.ª

Bijotz maŕiau
guŕtzen daben lez
gotzon-taldiak
donokijan,
emen beyon, be,
guŕtu dagigun
gixon gustijok,
gogoz guŕtu.

2.ª

Zeure oñetan,
Josu maŕia
apal-apalki
auzpeztuta,
otoi-dagitzut
neu aŕtuteko
zeure bijotzon,
beŕton aŕtu.

3.ª

Bar̄a be, Josu
Bijotz laztanoi,
otoi-dagitzut
gixon-aldez:
mar̄asun-subaz
sutau egixuz,
gixon-bijotzak,
gustiz sutau.

## KISTO BAKALDUNARI

### 9. Ereseŕkija

Josu, Jaungoiko-Seme,
gure Bakalduna:
zabaldu egiskuzu
zeure ikuŕin deuna.
Zeure gudaltaldian
egin gura dogu,
ikuŕin oŕenpian,
jaŕki ta gudatu,
beti zeuri lagun.

*Apalaldija*

Eskatu egistazu,
esan eutzun Ar̄eak,
ta emongo dautzudaz
jarauntziz eŕijak;
zeure bakaldeŕija
zabaldu dagixuntzat
luŕbira osuaren
burutik burura.

*(Tesoro Sacro-Musical)* 1932-65.

# MIREN ANDEREARI

## 10. «Angelus»

Goiz, eguberdi ta iĺuntzetan,
Ama, goresten zaŕugu:
Goi-gotzonaren itzak eurak
baŕiz esaten dautzuguz.

1.ª

Goi-gotzonak Miren deunari
iragaŕi egin eutsan:
eta Goteuna'ren egiŕez
arek soŕtu egin eban.

2.ª

«Jaunaren mirabia naz-ta,
ona emen, ni gerturik:
zeuk iragaŕi daustazunez,
gusti ori jazo bekit».

3.ª

Eta Goikua'ren Semia
ordubantxe gixatu zan:
gero, baŕiz, geurekin bixi
apal-apal ludi ontan.

## 11. Ave, Maris Stel·la

1.ª

Agur̃, Jaunan Ama,
Itxasoko Ixar̃a,
beti neskutz eder̃
Goi-ate bakar̃a.

2.ª

Gotzonaren aboz
Ama ixena autetsi
Eme'ren ordian;
zoruna ekar̃i.

3.ª

Estuntzeak autsi,
itxubak argitu,
kendu guri gatxak,
ona ekar̃guzu.

4.ª

Amatzat agiri,
ar̃tu beiz ar̃enak
geugatik jayo ta
Semetzat dozunak.

5.ª

Idebako neskutz,
neskutz garbijena,
garbitu gagixuz
obena aldenduta.

6.ª

Bixitza on ger̃tu
ta bidia sendo,
gu, Josu ikusirik,
poz beti ixateko.

## 12. Aguŕ, Andera

1.ª Aguŕ, Andera
goyen-goyena,
poz bikañena
guretzako:
ixan guretzat,
Ama mat̄ia,
zuzenbidia
zerurako.

2.ª Ebe'ren ume
eŕbestetubak
naigabetubak
datoŕtz, Ama,
samint̄asunez
eta negaŕez
pozaren bil̄a
zeuregana.

3.ª Edeŕak dira
zure begijak,
mat̄agaŕijak
dira gustiz:
itxuli exuz
beti gugana,
Ama laztana,
bai, eŕukiz.

4.ª Ama gozua,
jabon gagixuz,
lagun-zakiguz
eŕbestian;
beti-betiko
oŕa goi-goira
zure ondora
jun gat̄ezan.

## 13. Goxeko Ixaŕa

Goxeko ixaŕa,
gustiz argija,
Jaunan Ama da
geuretzako.
Eguzkiŕik lez
goxeko ixaŕak,
Goŕik argija
berak dauko.

*Aguŕ, argi garbi,*
*argi-egin geuri.*
*Ekaŕi, ba,*
*Jaunan Ama,*
*Eguzkija.*

Eguzki-auŕez
ixaŕa dua:
Jaunan auŕetik
datoŕ Ama.
Ixaŕ-atzetik
eguzki utza:
Miren-ostian
Josu bera.

*Aguŕ, argi garbi...*

Egunan deyez
agiri ixaŕa:
Jaunaren deyez
Miren jayo.
Ixaŕ garbija,
otoi au entzun:
geuri, be, argi
egiŕeko.

*Aguŕ, argi garbi...*

## 14. Agur̃, Josu'ren Ama

1.ª

Agur̃, Josu'ren Ama,
Neskutz mar̃etsuba,
agur̃, itxasoko ixar̃,
geure jabolia.
Agur̃, Donoki-euzki,
eskar̃ez betia:
agur̃, obendijoen
lior̃ ta abarua.

2.ª

Agur̃, goiko Andera
ta gixonen Ama,
Ama gozo ta mar̃e,
oberik eziña.
Zugandik juatia
gustiz da samiña;
agur̃, neu-bijotzeko
poz eta atsegiña.

3.ª

Baña, zugandik alde
bijotzak ezin dau;
¿nogana juango da?
Zeugaz bixi nai-dau.
Neskutz bar̃din-bakua,
onetsi gagixuz:
¡agur̃, Ama mar̃ia,
agur̃, agur̃, agur̃!

### 15. Ixaŕ edeŕ-edeŕ

Ixaŕ edeŕ-eder,
zoragaŕija,
donokijan, donokijan
zara, Miren Garbija.
Ixaŕ edeŕ,
zoragaŕija,
zara, Miren Garbija,
Miren Garbija.
Goxeko ixaŕa
ezta ain edeŕa,
zeu Soŕkundian
zara garbi ta edeŕa,
Ixaŕ edeŕ
zoragaŕija,
zeure Sorkundian,
Miren laztantsuba.

## MIREN-BIJOTZARI

### 16. Ereseŕkija

¡Omena, Miren'en Bijotzari!
Gauŕ semiak goresten zauguz:
¡aguŕ, Miren Andera nagusi!
aguŕ! bijotzez diñotzugu.
Bakaldun-aulkijan jezaŕirik
zakuskuz, Ama, burestunaz:
gora, Miren! deyadaŕ-dagigu
zeu-zaliak gogo ta miñaz.

(T. S. M. 1917-105).

## 17. Zeure bijotzoi

Zeure Bijotzoi,
Miren Ama,
bedi gixonen
osasuna.

1 [a]

Zeure baŕura
saŕtu gaikezuz.
etxe deuna:
betiko bertan
biztandutia
dan zoruna!

2.[a]

Zure bijotza
oge biguna
da guretzat:
zabalduiguzu,
bertan atseden
dagiguntzat.

3.[a]

Mat̄asunaren
labe gorija,
Miren, zara:
gure bijotzok
eŕe kiskaldu
mat̄asunaz.

(T. S. M 1925).

# BELGUNTZA-ABESTIJAK

## 18. Zatoz, obendi ori

Zatoz, obendi ori,
zatoz txadonera,
Jaungoikua'ren itza
gogoz eutzutera.

1.ª

Ez egon obenetan,
ez egon luzaro,
gaŕbai-ixan etzat̄ezan
alpeŕikan gero.

2.ª

Zeure oben-neuŕija
bete ein ez dagixun,
adit̄u Jaungoikua'k
zer esaten dautzun.

3.ª

Obenetan ogera
etzaten ba-zara,
biaŕba gaiztokijan
itxaŕtuko zara.

## 19. Josu geure Jaun mat̄e

Josu geure Jaun mat̄e,
At̄a mat̄etsuba:
*Tamal-dogu gustijok*
*Zeu naigabetuba.*

1.ª

Josirik ikustian
gurutz oŕetan Zu,
eŕukiṝuz bijotza
¿nok eztau uŕatuko?
Baṝa ba'leukake, be,
aŕi biguŕtuta.
*Tamal-dogu...*

## 20. Jauna: oben-ein dogu

¡Jauna: oben-ein dogu!
¡Jauna: eŕuki-ixan!
Josu: azketsiskuzu
geu-gaiztakerija.

1.ª

Lotsaturik dautoŕtzut
ein dodan obena;
azketsi egistazu,
Josu bijozpera.

2.ª

Zigoŕakaz, ai!, Josu,
neuk aztindu zaudaz;
neuk josi gurutzari
untze gogoŕakaz.

3.ª

Odol gustija ixuri
zenduban pozaŕen,
zeu maṝasuna guri
erakustiaŕen.

## 21. Egixu, Miren Ama

Egixu, Miren Ama,
geu-aldez otoiztu,
erijotzako orduban
ezkaŕezan galdu.

1.ª

Eŕbesteko obendijok
Ama ona zauguz;
zeugan gure bijotzak
guk ipiñten doguz.

2.ª

Zeure ixen done ori
pozbide bekigu;
zeure Bijotz samuŕoi,
betiko igesleku.

3.ª

Jaungoikua'ren Ama,
eginda zakusguz:
aŕen, zeure semetzat
ezagun gagixuz.

# BIĪABIDIA

Opalbena . . . . . . . . . . . . . 3
Claret Andoni M.ª Aba Deunkija. . . . . . 5
**Betiko Egutegija** . . . . . . . . . . . 7
Jai aldakoŕak . . . . . . . . . . . . 10
Egutegiko deunak dirala-ta . . . . . . . 23
Saŕbidia . . . . . . . . . . . . . 25
**Otoyak.** – Goiz-otoyak . . . . . . . . 29
Jaunaren Gotzonak (Angelus) . . . . . . 32
Goi-Bakaldume (Regina caeli) . . . . . . 33
Jatordurako otoyak . . . . . . . . . 34
Iļuntzian: gokaxo-aldez . . . . . . . . 34
Gau-otoyak. . . . . . . . . . . . . 35
**Gogaŕtia**: gogozko otoitza . . . . . . . 38
Egi gomutagaŕijak, iļeko egunetarako bana . . 41
Astebeterako gogaŕte-gayak: Elburuba. . . . 44
Obena . . . . . . . . . . . . . . 45
Eroslia . . . . . . . . . . . . . . 47
Erijotza. . . . . . . . . . . . . . 48
Epaikundia. . . . . . . . . . . . . 50
Gaiztokija . . . . . . . . . . . . . 51
Donokija . . . . . . . . . . . . . 53
**Autoŕkintzea** . . . . . . . . . . . . 55
Amaŕ agindubetazko azteŕketa-gayak . . . . 57
Autoŕtzen dautset. . . . . . . . . . . 62
Aguŕ, Josu-Kisto . . . . . . . . . . 64
Autoŕpenaz ostian esateko otoya. . . . . . 65
**Jaunaŕtzea**. . . . . . . . . . . . . 66

O, Josu on ete gozuori . . . . . . . . . 74
Josu-Kisto'ren bost zaurijai . . . . . . . 76
Josu'tzazko oldozkayak . . . . . . . . . 78
Indutaŕaren ikasbide edeŕa . . . . . . . 79
Gogoz jaunaŕtzeko era eŕaza. . . . . . . . 80
Ugutzaldi-abintzak baŕiztetako erea . . . . . 81
Jazokunak . . . . . . . . . . . . . . 83
Ondo jaunaŕtzetiko ondoriak. . . . . . . 89
**Jaupea** . . . . . . . . . . . . . . . 90
Jauparako gayak dikuŕena . . . . . . . . 92
Jaupa-atalak . . . . . . . . . . . . . 93
Jaupa-entzuteko erea . . . . . . . . . . 96
Uaŕak . . . . . . . . . . . . . . . . 123
**Irukoitz Deunari:** Deuntza . . . . . . . 127
**Ikuŕton Deunari:** Ikeŕaldija. . . . . . . . 139
Guŕketea . . . . . . . . . . . . . . . 142
Eskaŕ-egipenak. . . . . . . . . . . . . 145
Eskakixunak . . . . . . . . . . . . . 149
Jaumat̄asun-eikunak . . . . . . . . . . 151
**Josu'ren Bijotz Deunari** . . . . . . . . 154
Abintzak . . . . . . . . . . . . . . . 156
Otoi-Belguntza: Ikeŕaldija . . . . . . . . 157
**Miren Neskutza'ri:** Ikeŕaldija . . . . . . . 162
Gogoratu (Memorare). . . . . . . . . . . 165
Eskeintz-oparija . . . . . . . . . . . . 166
**Aguŕtza**. . . . . . . . . . . . . . . . 168
Aguŕtza esateko erea . . . . . . . . . . 170
Aŕentza. . . . . . . . . . . . . . . . 177
**Ama Nekatsubari:** saspi oñaziak . . . . . . 182
**Miren'en Erabilgal̄ubak** . . . . . . . . . 187
Soingal̄ubak (Kutunak) . . . . . . . . . 188
Soingal̄u-ordezko ikuŕgal̄uba. . . . . . . . 193
**Miren-Bijotza** . . . . . . . . . . . . . 196
Anaidi nagusija. . . . . . . . . . . . . 197
Ikeŕaldija . . . . . . . . . . . . . . . 198
**Gurutze-Bidia**. . . . . . . . . . . . . . 201
Josu'ri jaŕai gurutza eruateko bidia . . . . . . 234
Azaleko ildurea . . . . . . . . . . . . 236

Bafuko ildurea. . . . . . . . . . . . . 244
**Joseba Deuna**. . . . . . . . . . . . 253
Saspi atsekabe-atsegiñak . . . . . . . . . 256
Afentza. . . . . . . . . . . . . . 261
**Iñaki Deunari** . . . . . . . . . . . 263
**Txabief'taf Pantzeska Deunari**. . . . . . 265
**Padua'ko Andoni Deunari** . . . . . . . . 267
**Sulexako ayene lafijak** . . . . . . . . 271
**Nekazkeak**. . . . . . . . . . . . 278
Nekazka-batza . . . . . . . . . . . 282
**Efapel Gotzona:** Gexuak poztu ta lagundu . . 290
Asgorapen eta otoñuak . . . . . . . . 302
Iluren-aztefenak . . . . . . . . . . 305
Erijotza gogoz afrtzia . . . . . . . . 308
Erijotz ona jadesteko otoya . . . . . . . 310
Gogo-aldezko ardura-eskia . . . . . . . . 313
**Garbitokiko gokaxuen alde**. . . . . . . . 322
Bederatzufena . . . . . . . . . . . 327
Il-otoya (Ne recorderis) . . . . . . . . 329
Gokaxuen aldezko eskeintza . . . . . . . 336
On-bidez azkenerafte irauteko 5 eikunak . . . 338
**Josu'ren Nekaustiaz** . . . . . . . . . 342
Ilabeterako gogafte-gayak . . . . . . . 346
Saspi itzak: Aste beterako gogafte-gayak . . . 380
Josu'ren erijotzaz: 3 egunetarako gogafte-gayak . 385
Josu gurutzaldubari oparijak . . . . . . . 387
**Abesti jaungoyak:** Oteunari. . . . . . . . 388
Josu'ren Bijotzari . . . . . . . . . . 394
Kisto Bakaldunari. . . . . . . . . . . 396
Miren Andereari . . . . . . . . . . 397
Miren-Bijotzari. . . . . . . . . . . 402
Belguntza-Abestijak . . . . . . . . . . 404

Muxika'tař Matai gotzañaren

eta

Usero lekaideřkabearen

axuz